

Jakin ^{•eus} 227 228

herria kultura hizkuntza uztaila-urria
2018

Utopia 68/18 Iruditeria berrien bila

ELIXABETE GARMENDIA LASA
AMAIA LASA
ALBA GARMENDIA
EDUARDO APODAKA
UZURI ABOITIZ HIDALGO

BEGOÑA ZEARRETA
IÑAKI BARCENA
ANAIZ AGIRRE
XABIER HARLUXET
BEGOÑA HUARTE

EGUNEN GURPILEAN
ITZIAR UGARTE · JAIME ALTUNA
IGNAZIO AIESTARAN

Jakin *•eus* **227**
228
herria kultura hizkuntza uztaila-urria
2018



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea / Gudarien etorbidea, 29 / 20140 Andoain

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia

*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza
Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakín Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

9

GAI NAGUSIA Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila

13 Mende erdi utopia gurean Elixabete Garmendia Lasa

68ko Maiatza aitzakiatzat hartuta, 1960-1970 hamarkadetan Euskal Herrian utopiaren inguruan ernatu ziren mugimendu eta gertakariei gain begirada ematen zaie. ETak hartzen du zentralitatea, garaian arazo nazionala eta arazo soziala deitzen zitzaie-nei dagokienez. Hortik at, feminismo antolatuaren lehen urratsei jarraitzen zaie.

33 Utopien atzetik ibilian. Amaia Lasari elkarrizketa Lorea Agirre Dorronsoro

Amaia Lasak utopien eta gizarte eraldaketaren bila egindako bigarren lekukotza ematen du: euskarazko kazetaritzan egindako lehen urratsak, 68ko Maiatza, frankismoaren azken urteak, iraultza sandinistaren garaian Nikaraguan bizi izandako esperientzia, hezkuntzaren esparruan egindako ibilbide profesionala, utopia eta borroka feminista...

45 Ezaren gudaz baietza sortuz. Utopia klasikoa eta berria Alba Garmendia

Utopiaren bi adiera kontrajartzen dira: bata, mundu perfektu eta ezinezkoa; bestea, egingarri den ez-leku ona. 68ko Maiatzak irudikatzen du batetik besterako pausoa.

63 Praxia: pragmatismoa eta utopia elkartzen diren tokia

Eduardo Apodaka

Ezkerraren hondamendiaren aurrean, helburuei eta estrategia eraginkorrei buruzko eztabaidak ugaltu dira. Baina ikuspegi luzeari eusteko, praxiari buruzko gogoeta egin beharra dago. Praxi askatzaile eta iraultzailea gurari edo esangura utopikoak gauzatzeko ariketa da, gauzatu eta egikaritu behar ditu praktikan eta praktika-ren bidez. Berezkoa du, beraz, utopia eta pragmatismoaren arteko tentsioa, hura galduta zentzua ere galdu ohi du.

101 Zaintzak erdigunera? Aukerak, mugak eta zenbait galdera

Uzuri Aboitiz Hidalgo

Zaintzaren adieraren eraikuntza historiko eta soziokulturala aztertzen da, horrela zaintzen erabilera eta esanahi kritiko bat hauspotze aldera. Baina, batez ere, eraldaketa soziala ahalbidetu dezaketen indargune eta mugak bistaratzeko dauka helburu.

117 Zaintzaren aldeko borroka. Begoña Zearretari elkarrizketa

Lorea Agirre Dorronsoro

Begoña Zearreta Bizkaiko adinekoen egoitzetako langileak, 2016tik 2017ra egindako urtebeteko greban bizi izandako esperientziatik abiatuta, zaintzaren inguruko hainbat auzi jorratzen ditu: zaintza eremuko langileen lan baldintzak, gizarteak zaintzari buruz duen ikusmoldea, grebalarien emakume izaera eta borroka feministarekin harremana, grebaren lorpenak eta ondorioak...

127 Ekosozialismo feminista, utopia berri bat?

Iñaki Barcena

Ezagutzen ari garen krisiak ez du zerikusia gizakion eta naturaren arteko harremanekin bakarrik, krisi multipolar batean murgildurik gaude. Gure zibilizazioaren krisi sakon horren aurrean, pentsamendu utopiko berri baten sorrera eta beharra defenditzen da: ekosozialismo feminista, hiru korrante ideologiko edota hiru herri mugimenduren hibridazioa eta bilduma.

149 Utopiatik... alternatibara

Anaiz Agirre • Xabier Harluxet

Lurretik desloturiko sistema batean bizi gara, eta beharrezkoa da, krisi ekologiko eta sozialari aterabide bat aurkitzeko, lurralde horretaz birjabetzea. Bizi!-k hainbat proposamen egiten ditu zentzu horretan, utopiatik alternatibarako bidean barnatzeko, Euskal Herri burujabe, jasangarri eta solidario baten alde.

167 Harrera herria helburu. Begoña Huarteri elkarrizketa

Lorea Agirre Dorronsoro

Begoña Huarte ekintzaileak, 2016ko abenduan Mikel Zuloagarekin batera Greziako mugatik zortzi migratzaile Euskal Herrira ezkutuan ekartzeko antolatutako ekintzaren bizipenetatik abiatuta, migratzaile eta errefuxiatuen krisi humanitarioari buruz eta gure gizarteak krisi horri ematen dion eta eman beharko liokeen erantzunari buruz egiten du gogoeta.

EGUNEN GURPILEAN

181 Kultura

Itziar Ugarte

187 Soziolinguistika

Jaime Altuna

193 Glokalia

Ignazio Aiestaran

199 Okerrak zuzenduz

KONTRAZALA Unai Iturriaga

Uztailaren 12 eta 13an, 'Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila' Jardunaldia antolatu zuen JAKINEk Usurbilen, UEU eta Usurbilgo Udalarekin batera. Jardunaldi horretako hitzaldi eta elkarrizketak bildu dira zenbaki bikoitz honetan. Saio horien guztien bideoak Jakin.eus webgunean daude ikusgai:



UTOPIA 68/18. IN SEARCH OF NEW IMAGERY

Half a century of utopia

The journalist Elixabete Garmendia Lasa, taking the pretext of May 68, recalls the events and movements that took place around the utopia existing in the Basque Country in the 60s and 70s. ETA became a focal point in terms of what were at the time referred to as the national question and the social question. The first steps towards organised feminism are also taken. [Elixabete Garmendia Lasa](#)

In pursuit of utopia. Interview with Amaia Lasa

The writer Amaia Lasa, in an interview with the journalist Lorea Agirre Dorronsoro, tell us of her lifelong struggle in pursuit of utopias and social transformation: her early days of journalism in the Basque language, her contact with May 68, the final Franco years, her experience in Nicaragua at the time of the Sandinista revolution, her career in the field of education, the feminist struggle utopia... [Lorea Agirre Dorronsoro](#)

Classical utopia and new utopia

Alba Garmendia, a doctoral student in Philosophy, analyses the contrast between two meanings of utopia: on the one hand, a perfect yet impossible world and, on the other, a good feasible non-place. May 68 represents the transition from the former to the latter. [Alba Garmendia](#)

Praxis: meeting point between pragmatism and utopia

The lecturer in Social Psychology Eduardo Apodaka highlights the fact that, in view of the left's collapse, debates have proliferated about objectives and efficient strategies. However, a reflection on praxis is needed in maintaining such a far-reaching standpoint. Emancipating and revolutionary praxis is an exercise in realising utopian desires or meanings. They need to be realised in practice and through practice, i.e. the tension existing between utopia and pragmatism is inseparable from it, as it loses its meaning without it. [Eduardo Apodaka](#)

Care at the heart of the debate?

Uzuri Aboitiz Hidalgo, a doctoral student in Social Anthropology, analyses the historic and socio-cultural construction of the meaning of the concept of care, with a view to encouraging its use and critical meaning. However, the aim is to pinpoint any strong points or limits that may enable social transformation to take place. [Uzuri Aboitiz Hidalgo](#)

The struggle for care. Interview with Begoña Zearreta

Begoña Zearreta, a carer at a residential home, in an interview with the journalist Lorea Agirre Dorronsoro, recounts her experience during the strike called by workers from these homes in Bizkaia so as to comment on different aspects of the problems affecting care. [Lorea Agirre Dorronsoro](#)

Feminist eco-socialism: a new utopia?

Iñaki Barcena, lecturer in Political Science and environmental activist, highlights the fact that the crisis we are currently experiencing is not only linked to the relationship between humans and nature, but also that we are immersed in a multipolar crisis. In view of such a major crisis in our civilisation, the author defends the need to create a new form of utopian thought: feminist eco-socialism, hybridisation and a compendium of three ideological trends or three social movements. [Iñaki Barcena](#)

From utopia... to the alternative

Anaiz Agirre and Xabier Harluxet, members of the Bizi! alter-globalisation movement, maintain that we are currently living in a world that is detached from the land, and that this territory needs to be recovered in order to find a solution to the environmental and social crisis. The Bizi! movement offers various proposals to help us explore the path from utopia to the alternative, in favour of a sovereign, sustainable and caring Basque Country. [Anaiz Agirre • Xabier Harluxet](#)

On behalf of the host city. Interview with Begoña Huarte

Begoña Huarte, in an interview with the journalist Lorea Agirre Dorronsoro and based on her experience in the collective course of action taken in December 2016 to secretly bring eight migrants from the Greek border to the Basque Country, reflects on the humanitarian crisis affecting migrants and refugees and on both the response given and the one that should be given by our society in view of such a crisis. [Lorea Agirre Dorronsoro](#)

NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic and globalization matters. This section draws on various specialists: Itziar Ugarte, Jaime Altuna and Ignazio Aiestaran.

[Various authors](#)

Utopia beharrezko da aurrera egiteko. Baina non dagoen aurrera egite hori, utopia elikatu eta mamiz jantziko duten iruditeriek esango digute. Hau da, zer garen eta zer izan nahi dugun bihar baino lehen gaur bertan, egiten dugun horretan, bizi dugun eta bizi gaituen bizitza horretan. Iruditeriak nora bat dira eta baita nola bat ere, eta oroz gain zer konpartitu bat, taldetasun ekin-tza bat, komunitate sare baten eraikuntza, herri baten osasuntza.

Iruditeria berriak behar ditugu. Iruditeria berriak eraiki behar ditugu. Guk geuk. Guk pentsatu behar dugu geure burua, inork pentsa gaitzan baino lehen. Eta horretan, pentsatzen eta sortzen, eman genituen bi egin uztailean Jakin Jardunaldian, Usurbilen, UEU eta bertako Udalarekin batera antolatutako saioetan (ikusgai dituzu Jakin.eus atarian). Jardunaldiaren emaitza da zenbaki hau, baina ez hura bakarrik, osotua baizik, aditu gehiagoren hitzak eta irudiak ere badira-eta.

Aurten 50 urte Parisko Maiatzetik. Horixe da ikono bihurtu zai-gun historiako pasartea. Ikono, mugarri eta baita arropa kate handien erruz saltzen diren eskulan merkez, sarri ume eskuz, jositako elastikoen leloa. Galtzada-harrien azpian hondartza zegoela oihukatzen zuten Parisen, harlauzak lurretik erauziz eta poliziari jaurtikiz. Eta hala izan. Kontrakarrean zein hondartzara iritsi garen erakutsi ditu Unai Iturriagak kontrazalean. Orduko harriak gaurko hondarra ote.

68ko Paris. Baina ez Paris bakarrik. Mundu osoan izan ziren erre-boltak, iraultza saioak eta gerrak. Baita Euskal Herrian ere. 60-70eko hamarkadetako Euskal Herriak Parisen aldaera propioa izan zuela esan liteke. Aldaera horren berri begirada propio eta kokatutik ematen digu Elixabete Garmendia Lasa kazetariak bere artikulu argigarrarian, hasteko. Amaia Lasak orduko Euskal Herri hartan feminismoa-ri bidea ireki zion lehen aldiz poesian, garai utopiko haien alaba izaki, elkarrizketan kontaktzen duen legez. Orduko eta ondorengo iraultzei begia eta memoria jarri die.

Eta utopia zer da, bada, zer ikasi dugu 68 hartatik. Alba Garmendia filosofian doktoregaiak 68ko Maiatzak ekarri zuen utopia-ren berresanguratzeaz idatzi du, egingarri izan behar duen mun-

duaz, hain zuzen. Eta egingarri den mundu horrek bietarik behar duela dio Eduardo Apodaka soziologoak, utopiatik adina pragmatismotik, eta praxian egin egiten dela idatzi du artikulu sakon eta esanguratsu batean.

Egungo eraldaketa eremu edo utopia praktiko horietatik badira bi azpimarragarriak izan daitezkeenak: zaintzaren utopia eta utopia sozioekologikoa. Biak dira geure eguneroko bizitzan eragin zuzena dutenak, eta biak ditugu erronka eta auzi. Eta bi eremu horietaz dihardute ondorengo adituek. Uzuri Aboitiz Hidalgo antropologian doktoregaiak, zaintza erdigunean jartzean, eraldaketa soziala ahalbidetu dezaketen indargune eta mugak bistaratu dizkiugu. Zaintzaren aldarrikapen politiko eta sozial horren praxi zehatz baten berri ematen du Begoña Zearretak, Bizkaiko adinekoen egoitzetako langileak, urtebeteko greba gogorrean bizi izandako esperientziatik abiatuta.

Arazo sozioekologikoa zibilizazio krisi sakon gisa ikusten du Iñaki Barcena politologoak, eta, horregatik, ekologiaren, sozialismoaren eta feminismoaren arteko aliantzak ekarriko duen pentsamendu utopiko berri baten beharra defenditzen du. Pentsamendu utopiko horren alternatiba pragmatikoa Bizi! mugimenduaren jarduna litzateke, krisi ekologikoa eta soziala batean borrokatzen dituen. Mugimendu altermundista horretako kide Anaiz Agirrek eta Xabier Harluxetek Euskal Herri burujabe, jasangarri eta solidario baten arrastoan jartzen gaituzte. Eta Begoña Huarte ekintzaileak egun bizi dugun migratzaile eta errefuxiatuen krisi humanitarioari buruz eta krisi horri gure gizarteak ematen dion eta eman beharko liokeen erantzunari buruz egiten du gogoeta.

Zenbakia ixteko, Itziar Ugarteri kulturari, Jaime Altunari soziolin-
guistikan eta Ignazio Aiestarani hemen eta munduan, azken hila-
beteetan nabarmengarri egin zaiena pentsagai egin dute *Egunen
gurpilean* atalean.

UTOPIA 68/18. IRUDITERIA BERRIEN BILA

- 13** Mende erdi utopia gurean
Elixabete Garmendia Lasa
- 33** Utopien atzetik ibilian. Amaia Lasari
elkarrizketa
Lorea Agirre Dorronsoro
- 45** Ezaren gudaz baietza sortuz.
Utopia klasikoa eta berria
Alba Garmendia
- 63** Praxia: pragmatismoa eta utopia
elkartzen diren tokia
Eduardo Apodaka
- 101** Zaintzak erdigunera? Aukerak, mugak
eta zenbait galdera
Uzuri Aboitiz Hidalgo
- 117** Zaintzaren aldeko borroka. Begoña
Zearretari elkarrizketa
Lorea Agirre Dorronsoro
- 127** Ekosozialismo feminista, utopia berri bat?
Iñaki Barcena
- 149** Utopiatik... alternatibara
Anaiz Agirre • Xabier Harluxet
- 167** Harrera herria helburu. Begoña Huarteri
elkarrizketa
Lorea Agirre Dorronsoro

Mende erdi utopia gurean

Elixabete Garmendia Lasa

Kazetaria

Parisen 1968ko Maiatza izan zena, hemen Burgosko Prozesua izan zen, nolabait, 1970eko abenduan. Bi mugarri historiko horiek ez dira inolaz ere txantilo berekoak, baina partekatzen dute sorburuan kontzeptu bat: askatasuna. Halaber, biak daude XX. mendeko utopia kaleidoskopikoari lotuta. Pariskoaren aitzakian, gurean utopiak hartu zituen forma eta formulazioen gainbegiradari ekin diot, garai eta belaunaldi hartaz izkiriatu duten zenbait idazleri helduta.

Askatasuna da garaiko hitz giltzarria, oro biltzailea, 1960-1970eko hamarkadetan. Askatasuna izan daiteke nork bere buruari opa diona, askatasun sexuala barne. Askatasuna da gatibu dagoen herriarentzat aldarrikatzen dena. Askatasuna da langile klasea kapitalismoaren hatzaparretatik libratzeko proposatzen dena. Askatasuna da emakumearen zapalkuntza gainditzeko bidea. Askatasuna, bere poliedrikotasunean, ez da, ordea, kontzeptu hutsa: sentipena ere bada, erraietan errotua.

ETAk, ez alferrik, bere izenean sartu zuen hitza: Euskadi ta Askatasuna. ETAren baitan sortu zen urte batzuk geroago beste akronimo hau: PTV, hau da, Pueblo Trabajador Vasco. Dagoeneko ez zen nahikoa Euskadi herri gisa askatzearekin, langileria ere askatu beharra zegoen. Garaiko argot politikoan arazo nazionala zen bata eta arazo soziala bestea, eta biak uztartzean zegoen sekretua.

Artean formulatu gabe zegoen «dena ETA da» doktrina, baina esaera horrek noizbait zentzurik izan badu, orduan izan zen, 70eko hamarkadan bereziki. Francoren diktadura anker-rra astintzen zuen talde hark miresmena eta sinpatia sortzen zuen jende askorengan. Eta, nolana ere, eragina zeukan beste aukera politiko batzuk zituztenengan. Horrela, bada, ETAk zentralitatea hartzen du 60-70eko utopiaren errebasoan. Hori bai, utopiaren osagaietako bat izan zen emakumearen askapenerako mugimenduak ihes egin zion ia erabat erakundeari; hortik kanpora egituratu zen feminismo antolatua.

Ekainaren 7a

Parisen eta Frantzian itzali gabe zegoen artean 1968ko Maiatza. Ekainaren 7an liskar handiak izan ziren Flinsen –Renaulten lantegi handi bat zegoen han– CRSen eta fabrikak okupatuta zeuzkaten langile eta ikasleen artean. Egun hartan bertan, 1968ko ekainaren 7an, Tolosako Benta Haundin, Txabi Etxebarrieta ETako militante eta buruzagia hil zuen guardia zibilak. Parisen utopia guztiak zeuden jomugan, eta irudimen poetikoa zerabilten helburu haiek adierazteko: «Sous les pavés, la plage», hau da, *galtzada-harrien azpian hondartza* aldarrikatzen zuen metafora errepikakorra adibide. Hemen, Etxebarrietaren hilketari buruz ETAk sinatutako panfletoak goiburu hauxe zeraman, eskuz idatzitako letra handitan: «*Gurre reboluzioaren lenengo martiria*».¹ Hedonismoaren aldarria Parisen, sakrifizioarena hemen. Ordurako, Parisko matxinatuek beste hau ere esana zuten: iraultzak iraultza izateari utzi egiten dio bere alde sakrifikatu behar den unetik.

«Festa aldameneko gelan»² topatu zuen Mariasun Landak 1968ko urrian Parisa joan zenean frantsesa ikasteko asmoz. Hizkuntza bakarrik ez, bestelako ikasketak ere egin zituen *L'après mais* 68-ko unibertsitatean, errebolta osteko hartan. Eta, hala ere, festa aldameneko gelan gertatzen zitzaion beti. Eta hori, Parisera abiatu zenean esperientzien maleta hutsik ez zeraman arren:

1968 hartan amaitu nuen Gizarte Laguntzaile karrera. Udaren parte handi batean, probintziako fabrika ezagun batean aritu nintzen lanean, nire estudiante izaera eta beste datu pertsonal batzuk ezkutatzuz, kateko lanean, errelebotan, neke eta izerdi-patsetan, teoriaraino hain goretsia neukan langile klasearen errealitatearen kontzientzia hartzeko asmotan. Halakoetan saiatzen ginenok kapitalismoaren bihotzean infiltratuak sentitzen ginen, munduko langileekin solidario –langileek horren berri ez bazuten ere–, ez bakarrik behatzaile, baizik eta haien gogaide, esploazioaren salatzaile eta, aldi berean, biktima.

Izan ere, apaiz eta ikasle aurrerakoiak fabriketan sartzen ziren garaia zen hura. Landak iradokitzen duen tonu ironikoari jarraituz, pribilegiatuaren kontzientzia txarra zuritzeko modua izan zitekeen, lehenengo eta behin, joera hori. Fokua zabalduz, bazeukan, ordea, euskarri sendoagoa. Utopia osatzen zuen puzzlearen parte zen joera *obrerista* hori. Arazo soziala arazo nazionalari erantsita zetorren.

ETAren ubikuotasuna

Iruñean, Nafarroako Unibertsitatean, egin zituen ikasketak Idoia Estornesek 1962-1966 bitartean. Ikasleen artean baziren joera abertzalekoak 60ko hamarkadaren hasiera hartan:

Sekula ez nuen ezagutu, lau urte horietan, mezarik gabeko nazionalistarik, eta ez nuen susmatu ere egiten halakorik egon zitekeenik. Eta, hala ere, bazeuden, eta existitzen ziren ETA, atrakoak, kopiagailuen lapurretak, dinamita, leherketak, sabotajeak, prentsak tentu handiz islatzen zituen kontuak. Gipuzkoan eta Bizkaian mutil asko erori ziren, niretzat ezezagunak: Algortako Solagaistua, Berangoko Izko, Algortako Maguregi Imaz, Ormaiztegiko Aizpurua Larrañaga, Azpiazu Mercero, Aguado Arnaiz eta Antton Mazorriaga; beraien izenak egunkarietan ageri ziren.³

ETAk existitzen zuen eta inguru guztia zipriztintzen zuen. Izan ere, hark egiten zuen edozerk zartatu egiten zuen Francoren erregimenak zeramatzan «25 años de paz»-eko isiltasunezko azal itxuraz barea. Eta herrietan lurrikara eragiten zuten bertako gazteen atxiloketek; lurrikara emozionala,

ahopeko eztabaidetara eramaten zuena. Mutilak ziren atxilotuetako gehienak, baina tartean azaltzen ziren neska bakan batzuk ere. 1968ko martxoko *Zutik!*-ek albiste hau zekarren:

Gipuzkoako zenbait herritako neskak –Zarauzko Arantxa Arruti eta Gazteluko Ione Dorronsoro aipa ditzakegu– atxilotu egin zituzten joan den hilean eta Donostiara eraman zituzten. Han gupidarik gabe jo zituzten, eta egunak pasa eta gero ere, jasandako kolpe eta torturak antzematen zitzaizkien.⁴

Iraultza, hitz berria

Zutik! buletina idazmakinez egiten zuten artean, eta Estornesek aipatzen dituen kopiagailu lapurtuetan inprimatu. Klandestinoa zen, beraz, forman ere, gainerako panfleto solteak bezala. Baina, 1968ko hondarrean, bestelako argitalpen bat atera zuen ETAk: *Iraultza 1*. Azal gorria, izenburua beltzean, eta barrua inprimategiko konposizioarekin. Hitzaurrea euskaraz dator, eta izenaren nondik norakoak esplikatzeko, filologoren baten ahotik, itxuraz:

Iraultza irauli-tik dator, hau da: itzuli, gain-azpikatu, uzkali, gorra-beheratu, irabiatu, itzulikatu, e.a. Adibidez, lurra erein baino lehen, irauli egiten da. *Iraultza*, beraz, erderazko revolution edo revolución da.⁵

ETAk existitzen zuen
eta inguru guztia
zipriztintzen zuen. Hark
egiten zuen edozerk
zartatu egiten zuen
Francoren erregimenak
zeramatzan «25 años de
paz»-eko isiltasunezko
azal itxuraz barea

Nekazaritzako hiztegitik hartutako terminoak emango zion, bada, izena garaiko kontzepturik berritzaileenari, erabilienetakoa izatera iritsiko zenari.

Txabi Etxebarrietari eskainia da *Iraultza*-ren lehen –eta bakar– izango zen ale hori. Bere anaia Jose Antoniok idatzitako biografia laburra dakar eta baita Txabiren zenbait idatzi ere: bere egunerokotik hartutako zatiak, poemak eta ipuin

laburrak. Biografiak aurkezten duen pertsonaia erakargarria gertatzen da benetan: Bilboko ekonomia ikasle kezkadun bat, alderdi intelektualetik oso indartsua eta liderren ezpalekoa. Bere idatziek azpimarra jartzen diote horri guztiari: badaki bizi dituen kezka sozial eta existentzialak adierazten, baita emozionalak ere, maitasun kontuak barne. Sarrrikoko fakultatean ezaguna zen, bere biografo Jose Maria Lorenzo Espinosak dioenez:

Txabi ikasle ezaguna zen, ez bakarrik kurtsokideen artean, baita fakultate osoan ere. Ateratzen zituen nota bikainak nabarmentzen ziren eta hizpide bihurtzen ziren bere prestigio akademikoa, asanbleetan izandako parte hartzeren bat, bere idatziak, eta bazeukan jenio izatearen ospea.⁶

Hori Sarrrikoko fakultatean, ageriko bizitzan. Horrezaz gain, Etxebarrietak bazeukan beste alde bat ere, ezkutukoa, klandestinoa: ETako militantea zen, eta zeukan formazioarekin, ideologo izatera iritsi zen, ETaren V. Biltzarraren inguruan. Berak zizelkatu zuen Euskal Herri Langilearen kontzeptua (PTV). Berak definitu zuen ETA Askapen Nazionaleko Mugimendu gisa. ETaren izenean 1968ko Aberri Egunerako egindako idatzian, Espainiako Poliziak ETaren kontra hasitako sarraski kanpainaz ari dela, laster beteko zen iragarpen hau egin zuen: «Inorentzat ez da sekretua nekez irtengo garelara 1968tik hildakoren bat izan gabe».

Etxebarrieta, lehen martiria

Lidertzak ETaren borroka armatuko lehen ekintzaile ezaguna –José Pardines guardia zibila hiltzean– eta *lehen martiria* izatera eraman zuen Txabi Etxebarrieta. ETAk bazeukan bere heroia eta euskal gizartearen zati handi batek onespina eman zion heroitasun horri. Mariasun Landak Parisen bizi izan zuen Etxebarrieta hil zuteneko lehen urteurrenean hari egindako omenaldia:

Oso ongi gogoratzen nuen gertakari haiek eragin ziguten zirrara eta, urtebete geroago, Parisen nengoan, gertaera haiek gogoan

nituela. 1969ko ekainaren 7a larunbata izan zen eta, nire egunerokoan idatzita dudanaren arabera, Euskal Etxera joan ginen. Han, Txabi Etxebarrietaren argazki bat ipini zuten, hotzikara eragin zidan esaldi bat alboan zuela: *Herriak behar nau eta ni eskaintzen natzaio* (nik ez nekien euskaraz eta itzuli egin zidaten, baina arreta handiz kopia- tu nuen, transmititzeko). Minutu bateko isilunea egin zen eta 'gora' batzuk oihukatu ziren. Gero, guztiok zutik ginela, *Eusko Gudariak* abestu genuen.⁷

Eusko Gudariak, 1936ko gerrako ereserkia, berpiztuta. Be- launaldi berria gudariei erreleboa hartu eta 36ko sarraskia eta galera mendekatzeko irrikitan zegoen. Eta, horretarako, baita bizia emateko prest ere, Landa dardarka jarri zuen esaldiak iradokitzen zuen bezala: *Herriak behar nau eta ni eskaintzen natzaio*.

Eskaintza horretan badago osagai bat kristautasunaren fi- losofiatik datorrena. Joseba Zulaika antropologoak, *Violencia vasca: metáfora y sacramento* liburuan, ETari buruz egin den azterketarik sakon eta mamitsuenetakoa aurkeztu zuen, bere herria, Itziar, erreferentzia modura hartuta. Zulaikak gara- matza erakunde armatua eta kristautasuna lotzera.

Oso esanguratsua baldin bazen sorginak Eibarko eskopetek uxa- tu zituztela zioen esaldia, zehaztasun berarekin baieztatu daiteke ETaren armek atera dutela euskal gazteria elizetatik eta apaiz- gaitegetatik.⁸

Apaizgaitegiak, baserri giroko mutilei ikasketak egin ahal izatea eta unibertsitaterako bidea zabaltzea ahalbidetu zieten ikastegiak, hustu egin ziren. Han landutako ondarea bizitza zibilera igaro zen.

Herri Gaztedi, transmisio uhala

Izan ere, eliza eta apaizgaitegi tradizioaletatik alde egin zu- ten gazteek, baina Elizaren zati batek jarraitu zuen eragina izaten gazteengan, beste alternatiba batzuk eskainiz. Horien artean aipagarrienak JOC (Juventud Obrera Católica) eta Ba- serri Gaztedi dira, gerora Herri Gaztedi deituko zena. Izen

aldaketak izanarena adierazten du. Izan ere, baserri giroan sortutako erakundea laster zabaldu zen ordurako industrializazioaren eraginpean zeuden herri txikietara. Herrigintza zen Herri Gaztedik lantzen zuen arloa, gazte kezkadunak –kontzientziatuak, mutil nahiz neska– ekintzaile bihurtuz. Hizki txikiko herri-tik letra larriko Herri-rako bidea egin zuen Herri Gaztedik. Horretarako bazeukan aldizkari bat, *Gazte*, forman behintzat argitalpen klandestinoen maila gainditzen zuena. Eta beste literatura bat ere zabaltzen zen eskuz esku Herri Gaztediren sarean: Garaudy eta Althusser filosofo frantziarren obrak, Freud, Marx, Mao eta Leninak aipatzen ditu Zulaikak. Zerrenda ez zen hor bukatzen: Frantz Fanon psikiatra eta filosofo iraultzailearen *Los condenados de la tierra* edo Paulo Freire pedagogo brasildarraren lanak ere sartzen ziren zakuan. Azken batean, ikuspegi humanista iraultzailea lantzen zuen literatura, eta, distantziak distantzia, gurera egokitu zitekeena.

Herri Gaztedik transmisio uhal gisa funtzionatu zuen azken urteetan ETArekiko. Zulaikak dioenez:

Ofizialki apolitikoa zen Herri Gaztedi; praktikan, Herri Gaztedik hezitako dozenaka gazte benetako aferan sartzen ari ziren: ETAn. [...] Herri Gaztediren puntu gorena Burgosko epaiketa izan zen, 1970eko abenduan, Euskadin gerra zibilaren ondoren izandako matxinada politiko garrantzitsuena.⁹

Burgosko Prozesua
iniziazio erritua izan zen
gure belaunaldiarentzat.
Beste latitude batzuetan
1968ko Maiatza izan
zena, bi urte geroago
eta beste motibo eta
tankera batean iritsi
zitzaigun guri

Maiatza abenduan

Burgosko Prozesua iniziazio erritua izan zen gure belaunaldiarentzat. Hau da, beste latitude batzuetan 1968ko Maiatza

izan zena, bi urte geroago eta beste motibo eta tankera batean iritsi zitzaigun guri. Orduan ikasi genuen zer zen institutuan asanblea egin, ikaskideak konbentzitu eta kalea hartzea; eta han, kalean, fabrika eta bulegoetatik etorritako gizon eta emakumeekin bat egitea. Afera hil ala bizikoa zen, literalki, auzipetutako hamasei ETAkideetatik seientzat heriotza zigorra eskatzen baitzuen epaitegi militarrek.

Erantzuna tamainakoa izan zen, nazioarteko laguntza baren. Kanpoan lortutako oihartzun horrek, gainera, balioztatu egin zuen ETAreng ingurua. Sartre bezalako figurek prozesatuen alde egiteak oso gora eraman zuen autoestimuko kolektiboa. Ezagutu eta aintzat hartzen gintuzten kanpoan, eta solidaritatearen berotasunak adoretu egiten gintuen.

Burgosko Prozesuak epika oso bat jarri zuen martxan, epaituetatik hasita. Mario Onaindiaren «Gora Euskadi askatuta!» hura, bere kideen erantzuna, behin berriro ere *Eusko Gudariak* kantatuz; militarrek asaldatuta, sableak eskutan... Epika erakargarria, zinez, dagoeneko askatasuna talisman-tzat zeukan belaunaldiarentzat.

Belaunaldiaren ezaugarriak

Joseba Zulaikak modu honetara zedarritu du belaunaldi hori:

Zein ezaugarrik definitzen dute Bilboko *nire belaunaldi* hori? Kideok hirurogeiko hamarkadan iritsi ginen adin nagusitasunera; gure oinarrizko heziketa erlijioaren baitan kokatzen zen; gure ikuspegi politikoa ETAk eragiten zuen; artearen gure esperientzian Oteiza eta Txillidaren figurak gailentzen ziren; gure lehen identitatea euskotarra zen; Unamuno eta Aresti erreferentzia literario ezinbestekoak ziren; gure mundu erotikoa moralismoaren eta askatasun sexualaren arteko aukerak ezaugarritzen zuen; borroka ideologikoak oszilatzen zuen askatasun nazionalerako mugimenduek eta langile klasearen sozialismo internazionalak aurkezten zituzten ereduaren artean. [...] Hasieratik belaunaldi militantea izan zen, askatasunaren grinak bultzatua, eta horrek ekarriko zituen ondorioak ezin genituen aurreikusi. Diktadura frankista borrokatu eta gero, independentzia nazionalaren eta utopia sozialistaren inguruan genituen amets iraultzaileen porrota jasan genuen.¹⁰

Frakaso horren aurretik, ordea, ibilbide luze eta oparoa egitea suertatu zitzaion belaunaldi horri eta segidan zetorrenari, hau da, 50eko hamarkadan jaio eta adin nagusitasunera 70ekoan iritsi zenari. Esku bete lan eta ekintza, askotarikoak.

H-aren gerra

ETAtik kanpora ere bazegoen bizitzarik, jakina. Kulturaren arloan, ikastolak sortzeko mugimendua, alfabetatzea, euskarako gau-eskolak... eta horiek guztiak gezi baten modura zeharkatu zituen bektore bat: euskararen batasuna, euskara estandar bat osatzeko oinarriak jartzea. 1968an hitzartu zuen hori Euskaltzaindiak, Arantzazuko bilera ospetsuan. Aurreko belaunaldietakoak ziren euskara estandarren prozesuaren gidariak: Koldo Mitxelena, Txillardeggi, Aita Villasante... 60-70eko gazteen belaunaldia izan zuten jarraitzaile fidel eta finkoena. Testuinguru horretan, beste gerra bat piztu zen: H-arena. Iñigo Aranbarrik *Gure mendea* liburuan honela aurkezten du afera:

H-ak badu arrazoirik pozik egoteko. Aldeko zein kontrako, be-reak eta bi jo beharko ditu aiherga zaion baten bat aurkitzeko. Eztabaida belaunaldi arazo bihurtu da. Gazteentzat, Euskal Herria bere iraganaren berrikusketatik eraiki beharreko proiektu dutenentzat, H-a gure tradizio aberatsenetik berriro eskuratu beharreko letra da, euskara modernoaren, gizarte berri baten ikurra. Zaharrentzat, lehenaz gain gauzak gehiago nahasteko baino balio ez duen alferrikako letra xaharra.

H-arena ez da hizkuntzalarien arteko borroka soilik. Kanean, haizea, hibaia, harma hasierako adar, antena edo dena delako eta guzti idaztea norberaren burua ETAKoa izatea salatzea da, edo komunista, edo...¹¹

ETAtik kanpora bazegoen bizia, baina... Erraz errebotatzen zuten aurreko belaunaldien eta berrien arteko desadostasun eta liskarrek ETAREN frontisean. Oraindik formulatzera iritsi gabe zegoen «dena ETA da» esaldia, baina berri usaina zekarren guztia erakunde horri egozten zitzaion, euskara batuaren ikur bilakatu zen H-a barne. Gaurko egunetik begiratuta,

esan dezakegu euskara batuaren egikaritzea dela 60-70eko hamarkadak lortutako helburu bakarretakoa. Betetzera iritsi den utopia zatitxo bat.

H-aren berreskurapenaren proposamena ETARI egozten ziotenak jakinaren gainean egongo ziren ETAK bazeukala bere fronte kulturala. Izan ere, V. Biltzarraren ondotik lau frontetan egituratu zen erakundea: kulturala, politikoa, ekonomikoa eta militarra. Ordena horretan bertan zerrendatzen ditu ETAK 1968ko Aberri Egunerako ateratako idatzian eta zehazten du fronte horien jomuga euskal herria bere interesei buruz kontzientziaztea dela, eta helburua euskal herri langileak boterea hartu eta euskal erregimen sozialista bat ezartzea. Arazo nazionala eta soziala, uztartuta.

Fronte kulturala

Lau frontetatik eskurakoena kulturala zen. Gerta zitekeen taldetxo batekin euskarazko barnetegi batera joan, eta euskarazko klaseez aparte, garaiko literatura politikoa lantzeko gune bihurtzea egonaldia; Krutwigen *La cuestión vasca* eta halakoien irakurketa-eztabaidak egiteko abagunea. Areago, gerta zitekeen klaseak eta eztabaidak amaitutakoan, ikasleak ekintzaren bat egitera joatea: pintadaren bat, pankartaren bat jartzea... Orduan guztiz debekatuta zeuden gauzak. Fronte kulturalaren kide izan zitezkeen inon sinatu eta zinik egin beharrik gabe, ia oharkabean. Bide batez, fronte kulturala beste fronteetarako prestaketa ere bazen, nobiziotza bat.

Zulaikak aipatu du bere belaunaldia Oteizari eta Txillidari begira zegoela. Txillidak Amnistiaren aldeko Gestoren ikurra sortu zuen eta Oteizak eskultura jarri zuen Benta Haundin, Etxebarrieta hil zuten tokian. Gainera, Etxebarrietaren amari eskaini zion Arantzazuko Pietatea, hamalau apostoluen gaineko eskultura. Oteizarekin gerta zitekeen, adibidez, hauex: Arantzazun lanean zebilen garaian, Ormaiztegin geratu Zumalakarregiren etxea bisitatzen –artean orain den museoa izatera iritsi gabe zegoen–, eta txistu akademiako gela

erakustean, bere iruzkina: «A zer toki aproposa gudarien akademiarako!». Gudariak, ulertzen zen, ETAkoak zirela, 60-70eko urte haietan. Oteizaren aldetik, *boutade*-a eta proposamen ameslaria, erdi eta erdi.

Bi totemak, Oteiza eta Txillida, ez ziren, ordea, bakarrak. Kulturgintza bizitzen ari zen berpizkundearen baitan, abangoardiako eskultore eta pintoreak ez ziren atzera geratu eta musu truk uzten zituzten obrak herrietan antolatzen zi-

ren aste kulturalen barruan erakusketak egiteko. Basterretxea, Mendiburu, Zumeta, Balerdi, Ameztoi eta abangoardiako beste artista askoren lanak jiran ibiltzen ziren, herriz herri. Beste urrats txiki bat, utopiaren bidean.

Kantagintza zen
diziplinarik zabalduena,
herrikoiena,
gazteekin –eta
erresistente ororekin–
zuzen-zuzenean
konektatzen zuena

Letrak eta kantak

Literaturak jokatzeko bere papera. Joxan Artzeren *Isturitzetik Tolosan barru* (1969) liburu artistiko jostalaria ikono bihurtuko zen objektu gisa ere. Urtebete lehenago argitaratua zuen Xabier Letek *Egunetik egunera orduen gurrpilean* (1968), eskolan irakatsitako Bécquer eta Esproncedarena ez bezalako poesia existitzen zela erakutsi ziguna. Amaia Lasaren *Poema bilduma*-n (1971) eta Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*-en (1979) sekula esperimentatu gabeko konplizitateak topatu genituen. Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro*-k (1976) ETAko ekintzaile ehizatuaren azken ihesa biziarazi zigun dokumental baten gordintasunarekin.

Edonola ere, kantagintza zen diziplinarik zabalduena, herrikoiena, gazteekin –eta erresistente ororekin– zuzen-zuzenean konektatzen zuena. Mixel Labegerie, Lourdes Iriondo eta Julen Lekuonaren protesta abestietatik –bide batez esanda, nahiko naifak– hasita. Gero, borroka gogortu ahala,

erresonantzia kaxa modura funtzionatzen zuen, askotan, kantagintzak, gatazkaren gertakari latzenak abesti bihurtuz. Jaialdiak, apurka, komunio kolektiborako bilgune izatetik aldarrikapen politikorako ekitaldi bilakatuz joan ziren neurri handian, hainbat kantari gogaitzeraino. Pako Aristik modu zehatzean deskribatu zuen fenomeno hori euskal kantagintzari buruzko liburuan:

73an hiltzen dute Carrero, Franco oso zaharkitua aurkitzen da, jaialdiak adierazpen politiko bihurtzen dira eta kanten letrak metaforikotasuna galtzen doaz, poetikotasuna reaktionarioa da, eta ura irakiten dago, urak ontzian irakiten duen bezala. Jendeak esperantza dauka. Garai ilun eta triste bat amaitzeaz sentitzen du eta kantariak abestu dituzten egunsenti argitsuak, injustiziaren amaiera, herriaren askatasuna, esperantzari eskainitako himno guztiak gauzatzeko, egiztatzeko, realidade bihurtzeko sasoiaren zai dago, eta sasoi hori hurbil sentitzen da. Antsiedadea sakondu egiten da. Garaiko kanten askatasunaren atera iritsi denaren antsietatea, itsutasuna daukate. Sasoi berri, mundu berri horren profetak ugaltu egiten dira.¹²

Hori baino lehen, Ez Dok Amairuk goia jo zuen kantaldiak ikuskizun artistiko bihurtuz bere *Baga Biga Higa* sentikaria-ekin; goia jo eta desegin egin zen taldea, 1972an. Hegemonia politikoko xextra egon zen, nonbait, Ez Dok Amairuren barruan. Laster nabarmenduko zen sektarismoaren harrak jota zegoela euskal kantagintza eta bere publiko beroena. Bana-lerroa balizko 'espainolismoa' zen, Imanol Larzabali eta Oskorriri egozten zitzaiena. Azpitik zetorren boikota ekintza zuzen bihurtu zen kasu batzuetan, musikariei eszenarioan jardutea indarrez eragozteraino. Boikot saio horietan ETAREN inguruko jendea zen gidari; goitik zetozen kontsignak betetzen zituzten gazte doktrinatuak. Kantagintzaren puxika zulatu eta lehertu egin zen. Estropezu larria utopiaren bidean.

Sektarismo basatia

Sektarismoa ez da izan soilik ETAREN gaitza; sektarismoak, 60-70eko hamarkadetan, ezkerreko talde guztiak kutsatzen

zituen. Sektarismoak eragiten zuen, hasteko, eszisiotik eszisiora joatea, bat bitan banatzea ia infinituraino eramanez. Monty Python-eko britainiarrek *Life of Brian* filmean (1979) parodiatu zuten letra-zopa literala zen hemengo politikagintzan. Pelikula horrek eragindako barreekin exorzizatu genuen nolabait geurok bizi izandako sektarismo neurotikoa. Sektakeriaren emaitza bakarra ez zen, ordea, letra zopa. Sektakeria arma zinez arriskutsua zen, batez ere pistolak erabiltzen zituztenen eskuetan. Joseba Zulaikarena da ondoko kontakizuna:

Larunbata goiz batean, 1975eko udan, Itziarren, etxean nengoela zenbait emakume negarrez entzun nituen kalean. Kale-runtz abiatu nintzelarik, eskaileretan ama eserita aurkitu nuen; zuri eta etxeraino igotzeko indarrrik gabe zegoen. Begi izutuez eta sabela eskuekin babesten zuela, arnasa estuaz esan zidan: 'Karlos autobusean hil dute'. Karlos zen herriko txibato ofiziala. Autobus bat zuen eta larunbatero Itziarko etxeko andreak Debara eramaten zituen beren erosketak egitera. Goiz hartan, etxera itzultzen zirelarik, neure amaren aurrean, bi ETako mutil asientoetatik altxa ziren, karreteratik irten erazi zioten, eta 'hi txakur bat haiz!' oihukatu ondoren, tiroz hil zuten bertan, bere anai-arreba eta emakume ikaratuen begi aurrean. [...] Amari etxera lagundu ondoren kaleratu nintzenez, emakume talde batek inguratu ninduen, eta aurpegi ikaratuaz galdetu zidaten: 'Baina hori nola leike?'.¹³

Saminak, harridurak eta sinetsi ezinak osatutako *nola leike?* hori mantra bihurtu zen urte luzez gure artean. Inpotentziaren galdera erretorikoa.

Txibato-arena izan zen 70eko hamarkadan ETak jomuga izan zuen figura. Kontua da aldi batean ETaren ingurua –gaztea eta berdea artean– txibatoen peskizian abiatu zela lainezaz beteta, eta barra-barra ateratzen zirela balizko traidoreak. Goierrin bizi izan nuen nik hori, espantuz. Herri txikietako maiseaketa giro hori zen, ahopeka zabalitzen zena. Halako batean, pasatu zen txibatoen ehizaren bolada. Kalifikatiboa ez zen iraungi, ordea, eta azalduko zen berriro ere.

Emakumeak birpentsatzen

Utopiaren osagai ezinbesteko bat geratzen zaigu begiratzeko: emakumearena; garaiko hizkeran adierazita: emakumearen askapenarena. Idoia Estornesek dakar lehen pantaila:

Bai urte horietako rock-ean, bai literaturan, bai prentsan, eta baita lider klandestinoen lexikoan ere –intelektual, ikasle nahiz langile ziren haienean–, m dena gizonezkoen inguruan zihoan. Baskolandiak bazeukan bere espezifitatea; mendetako *amatxoaren* atzean ezkutututako gizonkoteen herria zen hau. *Ama Lur* filmean ikusi genuen, zeinak belarriak birrindu zizkigun, modu eliztarrean, etengabe aipatuz *gizona*. [...] Ni bizi nintzen Kantauriko orla honetan, indarrean zen diskurtsoaren instituzio koartada-totema *amatxo* zen; *amatxo* ahalguztidun eta anbigua, ongilea eta zikiratzailea. Emakume eskuzabala, emankorra, agurgarria eta, batez ere, etxetiarra, nahiz eta gizonezkoaren unibertsoan saraldi beldurgarriak egin zitzakeen, noizean behin. Tailerra, fabrika, labe garaia, bulegoa, eskubideak... bere esparruan sartzen ez ziren kontuak ziren: ‘ama bat txikieria horien gainetik dago’. Ezkerrean eta eskuinean koartada-totema, sinplekeria hutsa, *euskal matriarkatua* zen. [...] Baskolandian bazeuden feministak, baina ez feminismorik; elkarrenganatu beharra zegoen.¹⁴

Hizkuntzak ikasteko
Frantzian eta Ingalaterran
egonaldiak egin zituzten
emakume gazteek
han ezagutu zuten
feminismo antolatua.
Euskal matriarkatuaren
koartada-totemak ezin
izan zion bere buruari
luzaroan eutsi

Feminismoa kanpotik zetorren, bai elaborazio teoriko modura eta baita mugimendu sozial gisa ere; hizkuntzak ikasteko Frantzian eta Ingalaterran egonaldiak egin zituzten emakume gazteek toki horietan ezagutu zuten feminismo antolatua eta, bide batez, baita Estatu Batuetatik zetozen korronte feministak ere. Euskal matriarkatuaren koartada-totemak ezin izan zion bere buruari luzaroan eutsi. 1977ko abenduan Leioan egin ziren Euskadiko Emakumeen

Lehenengo Topaketek begi bistan jarri zuten feminismoa existitzen zela Euskal Herrian ere.

Urte hartan bertan, otsailean, Yoyesek –artean ETako militantea zela– gogoeta hauek apuntatu zituen bere egunero-koan emakumeen borrokari buruz:

Nola egin gure filosofia, nola muntatu hori? Izan ere, badirudi gurea erditzea denez, ahaztu egin zaigula umeak baino gehiago ere erditu behar dugula. [...] Derrigorrezkoa da emakumeak gizartean jokatzeko duen rola birplanteatzea, baina beti ere emakume gisa parte hartuz, ez gizonezkoen psikologia eta balioak gureganatuz, gure psikologia eta balio eskala sartuz baizik gizartean. Eginkizun hori oso premiazkoa da; izan ere, orain arte bezala jarraitzen badugu, geroz eta zailagoa egingo zaigu gure nortasuna bilatu eta garatzea.¹⁵

Urtebetera, 1978ko otsailean, jarraitzen du hausnarketa:

Badaukat beldur bat azkenaldian asaldatzen nauena: ez dut nahi gizonezkoek onar nazaten nolabait artzat –matxotzat– jotzen naudelako. Nola lortu nire presentziak erakustea beste emakume batzuk ere egon daitezkeela, nola lortu nire presentziak beste emakume batzuk ere erakartzea, pizti arrarotzat jo gabe ni. Nola lortu gizonezko hauek ulertzea emakumearen askatasuna helburu iraultzaile bat dela, beraiek ere asumitu dezaten erabat. [...] Nola lotu iraultza eta emakumearen askapena.¹⁶

ETA gizontasunaren paradigma zen. Ikusi dugu aspalditik zebiltzala emakumeak ETAn, baina gehienbat *laguntzaille* gisa, eta ez *ekintzaile* oso modura. Joseba Zulaikarena da testigantza:

Gure belaunaldiko ETaren politika barrabilen politika izan da. Lehenik eta behin, borroka egin behar zen eta horretarako *potroak* behar ziren. Frankismo denboran ‘por pelotas’ egin behar ziren gauzak. Hasteko, mila aldiz entzun genuen eduki behar zirenak eduki behar zirela ETAn sartzeko. ETaren ideologiarekin bat egin, harekin identifikatu, baina ETAn sartzeko behar zirenak ez genituenok, ba horixe, zikiratuak ginen. Bazenituen behar zirenak ala ez zenituen. Ez bazenituen, bada hitz egitera, idaztera, euskara irakastera, eta holako ordezkari gauzetara saiatzen zinen. Bai, hauek ere egin beharrekoak ziren, teoriarik behintzat.

Egiatan, inpotenziaren seinale ziren. ETAk horrelaxe bihurtu zuen nire belaunaldia belaunaldi zikiratu bat.¹⁷

Belaunaldi zikiratu horretan zer toki zegokion jaiotzaz barrabilik ez zeukanari? Galdera tautologikoa, ezinbestean.

Disidentziari traizio deitzen zaionean

Baziren hamar urte ETAk *txibatoen* kontrako kanpaina bukatu zuela. Zulaikak dioenez, txibatoaren –traidorearen– figura alderdi politikoetako kideetara pasatu zuen ETAk demokraziarekin.¹⁸ Beste erabilera bat ere eman zion ETAk kalifikatiboari.

1985eko hondarrean Goierriko zenbait herritan pintadak azaldu ziren: *Yoyes txibata* eta *Yoyes traidora* zioten. Ez zituen inork sinatzen, baina eztabaidagai izan zen Ordizian, Herri Batasunako bileretan, sinatu behar ote ziren ala ez. Yoyes itzuli berri zen Euskal Herrira, Mexikon bost urte igaro eta gero, ETA utzi zuenetik ia sei urte pasata. Erakundetik irteteko prozesu horren erdian idatzi zuen Yoyesek ondoko pasarteak, 1979ko irailaren 20an:

Bizitza emateko prest egoteak ezin du esan nahi bizitza etsaiari emateko prest egotea, bi gauza zeharo ezberdin dira, kontrajarriak, esango nuke. Nire buruari galdetzen diot ezer positiborik egin ote daitekeen egoera honetan heriotza onartuz... Ezberdina ote da gizonezkoek eta emakumezkoek bizitzaz duten ideia? Zergatik bota ditut horrenbeste faltan adierazteko gaitasuna eta aukera izango zuten emakumeak?¹⁹

1979an, artean, Yoyesek ezin zuen imajinatu 1986ko irailaren 10ean gauzatuko zena: borroka kide izandakoek kenduko ziotela bizia. 1979ko gogoeta hartatik indarrean jarraitzen duena beste galdera hori da: ezberdina ote da gizonezkoek eta emakumezkoek bizitzaz duten ideia? Hori eta galdera horren inguruan sor daitezkeen beste hainbat formulazio. Besteak beste, zer nolako zerikusia izan zuen Yoyesen hiletan hura emakumea izateak.

Eta hala ere...

Ordizian, Ermuan, Bartzelonan, bihotza kendu zigun etsaia etxe-koa zen. Fedearen aberrazioak fedea galtzea ekarri digu.²⁰

Ordurako ondo pitzatuta, lohituta eta alferrik galduta zegoen ETAREN utopia, erabat suntsitu zen gure belaunaldiko askorentzat Yoyesen hilketarekin. Atzerabueltarik gabeko mugarria zen. Paradoxa erabatekoa: gure konstrukto sozialaren oinarrian zegoen askatasunaren ukazio errotikoa. Utopia distopiarik ankerrena bihurtuta.

Zilegi bekit ataka horretan izan nituen bizipen eta pentsamenduak aletzea. Lehenengoa izan zen *zahartu* izanaren sentipena. Hogeita hamar urtetan geunden, artean, baina nik sentitzen nuen gureak egin zuela, ilusioak amets gaizto bihurtuta... Zeri heldu? Eta horren segidan ardura sentipenak harrapatu ninduen: ezin genien utzi hurrengo belaunaldiei gureak sortu eta pilatutako ondare pozoitu hori. Ohar-tarazi behar genien ze arrisku zeukaten aurrean: kontuz!

Hogeita hamar urte luze joan dira harrez geroztik, eta, zorionez, iraganean hitz egin dezakegu ETARI buruz. Hitz egin dezakegu, eta hitz egin behar dugu, zauriak sendatzeko, gertatutako guztia ulertzen saiatzeko eta irakaspenak ateratzeko. «ETA herritik sortu zen eta orain herrian urtuko da», zioen erakundearen azken adierazpenak.²¹ *Urtu* hori irudikatzen dut azukre koskorra ur basoan botatakoan bezalaxe. ETA *urtu* egingo da herrian, gizartean, eta hasieran zaporea ez da gozoa izango, ezta ura gardena ere. Alabaina, oraindik badaukagu aukera odol orbanak garbitzeko. Belaunaldi honek utopiarantz egin dezakeen azken pausoa izan daiteke.

ETAREN utopia erabat suntsitu zen gure belaunaldiko askorentzat Yoyesen hilketarekin. Atzerabueltarik gabeko mugarria zen. Utopia distopiarik ankerrena bihurtuta

Bukatzeko, ETAREN ubikuotasunetik irten eta azken begirada bat doakie bidaide izan ditugunen esanei. Joseba Zulaikak belaunaldi hura –hau– «gauza askoren mugan» ibili zela dio.²² Arrisku askoren mugan, ulertzen da.

Idoia Estornesek balantze esplizituagoa egiten du:

Camusen *homme revolté*-rekin solidario sentitu ginen, sakralizazio optimistek harrapatu gintuzten –obrerismoak, marxismoak, nazionalismoak– [...], gizateriaren aurrerapen–liluragarriaren lirika.²³

Mariasun Landak pesimistaren papera hartzen du 68ko Maiatzari buruzko elkarrizketa honetan, baina mintzaideari –optimistari– uzten dio azken hitza:

–Maiatza? Utopia bat besterik ez zen izan eta!

–Utopia? Horrexegatik, hain zuzen. Utopiarik ez badago, ez dago iraultzarik.

–Nik ez dut horrela ikusten... Mundua aldatu egin behar da. Abian jartzen ez diren proiektuak eta planak alferrikakoak dira. Utopia ez da inoiz gauzatzen.

–Horregatik da utopia. Politika posible denaren mundua da, baina utopiak markatu behar du norabidea. Ezinezkoa baina ezinbestekoa da utopia.²⁴ 🍀

Oharrak

1. Hordago (arg.) (1979): *Documentos ETA 7*. Hordago, Donostia.
2. Mariasun Landa (2007): *Festa aldameneko gelan*. Erein, Donostia.
3. Idoia Estornes Zubizarreta (2013): *Cómo pudo pasarnos esto. Crónica de una chica de los 60*. Erein, Donostia.
4. *Documentos ETA 7*. Arantxa Arruti eta Ione Dorronsoro Burgosko Prozesuan epaituko zituzten gero. Haiek eta Itziar Aizpurua izan ziren hamasei epaituen arteko hiru emakumezkoak.
5. Hordago (arg.) (1979): *Documentos ETA 8*. Hordago, Donostia.
6. Jose Maria Lorenzo Espinosa (1994, 2018): *Txabi Etxebarrieta, armado de palabra y obra*. Txalaparta, Tafalla.
7. Landa, *ibid.*
8. Joseba Zulaika (1990): *Violencia vasca: metáfora y sacramento*. Nerea, Madril.
9. Zulaika, *ibid.*
10. Joseba Zulaika (2014): *Vieja luna de Bilbao. Crónicas de mi generación*. Nerea, Donostia.
11. Iñigo Aranbarri (1999): *Gure mendea. Ehun urte euskal kulturaren*. Komunikazio Biziagoa, Lasarte-Oria.
12. Pako Aristi (1985): *Euskal kantagintza berria, 1961-1985*. Erein, Donostia.
13. Joseba Zulaika (1986): 'Itziar: biolentzia politikoaren ikuspegi etnografikoa'. Zorroagako Fakultatea.
14. Estornes Zubizarreta, *ibid.*
15. Elixabete Garmendia Lasa *et al.* (1987): *Yoyes desde su ventana*. Egi-leek argitaratua, Iruñea.
16. Garmendia Lasa *et al.*, *ibid.*
17. Joseba Zulaika (2006): *ETAren hautsa*. Alberdania, Irun.
18. Zulaika, *ibid.*
19. Garmendia Lasa *et al.*, *ibid.*
20. Zulaika, *ibid.*
21. 'ETAk Euskal Herriari azken adierazpena', 2018-05-03.
22. Zulaika (2014).
23. Estornes Zubizarreta, *ibid.*
24. Landa, *ibid.*

Utopien atzetik ibilian.

Amaia Lasari elkarrizketa

Lorea Agirre Dorronsoro

Kazetaria

Amaia Lasa (Getaria, 1948) idazleak 20 urte zituen 1968an eta gertutik bizi izan zituen garaiko aldaketak haizeak, bai Euskal Herrian eta baita atzerrian ere. Bizi eta baita eragin ere. 20 urterekin hasi zen *Zeruko Argia* aldizkarian idazten, eta hiru urtera bere lehen poema liburua plazaratu zuen, hiru poemarioetan lehena. Irakasle eta literatura ikasketak egin zituen, eta, 70eko hamarkada bukatu aurretik, hainbat urte eman zituen Nikaragua sandinistan irakaskuntzan lanean. Iraultzaren utopiaren atzetik iritsi zen hara, eta oraindik ere utopiak ibilarazten duela dio.

Poeta gisa lehen aldiz plazaratu zenean, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren utopiari leiho bat ireki zion, lehen aldiz emakume baten ahotsa, ahots kritikoa eta berria, agerrarazi zuelako euskal literaturan. Utopia existitzen ez den leku bati arnasa ematea bada, leiho horrek oraindik irekita dirauela dio, horixe dela gaur egun dugun erronka nagusietako bat.

Zer da zuretzat utopia?

Orain dela laurehun urteko gauza bera da: existitzen ez den leku batera joatea. Ez dago utopia bakar bat, asko daude. Gizartea oso konplexua delako. Orduan, aldatu behar ditugun gauza asko daude. Hori da utopia niretzako.

Zure poemetan askotan aipatzen duzu paradisia. Utopiak izan du zerikusirik paradisuarekin, izan du eta aldatu da?

Beti pentsatu izan dut gure gizartea teknologikoki amestu duen gizarte bat dela. Eta zentzu horretan ez da oraindik eraldaketarik gertatu gizon eta emakume arteko eta gizarte harremanetan. Hori da geratzen zaigun erroka, harreman horiek eraldatzea beste modu batera bizitzeko.

Zu pertsona utopikoa kontsideratzen zara?

Nik ez dakit zehatz esaten pertsona bat utopikoa den edo ez. Baina utopien atzetik ibili naizela beti, bai. Gauza bitxia da, ze hasieran aipatu dituzun poemak idazterakoan –oso gazte idatzi nituen, 17-18 urterekin–, horretaz pixka bat hausnartuz, ni ez nintzen horien osotasun guztiaren kontziente. Baina pentsatzen dut hori idazteko zerbait mugitzen ari zela nire barruan.

Zer ingurune zenuen?

1968 baino lehen nuen familia giroa oso garrantzitsua izan zen; alde batetik, euskararen eta gure lurraren aldekoak zirelako. Denak gerratik zetozen, galdutako gerra batetik. Baina ikaragarri miresten zen euskal kultura eta euskara. Miretsi baino gehiago ere bai, beharbada. Hori oso garrantzitsua da.

Eta etxean ere politikaz asko hitz egiten zen. Politika ulertu daiteke modu askotara, baina niretzako hauxe da: denon artean guk nahi dugun gizartea sortzea. Hor ere utopia dago. Bestalde, utopiaz beterik bizi gara edo gaude.

Eta gero, gazteagotan, 18 urterekin-edo, *Zeruko Argia*-ren bueltan...

Bai, 1967an izan zen. Donostiara etorri nintzen ikasketak egitera, batxilergoa eta baita irakasle ikasketak ere. Aurrena mojekin *interna*. Eta kanpora atera nintzenean disparte bat bezala zen... Halakoa zen errepresioa! Nik beti esan izan dut guk bizi izan dugula erlijio terrorista bat. Dena bekatua zen, zerbait egiten bazenuen infernura joaten zinen: inoiz itzaltzen ez zen sua, oso grafikoa zen infernu hori. Eta nik dena sinesten nuen. Inozo samarra nintzen, edo jarraitzen dut izaten... Orduan, oso gogorra izan zen erlijioaren ikuspegi hori. Gero ezagutu ditut teologia askatzailearen barruan bizi izan direnak... Baina nik ospa egin nuen 17 urterekin, erlijio horrek ez zizun bizitzen uzten. Terrorista zen. Dena beldur-raren bidez egin behar genuen, dena zen bekatua.

Eta *Zeruko Argia* astekarian idazten hasten zara beste orduko gazte idazle batzuekin batera.

Nik ez dakit nork eraman ninduen... Garai hartan ez zegoen irakasle eskola ofizial bat, ikasleok erdaraz ikasten genuen eskola normala, baina gero etortzen ziren guri halako klase berezi batzuk ematera: euskara, euskal kultura, euskal historia... Eta, noski, ni mundu horretan murgilduta nengoen eta bizi nintzen.

Baina, mundu hori ikasketekin zegoen lotuta, edo zerbait klandestinoagoa zen?

Bai, ikasketekin lotuta zegoen. Eta ez, irekia zen. Gure zaharren balioetako bat izan zen gerra galdu eta berehalaxe hastea ikastolen mundua sortzen. 1950ean-edo Elbira Zipritia eta horiek denak hasi ziren. Gu ere ildo horretan sartu ginen, eta

euskal kulturaren murgilduta geunden. Eta horren bidez joan nintzen *Zeruko Argia*-ra: *Gazte naiz* orrialdean idazten genuen aurrena, eta gero Rikardo Arregik *Herriak eta gizonak* atala sortu zuen eta hara joateko deitu ninduten.

Niretzako gauza mirezgarria zen *Zeruko Argia* kaputxinoek ateratzen zutelako, astekari erlijiosoa zelako. Gazte batzuk gonbidatuta geunden han idaztera; beharbada ez ginen joan beraiek pentsatzen zuten lekutik, baina guretzat garrantzitsua izan zen, eta euskararentzat ere bai. Gure kulturarentzat ere bai. Eta hor dago *Argia*. Esan liteke *Zeruko Argia*-ren utopia bat dela.

Parisko 68ko Maiatzaren berri non eta nola izan zenuten? Frankismo garaian horrelakoen berririk iristen zen? Iparraldera joaten zineten?

Guk *Zeruko Argia*-tik hilero 800 pezeta jasotzen genituen, denontzako. Eta beti Iparraldera joaten ginen. Nik beti sentitu dut gure Iparraldearekin lotura handia; etxean, Radio Paris zegoenean, entzuten genuen Labegerie, eta, nolabait, Iparraldeko kulturaren berri bagenuen. Iparraldera joaten ginen *Zeruko Argia*-rekin hilero-hilero eta hango idazleekin elkartzen ginen. Eta esan behar da garai hartan euskal ikasle eta

Francoren garaian,
kulturalki eta zentzu
guztietan, oso mundu
pobreak bizi ginen.
Zapaltzailea, bai, baina
baita pobrea ere

gazteen joera Parisera joatea zela. Eta euskaldun ikasle pila zegoen han. Oteizak esaten zuen: «Hau umeen herri bat, denak ikasten ari dira!». Nik Parisera joan nahi nuen, baina anaia Mikel Suitzan zegoen eta berak esan zidan Paris gogorra izango zela bakarrik egoteko, eta Friburgora joateko. Eta ho-

rrela joan nintzen. Baina esan behar da euskal ikasle pila bat zegoela Parisen.

Harreman handia egon da beti. Eta gainera Paris... Ez dut uste gauza bera denik Iparraldeko jendearentzat. Haientzat

gure Madril bezala izango da. Baina guretzat zen *dena*, paradisu pusketa bat.

Eta eragin zizueten Paristik edo Berlinetik zetozen albistek?

Hasteko, nire gurasoak Frantziara erbesteratu ziren. Anaiak han ikasten zuen, bigarrenak, eta momentu horretan Frantzia zegoen giro intelektual hori etxera ekartzen zuen, eta guk hura dena jaten genuen, gose ikaragarriarekin. Izan ere, Francoren garaian, kulturalki eta zentzu guztietan, oso mundu pobrea bizi ginen. Zapaltzailea, bai, baina baita pobrea ere. Gogoratzen naiz filosofia ikasten genuela mojetako lehenengo urtean eta irakasle ikasketetan. Eta eskolastikatik ez ginen pasa, Tomas Akinokotik aurrera ez zen ezer existitzen. Oso pobrea zela esan nahi dizut horrekin. Zer egiten genuen *Zeruko Argia*-n ere? Denok bagenekien frantsesa nolabait, eta hiztegiak hor zeuden, eta irakurtzen genituen bertako aldizkariak; horien bidez, zuzen-zuzenean ez bazen ere, 68ko Maiatzaren oso hurbileko informazioa genuen. Eta, gainera, Euskal Herrian telebista frantsesa ikusten zen eta garai hartan oso irekiak ziren.

Gero segituan itxi ziren... Gogoratzen dut, jada 68ko Maiatza bukatzeaz zegoela, De Gaulleren mitin bat entzutera joan gine-la lagun baten etxera Donostiara. Oso irekia zen, burges irekia, eta konturatu zenean bide zabal hark nora eramanezakeen, dena itxiz eta itxiz joan zen, eta telebistako programak ere ikaragarri aldatu ziren. Vietnamgo gerra, garai horretan sutan zegoena, irratian entzuten genuen. Gero, Irakeko lehenengo gerra sortu zutenean, hori dena itxi-itxia egon zen, ez ginen ia ezertaz enteratzen, CNN bakarrik joan zen. Zorionez, gero egon dira zenbait kazetari. Zorionez boterean daudenek ezin dute nahi duten guztia egin, ezin dute dena estali. Lortuko dute une batez, baina beti daude kazetari ausartak... Chelsea Manningekin akordatzen naiz orain. Horiek puskatu dute hori dena. Baina, gure garaian, 68an eta beranduago, informazioa oso irekia zegoen. Beraiek ere ez ziren orduan konturatzen, baina konturatu bezain laster ikaragarri aldatu zen.

**Ordura arteko Euskal Herrian, frankismoaren errepre-
siopeko lekuetan, bazegoen eraldaketa eta borroka ikara-
garria. Nola gogoratzen duzu? Gauza asko gertatu ziren
1960-1975 urteetan...**

Euskararen batasuna azpimarratuko nuke. Zein garrantzitsua izan zen. Bagenuen nazioartean ospe handia zuen hizkuntza-lari bat, Koldo Mitxelena. Bera hasi zen hitzaldiak-eta ematen, gogoratzen naiz seminarioan bat eman zuela... Aita Villasante zen orduan Euskaltzaindiko burua, eta hark esan zion Mitxelenari, eta baita Altunari ere, euskara batua behar-beharrezkoa zela, eta erronka garrantzitsu bat izan zen hori. Lortu dugun utopia da. Ze gero nik entzun nion Koldo Mitxelenari esaten batasuna egina zegoela, gauzatu zela. Baina aurkako jende pila zegoen. Inork ez zekien ezer, eta, hala ere, kritikatzten. Eta, gero, gure H saildu hori... H letra progresismoaren ikur bihurtu zen. Mitxelenak beti esaten zuen: Bilbo euskalduna izan balitz, Bilboko hizkuntza hartuko genuke, euskara moderno izango zelako. Baina ez da. Orduan, oinarritu zen la-purtera literarioan, gipuzkera ere oso garrantzitsua izan zen... Bizkaitarrek esaten dute beraiena ez zela hartu, baina bizkaiera ez da galdu, zorionez. Gainera, gauza bat euskara batua da eta bestea euskalkiak dira. Halaxe eman zuen Mitxelenak hitzaldia seminarioan. Gainera, honela esan zuen: «Zuek –han geunden irakasle eta idazleak–, zuek duzue azken hitza». Izan ere, azken finean erabiltzen duenak egiten du hizkuntza.

Gero ikastolen mugimenduak murgildu gintuen euskal kulturaren. Gure historia, geografia... Gobernu espainolak hezkuntzan aldaketak egiten dituenean, beldur ikaragarria izaten du guk hezkuntza ideologizatuko ote dugun. Baina beraiek baino gehiago inork ez! Guk ikasi genuen historia errekonkista izan zen: orduan, moroak bota egin behar ziren, eta denbora guztia Espainia eta Espainia... Guk ez genekien ezer Euskal Herriari buruz, etxean ikasitakoa baino. Eta hori beldurrarekin ikasitakoa, gerraren beldurra hor baitzegoen barruan. Orduan, ikastolen bitartez sartu ginen euskal kulturaren munduan.

Gogoratzen duzu Txabi Etxebarrietaren hilketa? Nola bizi izan zenuten? Zerbait aldatu zuen?

Txabi eta Sarasketa Donostian zeuden. Eta guk ezagutzen genituen... Beno, guk... bagenekien eta ez genekien. Txabi izan zen esan zuena beste pauso bat eman behar zela, borroka armatuan sartu behar zela. Gogoratzen naiz horrek niri inpresio handia eragin zidala, baina ni ez nengoen barruan eta horrek aurrera jarraitu zuen. Berak aurrena Pardines akabatu zuen, gero horien atzetik joan ziren eta Txabi hilda suertatu zen. Sarasketak ihes egin ahal izan zuen, baina harrrapatu zuten. Denok ezagutu dugu zein gogorra izan den borroka armatu hori, eta oraindik... Bukatu da erabat, baina hor daude presoak.

Hezkuntza aipatu duzu. Irakasle ikasketak egin zenituen eta eraldaketaren utopiari ere heldu zenion. Erabaki zenuen Nikaraguara joatea, orduan sandinismoak gobernua hartu zuenean, nolabait beste gizarte bat lortzeko eta hezkuntza baten utopiaren atzetik edo...

Esan behar da ikastolen mugimendua indarrean zegoen hezkuntzaren beste alde batean zegoela. Orduan gehien maitatzen nuena eta maitatzen dudana da Célestin Freinet, egokiena dela iruditzen zaidalako.

Gero etorri ziren Paulo Freire, brasildarrak... Hezkuntza ikuspegi berri horrekin eta utopiaren edo gizartearen eraldatzeko amets horrekin, jakin nuen Nikaraguan izan zela iraultza bat. 1979an izan zen, eta ni urtebete beranduago joan nintzen, nolabait ikustera eta

ikastera zer zen iraultza bat. Hiru urte egin genituen, batez ere han alaba izan nuen. Ipar aldeko munstro hori...! Gobernua, ez jendea: estatubatuar asko etortzen zen laguntzera... Eraso arriskua egon zen egun batean etorri ziren kristau munduko

Hezkuntza ikuspegi berri horrekin eta utopiaren edo gizartearen eraldatzeko amets horrekin, jakin nuen Nikaraguan izan zela iraultza bat

apaiz eta moja batzuk, galtza motzetan-eta; errezatzera etorri ziren mugara, eraso gerta ez zedin. Izugarrizko presioa egin zen. Baina esan behar da Reaganek mertzenario pila ordaindu zituela eta barruan izugarriak egiten zituela. Adibidez, ipar aldean Hondurasekin zegoen muga, herritarrak, bertako nekazariak, hartu eta akabatzen zituen.

Detale bat gogoratzen dut beti: Nikaraguan halako borroka egin eta boterea hartu eta gero, Carterri deitu behar izan zioten, kanpoko zorra ordainduko zutela aginduz, bestela segituan zetorren eraso. Nahiz eta Carter Reagan baino bigunagoa izan –ez dugu esango hobea edo okerragoa–. Eta ni txundituta gelditu nintzen: non dago independentzia? Hau herri independente bat da, eta kontuak eman behar dizkio ipar aldeko gobernuari.

Niretzako oso garrantzitsua izan zen iraultza hori ezagutzea. Ze iraultza bera utopia baldin bada, beste iraultza bat sortzen da: gizarte sakonki eraldatzea, iraultzaren printzipioak gauzatzea. Bihotzez eskertzen diot Nikaraguako jendeari beraiek egin zuten borroka, beraien heriotzak, horiek ezagutzeko aukera izateagatik. Niretzat pribilegioa izan zen.

Han zer ikasi eta zer egin zenuen?

Klaseak eman nituen. Ezagutu nuen oso moja jator bat, iraultzan bizi-bizi parte hartu zuena... Estatu Batuetako apaiz bat etorri zen, eta esaten zuen Eliza pertsegitua zegoela Nikaraguan. Gezur galanta. Hezkuntza ministroak deitu zion mojari eta nik lagundu nion. Honela esan zion: «Hermanita, madre, pedid lo que quieran». Moja kolegio bat zen eta laguntzeko prest zeuden. Nik han hezkuntzan egin nuen lan. Nikaraguako ezaugarrietako bat zen gobernuan bai marxistek bai kristau teologia askatzaitetik zetozenek bat egin zutela eta ez zegoela inongo kontraesanik. Hori oso aberatsa izan zen niretzat.

Iraultza bizi izan zenuela sentitu zenuen han? Edo ideia batekin joan zinen eta gero han...

Nik iraultza zer zen ez nekien. Justizia soziala, berdintasuna... horretan buru-belarri saiatu ziren, baina orduan ere argi zuten: iraultza bat benetakoa bada, erasotua izango da. Eta erasotua zen, gainera. Eliza ofizialak, Estatu Batuetako gobernuak eta denak. Arazo ikaragarri bat zegoen: Nikaraguak urtean zehar lor zitzakeen aberastasunak, errekurtsio ekonomikoak, bere burua defenditzeko jarri behar zituen. Defenditzeko inbertitu behar zuen diru hori, eta hori ikaragarria zen.

Txertaketa kanpainetara joaten ginen denak; konfiskatutako lurretan *domingos rojinegros* antolatzen ziren eta kafea jasotzera joaten ginen; hezkuntza doan zen, osasuna ere bai... Gauza asko egin ziren. Sandinistek hauteskundeak galdu zituzten lehenengo urtean, jakina, porrot horren barruan –ni ordurako hemen nengoen–, ematen zuen dena gaizki egin zela. Estatu Batuetako nire lagunek, oraindik baditut eta Mexikon daude, esaten zuen ez dela egia, gauza on asko egin zirela: alfabetatze kanpainak, osasuna, hezkuntza... Akatsak egin zirela? Seguru. Pertsona orok bere ekintzetan ez du dena ongi egiten.

Daniel Ortegarerekin hartu duen ildoak beste kontu bat da: ados nago iraultzaren hastapenak traizionatu dituela diotenekin, zoritxarrez. Baina jende jator asko ari da borrokan: Nikaraguako Planifikazio ministroa izandako Henry Ruiz eta Mónica Baltodano, adibidez, Movimiento por el Rescate del Sandinismo mugimendu politikoan, edo Sergio Ramírez, sandinista ez izan arren.

Zu aurretik izan zinen Estatu Batuetan...

Oso interesgarria izan zen nazio hori ezagutzea. Nik ez nuen uste Harlem auzoa hain txiroa izango zenik. Badirudi errebelatzen bazara eta galtzen baduzu, benetako infernu batean sartzen zarela, zigortua zarelako. Nolabait aprobetxatzen dute: altxatu egin zara? Ba orain lehen baino gehiago zapalduko zaitut. Beti etortzen zait Haitiren irudia. Frantziako Iraultza Haitira iritsi zen, eta jakobino beltzak deitzen zieten.

Pobreetan pobreena da orain. Zapalduenetakoa. Jean-Bertrand Aristide gogoratuko duzue: jesuita zen, eta bere herriko militarrek erasotu zutenean Estatu Batuetara joan zen laguntza eskatzera... Ikasiko zuen, zoritxarrez.

Euskal Herrira itzuli eta irakaskuntzan jardun duzu, hori izan duzu lanbide eta bokazio. Beti esaten da hezkuntzatik hasi beharko lukeela eraldaketak. Hori zer da, ideia huts bat, gero errealitatera eramateko zaila dena?

Feminismoaz zerbait galdetzen zidatenean, nik aldarrikatzen nuen sozialki zerbait izatekotan feminista nintzela, eta esaten zidaten: «Nola? Hori dagoeneko pasatuta dago...». Hor zegoen eztabaida. Beti esaten genien ezetz

Hezkuntza oso inportantea dela uste dut, baina ez ezarritako hezkuntza, baizik eta gaur egun hezkuntza alternatiboa esango genukeena, beste balioak eskaintzen dituen hezkuntza. Ez zen nahikoa frankismoko eskoletara, unibertsitatera joatea ideia horiek ikastera. Horrekin ez duzu ezer hausten, ez berririk egiten. Dagoen guztia kontserbatu besterik ez. Orduan, beste balioak eskaintzen dituen hezkuntza... Eta hori ikastolek egin zuten.

Gaur egun ezarritako hezkuntza batean gaudela kontsideratzen duzu? Alegia, beste balio batzuk eman beharko lituzkeela? Hala balitz, hori nondik egiten da, barrutik edo kanpotik?

Barrutik eta kanpotik. Egia da irakatsi behar dituzula gai jakin batzuk. Baina, irakasle izanik, eta besteekin batera, saiatu gara beste modu bateko bizitza eta arauak erakusten. Eta arau edo balio horietako bat, nik klaseak eman nituen azken urteetan, gure lurra kontserbatzearena izan zen. Agenda 21 izeneko programa zegoen, eta hor erakusten genien nolabait zaborra sailkatzen, altxorra izan zitekeela adierazten... Gauza

asko aldatu behar direla pentsatzen dut, baina aldatu ere aldatzen direla. Batez ere gure eskoletan. Ez da ahaztu behar gure ikastolen eragina hor.

Hasieran esan duzu gaur egungo gure gizartearen erronketako bat berdintasunarena dela. Nola deskubritu zenuen feminismoa? Zer bide egin duela uste duzu emakumeen egoerak edo feminismoaren borrokak?

1970eko urte haietan lehertze bat izan zen, gaur egun egon denaren parekoa. Abortua, dibortzioa.. Baina horretara iritsi baino lehen, gauza asko mugitzen dira. Orain baino lehen feminismoaz zerbait galdetzen zidatenean, nik aldarrikatzen nuen sozialki zerbait izatekotan feminista nintzela, eta esaten zidaten: «Nola? Hori dagoeneko pasata dago, jada emakumeek lortu dute...». Hor zegoen eztabaida. Beti esaten genien ezetz. Eta feminismoa lanean aritu da, eta ikusi dugu emaitza. Oraindik lortu behar den utopia da emakumearen ahalduntzea. Ez dago, duela urte batzuk ezkeroztik, neska gazte bat, nerabe bat zera esango dizuna: «Ni ezkonduko naiz eta etxekoandre bezala biziko naiz». Nik uste dut hori aukera bihurtu dela, inor ezin dela behartu jokabide zehatz bat izatera, hau da, etxekoandre edo ingeniari edo... Eskubide berdinak eta aukera berdinak. Eta hor pauso handia egin da. Baina asko falta da, oraindik ere gizarte aitaeragile, patriarkal baten barruan bizi gara. Jarraitu behar da. 🌱

Ezaren gudaz baietza sortuz.

Utopia klasikoa eta berria

Alba Garmendia

Filosofian doktoregaia UPV/EHU

Utopia hitz-joko bat da. Kontraesan bat d(irudi)en amets ederra, agian. Izan ere, utopiaren 'topia'-k -lekuak- konkretutasun bat adierazten badu, utopiaren 'u'-ak leku konkretutik at eramaten gaitu, 'ou' edota 'eu' bezala irakur baitaiteke, leku 'on' eta 'ez'-leku, hurrenez hurren. Beraz, Lucy Sargisonek definitu bezala, utopia da *ez den leku ona*. Izanik ez duen izena. Izena duen guztia omen da, ordea.

Tomas Moro abokatu, idazle, politikari eta humanistak sortu zuen hitza, 1516an argitaratu zen izen bereko liburuan. Amerikaren aurkikuntzak bi hamarkada eta erdi besterik ez zituen eta, artean, denbora eta espazio ezagunetik haragoko mundu hobe batean sinestea zilegi zen. Amerikaren aurkikuntzarekin, ordura arte bazen baina ezagutzen ez zen mundu berri baten aukera errealitate bihurtu eta, harekin batera, utopiak ere lur hartu zuen, Atlantikoan nonbait. Urte hauetan, mapamundia mugarik gabeko mihise zuria zen, itsasgizon abenturazaleek ez ezik artista irudimentsuek ere bete zezaketena.

XVI. mendetik hona, jakin-minak irudimenari aurre hartu eta mapetako hutsune guztiak bete ditu. Ez, bidean ez dugu utopiarekin topo egin. Basakeriarekin, akaso, bai. Izan daitekeen gizarterik onenean bizi gara, hortaz, hoberik ez dugu-eta

topatu. Alferrikakoak dira betiereko zoriontasunaren, justizia absolutuaren edota bakearen ideia borobilak. Inperfektuak izaki, inperfektua da gure mundua ere. Konforma gaitezen.

Zergatik eta zertarako utopia, orduan? Ez-leku-ona eta gure lekua elkarrizketan jartzen dituen neurrian, biak ala biak pentsatzeko. Utopia ez baita aurkitzeke dagoen paradisia, egiteke dagoen tokia (topia) baizik. Bibliografia luze eta zabal eman du utopiaren adiera perfektu eta paradisikoak. Berori ulertzeko modu klasikoaren sinonimotzat har daiteke, gutxi-asko, gizarte harmonikoa eta baketsua, perfektua, ezin ederragoa, idilikoa, gaitzik gabea... eta ezinezkoa. Alabaina, utopia ere bada egiteke dagoena. Adiera berri horretan, helmuga izateari uzten dio utopiak, amaierarik ez duen prozesu aldakorra izatera pasatzeko. Datozen orrietan helduko zaio, lehenik, utopia klasikoari eta, jarraian, utopia berriari.

Utopia klasikoa¹

Utopia. iz. 1. Fil. Eredu edo idealtzat hartzen den irudimenezko gizartea. Utopia hitza T. Moreoren izen bereko liburutik dator. Gizon-emakumeak zoriontsu bizi diren uhartea da eta bertako gizarte-antolara eta legedia deskribatzen ditu T. Morok. Utopiaz jardun duten beste filosofo batzuk Platon, T. Campanella, F. Bacon, E. Cabet eta S. Butler dira. 2. Idealtzat baina ezin gauzatzkotzat jotzen den ideia edo proiektua (Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa).

Edozein hiztegitan 'utopia' hitza bilatu eta bertan defintzen zaiguna utopia klasikoa dela esatera ausartzen naiz. Definizio horien arabera, utopia eredu ideal bat da. Denboran eta espazioan berezia dagoen gizarte perfektua, azken xehetasuneraino deskribatua, ordenaren eta ongizaren *summum*-a. Ongi zehaztuak daude bertan biztanleen betebeharrak, haien beharrak asetzeko modu zuzenenak, bizi-tzaz gozatzeko modurik egokienak, osasuntsu eta zoriontsu bizitzeko jarraitu beharreko pausoak. Askatasunik gabeko gizartea dela esan lezake batek, baina zer da askatasuna

perfekzioaz ari garenean? Zer erabakimena, erabakirik hartu behar ez denean?

Irudimenezko gizarte horiek literaturan agertzen zaizkigu maiz. Eleberrietako protagonistak gurearen antzeko mundu batean jaiotakoak izan ohi dira, bidaia kasik ezinezko baten bidez utopiara heldu direnak. Argi gera dakion irakurleari: utopia Hautatuak bakarrik ezagutzen du. Protagonistak harriduraz ezagutzen duen mundu perfektua deskribatzen zaigu jarraian, bizitza honetan bizi dezakegun paradisu bat bailitzan. *Bailitzan*, inoiz ez baita egia bihurtzen.

Ontzat ematen da, noski, gizarte-antolaeraren idealak forma zehatz bat hartzen duela eta balio konkretu batzuk hobesten dituela. Gizon-emakumeak zoriontsu bizi diren

uhartearen gizarte-antolara deskribatzen bada Mororen lanean, gizarte-antolara konkretu bat deskribatzen dela ulertu behar da. Gizartearen oinarri-oinarrian dago familia nuklearra, esaterako. Esan nahi baita, utopia klasikoak jasotzen duen gizarte eredu testuinguru, klase, ideologia, genero, arraza... zehatz bate-tik egina dagoela, eta hari da-

gokiola. Ahulagoa denez gero, emakumeak lan errazagoak egiten ditu Utopian, joskintza edo sukaldaritza, kasu.

Beraz, utopia klasikoa ulertzeko lehen modu baten arabera, gizartea osatzen duten identitate desberdinen artean batek egina izan ohi da, eta *bat* horrek beretzat ez ezik gizarte osoarentzat pentsatzen du ideala. Bestela esanda, goitik beherako utopia da klasikoa.

Tiranoaren irudia etortzen zait gogora goitik beherako utopiaz pentsatzean. 68ko Maiatzaz ari garen honetan, Francoren irudia gertu ageri dakiguke, baina tirano erromatar eraginkor bezain maitatua da burura etortzen zaidana. Edo

Utopia klasikoa eredu ideal bat da. Denboran eta espazioan bereizia dagoen gizarte perfektua, azken xehetasuneraino deskribatua, ordenaren eta ongiaren *summum-a*

Hobbesen Leviathan absolutua, Kantek aldarrikatzen zuen gizakiaren adin nagusitasuna utopia irreal bat zela uste bada. Anarkismoaren beste muturrean, gizakiari mugak kanpotik jarri behar zaizkiola sinesten duen korrontea dago goitik beherako utopiaren atzean. Tiranoaren beharra du gizarteak.

Esku-eskutik doakio utopiaren *alter ego*-a: totalitarismoa. Utopia klasikoaren interpretazio horrek dio ongi gorenera iristeko bide oro justifikatzen duela utopistak, ideala –utopia– historiaren bilakaeraren azken helburutzat hartuta. Albert Camusen *Les Justes* antzerki lanak ongi erakusten du hori: dukea hiltzera doan terroristak atzera egiten du azken momentuan, dukea hiltzean berekin dauden iloba gazteak ere hilko lituzkeelako. Gertakari horren ondorio da antzerkiaren muina, protagonistak iraultzaren izenean egin daitekeenaz mintzo direlarik. Utopia eta totalitarismoa identifikatzen dituen korrontearen ustez, utopistak programa politiko bilakatu nahi du bere ideala. Ongi gorena delakoan, justifikatuta baitago idealaren inposaketa.

Ikuspegi horretatik egin zuen bere ekarpena Karl Popperrek. Besteren artean, esan zuen gaurko belaunaldia biharkoaren izenean sakrifikatzen dela, taldearen izenean askatasun indibidualak desagertzen direla, etorkizuneko askatasunaren izenean inposaketak onartzen direla... Ezagun da Popperren kritika ideologikoki baldintzatuta zegoela. Ondorio totalitario berak egozten dizkio sozialismoari, Sobietar Batasunari, utopiari eta, ia, irrazionala eta fantastikoa den edozeri. Hori bai, Camusen terroristek gartsu eztabaidatu zuten gaia mahai-gaineratu izana zor zaio.

Alabaina, utopia klasikoa ulertzeko beste modu bat ere bada helburutzat ez duena programa politiko bilakatzea. Hasieran emandako definiziora itzulita, «idealtzat baina ezin gauzatzukotzat jotzen den ideia edo proiektua» dela esaten du bigarren adierak. Hortik abiatuta –hau da, ezinezkotasuna onartuta–, beste norabide bat hartzen du utopiaren interpretazioak. Ezinezko dela jakitun, pentsalaria libre da (g)izadiaren legeen

kontrako mundu bat irudikatzeke, mugarik gabeko irudimen ariketa inspiratzaile bezain arriskutsuan.

Izan ere, alde batetik, bizi garen lurraldea aberasten du utopia klasikoak, *statu quo*-aren kritikaz ez ezik, horren atarabide izan zitezkeen mundu posibleez ere janzten duelako. Eraiki beharreko plano izateari uzten dio eta eredu bihurtzen da, zentzu zabalean. Ezinezko idealaren irudikapenak bestelako mundu bat erakusten digunez gero, bizi dugun lurraldea hobetzeko espero gabeko ikuspegia eskain dezake, gainera. Hala eta guztiz ere, utopia klasikoak askatzailetik gutxi duela uste duenik ere bada. Angelika Bammerren iritziz, esaterako, utopia klasikoak, perfektua izaki, aldaketa oro deuseztatzen du. Jarrera erreazionarioa babesten du orduan, aldaketa desiragarri ez den gizarte bat (utopia perfektu bat) desiratzen duenean *statu quo*-a justifikatzen amaitzen duelako. Ikuspegi horren arabera, utopia klasikoak gizartean eragingo lukeen aldaketa hutsala izango litzateke.

Beste alde batetik, ‘mundu erreala’ ahaztea ere badakar zenbaitetan. Ihesbide bihurtzen da utopia orduan, errealitate gordinera itzuli nahi ez duen ‘yuppien mundua’. Ederra eta atsegingarria, inondik ere; ezinezkoa eta estatikoa ere bai. Oporretatik itzuli berri garenontzat, ikasturtea opor-osteko sindromeaz hasi –edota amaitu– badugu, urtea ematen badugu bidai agentzietan saltzen zaizkigun paradisu tropikal-utopikoan zain... indarberritzeko funtzioa zuen oporraldia ihesbide utopia bilakatu zaigula pentsatzen hasi beharko gara. Azken batean, mundu erreala utopikoa delakoan bizitzea da ihesbide utopia, ameskeriazko mundu batean babestu eta erreal inperfektuaz ez arduratzea.

Hala, bada, utopia klasikoak gizartean izan dezakeen funtzioa bi modutan uler daiteke: politikan eta politikatik eragin nahi duen eta arrisku totalitarioa edo kontserbadorea barnebiltzen duen ez-lekuaren gisara, batetik; bestetik, bere ezintasunaren onarpenetik abiatuta irudimenaren bidez posible izan daitekeena aberasten duen ez-lekua bailitzan. Azken horren arriskua totalitarismoa ez baina ihes arduragabea da.

Ardiak eta belarra

Bada txikitan lotarakoan aitak kontatzen zigun ipuin bat, belarrak eta ardiek izaten omen zuten elkarriketa bati buruzkoa. Artzain batek ardiak larrera atera omen zituen behin eta batere jan gabe itzuli omen ziren, belarrak esaten baitzien «aurrera eta goxoago, aurrera eta goxoago». Artzainak ardiei esan zien hurrengo egunean «bertan goxo, bertan goxo» esa-

nez erantzuteko, nahikoa jan arte. Eta hala egin omen zuten.

Nago, gose asko pasatakoak omen garen aitzakian, artalde eginak gaudela, «bertan goxo» horrekin konformatu eta aurrerago zer ote dagoen ezin ikusirik. Belarrak engainatu egin nahi baikaitu, utopiak bezalaxe; ardi tontotzat hartuko gaituzten beldurrez,

hobe esaneko ardi ustez azkarra izatea. Hobe sabela betetzea, norberarena. Badaezpada ere.

Zeren, engainatu ez dakit, baina utopiak huts egin digu. Sozialismoaren utopiak ni jaiotzerako porrot egin omen zuen. Progresuaren utopiak ere bide bera egin zuen, askakuntzetan egindako aurrerapenak bizi-kalitatea hobetuko zuten usteak aspaldi utzi baitziren sinesmen izateari. Utopia handien hutsegitearen ondoren zoriontasun indibiduala bilatzera egindakoan ere, kale. Hutsak, faltak, antsietateak ezaugarritzen gaituelako. Ahalduntzen ari ginelakoan, alienazioaren gorenera heldu gara, nonbait. Nola ulertu bestela George Orwellen amesgaizto zen Anaia Handia distopia izatetik nahita aukeratzen dugun telebistako kanal izatera pasatzea? Baina hor dago, gu salbatzeko, ideologiarik gabeko artzain orojakilea: gauden horrela, bertan goxo.

Statu quo-aren utopia ere deitu zaion hori iraultzera etorri zen subjektu berri bat, 68ko Maiatzaren testuinguruan.

Engainatu ez dakit,
baina utopiak huts egin
digu. Sozialismoaren
utopiak ni jaiotzerako
porrot egin omen zuen.
Progresuaren utopiak ere
bide bera egin zuen

Ordura arte imajinatutako utopietan objektu izan zen hura subjektu bilakatu zen: utopia horien protagonista berriak esatera zetozen Kantek aldarri zuen adin nagusitasun hartara helduak zirela. Artzainaren beharrik ez zutela eta bere mendetik atera nahi zutela, alegia.

Periferiakoak izanik, subjektu horiek sortutako utopiek botere-harremanak birpentsatu zituzten. Boteregabetuaren kontzientziatik eta hori legitimatzen zuen egoeraren ukotik sortu baitziren mundu berri horiek. Utopia klasikoa, bake-tsua eta estatikoa omen zena, distopia bihurtu zitzaion periferiari. Antiutopia –klasikoaren– aldarria egiten da 60ko eta 70eko hamarkadetan, beraz. Etiopiarena, Euskal Herriko testuingurura begira jartzen bagara. Bernardo Atxagak 1978an argitaratutako *Etiopia*-k hauxe irudikatzen baitu: utopia klasikoaren ukoa eta periferiako euskalduntasunetik utopia berri bat egin beharra. Esan gabe doa urte horietan Etiopiak gosetea eta miseria irudikatzen zituela, eta Atxagak hitz-jolas bat egiten duela utopiaren eta Etiopiaren artean, bigarrenarekin lehena ukatuz.

Hala irakurtzen dio Lourdes Otaegi Imazek Atxagari:

Mintzagai dugun *Etiopia* ez daiteke utopia modernoekin batean sailkatu, haien kuestionamenduak eta gainbeherak eragindako krisian kokatzen baita, hain zuzen ere. *Alabaina krisi horren ondorioz erakusten duen jarrera ez da jarrera ludiko eta lasai hutsa, ordea; aitzitik, galderak luzatzen dizkio bere buruari, errealitatea kritikatzeko du etorkizun hobe baten aldeko ahalegin utopikoan, eta gizataldea du erreferentzia. Ez dio berehalakotasun tenporalari ematen lehentasuna, ez espektakulari berari atxikia gertatzen; aitzitik, jarrera aktiboa hartzen du, errealitate etsigarria eraldatzea helburu duena, kostatuta.*

Hiria, posmodernitatearen topografia maitea, errealitate transformagarriaren sinbolotzat hartu du liburua, eta poetaren egitekoa errealitate hori eraldatzea dela aldarrikatu izana da jarrera kritikoa horren adierazle.

Ez dago ukatzerik gizaki modernoaren nia eta indibiduotasunaren ahultze prozesua, metafisikaren azkena eta nihilismoaren garaipena batzuk besteekin konektaturiko fenomenoak direla eta liburuan badu islapenik. Alabaina, *ez dago Etiopian* «pen-

tsamendu ahula»ren zantzurik, ez arintasun edo biguntasunik, amore emate edo etsipenik, Etxahuni hirira etortzeko eginiko deian ongi garbi geratzen denez: euskal literaturak, *euskal gizarteak badu utopia bat gauzatu beharra, bere garaiko bizitzari heldu eta bereganatzea dagokio, eta bizitza hori bere hitz propio eta bere nortasun beti ukatu, beti baztertu, beti menderaezinaz esatea* (Otaegi Imaz 2013: 167; letra etzana nirea da).

Barka beza irakurleak aipuaren luzera. Utopia berriaren espiritua bikain jasotzen delakoan transkribatu da osorik. Modernitatearen kritika egiten du *Etiopia*-k, haren krisia du testuinguru, baina ez da ihesbide hutsean geratzen. Utopia klasikoa ukatuta ere, «etorkizun hobe baten aldeko ahalegin utopikoan» dihardu, praxi baten defentsan. Bertan goxo dagoen ardia ez, goseak hiltzen ari den etiopiarra du protagonista; «nortasun beti ukatu» bat, boteregabetua, euskalduna.

Utopia berria²

Utopien amaieraren diskurtsoa sonatua izan baita XX. mendean zehar. Francis Fukuyamak historiaren amaiera aurreikusi zuen 1992an; Gerra Hotza izango zen azken gerra, iraultza odoltsu gehiagorik ez zelako izango demokrazia liberalak irabazi zuen munduan. Izan ere, gizonek euren beharrianak aktibitate ekonomikoaren bidez aseko zituzten, bizitza arriskuan jarri beharrik gabe. *Statu quo*-aren utopia bete-betea gailendu zen demokrazia liberalaren eufemismoarekin. Modernitatea sineskortasun utopiko batean murgildu zela esana zuen Franz Hinkelammertek ordurako; utopiarik –eta ideologiarik– ez zuen mundu batean bizi zela sinetsita, gizonak ez zuen kontrautopiarik pentsatu beharrik. Beste garai bateko kontuak ziren utopiarenak, lainoetan bizi ziren idealista batzuenak.

Modernitateari, ordea, heldu zitzaion gainbehera. Utopia klasikoari bezalatsu; zeren Tomas Mororen *Utopia* beste garai bateko literatur lan, *klasiko*, bihurtua da aspaldi. Mapamundia *google maps* deitzen den garaian ez da existitzen munduan ezagutu gabeko txokorik, eta mugikorrek erakusten

dizkigun uharte paradisuako ez dira, dakigunez, diruditen bezain utopikoak. Akabo, beraz, utopiaren ameskeria zentzugabea. Literaturan babestu dadila, zientzia-fikzioan akaso, baina ez gizartearen eraldaketan.

Nihilismoaren diskurtsoarekin kritiko zen subjektu berri bat sortu zela esan da, ordea, 68ko urte utopikoak protagonizatuko zituen. Fukuyama oker zegoela esatera baino, uste baino arrazoi gehiago zuela erakustera iritsi zen, agian. Izan ere, *The End of History and the Last Man* izenez bataiatu zuen bere lana Fukuyamak. Subjektu berria 'azken gizona' iraultzera zetorren, hain zuzen ere. Esan nahi baita parekorik ez zuen gizon zuri kolonizatailearen botere mugagabea iraultzera zetorrela. *Apocalypse Now* filmeko Kurtz kapitaina hiltzera zetorren Marlow soldadua, oraingoan, ez zen gizon zuri bat; emakumea zen, indigena zen.

Utopia berriaren garapenean ekarpen eztabaidaezina egin zuen Ernst Bloch filosofoak, hirurogeiko urteetan *Das Prinzip Hoffnung* trilogia mardula argitaratu zuena. Lan horren hitzaurretik jaso da ondorengo aipua:

Mendebaldeko geure gizartearen gertatzen den bezala, dekadentzian dagoen gizarte zahar batean bakarrik dago beheranzko intentzio partzial eta iragankorra. Dekadentziari irtenbiderik aurkitzen ez dioten horien artean adierazten da esperantzaren kontrako beldurra. Momentu horretan, krisiaren ondorioz, beldurra subjektibismoaren maskaraz janzten da, eta nihilismoa maskara objektibizatzen. Kasu horretan, krisia pairatzen den fenomeno da, ez ulertua izan dena; deitoratua, baina ez eraldatua (Bloch 2007a: 27).

Gizon zuriak sinbolizatzen du Mendebaldeko gizarte dekadente eta nihilista. Subjektu berriak, eraldatzeko esperantza. Gerraosteko kapitalismotik sortutako utopia berriek, egoeraren kritika ez ezik, hari erresistentzia egiten zioten, balizko etorkizun ilun bati esperantza kontrajarriz. Tom Moylani zor diogu utopiaren egile berrien inguruko lehenengoetariko hausnarketa. Hark esana baita 68ko urteen bueltan utopiaren kontzeptu berri bat sortu zela, 'utopia kritiko' deitu ziona. 70eko hamarkadako zientzia-fikzioaz ari zen batez ere,

eta esan zuen lan horiek XIX. mendeko utopia baikorra eta XX.eko ezkorra –distopia– batzen zituztela.

Bestela esanda, utopia berria distopiatik bereizten duena balizko aterabideen proposamena da. Distopia imajina daitekeen etorkizunik ilunena da. Nolabait esatearren, biharko gizartearen gainbeherarik latzena erakusten du, gaurkoaren

kritika bat egitearekin batera.

Utopia berriak ikuspegi honi gehitzen diona esperantza da: etorkizuneko distopia posible izanagatik, bada utopiarako lekua ere. Etorkizuna ez dagoelako idatzita; distopia bezalaxe eraiki dezakegulako utopia.

Are gehiago, utopiarekin amesten dugu egunero. Gaue-ro, begiak ixten ditugunean, ameskeria irrealak onartzen dizkiogu imajinazioari, ihesbide bihur daitezkeen ameskeriak, bide batez esateko. Baina

Utopia berria distopiatik bereizten duena balizko aterabideen proposamena da. Distopia imajina daitekeen etorkizunik ilunena da. Utopia berriak ikuspegi honi gehitzen diona esperantza da

Blochek esan zuenez, esna gaudela ere egiten dugu amets. Bere ustez, utopiaranzko joera gizaki orok darama barnean. Barne bulkada batek mugiarazten du subjektua utopiara, beraz. Zerbaiten falta erakusten duen bulkada batek: zoriontasunaren, justiziaren, bakearen, ongiaren hutsunea omen dugu, eta hutsunea sumatzearekin batera sentitzen dugu hori betetzeko nahia edo beharra.

Beraz, bulkada utopikoa utopiaranzko nahi, behar edo joera bat dela esan liteke. Gizakiaren esentziaz eztabaidatzen jardun gabe ere, onar dezakegu badela zerbait hobetu nahi izatera garamatzana. Kontua da hobetzea zertan zertzen den. Eta hona gakoa: utopia berriaren ezaugarri behinena da ez duela etorkizun perfektu baten promesik.

Bulkada utopikoak bat-bateko desio bat ekartzen digu kontzientziara, formarik gabeko nahi bat. Hortik aurrera,

egin beharrekoa nahi horri gorputza emanez joatea da. Azken batean, utopia berria da gorputza ematearen prozesua bera, bukaeran izan ere izango den jakin gabe, eta, izango bada, nolakoa izango den aurreikusi ezinda. Etorkizuneko utopiaren edukia ezin dela aurreikusi esan nahi du. Utopia berria, hortaz, ez-lekua da, bi zentzutan: (1) egiteke dagoen tokia da, oraindik ez dena: ou-topia; (2) egiteke dagoen neurrian, gizakiak egin beharrekoa da, eta, beraz, egiten ez badu, egongo ez den lekua izango da.

Begirada Euskal Herrira itzulita, Joxe Azurmendiren aipu bat argigarri suerta liteke beharbada, utopia berriaren tes-tinguruko urteez zera baitio:

Izan ere, gazteriaren protesta, iluminatu eta utopista, ‘mundu salbatzailé’ eta jainkoak daki zer gehiago batzuen bezala ridikulizatu nahi izaten da gehienetan, eta ahaztu egiten da, edo ignoratu egiten da, euskarazko ezer ez baita ikertzen, 55 eta 65 artean gutxi gorabehera, gazteriaren borroka gerria hartu duen epe horretan alegia, esperantzak eta utopiak oso leku gutxi dutela, inoiz gutxi izan badute euskal gizartean eta euskal literaturan (cfr. Mirande, Krutwig, Txillardeggi, San Martin, Aresti etab.en obra literaria urte horietan; eta zer esanik ez, Nemesio, Salvatore Mitxelena). *Erresistentziaren izpiritua* –«cette longue obstination» (*Lété*)– ez da utopiaren dirdaitik bizi, *desesperantzaren ilunetik baizik. Uko handitik, etsitik. Erreboltatua ez zaio garai-penarengatik lotzen borrokari, derrotaren ukoagatik baino. [...]* *Etzetik negarrak eraman zituen gudariak, ez konkistaren ametsak* (Azurmendi 1998: 69; letra etzana nirea da).

Azurmendik, hor, ‘utopia’ hitza darabilenean, utopia klasikoa esan nahi du. Horri kontrajartzen dizkio «desesperantzaren iluna», «derrotaren ukoa» eta «negarra». Utopia berriaren ernatzea da Azurmendiren aipuan jasotzen dena: *statu quo*-aren ukoa, ez paradisuaren promesa eternala. Edo: ukazioarekin batera, hark utzitako hutsunea bete nahia –bulkada utopikoa–. Konkistaren segurtasunik gabe borrokatzen den gudariak badaki huts egin dezakeela, baina horrek ez dio derrotaren ukoari indarririk kentzen.

Blochen ekarpen bat izan zen hori ere, utopiak huts egin dezakeenarena. Utopia izango baita, egiteko inor bada. Modu

honetan, beharrezkotasun historikoaren ideia alboratzen da eta etorkizuna idatzi gabe dagoen mihise zuri izatera itzultzen da. Ez dago bidea erakutsiko duen profetarik, ez historiaren amaierarik, ezta Utopiara helduko den Gizon Hautaturik ere. Elkarrekin eta egunero egiten dena da utopia, amaierarik gabeko praxi iraultzaile bat, nora eramango duen pre-eskribatu ezin den iraultza.

Deskriba ditzake etorkizun posibleak, noski. Etortzeke dagoenaren nolakotasuna ezin ezagutzeak ez du esan nahi imajinatu ezin denik. Baina deskribapen horien helburua ez da imitatzeke eredu bilakatzea, hausnarketara eta, gero, ekintzara bideratzea baizik. Utopia berriak irudikatzen duen mundu posibleak ez du zertan perfektua izan, ez-leku izaten jarraitzen duen neurrian, kontzientzian aldaketa bat eragiteko balio badu. Jadanik albora utzia dago perfektioaren ideia, gizaki inperfektuon arteko gatazkak dira orain eztabaidagai. Hori dela eta, arazo hutsala da mundu harmoniko, baketsu eta perfektuaren orekaren bilaketarena. Gatazken zentraltasuna lehenesten da, utopiak gaurko munduari erantzuteko balio dezan.

Sargissonen ustez, utopia klasikoak politikaren heriotza ekarriko luke, mundu perfektu eta estatiko batean ez dagoelako komunitateari dagokion erabakirik hartu beharrik. Hartu beharrekoak hartu dira, eta egun guztiak berdin dira perfektuak paradisu eternalean. Utopiaren (berriaren) eta politikaren arteko lotura behar-beharrezkoa dela dio, ordea. Sargissonen ustez, utopiaren helburua kontzientzian aldaketak eragitea izan beharko litzateke, irudikatzen den mundu posibleak iradokitzen duenaz hausnartzea eta eztabaidatzea, eta bertatik praxirako beharrezkotasuna sentitu eta ekintzara pasatzea. Etengabeko prozesua beharko luke horrek, ekintza oro eztabaidatuz eta, aldian-aldian, utopia berriekin aberastuz. Horregatik esan ohi da *prozesuan dagoen utopia irekia* dela utopia berria; helmuga ez ezik bidea ere zein den jakin gabe egiten delako. Sinbolikoki bada ere, esanguratsua da literaturak eskaintzen dituen adibideetan utopia berrietako

istorioak amaiera irekikoak izatea, eta etorkizuna izatea protagonistak hartzen duen erabaki baten arabera, ez beharrezkotasun historiko batek aurrean moduko.

Esandako guztia kontuan harturik, uler daiteke utopia berria ez dela egikaritzen, baizik eta hartaz espekulatu egiten dela. Espekulazioaren funtzioa Sargissoni mailegatu diot, eta hiztegiak eman dit bigarren hausnarketa. Izan ere, espekulatu da, dakigunez, teorikoki edo funts handirik gabe zerbait buruz hausnartzea. Baina bada, baita ere, ispiluari dagokiona, latineko 'speculum' hitzetik eratortzen denez gero. Hala, bada, utopia berriaren funtzioa espekulatu da: ispiluan islatzen den Besteari buruz hausnartzea, teorikoki, ez bere horretan imitatzeko.

Fukuyama aipatu dugunez, historiaren amaieraren eztabaidarekin bukatu nahi nuke. Esango nuke bi joera nabarmentzen direla utopia berriaz dihardutenen artean: utopia helburutzat dutenak, eta metodotzat dutenak.

Utopia helburu bada, teleologia bat onartzen zaio. Bloch da, ziurrenik, korrante horren aurpegiarik ezagunena. Marxista izaki, helburutzat alienaziorik gabeko aberri bat du. Badago, beraz, etorkizunaren aurreikuspen bat, historiaren amaiera bat. Utopia klasikotik bereizten duena da alienaziorik gabeko aberrira iristeko bidea ezezagun zaiola onartzea. Antonio Machadok idatzi zuen, biderik ez dago, ibilian egiten da. Eta Blochek ere bai: «benetako teleologia [...] prozesuan eraikiz doazen helburuetan datza, behin eta berriro sortuak diren helburuak prozesuan bertan aberasten direnak» (Bloch 2007b: 207-208).

Utopia metodo bada, teleologiatik salbu da, baina izaera utopikoa galtzeko arriskua du. Horregatik, Bammerrek *anti*utopia deitu zion joera horri. Monique Wittigen *Les*

Bi joera nabarmentzen dira utopia berriaz dihardutenen artean: utopia helburutzat dutenak, eta metodotzat dutenak

Guérillères lanaz esan zuen ustezko utopia presentetik –*statu quo* baketsu, estatiko batetik, zeinean emakumea desiraren objektu den– etorkizuneko kaosera eraman behar gaituela (anti)utopiak, turbulenzia. Egoera utopikoena, bere ustez, ez da atsedeen egoera, ekintzarako posibilitatea baizik. Gauzak horrela, utopia ez da helburu bat, etengabeko ekintza baizik.

Denboraren ertzeko emakumea

Connie 1970eko New Yorkeko ghetto batean bizi den emakume mexikar pobrea da. Senarra istilu batean erail dute; maitalea ere bai, kartzelan zela. Semea zerbitzu sozialek eraman dute, amaren droga arazo batzuk tarteko. Connie bera, tendentzia kriminalak dituelakoan, ospitale mental batean aurkitzen da.

Horrela aurkezten du Marge Piercyk, 1976an, *Woman on the Edge of Time*, denboraren ertzeko emakumea. Izan ere, bi denboren artean dabil eleberraren protagonista: 1970eko New York eta 2137ko Mattapoisett artean. Halako batean, etorkizunean bizi den Lucienterekin komunikatzen hasten da Connie. New Yorkeko arazoak eta aldarriak existitu ere egiten ez diren utopia klasiko legez deskribatzen da Mattapoisett: ez dago kutsadurarik, patriarkaturik, etxegabetzerik, homofobiarik, arrazismorik, sexismorik, klase bereizketarik, kontsumismorik.

Pixkanaka konturatuz joaten da Connie, ordea, Mattapoisett etorkizun *posible bat* dela. Posible dela New York eza-guna baino are eta distopikoagoa den beste bat, kontsumo gizarte hiperkapitalista, klasista, arrazista... Horren beldur, Mattapoisettera egiten duen bidaiatik bueltan, ospitalean egin nahi dioten lobotomiaren aurka altxatzen da. Ez du, noski, bere ametsetako etorkizun utopikoa segurtatzen, baina bere ekintza garaipentzat dauka, borroka egin duelako.

Piercyrena utopia berriaren sorrera urteetako literatur lan paradigmatico bihurtu da, beste zenbaitekin batera. Hasiera batean utopia klasiko baten itxura du eleberriak. Utopiara

bidaia magiko bat egiten du protagonistak, ospitale mental bateko gaixoaren delirioaren aitzakiapean iristen baita Connie Hautatua Mattapoisettera. Behin hara heldutakoan, bere ametsetako mundua errealtate bihurtua ikusten du; gaitzik gabeko leku desiratu eta perfektu batekin topatzen da, oraindik ez den leku onarekin. Utopia klasikoak bezala, beste leku eta denbora batean dago Mattapoisett: etorkizun urrunean ez ezik, baita existitzen ez den hiri batean ere. Pixkanaka, baina, espero gabekoak gertatzen hasten dira. Hasteko, Mattapoisett huts egin dezakeen utopia da. Errealtate bihurtuko dena, baldin eta 70eko newyorktarrek hura egia bihurtzeko lan egiten badute. Gero konturatzen da irakurlea Mattapoisett, beharbada, inoiz ez dela egia bihurtu nahi den helburu izan. Inspirazio iturri besterik ez da. Izan ere, behin Lucienteren mundua ezagututakoan hartzen du Conniek matxinatzeko indarra. Balizko utopia perfektuak esperantza eman baitio, beste mundu posible batena. Hala, helburua ez da Mattapoisett segurtatzea, New York distopikoari kontra egitea baizik. Derrotaren ukoagatik lotzen zaio hori ere bozrokari, ez garaipenagatik.

Denboraren ertzean dagoena, horra utopia berriaren beste izen bat. Klasikoak beste denbora eta leku batean kokatzen du utopiarra, hain bereizia non geure buruekin antzekotasunik topatzea ere zail gertatzen zaigun. Denboraren ertzean dagoen utopiak, berriz, bisagra lanak egiten ditu: bereizirik dagoen munduak Beste izaten jarraitzen duen arren, geurearekin lotura mantentzen du beti. Baina ez, beti ez. Lotura izango du baldin eta lotzeko inor bada; utopiak inspiratuta geure tokian matxinatzeko esperantza eta indarra baldin baditugu baino ez.

Hala ere, denboraren ertzean dagoena emakume *bat* da. Bere lobotomiaren aurka altxatu dena. Etiopiarren gosea ahaztuta sabela betetzen jarraitzen duen ardia ote? Bulkada utopikoaz nioena gogoan, eman lezake bulkadaren desioari 'gorputza ematea' autokonplazentzia indibidualista bat baino ez dela, nork bere burua salbatze soila. Alabaina,


Mendebaldeko gizarte dekadentearen kritika argia egin zuen Blochek; jakin badakigu utopia berriaren dekadentzia ekintza kolektiboa ahaztu eta salbazio indibiduala lehenestea litza-tekeela. Politikari uko egitea.

Periferiako subjektuaren kontuaz oroitzuz gero, arriskua urrunduz joaten da akaso. Atxagaren lanari buruzko Otaegi Imazen aipua luzeegia zen mami guztia irakurraldi batean ateratzeko. Honela zioen:

Aitzitik, galderak luzatzen dizkio bere buruari, errealitatea kritikatzan du etorkizun hobe baten aldeko ahalegin utopikoan, eta gizataldea du erreferentzia. [...] jarrera aktiboa hartzen du, errealitate etsigarria eraldatzea helburu duena, kosta ahala kosta (Otaegi Imaz 2013: 167).

Gizataldea badu erreferentzia, ez da indibiduo soilean gertzen. Eta kosta ahala kosta errealitate etsigarria eraldatzea ez da ardi konformistaren jarrera. Postmodernitatearen ilunean bizi da, bai, baina jarrera aktiboz kontra egiteko. Kontra egitea zertan zertzen den omen zen kontua.

Dena da problema. Soluzioa poetak ez daki. Bakarrik, ispiluak irakurtzen ditu. Ispiluak idazten ditu. Bere ezlekuko leihoak unibertsora zabaltzen ditu. Kanpora adina, barnera. Geu garentxora, gure mila kontraesanetan. Geu izan nahian. Eta ezaguna da herri txikietan, kanpoko leihoak zabalduz gero, 'unibertsaltasun' haize bortitzek airean paperezko nortasun asko eraman izan dutela, zilarrezko mana eta urrezko ezitia erruz omen darien urrutiko erregearen jardinetarantz. Baina poetak ez du horregatik etxeko leihoak unibertsora zabaltzen utziko, ezordu eta ezleku mortuotan arnasa berria sar dadin, itsaso eta mendiko herri honetan, etxean geratu diren munstro abertzale eta ber denboran unibertsal guztientzat. Kontraesan artean, baina tinko.

Bere burua norma deklaratu daukan mundu anormal honetan, izan gaitezen, bada, munstro (Azurmendi 2018: 41). 

Oharrak

1. 'Utopia klasikoa' deitzen diot, hemen, utopiaren adiera ezagunenari, 'utopia berria' deitu diodan adieratik bereizteko. Utopien Ikasketetik izen ezberdinak eman izan zaizkio utopia ulertzeko modu horri. Oraingoan, 'klasiko' hitza lehenetsi da, bere adiera ohikoenean: «*Klasiko. 1. Izond.* Ereduzkoa gertatzen dena, batez ere antzinakoa edo ohiturazkoa izanik; arauzko edo ohizko ereduaren arabera dena» (Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa).
2. Utopia berria XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan pentsamendu utopikoaren baitan izan zen eraberritzeari erreferentzia egiteko erabiltzen dut hemen, gaur egunera arte luzatzen den bidea zabaldu baitzen urte horietan. Bide batez, gainera, erreferentzia egiten dio urte bertsuetan kokatzen den Ezker Berriaren mugimendu politikoa-ri, landutako gaiak eta ikuspegiak antzerakoak izan baitziren.

Bibliografia

- Azurmendi, Joxe (1998): *Oraingo gazte eroak. Gogoetak ETaren sorrera inguruko kultur giroaz eta gaurkoaz*. Irun: Luma.
- (2018): *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk*. Donostia: Elkar.
- Bammer, Angelika (2004): *Partial Visions. Feminism and Utopianism in the 1970s*. New York: Routledge.
- Bloch, Ernst (2004): *El principio esperanza I*. Madril: Trotta.
- (2007a): *El principio esperanza II*. Madril: Trotta.
- (2007b): *El principio esperanza III*. Madril: Trotta.
- (2012): '¿Puede frustrarse la esperanza?', in Carlos Gómez (arg.): *Doce textos fundamentales de la Ética del siglo XX* (165-173). Madril: Alianza Editorial.
- Hinkelammert, Franz (2002): *Crítica de la razón utópica*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- (2016): 'Looking for Paradise. Utopia as a Social Issue in Basque Poetry', *Bulletin of Hispanic Studies* 93, 1.173-1.195.
- Levitas, Ruth (2013): *Utopia as Method*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.
- Moro, Tomas (1991). *Utopia*. Bilbo: Klasikoak.
- Moylan, Tom (1980): 'Beyond Negation: The Critical Utopias of Ursula K. Le Guin and Samuel R. Delany', *Extrapolation* 21, 236-253.

- Otaegi Imaz, Lourdes (2013): 'Distopia eta paradisua Euskal Hirian: Bernardo Atxagaren *Etiopia* makrotestuaren irakurketa semiotikora-ko hausnarketa kritikoak', *Lapurdum* 17, 109-173.
- Piercy, Marge (1983): *Woman on the Edge of Time*. New York: Fawcett.
- Popper, Karl (1983): *The Open Society and its Enemies*. Londres: Routledge.
- Sargisson, Lucy (1996): *Contemporary Feminist Utopianism*. Londres: Routledge.

Praxia: pragmatismoa eta utopia elkartzen diren tokia

Eduardo Apodaka

UPV/EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien
Metodologia Saileko irakaslea

Ezkerraren hondamendi ostean, nola egin?

Tesi nagusi bat aurkeztu nahi dut gogoeta honetan: praxi iraultzaileak edo askatzaileak utopiaren eta pragmatismoaren arteko tentsioa behar du. Irudimena behar da bestela jardun behar den bakoitzean, arazoak konpontzeko era berritzaileak asmatzen denean, auzi sozialei aurre egiteko bide berriak urratzen diren guztietan, edota injustiziarik eta zapalkuntzarik aurre egin behar zaionean. Irudimen utopikoa behar da *mundu soziala* egituratzen duena irauli eta eraldatu ahal dugula sentitzeko eta egin-tza bide hari ekiteko. Horregatik, irudimen horren alegiazko ideia esanguratsuak, *gurari utopikoak*, ekintzarako hipotesi gisa aurkeztuko ditut: ekintza iraultzaile eta eraldatzaileetan gauzatu behar den zentzua, bai eta edozein jardunetan izan dezakegun utopia kutsua.

Marxek esan bezala, hautatu ez ditugun inguruabarretan egin behar dugu historia, han aukerak sortu, bertan erabakiak hartu. Praxi iraultzailea beti dago lekuz kanpo, beti da beste alderako, beste aldirako; baina honako aldean jokatu behar du, eta eragin. Izan, praxi askatzailea *mundu sozialari* eragiteko jarduna da. Hortaz, pragmatiko jardun behar al du? Pragmatiko jardutea karga negatiboz gainzaturik dago.

Aspaldi oparitu zitzaion, debalde, eskuinari eta botere ezarrien zinismoari. Hala ere, historiari begira, ezkerra mundu soziala praktikoki, efektiboki eta materialki justua egiteko mugimendua izan da; parekotasunaren eta askatasunaren justizia efektiboa izan dadin borrokatu da. Justizia gose hori ez da elikatu teoria abstraktuekin, jendearen sufrimendu, haserre, sumindura eta halako pasioekin baizik. Herriaren bizi kontuetan, *ta prágmata* zeritzenetan, jaio eta han bertan berdindu behar da justizia gosea. Auzi praktiko eta pragmatikoa da erabat: zer egin, nola eragin, nola gauzatu justizia jendearen bizi kontuetan era efektibo batean.

Jarrera iraultzaileak sistema soziopolitikoaren eraldaketa erradikala gauzatzen duen praxia eskatzen du; ez egundoko formula bakar batez dena aldatuko duen alkimiaren bat.¹ Jakina, ezker iraultzaileak handitara jo du beti, bai eta txikian jokatu duenean ere: mundu soziala eraldatu nahi duenarentzat pragmatikoena mundu hori egituratzen duten logikak iraultzea da. Ezinbestekoa da utopia eta pragmatismoaren arteko tentsioa. Ezkerraren hondamendiaren ostean biak nola uztartu begitantzen zait galdera nagusia: zer egin emantzipazioaren utopiari eusteko eta hura efektiboki gauzatzeko eta bizitzeko? Nola egin utopia eta pragmatismoaren arteko tentsioa bizigarria, pizgarria eta erakargarria izan dadin?

Ezkerraren inefikaziaren garaian bizi gara. Ezkerrek ondortxo erakutsi dute 70etatik aurrera ez direla gai kapitalismoa ezabatzeko, gainditzeko, ezta hura kudeatzeko ere. Erreakzio moduan, efikaziaren aldeko keinuak ugaltu dira nonahi, eta estrategia eraginkorrari buruzko milaka eztabaida eta ikamika. Giro horretan, nekez bereizten da efikazia luzea inpaktu lasterretik. Kapitalismo neoliberalaren denbora zikloetan berehala errenditu behar dira interesak, berehala lortu behar dira etekinak; premia hori behar al du praxi iraultzaileak? Ez eta bai. Aldaketa sozialean erritmo desberdinak daude, materia sozialaren izaeren eta egituraketan arau. Epe laburreko lorpenak onak dira jendearen motibaziorako eta mobilizaziorako (eta ikasteko eta ahalduzko egokiera ezin

hobeak). Hemen defendatuko dudan moduan, ekintzak utopiaren zentzuz blai behar ditugu: zer edo zertan zentzu hori egikaritu behar dute. Utopiak, hala ere, eraldaketa erradikala den aldetik, unibertsalera jo behar du, gutxienez salatzen eta gaitzesten duen sistemaren baitan. Zer esanik ez, utopia iraultzaileen kasuan: unibertsaltasunera garamatzate. Utopia antikapitalistak, esaterako, kapitalismotik irten eta bizi-modu justuago eta libreagoa eratu ahal dugula iradokitzen digu: ez pertsona bat, ez talde bat, ez lagun komunitate bat kapitalismotik irtenda, kapitalismoa bera gaindituz baizik. Halako gurari utopikoa gauzatzeko indarrak irauli behar den errealitatearen erresistentziaren parekoa behar du: iraultza politikoak berehalakoak izan daitezke, baina luze prestatu behar dira; iraultza soziokulturalek epe luzea eskatzen dute, nahiz eta berehala prefiguratu ditzakegun.

Hori esanda, iduri luke *zer egin* famatuaz arituko naizela. Ez da horrela. Neuk ere ez dakit zer egin (behar den), ez dakit nor den *dakien-subjektua*, areago ere, ez dakit nor den *dakiela-suposatzen-den-subjektua*.² Beste askok bezala, ez dut dena konponduko duen alternatiba edo estrategiarik.³ Ezta hori topatzen eta egikaritzen jakingo duen Beste Handirik ere. Bakarrik gaude: mikroalternatiba asko ditugu, agian denak gaindeterminatu litzakeen politika mota berri baten zain. Žižekkek dioen gisan, «egiazko ausardia ez da alternatiba bat irudikatzea, argi hauteman litekeen alternatibarik ez izatearen ondorioak onartzea baizik» (2016: 123; aipamen guztien itzulpenak nireak dira).

Horrenbestez, nire kezka, hemen, *zer egin* baino, *nola egin* da; ez etika aldetik, ez teknika aldetik, politika iraultzaileen zentzuaren aldetik baizik. Praktikaren efikaziaren afera

Ezinbestekoa da utopia eta pragmatismoaren arteko tentsioa. Ezkerraren hondamendiaren ostean biak nola uztartu begitartzen zait galdera nagusia

normalean tekniko edo etiko jotzen da, bitarteko eta helburuen arteko erlazioaren harira, bi parametrotan: eraginkortasuna (utilitarismoaren irabaziak) edo egokitasuna (printzipio edo balio normatibo batzuk zorrozki eta derrigor betetzea). Bietan oso ohikoa da ekintza abstraditzea testuinguru eta egoeratik eta ekintzaileen sentiera eta sormenetik. Horrez gain, estrategia, irabazte kontua omen den aldetik, utilitarismoaren 'ekintza razionalarekin' nahastu ohi da; baina jokatibide, zentzu eta erakunde berriak sortzearekin, kreativekin eta zaharrak eraitsi, ezabatu edota destituitzearekin lotu behar da praxia. Beraz, strategiaren eztabaidatik urrundu arren, praxiaren eztabaidan oso estrategikoak diren auziak topatuko ditugu: esangura, gurari, eragintza sareak eta erakunde berriak sortzea, zaharrak bertan behera uzteko alternatibak eratzea, eta jardun eta ekintzetan zentzu berri horiek gauzatzea, eta hala egin dela erakustea.

Antifatalismo pragmatiko eta utopiazalea

Kapitalismo neoliberala aski zaildua dugu dagoeneko. Natibo neoliberalen arora heldu gara. Natiboak, neoliberalismoan jaioak, eta harekin zahartu eta aski naturalizatu garenok bi esalditara borobildu ohi den aroan bizi gara: Margaret Thatcheren *There is not alternative* famatua, eta Žižeki eta Jamesoni egotzi zaien *Errazagoa da munduaren bukaera irudikatzea, kapitalismoarena baino*.

Aurrena aldarrikapen harroa eta hurrena salaketa kritikoa izanagatik ere, biek, fatalismo neoliberalaren deskripzioak izaki, etsipenaren berri ematen digute. Mezu nagusi baten adierazpideak dira: ezin dugu sistema kapitalista aldatu. Kapitalismoa historia eta politikaren bukaera omen da, ez dago politikoki ezer aldatzerik, hau da, ez dago amets eta utopia kolektibo politikorik gauzatzerik. Iritsi bide gara giza naturari dagokion sistema soziopolitikora. Orain, antza, nork bere utopia pertsonal eta pribatuari ekin behar eta ahal izango dio, naturala omen dugun norgehiagoka basatian, ekonomia

politiko neoliberalak bermatzen eta arautzen duen norgehiagoka autozapaltzailean.

Utopia/distopia neoliberallean bizi gara.⁴ Utopia da askorentzat, baina utopia partikular pribatua. Izan ere, kapitalismoak barne mundu aberats bat antolatu du munduan zehar (Sloterdijk 2007). Irudimen neoliberalak dio barruko biztanleek euren desioak bete ahal dituztela errendimendu onez jardunez gero, baina ezin direla desio kolektiboak ondo taxutu, are gutxiago bete. Distopia da gehienentzat, prekari-zazioaren beldur bizi diren masentzat eta erabat kanporatuta bizi direnentzat. Barru/kanpo ardatzak edo egiturak bat egin du esplotazioaren logikarekin, elkar osatzen dute eta elkarrekin funtzionatuz ari dira desberdintasunak handitzen. Barnealde aberatsetik kanporatzeko beldur diren masek ondotoxo ikasi dute prekarizazioaren arriskua kanpoko besteek ekartzen dutela. Haien sumin, amorru eta errebantxa gosetik (eta konpetentziatik) babestu beharra dute, abaro gotorrak eta segurtasun indar oldarkorrek behar dituzte. Eskuin populismoak batu ditu beldurrak, kapitalaren barne mundua mamu kolektibo zaharberritu batzuetako kideei segurtatuko diela prometatuz.⁵

Beldurra fatalismoz elikatzen da. Eta ezintasun kolektibo da oraingo kapitalismoen fatalismoaren gakoa.⁶ Ez dago sistema kontrolpean eta asmoz gida dezakeenik (badago salbuespenik; txinatar bideak, esaterako, prometatzen du estatu-alderdiak heziko duela kapitalismoa, ordainean ez da beste eragintza kolektiborik onartzen). Sistema abstraktu, lauso, zatikatu, aldakor, arduragabe, kontrolgabean bizirau-pena eta arrakasta eragile pribatuen erresilientzia kontua da (Chandler & Reid 2016). Funtsean, errealismo kapitalistaren zentzu arruntak (Fisher 2016) aldi berean dio ezin dugula *sistema* aldatu, eta nork *bere burua* aldatuz (esplotatuz edo) bizitza libreki irabazi behar duela. Hortik utopia pribatua: lehia, ahalegina, lorpenak, kontsumoa... Eta horretarako pentsamendu taktiko-estrategiko instrumentala: ekintza zikinokoa, dena kapital bihurtzen duena, dena interes pribatu.

Finean, etorkizun kolektiboa irudikatzeko krisiak jota gaude (Berardi 2011). Erabateko hondamendiaz edota giro neofeudald bateko gerra orokorraz aparte, oraingoaren errepikapen iraunkorra irudikatzen da, besterik ez (Srnicsek & Williams 2017). Etorkizunak irudikatzeko ezintasuna bera ez litzateke arazo bat izango, kritikarako bestelako euskarririk edo sentierarik izango bagenu. Agian hobe etorkizun determinaturik izan ez eta zabalik uzten ikasiko bagenu (Clark 2012). Ara-

Arazoaren muina emantzipazio borrokarako gaitasun eza da. Errealismo kapitalistan, fantasia kolektibo hegemonikoa, ez dago alternatibarik, irudimen utopikoa deuseztatzeko makina da

zoaren muina, berriz, emantzipazio borrokarako gaitasun eza da. Errealismo kapitalistan, fantasia kolektibo hegemonikoa, ez dago alternatibarik, irudimen utopikoa deuseztatzeko makina da. Orain hogeitaz urte artean entzuten ziren aldarri horren bertsio apologetikoak (pentsamendu bakarra, historiaren bukaera eta abar), harez gero fantasia horiek pasa dira eta positiboki esan daitekeen guztia badago alternatiba eza

baino ez da. Sistemak iraungo duenez, *geure burua* babestea, inposatzea omen da zentzuzkoena. Gauzak horrela, etorkizunerako fantasiak irudikatzea ez da soilik geroari buruzko ariketa bat, orainean bestelako zentzuak eta praktikak, bestelako politikak taxutzeko ariketa da. Fantasia askatzailerik gabe, utopiarik gabe, ez dago borroka eraldatzailerik.

Utopiak eraikitzeke deia zaharberritu aurretik, hori posiblea zela aldarrikatzeko saioak etorri ziren, bai eta fatalismoari aurre egiteko ekimenak ere. Baina horretan atzerapausorik sumatu daiteke. Adibiderako, ikus ditzagun Mundu Foro Sozialen lelo zenbait. Lehenengoan, 2001ekoa, *Bestelako mundu bat posiblea da* izan zen; 2016an, Montrealean, *Bestelako mundu bat beharrezkoa da. Elkarrekin lortuko dugu*; eta 2018an, Brasilgo Salvador: *Eustea sortzea da, eustea eraldatzea da*

(*Resistir é criar, resistir é transformar*). Hitz gutxitan, hama-zazpi urte pasa dira posibilitatea aldarrikatu zen hartatik. Orduz gero alternatibak eta proposamenak, esperientziak eta esperimentuak joan dira sortuz, eskainiz, irudikatuz... Ez dugu utopiarik? Ahulak al dira? Ez al da atzera egin beste mundu bat posible eta beharrezkoa zela aldarrikatzetik erresistitzea sortzea eta eraldatzea dela esatera?

Foroak hasi zirenetik hona, izugarrizko krisia izan dugu. Eta askok sumatu eta sentitu dute krisian kapitalismoari aurre egin behar zion indarra edo eragintza ez zela agertu: haren absentsia oso nabaria izan da. Absentsia horren kausak asko izan daitezke, baina, esan bezala, ez zegoen plan alternatibo argi bat aurkeztuko zuen mugimendurik... Ez zegoen populismo laclautiar batek artikulatutako herri globalik, ezta žižekiar klase mobilizaturik nonahi, eta ez zegoen krisian aktibatu ahal zen etorkizun alternatibo baten politika efektiborik, utopia pragmatikorik, zeregin estrategikorik. Aski zuten mota guztietako ezkerrek bestelako mundu bat beharrezkoa zela esatearekin, posibleen emergentziak detektatzearekin,⁷ edo estrategia deleuziarren bidetik eutsiz birtualaren eta potentzialaren politika egitearekin (Escobar & Osterweil 2009).

Handik hona, mugimendu sozialek bestelako jendarteak irudikatu, pentsatu eta desiratzeko lan egin dute. Hainbat bide eta ildotan: norberaren dispozizioak (balioak, jarre-rak...) aldatzera jotzen duen aktibismo kulturalen, ekintza zuzeneko aktibismoan, edota gune aske partzialak eta pre-figuratioak sortzeko aktibismoan (Farber 2011). Oro har, boterea hartu gabe, kontrabotere edo boterez kanpoko gune eta indarrak eratzea jo dute aktibismo erreaktibo horiek (oro har diodanean, Ipar Atlantikoko politikaz ari naizela esan nahi dut, baina handik kanpo ere izan dira borroka molde edo filosofia horiek, zapatismoan, esaterako). Berriki, Srnicek eta Williams azelerazionistek «folk politikak» deitu diete horiek bezalako ekinbideei: antiglobalizazioaren mugimenduetan, Occupy Wall Streeten, Espainiako M-15ean,

Plazen Mugimenduan eta halakoetan nabari omen direnak (Srnicsek & Williams 2017, 17). Folk politikek espazio hurbilen, berehalako ekintzen, keinu iragankor eta mota guztietako partikularismoen fetitxizazioa ekarri omen digute.⁸ Hitz gutxitan, proiektu kontrahegemoniko unibertsal eta positibo barik, proiektu erreaktibo hurbiletan jarduteko ahaleginak dira; antagonismoetan erresistentzia eta eskaera partzialak eginez, edota antagonismoak gune askeetan gainditzeko esperimentazioak probatuz aritzen direnak.

Pentsa liteke politika mota hori kapitalismo neoliberalak gainditzeko eta garaitzeko ezintasunaren ondorioa dela; sistema kapitalista konplexuegia, abstraktuegia, globalegia edota totalizatzailegia dela sentitzean iraultzaren ordez hartzen dugun sendabide bat: guztiz garaitu ezin denean, gune eta une libreak askatzea izan daiteke paliatiboa. Hala ere, politika mota hori ez da arazoa; kontrara, oraingo egoeran folk politika ezinbestekoa da. Baina ez da inondik inora nahikoa. Hori sinestea da arriskua.

Kontrahegemonia eta emantzipazioaren utopia unibertsal(izagarri)a ez dira goizetik gauera eraiki ahal diren proiektuak. Estrategia luzea behar dute. Utopiak imajinarioak dira, esan beharrik ez dago, eta alegiazkoa egia egiteko, errealitatea aldatu beharra dago: egiaz aldatu, eta ez alegiaz. Erraza izan daiteke eraldaketa gune mugatu eta iragankor batean egitea eta fantaseatzea horrela iraultza egiten ari garela. Ilusio faltsurik? Ez. Ez, egin den horrek utopia unibertsal(izagarri)aren zentzua mamitzen eta gauzatzen duenean eta estrategia global ireki bati laguntzen dionean. Bestela esan, kontrapuntu bat jarri behar zaio erresistentzia eta utopismo prefiguratiboari, estilo pragmatiko eta estrategiko baten bidez: zentzua eta eragina, partikularra eta unibertsala, utopia eta praktika uztartu eta, folk politiken abiapuntutik, erresistentziak, prefigurazioak edota askapen partzialak kodeterminaziora eramango lituzkeen praxi pragmatiko, utopiazale eta estrategikoa.⁹ Praxi antifatalista horrek mundua eraldatzeko ahalmena aldarrikatzen du, hitzetan ez ezik, eginetan eta

zentzuetan ere bai; eta eraldaketak utopien arabera neurtzen ditu ekinbide estrategiko eta materialetan emantzipazio unibertsalaren bide luzean.

Irudimenezko esangura utopikoak

Žižekek esana du gaur egun ideologiaren kritikak ez duela hasi behar errealtatea kritikatzeko, fantasien eta ametsen kritikarekin hasi behar duela (2016: 226). Gure fantasia gehienak oso neoliberalak dira, gure zentzu eta irudimen arruntak oso neoliberalak dira. Antza, utopia bakarra onartzen diogu elkarri, errealtate neoliberalak da *zentzuz* desiratu ahal den fantasia, baina aldi berean errealtate hori ezinezkoa dela uste dugu. Distopia kolektibo unibertsalen eta utopia pribatuen artean harrapatu bizi gara. Utopia komunak ere unibertsal baino pribatu antzera irudikatzen ditugu (komunitate ‘pribatuetan’). Alde horretatik, utopia komun unibertsal eta emantzipatzaileak berreskuratzeko erronka dugu aurretik. Baina, nire ustez, hainbat ñabardura garrantzitsurekin: ez da utopia zehatz eta erabatekorik behar, irudimen eta sentiera utopikoa baizik, edo, bestela esan, *imajinario utopikoa* esangurak sortzeko ahalmen gisa (eta ez irudien bilduma gisa) landu beharra dago.¹⁰ Irudimen utopikoak sentiera utopikoa elikatu behar du (borroka, politika edo jardun arruntei zentzua eman eta horien *zentzu utopikoa* sentiarazi behar digu). Eta, azkenik, irudimen utopikoak errealtatearen ezinezkotasuna erakutsi behar du, negatiboa da, proposamen ‘(pro)positiboak’ jardute pragmatikoak ekarriko ditu.

Utopia klasikoetatik (eta hainbat distopia moderno eta postmodernotatik ere bai) gutxienez bi joera errefusatu behar ditugu. Bata, isolamenduz eta sistema sozialen egiturak eta jendeen disposizioak kontuan hartu gabe beteko ziren saio esperimentalen boluntarismo magikoa. Bestea, bisio transzendenten ingeniarietza sozial zurrun eta zorrotza. Agian, ohitu gara utopietan distopiak ikusten eta ez gara fio jendarte erabat harmoniatsuak eta ezin oparagoak aurkezten

dituzten narrazio utopikoekin (salbu, beharbada, utopia kontsumista neoliberalarekin). Arrazoiak arrazoi, baieztapen positiboa, ekintza eratzailerak, ezin da izan 'irudimen transzendentek' ekoizten dituen utopiena. Ezin da izan soil-soilik irudimen transzendentea, fantasiari emana; immanentea ere behar du.¹¹ Graeberrek dioenez, irudimen immanentek mundu materialean eraginik izan nahi duten ekintza-egitasmoetan erabili behar den irudimena da, arazo konpontzailea, eta ontologia berri baten irudimena.¹²

Horrenbestez, irudimen utopikoa bi kolpetan aritzen da, bi logikatan: negatiboa eta positiboa, ukapen destituitzailea eta baieztapen instituitzailea. Baina gaurko sentierak ez du erraz onartzen utopia positibo absoluturik. Baieztapen positiboa irudimen utopikoaren negatibotasunetik sortuko diren praktika pragmatikoetan etorriko da. Irudimen utopikoaren positibotasuna, nolabait, irudimen immanentea da, hau da, praktika pragmatikoetan topatuko dugu zentzu edo esangura gisa.

Hortaz, utopia, narrazio edo programa itxi baten modura hartu beharrean, borrokan eta politiken zentzu, burubide eta sentieren espazio bizigarritzat hartu beharko genuke.

Utopia, narrazio edo programa itxi baten modura hartu beharrean, borrokan eta politiken zentzu, burubide eta sentieren espazio bizigarritzat hartu beharko genuke

Pegatinetan, abestietan, pintadetan, dantzetan, antzerki eta liburuetan, eguneroko solasaldietan, hedabideetan eta edonon jasotzen ditugu utopiaren esangurak: sentsazioak, emozioak, nahiak eta desioak. Utopikoak dira bestelako errealitate (ezinezko) baten zentzua eta sentimendua dakartelako; bestelakoa, eta beti hobea (justuagoa, askeagoa, solidarioagoa, igualitarioagoa...).

Horregatik egokiago da utopiak baino (narrazio, mito, egitasmo...) esangura utopikoak pizten eta mamitzen dituzten jardun heterogeneoei begiratzea.

Irudimenetik sortzen da bizi dugunaren zentzua, irudimen utopikotik zentzu eta esangura utopikoak. Horregatik, irudimen horrek zabala behar du eta zabaltzailea, gure muga kognitibo eta emozionalak ireki behar ditu, baina ez du *bestaldeko* jendartearen antolamendu zehatzik eskaini behar. Hemengoaz, honaindikoaz jardunez, gure errealitatea bestela ulertzen eta bestela sentitzen lagundu behar digu. Irudimen utopikoak gure errealitatea eta bere fantasiak ikusteko, kritiko eta zuhur ulertzeko balio behar du. Eta haiek destituitzeko, zentzuz bete behar ditu oraingo ekintzak, eratuko diren errealitate eta fantasiak.

Praxiak irudimen utopiko negatiboa behar du, errearen ezinezkotasunetik abiatu behar da: *Hau ezin da izan! Beste(lako)rik behar dugu!* Errealitatea ezinezkoa delako ideia oinarrian ez duen praxia nekez izango da iraultzailea.¹³ Horregatik, beste mundu bat beharrezkoa edo posiblea dela esatea ez da nahikoa, duguna ezinezkoa delako. Sistema erreala ezinezkoa da: bere logika oso erreala delako, mundua antolatzen duelako, desioak pizten dituelako, den-dena kapitalen interesen neurrira makurtzen duelako da ezinezkoa. Ezinezkoa da hazkunde mugagabea, ezinezkoa guztia kapitalizatzea, ezinezkoa demokrazia kapitalismoaren mendean, ezinezkoa krisi humano eta ekologikoan irautea... Baina ezinezkotasuna, maiz oso sentitua izan arren, ez da agerikoa. Irudimen kritiko utopikoak eman behar digu ezinezkotasunaren kontzientzia. Edo Žižeken hitzak gogoan hartuta, errealitate neoliberalaren fantasiak biluztu behar ditu irudimen utopiko kritikoak. Hitz edo irudikapenetan geratuko balitz, oster, antzua izango litzateke.

Gizonak asma, Jainkoak xeda. Jardun utopiko pragmatikoak

Negazioan, *hau ezin da* hartan, esangura eta gurari utopikoak mamituko dituzten jardunbide positiboak asmatu behar dira. Ezin dira erreakzio eta erresistentziara mugatu.

Irudimen utopikoaren negatibotasunaren ondoren, irudimen immanentearen asmazioen txanda dator, jardun zehatzetan gauzatuko diren asmazioak.

Gizonak asma, Jainkoak xeda, dio esaera zahar batek. Pareko burubidea dugu hemen: jendeak asmatu behar du, alegia, jendeak asmatu behar ditu gurari eta esangura utopikoak: irudikatu, proposatu, proiektatu behar ditu eta gauzatu... non eta borondatez kanpoko 'inguruabarrek' ('sistema' barne) xedatu duten errealitatean. Inguruabarrek xedatzen dute jarduna: arautu, agindu, bideratu, zehaztu, zedarritu, ahalbidetu..., baina xedeak irudimenezko gurari utopikoetatik ezarri behar dira; antagonismoen ondorioetan, auzi eta arazoetan joan behar da erabakiz zein diren xedeak (xede operatiboak operazio zehatzean, edo xede estrategikoak auzi estrategikoetan). Hitz gutxitan, xedea beti izaten da gurarien eta egoeraren arteko tentsioan irudikatu eta gauzatu behar diren jardun pragmatikoen edukia. Gurari eta xedeen artean egoera materialaren *xedapena* dugu, jardunez gaitu behar den xedapena, hain zuzen.

Horrela, bada, jardun pragmatiko utopiazaleek hiru aldi edo hiru geruza dituzte: (1) ideal utopiko zehaztugabeak eta haiek eragiten duten negatibotasuna, sentimendu kritiko erradikala errealitatearekiko; (2) joera utopikoak materializatze aldera, ideal horiek zehazteko ahalegin kokatua egin behar denez, sentimendu kritikoari analisisa erantsi behar zaio; eta (3) ekinez ideal horiek materializatuko dira, bestela esan, ekintza zenbaitek irudimen utopikotik hartuko dute zentzurik.¹⁴ Ikus dezagun adibide bat: ideal edo gurari utopiko dugu berdintasuna, generoz edo arrazaz gaitu berdintasuna, esaterako; horiei esker sentitzen dugu genero edo arraza bazterkeria *ezin* dela izan, baina bazterkeriarekin topo egiten dugunean nola borrokatuko dugun, nola gaitu berdintasuna erabaki behar dugu gauden egoeran bertan; jardun zehatzak, pragmatikoak, behar ditugu, agian herriko jaietan libre bizitzea gauzatzen duten proposamenak, agian gelakideen artean berdintasuna lortzeko ariketak.

Pragmatismo utopikoan, muina ez da xede utopiko bat gure egoerara moldatzea, gure egoera xedera moldatzea baizik: errealitate jakin bat eraldatu xede utopikoa materializatze aldera. Xede utopikoak ezin dira erdietsi sistemaren ezinezkotasuna gainditu gabe, baina aldi berean guraria bete dezakegu une batez, alderdi batez, neurri batez... Begi bistakoa da zein den halako jardunbide baten tentsio egituratzailea, nire ustez, praxi iraultzaile ororena.¹⁵ Erroka, ikuspegi honetatik, politika bera da.¹⁶ Politikak berekin dakartzan dilema estrategikoak eta taktikoak, berekin dakarren eginbehar sorta luzea: egoeraren analisia, xedeen etengabeko birdefinizioa, egoera xedeen argitara berraztertzea, aukera berriak eta emankorrakoak sortzeko beharra, unean-unean erabaki eta ekin beharra eta abar. Pragmatismo utopikoa dilema politikoak sortzeko jardunbidea da. Dilemarik eza bakarrik izan daiteke heteronomia modu bat, irizpideak eta erabakimena indar natural, erlijioso, juridiko, burokratiko edo metafisiko bati egoztea, jendeari aitortu beharrean.

Pragmatismo utopikoan muina ez da xede utopiko bat gure egoerara moldatzea, gure egoera xedera moldatzea baizik: errealitate jakin bat eraldatu xede utopikoa materializatze aldera

Balizko errotako irina. Utopiak lan hipotesi

Gurari, esangura edo ideal utopikoak alegiazkoak dira materializatu aurretik: hipotetikoak. Irudimen utopikoak hipotesiak planteatzen ditu, forma askotan irudikaturik, gure jardun, borroka, ahalegin, lan eta bizierak bideratzen dituzten hipotesiak: «hau ezin da izan, eta beste modu batera egiterik bagenu?». Eta, hitzetatik harago, irudimen immanentea den aldetik, jardunean, praxian gauzatuko diren lan hipotesiak.

Hipotesi bat gertaera batzuen kontu emateko azalpena da; lan hipotesia, ostera, gure jarduna zehazteko eta bideratzeko sinesmena, ideia arautzailea, *zer egin, egikaritu eta egiaztatu* erakusten omen diguna. Lan hipotesiak munduaren joera birtual, potentzia edo posibilitateei buruzko proposamenak dira, errealitatearen gaitasunei ekiteko proposamenak. Ildo horretan ezagunak dira Kanten *sinesmen pragmatikoa*, ekintzaren zerbitzura dagoen sinesmena, eta *ideia arautzailea*, lortezina izan arren norabidea erakusten digun sinesmena. Lan hipotesiak bietatik izan ditzake, baina helmuga atze-manezina barik, ekintzaren zentzuzko eremua zehazten du. Gertarazi nahi dugun gurari edo esangura ideala zehazteko eta gauzatzeko eremu zabala da. Hipotesietan gure asmazioak ari gara zehazten eta xede bihurtzen. Ikus dezagun adibide ezagun bat, Badiouren *hipotesi komunista*.

Hipotesi bat [...] ez da adimenaren suposizio fantasiatsu bat, ez da irudimenaren asmazio sinesgarri edo sinestezin bat. Ez. Nik esperimentu gisa ulertzen dut hipotesia, pentsamenduaren eskema orokor gisa, esperientzia konkretuak sortu ditzakeena eta, horrela, ezarian gorpuztu eta egiaztatu ahal dena [...]. Hipotesi komunistak ideiak, alegia, ideia komunistak ematen digun eskema baten posibilitatea eta esperimentazioa ekartzen dizkigu (2016: 89).¹⁷

Lan hipotesia den aldetik, aurrera begira zertan eragingo dugun seinalatzen digu. Eta, oroz gain, egiaztatu beharreko sinesmena da. Hau da, ekintzaren bidez, egitez egiaztatu eta materializatu behar dugu. Areago ere:

Komunistek oraingo egoeran pentsatzeko modukoak diren era politikoak zehaztu behar dituzte. Hurrengo urratsaren irudikapen sinesgarririk lortu ezean, edozein mugimendu iraultzaile kale itsuan sartzen da, ez du irtenbiderik... (2016: 94).

Marxistago ere esan genezake: ez da ideal bat bete behar, oraingo errealitatean dauden kontraesanei oldartu behar zaie, amestu behar ez dugun etorkizun ideala errealitatea izan dadin. Hipotesi komunista oraingo egoeran gauzatu behar da. Hurrengo urratsak (edozein jardun edo ekintzak)

sinesgarri izan behar du: utopia komunista jardun politiko sinesgarrietan zehaztu behar da (egoera jakin batean dagoen jendearentzako sinesgarri). Etorkizun hurbila irudikatu behar da, eginez egin, eta ez, dio Badiouk, *etorkizun den paradisuaren margolan gartsurik* (2016: 94). Ideal utopikoak zabalik jarraitzen du, baina ekintzarako lan hipotesiak zehaztu behar dira. Beraz, etorkizun hipotetiko utopikoa zehaztu eta materializatu beharra dago ekintzarako, ekintzaren bidez eta ekintzan bertan. Labur esan, etorkizun utopikoak zabala behar du, baina harako praxiak zehatza eta kokatua.

Badiouk pragmatismo iraultzailerako bide bat ematen digu, berak hala esango ez balu ere. Ez dugu behar utopia irudikatzen duen margorik ederrena: aldiz, arian-arian agertzen diren arazo eta gatazketan zer egin erabaki behar dugu. Eta horrek egoeraren azterketa materialista eskatzen digu. Hortaz, pragmatismo iraultzaileak ez du zehazten zer etorriko den politika iraultzaile baten ondorioz, zehazten du orainaldian zer gainditu behar den, zentzu utopikoak gauzatze aldera; hau da, lan hipotesi gisa asmatzen du zein diren xedeak eta zein jardunbideak gainditu beharreko oztopen harira (jendeen sufrikario materialak, jabego pribatua, lan esplotazioa, boterearen pribatizazioa, sexismoa, arrazismoa eta abar).

Ezina ekinez egin. Posibleen pragmatismoa

Ondo dakigunez, pragmatiko eta pragmatismo hitzak zentro eta eskuinaren jabego erretoriko bihurtu dira. Gehienetan posibilista, utilitarista, errealista edo egonkortasun hitzekin batera aditzen ditugu, maiz ezintasun eta etsipen doinuz. Pragmatikoa, onean hartuta, printzipio abstraktu zurrun eta orokorretatik ihes egin eta egintzen lorpen zehatzetara jotzen duena omen da.

Pragmatismoa, erabilera erretorikoaz gain, bada gobernatzeko era ziniko bat, politika *posiblearen artea* dela dioena. Joko arauak zein diren eta zein den bakoitzak joko eremu hartan dituen baliabideak ohartze eta onartzeari dagokion

jokatzeko jakinbide zuhurra omen da pragmatismoa. Boteretsuen pragmatismoa da hori. Berak sinetsarazi nahi digunez, ez dugu gure esku arauak edota egiturak aldatzerik; arauak zehazten dute zein diren bakoitzaren eskumenak, eta, horiek ere aldatu nahi izanez gero, joko arauen labirintoetatik jo behar da joko bere horretan onartuz edo, asko jota, maltzurki nork bere interesen alde bihurrituz. Finean, dogma bat ezartzen du: egin daitekeenaz beste ezin da egin (eta jokoan onurei baino ez diete begiratuko). Bistan da, dogmatismo horren bidez mun-

Determinismo inozo
eta utilitarismo
itsuak nahasten
dira pragmatismo
dogmatikoan, eta
horiek biak gainditu
behar ditugu

dua euren interesetara makurtzen dute behin eta berriro. Horrela, pragmatismoa jokatzeko moduz hitz egiteko era bihurtu da, jokatzeko modu okerrak eta zuzenak bereizteko modua. Eta jokatzeko modu batzuk galarazteko edo tratatzeko diskurtsoa. Mezu bakarra du azkenean: *xede edo helburu horiek ezinezkoak dira, ez dutelako oinarririk oraingo egoeran*. Jakina, oraingo egoeraren azterketa 'neutroa' oraingo egoera bera ezarri duten egitura material eta kognitiboetatik egiten denez, ez dago sistema gainditzerik.

Ez da behar irudimen utopiko handirik ulertzeko oraingo egoeraren azterketa beste ikuspuntu askotatik egin daitekeela. Eta egoera horrek beti eskaintzen dituela egintza ildo batzuk, ez bakarra. Determinismo inozo eta utilitarismoitsuak nahasten dira pragmatismo dogmatikoan, eta horiek biak gainditu behar ditugu. Aukerak zabaltzeko pentsamendua, irudimena eta sentiera behar ditugu; egoeran diren, izan daitezkeen joera posible eta birtual guztiei antzemateko jakintza pragmatikoa. Bide horretatik jo dute Didier Bebaise eta Isabelle Stengersek, William James filosofo pragmatistari jarraituz garatzen ari diren pragmatismo espekulatibo edo posibleen pragmatismoarekin.

Pragmatismo dogmatikoa deritzodana, funtsean, *probableen* pragmatismoa da, konformismoaren logikari darraion: egokitu, moldatu eta konformatu probable denarekin. Ez du onartzen posiblea, probablearen lekuan geratzen da beti, frogatu daitekeenaren eremuan (frogatu daiteke lehena horrela gertatu delako, sarri horrela gertatzen delako). Posibleen pragmatismoak, berriz, irekitasuna aldeztu du, frogatu denetik harago doa posibleen insistentziaren bila. Posibleek, hau da, pentsatzeko, sentitzeko, jarduteko bestelako erak, behin eta berriro agertuz, orainaldiak ('oraingo egoerak') etorkizuna definitzeko izan lezakeen autoritatea hondatzen dute. Era horiek, hipotetikoak diren neurrian, fikziozkoak dira, alegiazkoak, eta soilik ikerketaren bidez frogatuko dugu posibleak direla. Bistan da, ikerketa, bilaketa behin eta berriro egiaztatzeko ariketa da.

Esan bezala, Stengers eta Bebaise Jamesen lanean oinarritu dira. James antideterminista, enpirista erradikala, materialista, pluribertsoaren aldekoa izan zen, eta, ondo ezagun denez, iparramerikar filosofia pragmatikoko kidea (Peirce, Dewey eta Meadekin batera). Pragmatismo horren ekarpena zein den ondo ulertzeko, ekintzaren filosofiaren gorabeheretan kokatu behar da.¹⁸ Labur bilduta, soziologiaren klasikoak gutxi asko bi jarreraren artean kulunkatu ziren ekintzaren teorizazioan: ekintza razional utilitarioaren eta kantiar ekintza moral librearen artean. Hurrenez hurren: ekintza etekinak lortzeko bitartekoa versus arau moralei libre jarraituz bete beharreko jarduna. Pragmatismoa, aldiz, bi horiek baztertzen zituen tradizio batetik agertu zen: Herder, Humboldt, alemaniar erromantizismo eta, hitz batez, adierazpenaren antropologiatik. Tradizio hartan sar daitezke Hegel, Marx, Dilthey eta beste asko. Bakoitzak bere modura, ekintzaren izaera adierazkorra eta sortzailea nabarmendu zuten (Joas 1998: 282). Ekintza, pragmatismoaren kasuan, arazoak sormenez gainditu behar dituen adimen esperimentatzaile baten adierazpena da.¹⁹

Sormen hori kokatua da, testuinguru jakin batekoa, egoeraren egoerakoa (giza askatasuna bezala). Determinismorik

gabe, aktore sozialek konponbide inekibokorik ez duten arazoak gainditu behar dituzte euren sormenaz (ez dago Beste Handirik!). Aktoreek asmatu beharko dute konponbidea eta zer egin erabaki beharko dute. Hartan landu eta zaildu beharko dute euren adimen sortzailea, euren gaitasuna ekintza-arazoak gainditzeko aukera praktikoak asmatuz. Pragmatismoaren kezka da nola lortu dezakegun hori, nola lortu arazoei aurre egiteko ahalmena, nola ahaldudu aktoreen ekintza.

Pragmatistek ez zuten bat egiten denean, baina bazuten ideia komun bat jakintzaren izaeraz; haien ustez, jakintzak ez du fundamentu absoluturik eta mugatua da, etengabe autofundamentatu behar den egiten eta ekiten jakitea da, hau da, ekintzaren alderdi bat da. Hitz batean, ikerketa da. Ikuspegi horren arabera, batera doaz, beti elkarri loturik, *ekitea(jardutea)-signifikatzea-ezagutzea*. Alde horretatik, Nietzsche edo Marxen antzera pentsatzen zuten: praktika sozialek egiten dute *kontzientzia*; kontzeptuak eta hitzen esanahiak praktika sozial partekatuen sistema kondentsatuak eta oso dentsoak baino ez dira. Baina pragmatistek giza jakintzaren sormena nabarmendu nahi zuten. Giza jakintza, praktikan jarduteko jakintza izateaz gain, sortzailea da. Mundua errepikatzeo baino, munduak sortzeko lana da, mundu berriak eta zabalagoak egiteko lana.

Etengabeko ikerketa horren eragilea bizitza da, hobe esan, bizi-kontuek eragindako arazoei aurre egitea. Horregatik, sinesmenen balioa, beren egia, praktiketan dago, esperientzia positiboak edo bizigarriak egikaritzeko bultzatzen gaituzten edo ez. Egia, horrela ulertuta, hipotesia, ideia edo sinesmena praktiketan egikaritzearen efektua da, edo, bestela esan, esperientzia bilakatzea. Alde horretatik ulertu ahal da mundu aniztasuna; izan ere, esperientzia eremu anitz ditugu, eta horietan hipotesiak egikaritzeko logika anitz. Antza, esperientzia-eremu intelektualetan ikerketa patxadatsuaren zain egon gaitzke; nahikundearen eremuetan, berriz, hautatu egin behar da. Eremu horietan daude maitasuna, auzi moral

praktikoak edo bizitza soziala; eta horietan pasioek lagundu behar digute, gure ezagutza razionala mugatua delako eta ezin garelako betikotu erabakietan. Zer esango genuke, beraz, testuinguru politiko irrazional batean pasioek izan behar duten eginkizunaz? Zer esango nahi, desira eta fedeez?

Fedeak berebiziko garrantzia du Jamesen pentsamenduan. Bere liburu ezagunenetako batek, hain zuzen, *The Will to Believe* du izenburu. Fedea ideia-egingarritasuna sentitzea da, ideia egiteak zentzua duela eta posiblea dela. Esperientzia eremu batzuetan, fedeak bere egiaztapena sortzen du. Jamesen lanean, egia ideiei gertatzen zaien zerbait da, ideia-errealitatearen balioa 'eginarazten duena'. Horregatik, sinesmen bat, ideia hipotetiko bat, zentzu bereko efekturik sortzeko gai ez bada, ez da *egia praktikoa* izatera iristen; ez da praktiketan gauzatzen. Baina ez da besterik gabe baztertu behar (utilitarismoan bezala). Alderantziz, ideian, hipotesian federik badugu, egia praktikoa izan dadin ahaleginduko gara, insistituko dugu posibilitate horretan eta joango gara ikasiz nola egikaritu. Jamesen esaldi hedatuenetako batek dioen legez: *nire nahikunde librearen lehendabiziko egintza nahikunde librean sinestea izango da*. Baina esaldiari erantsi behar zaio sinesmen horrek aske jokarazi behar gaituela hipotesia (*nahikunde librea dut*) egia praktikoa izan dadin.

Jamesen ustez, ideiak, hipotesiak bideratzen du esperientzia. Egia gure esperientzia partikularrean egikaritzen da aurretiaz hor zegoelako hipotesi gisa, lan hipotesi baten modura (edo gure imajinarioan errotutako zentzu, sentiera gisa). Hipotesi biziak ekiteko motibagarriak izaten dira sinesgarriak direlako, eta horregatik ere sinesmen gaia egikaritzera bultzatzen gaituzte, aurrera begira jartzen gaituzte. Hipotesia praktikan egikaritzen den neurrian izango da egia praktikoa, zentzu-efektuetan egiaztatua. Hortaz, hipotesien egiaztapena ez da errealitatearen ordena baten kontu ematea, mundua, gure esperientziak zabaltzea baizik.

Hori dena kontuan hartuta, argi dago pragmatismoa ez dela 'ez egiteko aitzakia', edo modu bakar eta errealista batean

jarduteko. Pragmatikoak ekin behar du, bere ideia, bere hipotesia gauzatze aldera, eta ekinaren ekinez ere, insistituz, hipotesia egikaritu behar du. Funtsezkoa da ideari eustea, ideiarekin engaiaturik egotea, ideia gauzatzeko modurik topatze aldera. Ekimena eta sormena batera doaz etengabeko ikerketa edo bilaketa batean.²⁰ Lekutan gaude, beraz, bote-retsuen pragmatismo dogmatikotik. Bestelako pragmatismo batera iritsi gara honez gero: pragmatismo eraldatzaile batera. Urrats bat gehiago eta praxi askatzailearekin berdindu ahal den pragmatismo iraultzaile batera ailegatuko gara. Ez da zaila, baldin eta gure hipotesia sistema kapitalista, patriarkal eta heteronormatiboa destituitzea eta bestelako jendarte ins-

tituzioak instituitzea bada, eta ez iraultza behin betiko 'salbazioa' izango dela.

Pragmatismoak eskumen mugatuen balioa aldarrikatzen du: eskumen mugatu horiek ahalmenak dira, hain zuzen. Aldatzeko eta hautatzeko ahalmenak! Dena ezin dugu, baina badugu zereginik, badugu zerbait egiterik. Pragmatismoa, beraz, ekiteko gonbita da,

Pragmatismoa ez da 'ez egiteko aitzakia', edo modu bakar eta errealista batean jarduteko. Pragmatikoak ekin egin behar du, bere ideia, bere hipotesia gauzatze aldera

ideia edo ideala lan hipotesi bihurtzeko, egoeraren analistik xedeak eta gauzatze bideak asmatzeko, fedez eta jakintzaz aritzeko eta egia berriak sortzeko. Jardunbide pragmatikoari jarraituz gero, pragmatismo iraultzailean iraultzaren gurari utopikoa hartuko dugu hipotesi gisa, hura gauzatzen eta egikaritzen ahaleginduko gara, egoera eta eskumenak tentuz aztertuta. Zertarako eta hipotesiari egia praktikoa dela gerta dakion, praktikan utopia gauza dadin. Orduan, praktikari gertatuko zaio esangura edo gurari utopikoa bere zentzua dela. Horrela, praktikaren zentzua esangura utopikoa izango da, eta idearen balioa, hipotesiaren balioa praktikan lortu duen efektua. Ezer aldatzen ez duen ideiak ez du baliorik,

ez du deus ere sortu; ezer aldatzen ez duen esangura utopikoak ez du baliorik, ez da ekintza efektiboak eragiteko gai.

Pragmatismoa ez da aukeretan erosoena edo errazena hautatzeko metodo bat, ezta dilemak baztertzeko burubidea. Alderantziz, dilemak sortzeko metodoa izan da, eta aukera zailena, sortzaileena, nekagarriena hautatzeko ariketa sortzailea. Mundua aldatzeko metodoa izan daiteke, ikertzeko, dudatzeko eta fedea izateko, eta ekintzetan posiblea, alegiazkoa, birtuala, potentziala egikaritzeko, balioztatze edo errefusatzeko ahalegina.

Horrez gain, utilitarismoa gaindituta, baina ekintza estrategikoa alde batera utzi gabe, hipotesiak egikaritu behar ditu, bestela zentzu barik geratzen da. Pragmatismo iraultzaile batean, hipotesien edukiak (gurari iraultzaileak) determinatzen ditu neurri handi batean jokatzeko moduak. Izan ere, egintza iraultzaileen esangura eta zentzua gurari iraultzaileak dira. Eta, nola ez, egintza iraultzaileek gurari horiek efektibo egin behar dituzte (ez ekintza kolpe batez, ez erabat, ez osorik, ezta betiko ere: baina egin, egin behar du). Horrela den ez da agerikoa, ez da dudaezina; eztabaida ideologiko eta diskurtsiboa izango dugu beti. Benetan ari gara gauzatzen gurari iraultzaileak? Gure jardun eta ekintzen zentzua iraultzailea al da? Erantzun bakarra orokortu ahal da: ekintzak, jardunak edo saioak ez dira hipotesiak betetzeko bitarteko neutroak, hipotesiak dira egikeran, hau da, jarduera gisa; bestela esan, hipotesiak eginetan egiaztatu behar diren esangurak dira. Maiz, estrategiek hipotesien egiaztapena geroratzen dute, kasu horietan ere ondo erakutsi behar da zentzuz ari dela, efektibotasunez ari dela hipotesia gauzatzen. Horixe da praxiaren arazoa.

Praxi iraultzailea eta iraultzen jakite zuhurra

Zapalketa, esplotazio, bazterketa eta injustizien aurrean, ukapen negatiboak eta irudimen utopikoak elkar elikatzen dute. Praxian lan hipotesiak zehaztu eta ekintza-xedeak efektiboki

gauzatu behar dira. Praxia negatibotasunean hazten den positibotasuna da: zaharra eraitsi eta berria eratzen ahalegintzen den positibotasun kritikoa.

Filosofoek mundua era desberdinetara interpretatu besterik ez zutela egin, baina kontua hura aldatzea zela idatzi zuen Marxek. Interpretazioari aldaketa efektiboa erantsi behar zitzaion, aldaketa praktikoa. Praxiaren lehendabiziko adiera *jarduera sortzailea* da, sortzailea bi aldetatik: natura (edo *kanpo materia*) eraldatu behar dute jendeak bizibeharrez, eta jardute horretan bere burua egiten dute. Kapitalaren lehen liburuan honela dio Marxek: «kanpoko naturaren gain obratzean eta hura eraldatzean, bere natura propioa eraldatzen du aldi berean». Gizakiek sortu eta ekoitzi behar dute: euren bizi-mundua, euren harremanak, euren burua sortu eta ekoitzi. Praxi askea, beraz, bizitza sortzea eta bizigaiak ekoiztea da, jardute sozial eta propositiboa. Praxia, finean, bizitza eta bizi-balioa sortzea da. Praxiaren bidez, jendeak bere burua, bere singularitasuna garatzeaz eta zentzumenez gozatzeaz gain, besteen banakotasuna eta giza espeziearen izana materializatzen du. Hori dena ekoizpen libre eta kontzientean. Praxi librean jendeak bere bizimodua eta bere burua produzitzen ditu libre, asmoz, elkarlanean eta elkar hartuta: nik egiten dudanaren bidez, nire gizatasuna eta zurea, gure duintasuna egikarituko eta materializatuko dira.

Lana zeritzon Marxek *giza bizitza* ekoizte eta sortze horri. Kapitalismoak izaera ekonomiko batera mugatzen du bizi-balioa, eta lana jardun alienatzaile bihurtzen du: produzitzeko moduek eta emaitzek produzitzen gaituztenez, gure oldezo ez den produkzioak alienatu egiten gaitu. Horrez gain, produkzio eta truke kapitalistan, ekoizleek ekoitzitakoaren zentzua galtzen dute, harreman sistema eta produzitutako balioa (merkantzia) berezkozat jotzen dituzte, fetitxe moduan hartuta ahazten dute lan jardunaren forma materializatuak baino ez direla. Produzitzen dutena ez da beren banakotasunaren materializazioa, eta sortzen duten balioa beste batek harrapatzen du: besteren bat jabetu da haien praxiaz.

Hipotesi marxistaren arabera, produkzio harremanak bestela antolatuko dira, ekoizle edo produktore libreen elkar-teak agertuko dira produkzio bideak sozializatu eta komun bilakatuko direlako. Anartean, praxi iraultzailea behar dugu, praxi askerako igaroaldia astintzeko, kapitalismoaren kontraesanak areagotzeko... Zertan da jakintza praktiko hura?

Praxi iraultzaile edo askatzailea, jardun praktiko-kritikoa den aldetik, errealitate sozialaren kritika ezin zorrotzagotik abiatu behar da (Bernstein 1979: 66). Ulertu behar dugu nola bihurtzen diren 'arau eta lege sistemiko' edo 'berezko indar' jende arteko harremanak, eta nola dagoen gure mundua, gure ingurua, materializatuta: zein diren mundua egituratzen duten eragintzak. Hori jakin ezean, nekez asmatuko dugu xede egingarririk, nekez jakingo dugu nola materializatu askapen hipotesirik eta nola insistitu inguruabar aldakorretan. Alde horretatik, Marxek beste zerbait eskatzen dio praxiari: ulermen kritiko teorikoa herriari zuzendu behar zaio, herriak gauzatu behar ditu kritikaren ideiak (Bernstein 1979: 67). Kritika hori ez da masen sentimendutik (euren sufrimendu eta gozamenetatik) deskonektaturiko analisi burutsua: kritikak zuzenean hitz egin behar die pasioei.²¹ Hala egin ezean, ez du atxikimendurik izango. Gogora dezagun errealitatearen ulermen kritikoak ez duela ideal utopikorik eskaini behar; aldiz, jendeari azaldu behar dio zergatik ari den sufritzen, lagundu behar dio bere egoeraren kontzientzia izaten. Ulermen kritikoaren bitartez, jendeak ulertu beharko luke praxi alienatua zertan den eta praxi askatzailearen asmoa zein den.

Oñetako lurrau ikara jabilt. Materia aldakorretarako jakintza maltzurra

Ikusten denez, pragmatismo iraultzailea iritzi dudana ez da oso berria; termino marxistetan *praxi iraultzailea* da, aritze praktiko-kritiko bat. Praxi hori bi ezaugarritan bereizten da idealismo eta boluntarismotik (baita estatu-boluntarismotik ere): batetik, izan badiren instituzio sozialak eta horien

menderatze erak kritikoa eta praktikoki eraldatzeko aritzea da, eta, beraz, instituzio horiek sakonki aztertu eta ezagutu behar dira; eta, bestetik, instituzio horien kontra eta horietan berorietan hasten da praxia, jakinda errealtate soziala aldatzeko asmoak ez direla betetzen borondate hutsez.

Terry Eagletonek (2011: 86) istorio bat du honetaz: norbaitek irlandar kaikutzar estereotipikoari galdetu dio zein den geltokira bidea, eta irlandarrak erantzun, «tira, ni ez nintzateke hemendik hasiko». Egoera ez da onena egin nahi den bidea egiteko, ez da abiapunturik egokiena, ezta erosoena ere, jakina. Baina gauden eta bizi garen egoeratik jo behar dugu. Ez dago egoera 'aratz' bat non bideari ekin, estrategia argi bati jarraituz. Praxi orok iraganalditik jasotako inertziak gainditu behar ditu, praxi orok unean-unean jardun behar du. Ez da zerotik sortzea; berria zaharretik sortuko da, eta gainera zahar horrek ezarri dituen baldintzetan. Praxi iraultzaileak, zentzu honetan, muga jartzen die ultraezkertiarren aktibismoari eta idealismo hutsari. Biak dira materia soziala ez ezagutzetik edo kontuan ez hartzetik eratorritako jarrerak, bietan iraultza edo eraldaketa soziala nahi hutsaren emaitza izan daitekeela uste da. Kasu batean ekitetik (ekintzaren fetitxizazioak) eta bestean irudikatzetik (helburuen fetitxizazioak) hordialdi iragankor baten zentzua lor daiteke, baina mundu sozialaren materialtasunak bere horretan iraun ohi du.²² Askotan materia horren irakurketa partzialetatik datoz joera magiko horiek.

Materia oso kontzeptu zabala da, baina adiera berezi bat eman ahal diogu: praxiari dagokionez, materia ideari kontrajartzen zaiona eta nahikundea mugatzen duena da. Izan ere, gogamena (ideia edo nahikundea) eta materia soilik *jardutean* ulertu daitezke, jardutearen alderdiak edo funtzioak dira. Materiak sortzen du nahikundea (bizi-grina) eta materiak desirak eragotziz ematen dio bere subjektibotasunaren eta kanpo-munduaren kontzientzia.

Materia dira gure borondateari bidea ixten dioten indarrak eta, noiz edo noiz, ideia gauzatze aldera ditugun aukerak eta abaguneak. Izaera material hori dute harreman sozialen

antolabideek eta jasotako erakundeek; eta badugu ere materia psikosoziala, gorputzak sozializatzean ezartzen diren dispozizio eta azturak. Gainegitura eta azpiegiturari buruzko eztabaidetan, sarri ahazten da biak ala biak direla *egiturak*; eta biak ala biak direla sozialaren antolakuntza sozialak. Kontua da zeinek egituratzen duen, egoeran-egoeran, sistema soziala. Eta hori jakiteko metodo argigarri bat dugu praxian bertan: sistemari eraldatzeko egiten zaizkion exigentzia guztietan erantzunak ez dira berdinak, ezarian lor daitezke erreformak; baina ailegatuko gara une batera, non sistemak ez duen gehiagotan amore emango. Orduan esan dezakegu sistemaren egitura nagusietako batera iritsi garela. Eskari batzuk haraino iritsi ziren aspaldi: produkzio bideen sozialazioa, jabetza pribatuaren desagerpena, larregizko aberastasunaren debekua eta abar. Haiek egikaritzea, izan bete-betean, izan partzialki, sistema iraultzea da. Hala eta guztiz ere, materia ez da soilik egungo sistemaren itxitura. Aukerak eta posibilitateak, iduriz, oso birtualak edo soilik potentzialak egungo materia sozialean oinarritzen badira ere, bestelako materia sozialerako bide dira. Praxi iraultzaileak izan daitezkeen aukerak materializatu behar ditu, edo, beste terminologia bat erabiliz, bestelako mundu sozialak instituitu behar ditu, bestelako instituzioak gauzatu.

Materia sozial ezarria destituitzea eta bestelakoak instituitzea ez da goizetik gauera egin daitekeen sorginkeria. Iraultza, erabateko eraldaketa den aldetik, jendarteko dispositiboetan eta jendearen dispozizioetan errotu behar da. Egia da askotan iraultzak bi esanahi desberdin dituela: batzuetan botere politiko berezia (estatua, adibidez) hartzea da, botere pribatu hori

Materia sozial ezarria destituitzea eta bestelakoak instituitzea ez da goizetik gauera egin daitekeen sorginkeria. Iraultza jendarteko dispositiboetan eta jendearen dispozizioetan errotu behar da

gainetik kenduta jendarte komuna (herria, publikoa...) askatuko delakoan; baina, bestetan, jendarte berri bat eratzea da, kasu horretan geure burua eta geure arteko harremanak eta haiek antolatzeke erak, jarrerak, arau sozialak eta abar irauli beharko genituzke. Konstituzio eredia eta instituzio eredia deitu ahal diegu hurrenez hurren: edo sistema politiko berria konstituitu, edo sistema sozial berria instituitu.²³ Oso ezaguna den bi urratseko estrategiaren arabera, botere konstituitzaile berriak, estatu iraultzaileak ekingo zion jendarte berria instituitzeari, edo, gutxienez, hori gerta zedin eraldatuko zituen egitura sozial nagusiak. Folk politiken estrategiak kontrakoa dirudi: jendarte berria instituitzen badugu, berez jausiko dira botere bereziak. Baina jendarte berri horiek instituitu behar dituzten eragileek 'botere konstituitzaile' txikien antza hartzen dute: botere-eragile formalizatu txikiak dira, azken finean. Badago beste aukera bat, pentsa daiteke, iraultza berez etorriko den eragilerik gabeko eragintza baten emaitza izango da.

Aski urrundu gara praxitik, praxia bere burua eraldatzen eta lantzen duen eragile baten egintza delako. Eta egintzarako jakintza berezia eskatzen duelako. Grezia klasikotik datorkigu praxi hitza. Hainbat egite mota bereizten omen zituzten greziar klasikoek, eta guztiek zuten jakintza berezi bana. Artisauak *téchne* delakoa izan behar zuten, sortzeari (*poiesis*) zegokion jakintza. Izakari edo gertakari egonkor eta iraunkorrei buruzko jakintza *episteme* zen, egite teorikoari zegokiona. Eta bizitzaren dilemetan, erabaki gaitzetan edo inguru aldakorretan eta arazoen aurrean aterabiderik asmatu behar zenean, *phronesis* (zuhurtzia) zen jakintza egokia. Huraxe zen praxiari, egite praktikoari zegokion jakintza.

Antza denez, praxia jardute immanentetzat zuten, immanentea egilearekiko, egoerarekiko, inguru materialekiko eta immanentea xedearekiko. Marxek esango zuen moduan, praxi askea da geure burua egitea, inguru materialean eta sozialean eragitea, eta xedea gauzatzea. Dena jarduera berean. Praxi askatzaileari, materia soziala iraultzeko eta erakunde sozial berriak sortzeko jarduerari dagokion jakintza pragmatismo

iraultzailean ikusi dugu: irudimen eta zuhurtzia immanente eta sortzaileak, egoeraren analisisan eta ulermen kritikoan oinarrituak, arian-arian jardutean xedeak zehazten dituen eta horiek gauzatuz ideia edo esangura hipotetiko-utopikoak egikaritzen dituen.

Phronesis delakoarekin praxirako beste egiten jakite bat suposatzen zuten greziarrek, *metis* edo zuhurtzia maltzur eta artetsua. Odiseo famatuari *polymetis* deritzo Homerok: amarrutsua. Egiten jakite horretan, fantasia, irudimena, sormena eta zuhurtzia uztartzen dira. James C. Scott (1998) antropologo anarkistak gogorarazten digu sendagileek eta medikuek izan behar zutela jakintza hura: jakintza praktikoa antidogmatikoa, abstrakzioz onartzen ez duena, helburu argiak dituen (sendatzea edota lehorratzea) eta, horiek deskuidatu barik, aldi berean, egoera edo ingurua xehe-xehe aztertzen dituen eta, hala behar izanez gero, xedeak berraztertzen dituen. Inguuru aldakor, bizi, nahasi eta konplexuetan behar zen ezaguera omen zen *metis*-a. Praktikan bertan ikasi beharrekoa. Hala izanik, ez zait iruditzen oso burugabea inguru eta garai neoliberaletan halako jakintza baten beharra dugula esatea; jakina, ez utopia neoliberallean arrakasta izateko, bestelako utopiarik hartzeko baizik. Azken finean, gaurko kapitalismoak, gaurko testuinguru materiala bertsatila, pluridimentsionala eta polimorfikoa denez, etengabe berritzera, asmatzera eta esperimentatzera behartzen ditu sistemaren aurkariak. Zapaldu eta esplotatzen dituenak, zapaldu eta esplotatuak diren hartan, zuhur eta maltzur jokatzera behartzen ditu.²⁴ Bertan, beraz, ikasi behar da sistema azpizokoa eta amarruz hondatzen; eta bertan ere zerbait berria instituitzen. Ez dira gehiegi, ordea, bestelakoa eraikitzeko *metis*-a ikasi eta trebatzeko dispositibo komunak, ezarian eratu beharko dira.

Praxi iraultzailearen mamua

Utopia eta pragmatismoa lokatu dira ezker iraultzailearen egintzetan, batez ere, Mendebaldeko ezkerrean (beste aire

bat sumatu ahal izan da Hego Amerikan eta beste zenbait lekutan). Testuinguru honetan, nire iritziz, ezkerak utopia eta pragmatismoa uztartzen ikasi behar luke, ostera ere,

Ekintza iraultzaile
'pragmatikoa' ez da
Espirituaren Gizateriaren
Patua betearazteko
ariketa; harreman
sozialen eraikuntza
historikoek sortzen
dituzten arazoak
gainditzeko jardunbide
sortzailea da

agian beste era batez: utopia ekintzarako eta eremu imajinario gisa hartuta, eta pragmatismo iraultzaile batean (pre)figurazioak (zehatzago esan, zentzuan figuraturik) eta estrategia uztartuz (epe eta ziklo luzeko borroketan zentzu iraultzailea galdu barik). Uste hori, egia esan, ez da nire kolkoan egositakoa, ezker agoniakoen nora ez eta ezintasunei eman zaizkien erantzunetan keinu pragmatikoa hobesten dutenetatik hartu dut. Prag-

matismoa, ikusi bezala, ez da epe laburreko etekin, irabazi edo garaipenei eusteko jarrera, ideiak eta gurariak egoera eta joera gaitzetan gauzatzeko insistentzia baizik, unean egiten jakitea hobesten duen jarrera. Eta, aldi berean, ideiarengan fedea izateko jarrera, metodoa; ez printzipio edo balioen fede dogmatikoa, hain zuzen, posibilitate, praktika eta xedeen fede da eta. Erronka arriskutsua da, ez du efektibotasunik behin betiko ekarriko, ez du 'proiektu baten segurtasuna', zabalatasun eta ziurgabetasunean egiten du aurrera, unean-unean (eta ez etorkizun handi batean) egikaritzen duelako pragmatikoki utopiaren zentzua. Hura gauzatzeko behar diren ekinei eta egintzei erreparatuz, haiek gauzatzeko ahaleginetan tematuz, instituituetan zer egin daitekeen kontuan hartuz.

Ekintza iraultzaile 'pragmatikoa' ez da Espirituaren Gizateriaren Patua betearazteko ariketa, ezta arima on eta ederren emaria, ez da balio sakratuak edo arau razionalak egikaritzeko jarduna; ekintza iraultzailea harreman sozialen eraikuntza

historikoeak (esaterako, ekoizpen bideen sistemak) sortzen dituzten arazoak gainditzeko jardunbide sortzailea da. Ez dago alde zurririk jakiterik zein izango den konponbidea, sormenez aritu behar da: irudimenez eta gogoetaz, 'subjektuarekin', egoera dilematikoetan eta arazotsuetan. Une bateko imajinarioan zentzu-emaile diren 'esangurak eta gurariak' ez dute beste funtsik: ekinaren ekinean agertu diren mugak eta erresistentziak gainditzeko ariketan piztu dira, haietan zehaztu nola bihurtu lan hipotesia eta nola gauzatu, nola esperimentatu... Praxi iraultzailearen kasuan, imajinario iraultzaileak iradokitzen du sistema bera aldatu ahal dugula, utopia gauzatu ahal dugula: kapitalismoak ekarri duen hondamendia gainditu ahal dugula kapitalismoa ezabatuz. Oraingo antagonismo historikoak gainditu ahal ditugula gure ekintzaz, gure oldez. Eta borroka horretan, hain zuzen, agertzen dira horiek gainditzeko forma zehaztuak, xededunak, eta estrategiak.

Bukatzeko, bi aipu utopiaren zentzuaz. Lehendabizikoa, utopiagintzaren aldeko porrokatu batena, Fredric Jamesone-na (2010: 42-43):

Zentzu horretan da nola utopologiak berpizten dituen gogoan aspaldi lokartu ziren alderdiak, erabili gabe atrofiatu diren irudimen politiko, historiko eta sozialaren organoak, aspalditik landu ez ditugun praxiaren giharrak, egiteko ohiturarik gabe, ezta sublimatuta ere, ahaztu ditugun keinu iraultzaileak. Etorkizun (tasun) haren eta bestelako etorkizunen aldarrien halako berpiztea ez da programa politiko bat, ezta praktika bat ere, baina nekez pentsatu ahal da nola gauzatu litekeen ekintza politiko eraginkorrik edo iraunkorrik hori gabe...

Bere ahotik mintzo dira hitzok: «erabili gabe atrofiatu diren irudimen politiko, historiko eta sozialaren organoak, aspalditik landu ez ditugun praxiaren giharrak...». Etorkizuneko utopiak gure irudimenean lantzeak praxi iraultzailearen giharra zailtzeko ariketen eremua zabaltzen digu, ez etorkizun horiek huts-hutsean bete ditzagun, oraingo zapalkuntza hobeto uler dezagun, etenik ez duen esplotazioa arrakala dezagun, eta uneko zein garaiko borroka xedeak gauza ditzagun.

Eta bigarrena, barrunbetik gogoeta hau animatzen ibili den mamua agertzeko aukera. Žižekena da, Trotskik bere egunkarian idatzitako gertaera bati buruzko iruzkina. Antza denez, 1935ean, Lenin hilda zegoela, ametsetan agertu zitzaion Trotskiri hilda zegoela ez zekien Lenin bat. Honela dio Žižekek pasadizoaren haritik (2009: 40):

Hilda dagoela ez dakien Lenin horrek irudikatzen du ez dugula proiektu utopikoei uko egiteko gogorik, ez ditugula gure egoeraren mugak onartu nahi: Lenin hilkorra zen eta okerrak egin zituen denok bezala; bada ordua, beraz, hiltzen utz diezaiozun, eta gure arazoei modu pragmatiko batean, ez ideologikoan, euts diezaiozun. Hala ere, Leninek bizirik dirau beste zentzu batean: bizi da Alain Badiouk emantzipazio unibertsalaren 'betiereko ideia' deritzona gorpuzten duen neurrian, alegia, porrotek eta hondamendiek ezabatu ezin duten justiziaren aldeko borroka eternala gorpuztu duen neurrian.

Mamu batek, agerpen espektral batek justiziaren aldeko borroka 'gorpuzten' duela pentsatzeak ondo erakusten du zein den ahula, giharrik gabekoa ezker iraultzailearen borroka. Lenin, Žižeken esanetan, utopiaren adierazlea da, kapitalismoan oraindik ere erraiak mugiarazten dituen adierazlea. Lenin espektral hori beste batzuetan agertu da Žižeken lanetan, beti borroka iraultzaileei esperantza apurra ekarriko dielakoan. Lenin errepikatzea, dio batean, ez da Leninek egin zuena errepikatzea; Lenin hilda dagoela eta porrot egin zuela onartu beharra dago, hortik galdu zituen aukerak, lortu ez zuena errepikatzeko (Žižek 2004: 156). Gureak ezin dira izan Leninen erantzunak, ezta galderak ere; bai, ostera, Leninen aukera galduak: egoera aztertu, ekin, saiatu, insistitu, ardurak hartu, ostera aztertu, moldatu eta berriro ekin eta ekin zuelako galduak. 🌱

Oharrak

1. Ez dut ukatu nahi jazoera batzuek izan dezaketen indar eta eragin iraultzailea, batez ere mobilizaziorako indar psikosoziala. Alain Badiouk jazoeraren ideia proposatzen duenean ere, jazoera horrek irekitzen duen egia zaion atxikimendua lehenesten du, azkenean, jazoera ostean iraultza egin behar delako: sistema soziala irauli behar denean, prozesu iraultzailearekiko atxikimendu, fede eta engaiamendua behar dira erruz. Luze jotzen baitute halako prozesuek. Baztertu nahi dut, berriz, antagonismorik gabeko gizartea ekar lezakeen *Iraultza Handiaren* ideia.
2. Baina, gero eta iritzi zabalagoa da eskuin populismoak badakiela subjektu hori gorpuzten. Antza denez, badaki jendeari esaten nork gozatzten duen desiraren objektua, nork lapurtu dion desira-objektua. Kapitalismo neoliberalaren aroan, sistema bera irrazionala den aldetik, razionalki ulertezina den aldetik, aise gainditzen ditu politika razional positiboaren mito aurrerakoiak (giza eskubideen balio aurrerakoi horiek). Horren aurrean, politika populista sintomatiko bat proposatzen digu Joseba Gabilondok (2017: 168): «populismo aurrerakoiak ez du gorpuzten edo ordezkatzten, baizik eta sintomen bidez politika ezkor bat desplegatzen du; hain zuzen, adierazle nagusiak 'gorpuzten edo ordezkatzten' duen fantasia politiko neoliberal, neonazional eta heteropatriarkala salatu eta jazartzeko». Arreta berezia emango diot politika ezkor horri; nire ustez, sintomatikoki bada ere, hor agertzen zaigu (*sentitzen*) *dakien masa*, dakitela suposatzen duten guztiek erakarri nahi duten masa, edo gutxienez masa, artikulazio guztien aurretik eta azpitik, energia soziala sortzen duen magma dela uste dutenek.
3. Sistemak ez du, askoren ustearen kontra, erdigune fatalik. Ezin da estrategia batez erdigune hori kokatu eta abaildu, ez dago jo eta bertan hiltzerik. Ikuspuntu horrek, sistemaren konplexutasuna baztertzeaz gain, sistemaren aurkakoen eragileen 'kutsadura' ahazten du; ez dago kanpo-posiziorik, ez behatzeko, ezta kanpotik eraginkor aritzeko ere. Barruan gaude, estrategia ezin da lotura kausal eta aldagai gutxi batzuen arabera alde aurretik taxutu; beti izaten da, arazo praktikoetan behin eta berriro erabaki zailen segida. Sistema, hala esaterik badago, aspaldi sakabanatu zen elkarri eusten dioten hamaika sistematan, eta beroriek ere beste horrenbestetan.
4. Fantasia totalitario bat Eagletonen ustez: «Aro modernoa gaixo dago utopismo latz batez, baina haren izena ez da marxismoa. Sinesmen zoro bat da: merkatu librea deritzon sistema globalak beste kultura eta ekonomia guztietan ezarri eta horien gaitz guztiak sendatuko dituelako sinesmena» (2011: 109).

5. Europa aldean, eskuin populismoaren gorakada azaltzeko, ongizate estatua eraispena aipatu ohi da. Ongizate estatuak babesten ez dituen masek, prekarizatzearen beldur, kanpo etsaiengandik (kapitalismo neoliberaletik, edo immigraziotik, edo bien arteko aliantza burokratikoetatik) babesteko, estatu totalitario populista nahi omen dute. Komunismo errealik ez dela, kapitalismo globalaren jokoan ongizate estatuak ez du zentzurik. Eliteen babeserako oso beharrezkoa da, ostera, prekarizatu eta prekarizatugaien artean banaketa eta herra zabaltzea. Horietako askok ondo gogoratzen dute muga gogor zainduak definitzen zutela ongizatea. 'Euskal oasia,' noski, kapitalaren barne munduaren bertsio lokala baino ez da. PNVk, bere *ardura(larritza)ri* esker, eskuin populismoaren utopia ondo beteta dugula iradokitzen digu (kasu horretan, eskuin populismoak salatzen duen estatu burokrazia ustelaren orde, espainiar ustelkeria agertzen da).
6. Kapitalismoaren aldeko fatalismoa ez da bakarra. Tradizio luzea izan du determinismo moduan ezkerrean; eta, oraindik ere, askok iragaritzen dute kapitalismoak bere logika maltzurrez bere burua hondatuko duela, baina sistema postkapitalista ankerrago batera joateko. Streeckek (2014) dio oposiziorik gabeko kapitalismoa kapitalismo-gaindosi batez hilko dela anabasa global, luze eta mingarri batean. Erdi Aro berri baten atarian omen gara; antza, aukeran dugu «barbaroak» izan edo «neo-feudalismo» baten atzaparretan jaustea (ikus Gabilondo 2016).
7. Boaventura de Sousa honela azaltzen du emergentzien soziologia: «Emergentzien soziologiaren xedea razionalitate eta ezagutza hegemonikoek aktiboki baztertzen dituzten etorkizuneko esperientzia posibleak joera eta latentzia moduan identifikatzea eta handitzea da» (2004: 241).
8. Srnicek eta Williamsen iritziz (2017: 19), folk politika hori gehienbat lehenaldiari begiratzen dion politika erreaktiboa da: epe luzeko helburu estrategikoak alde batera utzita, taktiken alde egiten du, praktika lasterrak eta jardun boluntarista eta espontanea lehenesten ditu (instituzionalaren aurretik) eta lokala, hurbila edo txikia hautatzen du. Politika horrek «irabazi estrategikoen gabezia» ezkututzen du ekiteko grina eta larridura batez.
9. Gaideterminazio hitzak dituen konnotazioei aurre egiteko diot kode-terminazioa, bai eta zentzuaz ari naizelako ere (ez antolakunde edo estrategia bakarreko gaideterminazioaz); zehatzago esan, 'adierazle nagusi' zurrunik gabe elkar kutsatuz osatzen diren politiken zentzu-artikulazioaz. Baina, politika horietako bakoitzak bere adierazle nagusia izan ohi duenez, kodeterminaziorako zeruertz utopiko komunik behar da, elkargune bat (adibidez, kapitalismoaren edo nazio-estatuaren bukaera). Bestela esan, artikulazio populista eta metonimikoa behar da (ikus Apodaka 2015). Hori dela eta, Srnicek eta Williamsen analisi eta

proposamen guztiekin bat ez banator ere, honako honekin, berriz, oso-osorik: «ordena hegemoniko berri bat ezartze aldera, gutxienez hiru gauza beharko dira: masa mugimendu populista bat, organizazio ekosistema sano bat eta abantaila uneen analisisa» (2017: 223).

10. Imajinarioaz darabildan erreferentzia nagusia Cornelius Castoridis izanik, imajinarioa zentzuak proiektatzeko gaitasun gisa hartzen dut: fundamentu ahistoriko eta asozialik gabe, sormenez sozialari era emateko gaitasuna. Imajinarioa ez da iruditeria besterik gabe, irudimenez alegia/egia sortzeko ahalmen soziokulturala baizik; eta horretarako *irudimen* hitza ibiliko dut, baina aski labor geratzen zaigula uste dut. Iruditu, irudikatu eta begitandu hitzetan 'ikustea' nagusitzen da; horrela, irudimena besterik eta bestela ikusteko ahalmena bide da, erradikalago hartuta, irudiak hutsetik sortzeko ahalmena. Iruditeria kontzeptuan, eratu diren irudien multzoarekin batera, kontuan hartu beharko genituzke irudi horien konnotazio sareak eta horiek denak sortzeko ahalmena eta jarduna: irudimena eta irudi(ka)tzea. Bestalde, sentiera, sentitzea, sentitua, bai eta zentzua ere, irudimenaren muge-tan barna gertatzen dira. Ez dago sentiera utopikorik (utopiak senti-tzea, igartzea eta desiratzea) irudimen utopikorik gabe.
11. Irudimen transzendenteak bisio utopiko fantasiatsuak ekoizten ditu. Bisio horietan nola sinetsi eta nola egikaritu tragikoa izan da askotan. Eta tragikoa izan da, halaber, «egoera iraultzaile batean, irudimen immanenteari (sukaldarien, erizainen, mekanikoen edo lorazainen zentzu arrunta, praktikoa) botererik ez ematea» (Graeber 2015: 95).
12. Graeberren ustetan (2015: 95), eskuina «dagoenaren ontologia poli-tikoa» bada, ezkerak, berriz, «irudimenaren ontologia politikoa» izan behar du (edo sormenarena, edo asmatzearena...).
13. Michael Löwyk Benjaminen lanetik erreskatatu nahi izan du utopis-mo ahula, hau da, utopiaren indar negatiboa. Benjaminen ustetan, ekintza iraultzaileak ez zuen utopia ekarriko, hondamendia berandu-tuko zuen. Itxaropen handirik ez zuten garaietako gogoeta da, gaurko garaien parekoetan esana. Utopiak, hala ere, indar motibagarria du: «Benjaminen ustez, klase borrokan materialaren eta espiritualaren arteko dialektika bat dago [...] borroka apustua materiala da, eragile so-zialen motibazioa espiritual...» (2003: 68). Iraultza beti irekita izaten dugun posibilitatea da, gauzak okerrera jo ez dezaten dugun aukera.
14. Bide horretatik, utopien zentzua eta norakoa eta oraingo egoeran sortzen diren auzien exigentziak uztartuz, apologiarik gabeko uto-pismoa proposatu du Kathi Weeksek (2011).
15. Borroka molde eta gaiei begira, Žižeken ideia bati eusten diot he-men: tranpa batzuk ekidin behar ditugu. Batetik, erradikalismo fal-tsuarena (axola duen bakarra kapitalismo parlamentario liberala

ezabatzea da, beste borroka bigarren mailakoak dira) eta gradu-ismoarena (orain demokrazia sakontzearen alde ari gara, gero etorriko da amets sozialistei ekiteko ordua, agian...). Tranpen gainetik, ontzat eman behar ditugu sistema kapitalista globala kuestionatzen duten eta jendarte ez-kapitalista baten ideia bizirik mantentzen duten borroka (Žižek 2016: 135).

16. «Politikaren artea funtsean eskaera partikular batean insistitza da, eskaera erabat errealista izanik esentzia ideologiko hegemonikoa kolpatzen duena eta berekin aldaketa erradikalagoa dakarrena, egingarri eta legitimoa izan beharko lukeen arren ezinezkoa delako» (Žižek 2016: 132). Politikaren arteak, horrela ulertuta, asko du iraultzailetik. Halako eskaerak askotan oso apalak dira, ez dute inongo iraultza itxurarik (Žižek Obamaren osasun sistemaren erreformaz ari da!), baina oso errealistak direlako ezinezkoak dira: arazo barik gauzatu litezke, baina ez sistema honetan, ez errealtate honetan.
17. Badiouk honela zehazten du hipotesiak zabaltzen duen esangura eta ekintzarako zeruertza: (1) humanitatearen etorkizuna kapitalismoaren eragin gaiztotik aldenitu daiteke, eremu kolektiboa kapitalaren menderakuntzatik askatu daiteke; (2) estatua ez da jendartea egituratzeko ezinbesteko forma naturala; (3) lanaren zatiketa ez da nahitaezkoa ekoizpen ekonomikoa antolatzeke (ezta bizimoduaren ekoizpenerako, edo bizitzaren zaintzarako). Labur, ekoizpen prozesuaren despribatizazioa, estatuaren desagertzea eta lanaren poli-morfismoa eta bateratzea.
18. Eskola pragmatistaren proposamenak oso gaizki ulertu dira maiz, utilitarismo huts batekin berdinduz. Askok izan dira kritika hori gizendu dutenak: Durkheim, Russell, Bloch... Nihilismoarekin eta ekintzaren faxismoarekin ere lotu dute hainbatek. Iritzi horien kritika argigarria dugu Hans Joasen lanean (ikus Joas 1998: 109-139).
19. Ez dut hemen lekurik G.H. Meadek eta J. Deweyk eman zutena azaltzeko, baina biek dituzte hainbat ideia interesgarri praxiari buruzko gogoeta honetarako: Meaden «idealtasun posibilitateak» edo Deweyren «bitartekoen eta xedeen elkar osagarritasuna», eta hainbat eta hainbat.
20. Dena den, Jamesek meliorismoari eutsi zion, ez iraultzari. Haren ustetan, mundua behin betiko 'osatu' lezakeen gertaera edo ekimen erabatekoaren ideia ezagutza mugatu eta hipotetikoaren aurka zihoan. Munduaren 'salbazioa' posibilitate bat zen, ez halabarrez gertatuko zen Historiaren bukaera bat: «salbazioa ez da ez nahitaezkoa ez ezinezkoa. Posibilitate bat da, zeina probabilitate bat baino gehiago bilakatuko den salbazioaren baldintza errealeak gehiago izan ahala» (James 1975: 137).

21. Richard Bernsteinen hitzetan: «Kritika eraginkorra izan daiteke pasioei zuzenean hitz egiten dielako. Ez du borrokarako ideal utopikoak zehazteko gaitasunik, baina bai jendeari zergatik ari diren sufritzen kritikoki uler dezaten azaltzeko. Hori lortu ezean, kritika espekulazio hutsa besterik ez da izango; kritika erradikalaren zuzentasunaren saio erabakigarria sufrimenduak eta gatazkak giza autokontzientziara eramateko gaitasuna da» (1979: 67). Honako hau idatzi zuen Marxek *Hegelen zuzenbide-filosofiaren kritika*-n: «Sufrimendu *erlijiosoa* sufrimendu errearen *adierazpena* da eta aldi berean sufrimendu errearen aurkako *protesta*. Erlijioa sorkari zanpatuaren hasperena da [...]. Populuaren *opioa* da» (2004: 81). Kritikak interfaze psikosozial eta ideologikoak desegin behar ditu, baina ez gezurrezkoak direlakoan; egiazko opioak dira, egiazko pasioak, eta egiazko oinaze baten sintoma.
22. T. W. Adornok ika-mika sonatua izan zuen bizitzaren azken urteetan, 1968an eta 1969an, ikasle mugimenduen «hiperaktibismoaren aurka»; ekintza fetitxe bihurtzea leporatzen zien, alegia, ekintzaren xede ekintza izatea. Horrela, ekintzak zentzua galtzen du, ez du ez teoriarik, ez ulermen kritikorik, ez hipotesi zehatzik, eta «historiaren une subjektiboa», erantzun subjektiboen espontaneotasuna, fetitxe bihurtzen du (Adorno 1993: 167). Galdu da begirada kritikoa, ulermen zorrotza (Adornok, dena den, praxi eta teoriaren arteko etena defendatzen zuen, eta teoria lehenetsi; nire ustez, praxiak bere baitan behar du dimentsio kritiko eta utopikoa). Bestaldetik, idealismo huts batek helburu urrunak eta abstradituak bihurtzen ditu fetitxe. Bistan da biak oso antipragmatikoak direla.
23. Castoriadis-en teorian, jendarte bati batasuna edo elkarrekin izateko zentzua ematen dion boterea imajinario instituitzailearen infraboterea da. Botere horretan altxatzen dira beste guztiak, berak instituitzen ditu legez xedatu ezin diren instituzio sozialak: hizkuntza, ohiturak, sinesmen komunak eta beste asko. Botere esplizitua, berriz, erakunde politikoena da. Botere sozial inplizitua ez bezala, botere bereizia da eta, horregatik, pribatizatua izan daitekeena (ikus Castoriadis 1990).
24. Ildo horretan, Verónica Gagok (2015) ekonomia barrokoen pragmatika popularrak teorizatu ditu. Ekonomia barrokoak neoliberalismoaren mendean garatzen diren bestelako ekonomiak dira, behetik gorakoak eta bizi beharrez asmatu behar diren ekonomiak. Pragmatika terminoarekin, ekonomia horien izaera esperientziala, euren dinamika immanentea eta ez soilik diskurtsiboa, nabarmendu nahi du. Antzera esan liteke pragmatismo iraultzailea iraultzaren pragmatika esperientzial batean oinarritu behar dela, baina gogoeta lan kritikoa barneraturik.

Bibliografia

- Adorno, Th. W. (1993): *Notas marginales sobre teoría y praxis. Crítica de la cultura y sociedad II*, Buenos Aires, Amorrortu.
- Apodaka, Eduardo (2015): 'Nuevas lógicas de legitimación de la identidad y la acción colectiva: de la representación metafórica a la articulación metonímica', *Papeles del CEIC* 2.
- Badiou, Alain & Gauchet, Marcel (2016): *¿Qué hacer? El capitalismo, el comunismo y el futuro de la democracia*, Bartzelona, Edhasa.
- Bebaise, Didier & Stengers, Isabelle (2016): 'L'insistance des possibles. Pour un pragmatisme spéculatif', *Multitudes* 65, 82-89.
- Berardi, Franco (2014): *Después del futuro*, Madril, Enclave.
- Bernstein, Richard J. (1979): *Praxis y acción*, Madril, Alianza.
- Boaventura de Sousa, Santos (2004): 'The World Social Forum: Towards a Counter-Hegemonic Globalisation (I)', in J. Sen *et al.* (argk.): *World Social Forum: Challenging Empires*, Delhi, Viveka, 146-156.
- Castoriadis, Cornelius (1990): *Le Monde morcelé. Les Carrefours du labyrinthe III*, Paris, Seuil.
- Chandler, David & Reid, Julian (2016): *The Neoliberal Subject. Resilience, Adaptation and Vulnerability*, Londres, Rowan & Littlefield.
- Clark, T. J. (2012): 'For a Left with No Future', *New Left Review* 74, 53-75.
- Dussel, Enrique (1998): *Ética de la liberación en la edad de la globalización y de la exclusión*, Madril, Trotta.
- Eagleton, Terry (2011): *Por qué Marx tenía razón*, Bartzelona, Península.
- Escobar, Arturo & Osterweil, Michael (2009): 'Movimientos sociales y la política de lo virtual. Estrategias deleuzianas', *Tabula Rasa* 10, 123-161.
- Farber, Samuel (2011): 'Reflections on "Prefigurative Politics"', *International Socialist Review* 92.
- Fisher, Mark (2016): *Realismo capitalista. ¿No hay alternativa?*, Buenos Aires, Caja Negra.
- Gabilondo, Joseba (2016): *Globalizazioak eta Erdi Aro berria. Diferentzien itzuleraz*, Donostia, Erein.
- (2017): *Populismoaz. Subiranotasun globala eta euskal independentzia*, Iruñea, Txalaparta.
- Gago, Verónica (2015): *La razón neoliberal: economías barrocas y pragmática popular*, Madril, Traficantes de Sueños.
- Graeber, David (2015): *La utopía de las normas. De la tecnología, la estupidez y los secretos placeres de la burocracia*, Bartzelona, Ariel.
- James, William (1975): *Pragmatism: A New Name for Some Old Ways of Thinking*, Cambridge, Harvard University Press.
- (1979): *The Will to Believe and Other Essays in Popular Philosophy*, Harvard, Harvard University.

- Jameson, Fredric (2010): 'Utopia as Method, or, the Uses of the Future', in Michael D. Gordin *et al.* (argk.): *Utopia/Dystopia: Conditions of Historical Possibility*, Princeton, Princeton University Press, 21-44.
- Joas, Hans (1998): *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*, Madril, CIS.
- Löwy, Michael (2003): *Walter Benjamin: aviso de incendio*, Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica.
- Marx, Karl (2004): *Idazlan hautatuak*, Bilbo, Klasikoak. Itzulpena: Xabier Mendiguren Bereziartu.
- Scott, James C. (1998): *Seeing like a State. How Certain Schemes to Improve the Human Condition Have Failed*, New Haven & Londres, Yale University Press.
- Simon, Lawrence H. (2004): 'Hitzaurrea', in Marx 2004: 7-36.
- Sloterdijk, Peter (2007): *En el mundo interior del capital*, Madril, Siruela.
- Srnicek, Nick & Williams, Alex (2017): *Inventar el futuro. Poscapitalismo y un mundo sin trabajo*, Bartzelona, Malpaso.
- Streeck, Wolfgang (2014): '¿Cómo terminará el capitalismo?', *New Left Review* 87, 38-68.
- Weeks, Kathi (2011): *The Problem with Work: Feminism, Marxism, Antiwork Politics, and Postwork Imaginaries*, Durham, Duke University Press.
- Wright Mills, Charles (1968): *Sociología y pragmatismo*, Buenos Aires, Siglo Veinte.
- Žižek, Slavoj (2009): *Slavoj Žižek presenta a Trotsky. Terrorismo y comunismo*, Madril, Akal.
- (2014): *Repetir Lenin*, Madril, Akal.
- (2016): *Problemas en el paraíso. Del fin del capitalismo al fin de la historia*, Bartzelona, Anagrama.

Zaintzak erdigunera? Aukerak, mugak eta zenbait galdera

Uzuri Aboitiz Hidalgo

*Gizarte Antropologian doktoregaia Universitat de
Barcelonan*

Zaintzek erdigunea hartu dute teoria feministaren baitan. Bizitzaren sostenguaren inguruko hainbat eztabaida ere zaintzaren adieraren bidez adierazten ari dira askotariko teoria eta esparruetatik. Kontzeptu baliagarria izaten ari zaigu egungo egitura ekonomikoari beste nonbaitetik heltzeko eta utopia berriak egikaritzeko bidean. Emankortasun hori adieraren zabaltasunari egotzi ahal diogu. Tamalez, zabaltasun horrek nahasmendura ere eraman gaitu, adiera berdinarekin prozesu ezberdinak adierazi nahi izan ditugulako, gehiegitan esanahiez husteraino.

Artikulu honetan, beraz, zaintzaren irakurketa kritiko bat egin nahiko nuke. Ez berori alboratzeko, baizik eta fintzeko, zertaz ari garen ondo zehazteko. Finean, zaintzaren adieraren genealogia batek bistaratu dezakeelako orain arte izan ditugun eztabaidak, eta agian egun ere birkokatu beharko genituzkeenak.

Irakurketa kritiko hau egiteko, baliagarri egin zaizkit hiru hausnarketa esparru. Alde batetik, teoria feministaren baitan urteetan zehar izan diren eztabaidak ekarriko ditut

Zaintzak erdigunera?

orriotara. Horiek fintze aldera, material etnografikoarekin jarriko ditut elkarrizketan, zaintzak jendarte eta garai zehatz batek sortutako ekonomia antolamendu bat direla bistartu eta tokian tokiko esanahiak dituela azalertzeko asmoz. Azkenik, mugimendu feministan zaintzaren utopiatik eraldaketa egikaritzen saiatu izan garenean ikasitakoak balioan jarri nahiko nituzke.

Laburbilduz, zaintzaren adieraren eraikuntza soziokultural zein historikoan ikertuko dut datozen orrietan, horrela berorren erabilera eta esanahi kritiko bat hauspotze aldera. Baina, batez ere, eraldaketa soziala ahalbidetu dezaketen indargune eta mugak bistaratzea izango da erronka.

Zaintzen genealogia bat: nola heldu gara honaino?

Ondorengo lerroetan teoria feministaren baitan zaintzaren adierak izan duen ibilbide historiko bat egiten saiatuko naiz, agian pentsamendu feministaren baitan izandako eztabaidek argitu ahal digutelako zergatik dugun orain zaintza hitza denon ahotan. Ez nuke nahi, hala ere, genealogia naturalizatu eta beraz zurrun bat aurkeztu. Zer bihurtzen dugun eztabaidagai eta zeri –eta nori– garen entzungor, komunitate jakin baten botere harreman eta hierarkizazio sozialen emaitza delako.¹ Beraz, eztabaidak askotarikoak izan badira ere, hiru mugarri ekarriko ditut hona: etxeko lanena, erreproduzioarena eta, azkenik, zaintzarena.

Teoria feministaren baitan aipatuko nukeen lehen mugarria pasa den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan etxeko lanez egin ziren hausnarketak lirateke. Garaiko feminista marxistek etxeko lanak jarri zituzten emakumearen zapalkuntza materialaren oinarrian, lan horiek autokontsumorako –eta ez merkataritza trukerako– ondasun eta zerbitzuak sortzen dituen lan mota gisa ulertuta hein handi batean; hau da, lan horiek familiaren berehalako kontsumorako erabilera balioak sortzen dituzte. Eztabaida mamitsua izan zen, eta, horri esker, familiaren, etxearen edota ordaindu gabeko lanen izaera ekonomikoa

onartzeko pauso garrantzitsuak eman ziren. Horren lekukotzat dugu gurean Euskadiko Asanblada Feministaren 1993ko ‘Derrigorrezko familia zerbitzuari *intsumisioa*’ kanpaina. Fiktionean, galdera bakarra zegoen eztabaida multzo horren atzean: etxean –ordaindu gabe– egiten diren lanek, merkatuan egiten direnen berdinak edo antzekoak izanda, zer dela eta ez dute errekonozimendu bera dirutan edota eskubide sozialetan?²

Galdera horrek estrategia emantzipatzaile bat izan behar zuelakoan, izaera sistemikoa ikertzeari ekin zitzaion, uste baitzuten «emakumearen zapalkuntzaren sustraiak zuzen ulertu behar zirela, zapalkuntza gainditu ahal izateko» (Susan Himmelweit eta Simon Mohun 1977: 19). Erreproduktzioaren adieraren pean emango da 70eko eta 80ko hamarkadetan bigarren mugarriztat joko dudana eztabaida multzoa. Zapalkuntzaren sustraien bilaketa horretan, nire gusturako, zapalkuntzen mailakatze antzuan sartu baziren ere –batez ere kontuan hartuz artikulazio politikorako ekarri dituen trabak–, jendarte kapitalista baten birsortze gaitasuna konplexutzeko balio izan zuen. Orduan onartuko baitute jendarte bat denboran iraurarazteko ez dela nahikoa ondasun eta zerbitzuen ekoizpen sistema batekin; aitzitik, pertsonak erreproduzitzeko sistema ere behar dela, eta horiek lotuta daudela. Hori bai, pertsonen erreproduktzioa adiera zabalenean ulertzerik eta maila analitikoan bereizita erabiltzerik gonbidatu gintuzten: erreproduktzio soziala, lan indarraren erreproduktzioa eta erreproduktzio biologikoa (Felicity Edholm, Olivia Harris eta Kate Young 1977: 105).³

Erreproduktzioaren eta produktzioaren loturetan sakontzeak hiru ondorio hauetara heltzeko balio izan zuen: Baga)

Etxean –ordaindu gabe– egiten diren lanek, merkatuan egiten direnen berdinak edo antzekoak izanda, zer dela eta ez dute errekonozimendu bera dirutan edota eskubide sozialetan?

familia, kontsumo unitatea ez ezik, produkzio unitatea da; Biga) ondorioz, jendearen bizitza maila aldi berean soldatarren, zerbitzu publikoen eta etxean ekoiztutako ondasun eta zerbitzuen menpe dago; Higa) produkzio kapitalista ez da buruaskia, baizik eta etxeko lanen menpe dago.

Hauxe esaten ari ziren, finean: badagoela egiturazko harreman bat dimentsio ekonomiko baten aitortzaren eta bestearren ikusezintasunaren artean. Bata ekonomiko, produktibo, publiko eta razionaltzat eta bestea ez-ekonomiko, erreproduktibo, pribatu-etxeko eta emozionaltzat hartzearen artean. Eta horrek galdera bat zekarren atzetik: nori egiten dio mesede erreprodukzioa ezkutuko dimentsio ekonomikoa izateak? Eta gutxienez bi erantzun: kapitalistei, lan indarraren kostua merkatzen delako (Martha May 1982, Hillary Land 1980); edota gizonei, doako lan esklaboa probesten dutelako (Heidi Hartmann 1981).⁴ Hitz gutxitan esateko, «etsai nagusia» bilatzeari ekin zioten (Christine Delphy 1970).

Irakaspen horietatik edota gaiari beste nonbaitetik heltzeko beharretik eratorri zen 80ko eta 90eko hamarkadetan zaintzaren adieraren sorrera. Hain zuzen ere, 60ko eta 70eko hamarkadetako eztabaidan ez bezala, ez zuten indarra jarri etxeko lanek merkatuko lanekin duten antzekotasunetan, baizik eta horien arteko ezberdintasunetan. Bitan, konkretuki: batetik, etxeko lanak beste irizpide batzuen pean egiten direla esango dute, zaindari eta zainduaren arteko harremanak sakontzearen ondorioz (Kari Waerness eta Stein Ringen 1987); beste era batera esanda, lan horien dimentsio emozional, afektibo edo erlazionala bistaratuko dute. Eta bigarren ezberdintasuna: beraien ustez, etxeko lanetan, besteetan ez bezala, badago inoren ongizatearekiko ardura edo konpromiso bat (Ulrike Prokop 1978).

Etxeko lanei egotzitako ezaugarri horiek emakumeen identitatearekin erlazionatuko dituzte, goraipatuz batzuek (Carol Gilligan 1982) edo kritikatu besteei (Nancy Scheper-Hughes 1997). Nolanahi ere, etxeko lanen ezaugarritze horren ondorio nabarmenena hauxe izango da: lan horiek aitortza eta

balioa hartuko dute, jendarte justuago bat eratzeko orduan ezinbesteko irizpidetzat hartuko baitira.

Horrela, bada, garrantzitsua deritzot ideien genealogia bat egiteari, berebizikoak izan diren eztabaidak ahantz ez ditzagun. Azken finean, egun zaintzaren balioa aitortu ba-dezakegu, aurretiaz bere baitan dauden gatazkak landu izan direlako baita.

Zaintzaren utopia: zaurgarritasunetik bizitzaren aldeko apustu erradikala egitera

Eztabaida horiek guztiek eragina izan dute egun zaintzaren adiera definitzerako orduan. Adostasunik egon ez badago ere, jakin izan da ekonomia aztertzeke begirada feminista osatzen, ikuspuntu bakoitzaren indarguneak aitortuz.

Oro har, esan genezake badirela zaintzak definitzeko bi modu: batak jarduera multzo modura definitzen ditu, besteak jarduera horiek egiteko motibazioetatik heltzen die zaintzei. Biek ala biek eraldaketarako zirrikituak zabaltzen dituzte. Gorputzen zaintzarekin lotutako jarduera zehatzetan zentratzen bagara, bizitza posible egiten duten baldintzatan pentsa dezakegu, hau da, bizitzari nola eusten zaion. Aldiz, enfasia zaintza lanak egiteko motibazioetan edo bestearen bizitzarekiko kezkan jartzen badugu, gure sistema sozioekonomikoaren motibazioa zein den hausnartzera eramán gaitzake. Biek «bizitza helburu analitiko eta politiko gisa kokatzen dute» (Amaia Pérez Orozco 2014: 89), eta bizitzaren ontologia berri bati irekitzen diote atea.

Zaintzaren lehen esanahia ondokoa litzateke: «pertsonen ongizate fisiko eta emozionala egunero eta belaunaldiz belaunaldi birsortzen duten jarduerak dira zaintzak» (*ibidem*: 92). Gutxienez hiru norabidetan: batetik, ongizaterako baldintza materialak ziurtatzeko lanak; bestetik, gorputz eta emozioen gaineko arreta; eta, azkenik, askotariko gestio mentalak. Zaintzaren definizio horrek eraldaketarako abiapuntu bat eskaintzen digu, lehen lerroan jartzen ari baita bizitzaren

zaurgarritasuna. Baina zer zentzutan zabal ditzake zaurgarritasunak iruditeria berriak? Hasteko, bizitza –eta bizidun oro– zaurgarria dela esateak bizitzaren mugekin topo egitera behar izan behar gaitu. Bizitza, posible izan dadin, nola edo hala zaindu behar delako. Hori ez da sektore espezifiko baten kontua, autonomoak eta mendekoak. Intentsitate ezberdinak badaude ere, bizitzaren oinarritzko ezaugarria da zaurgarritasuna.

Baieztape horrek gure sistema sozioekonomikoak oinarritzat duen subjektuaren iruditeriarekin apurtzen du; izan ere, ekonomia neoklasikoak sortutako norbanako autonomia –harreman eta ardurarik gabekoa– ezeztatzen du, *Homo Economicus* buruaski –bere beharrian eta nahi guztiak merkatuaren bidez asetzen ditu– eta egoistaren –hautaketa bakoitzean onuren maximizazioa bilatzen du– iruditeria hantzez gora jarriz. Aldiz, bizitza zaurgarriaren ideia onartzeak ekonomiaren zentzua bera aldatzeko aukera ematen digu: denok zaurgarriak bagara, denok behar ditugu zaintzak; beraz, ekonomia eta jendartea interdependentzia terminotan

Nola kudeatzen ari gara egun zaurgarritasuna, hori onartu ere egiten ez duen jendarte honetan? Genero, klase edo jatorriaren arabera eraikitako zaintza harreman asimetrikoen bitartez

pentasa dezakegu, eta ez «kontsumitzaile klub» modura (Paz Moreno 2011: 172).⁵ Baina nola kudeatzen ari gara egun zaurgarritasuna, hori onartu ere egiten ez duen eta denon bizitzak balio bera ez duen jendarte honetan? Genero, klase edota jatorriaren arabera eraikitako zaintza harreman asimetrikoen bitartez: emakumeengandik gizonengana, landa eremuetatik urbanoetara, hegoaldetik iparraldera...

Zaintzak lantzeko beste ikuspuntua motibazioetatik dator. Zaintzak, horrenbestez, pertsonen arteko interakzio iraunkorrean oinarritutako zerbitzuak eskaintzen dituen lanak lirateke, eta horien motibazioa hauxe: «beste jendearekiko

erantzukizun zentzua, berehalako diru ordainik itxaron gabe» (Nancy Folbre 1995: 75). «Arreta egoera orokor» baten antzeko zerbait, bestearen premien aurreko kontzientzia, «lanen artean ikusezinena dena» (Marjorie L. DeVault 1991: 55-57).

Ikuspegi horren arabera, beraz, badago jendea mugiarazten duen zaintzaren logika bat, bestearen ongizatearekiko kezka edo kontzientzia bat. Baina zaintza lanetan hori funtsezkoa baldin bada, zein da motibazioa esparru ekonomiko kapitalistetan? Kapital metaketaren logikaren dilema zaharra, orain, ez da lanetik aztertzen, bizitzatik baizik. Izan ere, bizitza, sistema sozioekonomiko horrentzat, ez da xede bat bere baitan, bitarteko bat baizik. Eta, horrexegatik, beti dago mehatxupean. Horrela, gatazka kapitalaren eta bizitzaren artean kokatzea lortzen da, eta ez kapitalaren eta lanaren artean. Horrek honako eztabaida sozial eta kolektiboaren premia azpimarratu baino ez du egiten: zein logikaren bidez gobernatu nahi dugu gure ekonomia? Azken buruan, zaintzak, alor bat gehiago izatetik, sistema birpentsatzeko ikuspuntu berri bat izatera igarotzen dira. Hein horretan, gatazka begiratzeko eta izendatzeko iruditeria berri horrek mugimendu feministaren mugak gainditu ditu. Egun, hainbat herri mugimenduk erabiltzen dute iruditeria hori eraldaketa prozesuak martxan jartzeko.

Laburbilduz, zaurgarritasunaren aitortzak eta zaintzaren balioa goraiatzeko bizitzaren politizazio erradikalerako bideak zabaldu ditu. Maila analitikoan, gutxienez, ongizatearen, herritartasunaren, ekonomiaren edota lanaren auziak lantzeko bide sortzaileak zabaldu ditu. Bizitzan fokua jarriz eta merkatuak erdigunetik kenduz: 1) balio neoliberaletan oinarritzen ez den ongizate adiera berriak garatu dira; 2) herritartasunerako, baliabideetarako eta eskubideetarako sarbidea enplegutik kanpo imajinatze bideak zabaldu dira; 3) ekonomiaren adiera bizitzaren sostengu terminotan pentsatzeko saiakerak egin dira; eta 4) lana –baita soldatapeko lana ere– erreproduzioaren eta bizibideen ikuspegitik berrartzera eraman gaitu, fokua lanen erabilera balioan

jarriz –merkatuaren bitartekaritzarekin edo gabe–. Hain zuzen, fokua erreprodukzioan jartzeak soldatapeko lanetik harago begiratzea ahalbidetzen digu, etxeko lanak baliabide bat gehiago bezala hartuz –nahiz eta diru-baliabide ez izan– eta, beraz, biak ala biak bizibideak –hau da, bizi ahal izateko bideak– direla ulertuz. Eta, hortaz, alienazioa ere ekoizpen bideekiko soilik ez dela gertatzen ulertuz, aitzitik, orokorrean bizibideekiko (Karl Polanyi 1944, 1957). Horrenbestez, ikuspegi horrek pertsona guztiek bizi ahal izateko lan harreman espezifikoetan parte hartzen dutela ikustea ahalbidetzen digu, pertsona batzuek beste batzuen lana esplotatu dezaketela jakinik, baita ordaindu gabeko zaintza lanetan ere (Susana Narotzky 2004: 215-216). Bizibideen ikuspegia, beraz, klasearen adiera bera zabaltzeko baliagarria izaten ari zaigu, berori jendarte kapitalista batean pertsona edo talde sozial baten produkzio eta erreprodukzio posizioen arteko artikulaziotik eratorri behar dela proposatuz (*ibidem*: 303-304).

Maila praktikoan, aldiz, zaurgarritasunaren aitortzak eta bizitzaren zaintzaren garrantziaren aitortzak hainbat eraldaketa eragin ditu. Oro har, esan daiteke nolabait herri mugimenduek proiektuen zein kideen zaurgarritasunaren kontzientzia hartu dutela eta bestelako zaintza logika edo politika batzuk aplikatzeari ekin diotela. Bizitzaren politizazio erradikalak, gainera, gatazka bera bizitzan kokatzeko joerara eraman ditu hainbat mugimendu, batzuetan oso modu idealizatuan eta maila diskurtsiboan soilik bada ere. Hala ere, mugimendu feministak aspaldi bihurtu zuen eguneroko bizitza bere gudu zelai, gatazka espazio intimo zein kolektiboetan jorratuz, ezkutuko gaiak argira ekarriz eta gertutasunetik abiatuz eraldaketa.

Gure begiraden albo-kalteak

Hiru multzotan sailkatu ditut zaintzen egungo adierei egin zaizkien kritikak: lehenak zaintzen gainerabilerarekin dauka zerikusia, bigarrenak zaintzetan emozioek duten dimentsio puztuarekin, eta hirugarrenak zaintzen ikuskera

mendebaldarrarekin. Izan ere, «alternatiba hobeak ez edukitzeak ez du esan nahi erabiltzen ari garen kategorien mugen kontziente ez garenik» (Mari Luz Esteban 2010: 3).

Zaintzen gainerabilerarekin lotu dudan lehen muga, neurri handi batean, horiek testuinguru historiko eta sozial batean ez kokatzeko joeratik dator. Hain zuzen, «ezin dugu suposatatu edozein kultura edo testuinguru historikotan existitu edo existitzen denik gure testuinguruan zaintzak deitzen ditugun horien baliokidea izan daitekeen bizitzaren esparru espezifikoko edo zedarriturik» (Mari Luz Esteban 2017: 34). Edo, labur esanda, «haurtzaroa, maitasun erromantikoa eta birusak bezalaxe, zaintzak ez dira beti existitu» (Begoña Marugán 2015: 216). Zaintzen gizarte antolamendua eta gizartean betetzen duten lekua «kapitalismo liberalerako trantsizioan zehar eratzen hasitako prozesu historiko luze baten emaitza dira» (Cristina Carrasco, Cristina Borderías eta Teresa Torns 2011: 159). Gizarte preindustrialetik industrialerako trantsizioan, etxeei funtzio produktibo guztiak hustu zitzaizkien, eta, horrekin batera, «intimitate loturetan zentratutako eta ugaltzera bideratutako» familia ideologia bat eratu zen. Ideologia horrek «harreman ez ekonomiko eta guztiz emozionalen eta genero-erantzukizun naturalen multzo gisa ulertutako familiaren ideia sustatu zuen, zeinek esfera banatuen antolamendua errazten baitzuen (Susana Narotzky 2004: 168). Dimentsio ekonomikoen banatze hori eta horrek maskulinoa eta femenino ulertzeko moduetan duen berehalako eragina dira, feminista askoren arabera (Ann L. Jennings 1993, Soledad Murillo 1995), kapitalismo heteropatriarkalaren funtsezko ezaugarria. Zentzu horretan, gizarte preindustrialetan genero eta adin markak bazeuden arren, kontuan hartu behar da horiek «Ilustrazioaren ondoren egon zirena baino gutxiago markatuta zeudela» (Begoña Marugán 2015: 216). Prozesu historiko horretatik bistaratzen da kapitalismoak eta patriarkatuak artikulatzeko duten gaitasuna, nahiz eta beti norabide berean ez gauzatu. Desmerkantilizazio eta merkantilizazio prozesuak begiztatzea argigarria izan

daiteke hori hobeto ulertzeko, emakumeen gorputzei lotuta, adibidez: edoskitzea, une batean, inudearen bidez merkantilizatua izan zitekeen lan modura hartu bazen ere, geroago amaren betebeharrak modura birdefinitu zen eta merkatutik aterata zen (Carmen Sarasúa 1994). Aldiz, sabel alokairua, duela gutxi arte muga pentsaezina irudituko litzaigukeena, gaur egun gero eta aukera hedatuagoa da. Kapitalismoaren eta patriarkatuaren arteko artikulazioa modu konplexuagoan eta beraz ez linealean ulertu beharko genuke.

Zaintzaren gainerabileraz aparte, kezkatzekoa da orobat hori idealizatzeko eta horren dimentsio emozionala puzteko dugun joera. Nahiz eta besteen zaintzan emozioek duten garrantzia ukaezina izan, ez dira zaintza lan guztien funtsezko osagaia. Eta hala balira ere, horien atzean dauden motibazio eta sentimenduak ez dira hain idilikoak; izan ere, dagoeneko «zaintzaren etika erreazionarioaz» hitz egiten da (Amaia Pérez Orozco 2014: 90).

Antropologiatik nabarmentzen denez, «asoziazio hori, eta emakumeak izaki emozionaltzat gizonak baino neurri handiagoan hartuak izatea (eta, ondorioz –ez dezagun ahantz–, zaintzeko gaituagoak), gizarte eraikuntza bat baino ez da, eta, horrekin batera, gizarte subordinaziorako lanabes garrantzitsuenetakoa da, batzuek eta besteek egiten dituzten ekarpenak eta betetzen dituzten espazioak ezberdintzen eta hierarkizatzen baitituzte» (Mari Luz Esteban 2017: 41). Emozioek zaintza lanetan duten dimentsioa puztuz, honako ideia indartzen ari gara: «zaintzarik onena sentimenduak barne hartzen dituen hura da (beraz, senitartekoren batena), eta hori kontraesankorra izan liteke behar adinako eta kalitatezko zerbitzu publikoen premiaren defentsarekin» (*ibidem*). Erronka, zentzu horretan, emozioen garrantzia birdimentsionatu eta zaintzei buruzko ikuspuntu esentzialistarekiko jarrera kritikoa izatean datza.

Azkenik, zaintzaren adieretan txertatuta dugun ikuskera mendebaldarra eta urbanoa aipatuko nuke. Hortik erabaki dugu, esaterako, zein jarduera hartzen ditugun zaintza lan moduan eta zein ez, denbora eta espazioaren arabera

ere aldaezinak diren lan pre-determinatuen multzoa bailiran. Modu horretan, errazagoa egin zaigu zaintza lantzat hartzea umeak zaintzea baratze bat zaintzea baino. Hain zuzen, eremu etxetiarraren eta publikoaren muga –edo naturaren eta kulturaren artekoa– «kultur baieztape gisa hartu beharrean, gizarte errealitatearen deskribapen gisa hartu izan da sarritan» (Rayna Rapp 1979: 508), eta horrek hainbat prozesu eta egitura begiztatzea eta aitortzea oztopatu digu.

Eremu urbanoetan ere, aipatutako muga horiek ez dira horren garbiak. Gaur egun ezin dugu eremu intimoan edota etxean pentsatu, esaterako, merkatuarekin dituen harremanak kontuan hartu gabe. Zaintza lanak modu askotan eramaten dira aurrera, instituzio ezberdinen aldi bereko parte hartzearekin, gainera: familiarrean, zaharren egoitzetan, elkarlaguntza taldeetan, etxeko langileen bidez... Beraz, egoikiagoa litzateke honako hauei buruz pentsatzea: erakundeek zaintza lanen kudeaketan nola elkar eragiten duten, eta hortik nola berrantolatzen diren pertsonen arteko eta pertsonen eta erakundeen arteko betebeharrak moralak.

Azken finean, produktiboaz eta erreproduktiboaz, etxetiarrak eta publikoak edo naturalaz eta kulturalaz ulertzen duguna kritikoki berraztertzea beharko genuke. Aitzitik, oso problematikoak diren harremanak eta etnozentrismoak diren banantzeak errepikatu besterik ez genuke egingo. Horretarako oso baliagarria izan daiteke 1) errealitatearen eraikuntza ez dualista sustatzea (Michelle Rosaldo 1980, Silvia Junko Yanagisako eta Jane Fishburne Collier 1987), 2) erreproduktzioa desnaturalizatzea (Henrietta L. Moore 1991), eta 3) generoaren ideologiak errealitate materialetan duen eragina aztertzea (Susana Narotzky 1990).


Produktiboaz eta
erreproduktiboaz,
etxetiarrak eta publikoak
edo naturalaz eta
kulturalaz ulertzen
duguna kritikoki
berraztertzea beharko
genuke

Zaintzaren utopia austeritate garaietan

Askotariko eztabaida horiek egin dute posible bizitzaren zaintzaren iruditeria eraldaketarako marko bihurtzea, nahiz eta adostasunik ez egon noiz eta nola erabiltzearen inguruan.⁶

Parean dugun erronka, gainera, ez da edonolakoa. Zaintzen krisitik eta zaintzen kate globaletatik atera dugun irakaspen bat hau da: bizitza sostengatzeko ardura kolektibo bat hauspotzen ez dugun bitartean, gero eta indar handiagoa hartuko du desberdinkeriak zaintzen kudeaketan.

Austeritate garai hauetan, zaintzaren eta desberdinkeriarren arteko lotura areagotzen ari da. Ondorioz, zaintzaren balioa aitortzeaz gain, zaintza lanen birbanaketaren aldeko politikak indartu behar ditugu. Bide batez, beste hainbatek dioten bezala, zaintzen aitortzarako biderik zuzenena berorien birbanaketa delakoan nago ni ere (Mari Luz Esteban 2017, Amaia Pérez Orozco 2014).⁷ Hain zuzen, zaintzaren utopiaren erabilera lauso bat saiheste aldera, oinarrizko galdera batzuk indartzea baliagarria izan daiteke: nork zaintzen du eta zergatik? Oso polita baita bizitza erdigunean dituen politikak aldarrikatzea, baina ezer gutxirako balio dezake horrek bizitza guztiek balio bera ez duten jendarte batean. Feminismotik hainbestetan esan den bezala, zaintzez hitz egitea desberdinkeriaz hitz egitea da, desberdinkeria produktibo eta erreproduktiboez; finean, lanen banaketa sexualaz.

Martxoaren 8ko mobilizazioek zein zaharren egoizetako borrokek hauxe erakutsi digute: konplizitateak eraikitzeke trebezia baldin badago, posible da kolektiboen aldarrikapen zehatzak borroka amankomun baten pean elkartzea. Horrela, zaintza antolamenduaren eraldaketa sakon baten alde elkar-tu dira zaharren egoizetako langileak eta senideak, etxeko langileen elkarteak zein talde feministak, nahiz eta elkarre-raginak ez diren beti garbi esplizitatu. Elkarlan horretarako, baina, funtsezkoa izan da testu guztian zehar azpimarratu den ideia bat: zaintza duinak jasotzeko eskubidea ez egotea beste kolektibo baten eskubideen bizkar. 

Oharrak

1. Ezagutzaren eraikuntza eta transmisioaren inguruan sakonki hausnartu dute Emagineko kideek (Emagin 2018).
2. Esaten denez, Margaret Benston-ek (1969) eztabaida plazaratu eta Peggy Morton-ek (1971) horren inplikazio politikoetan sakondu zuen.
3. Erreproduktzioaren ulerkuntza akritikoaren aurrean, kontzeptua hainbat erreproduktziotan banakatzea proposatzen dute, eraginkorra izan dadin: gizarte erreproduktzioa, lan indarraren erreproduktzioa eta erreproduktzio biologikoa. Gizarte erreproduktzioarekin, osotasunean hartutako gizartearen posibilitate baldintzen erreproduktzioa ulertzen dugu; lan indarraren erreproduktzioa langileen eguneroko mantenuari eta agenteak denboran zehar lan prozesuaren barruko posizioetan banatzeari dagokio; eta, azkenik, erreproduktzio biologikoak giza populazioaren ugalketaz dihardu (Felicity Edholm, Olivia Harris eta Kate Young 1977: 105).
4. Jane Humphries-ek (1977), azkenik, soldata familiarra langile klasearen (maskulino zein femeninoaren) estrategia gisa hartzen du: horrela, lan maskulinoaren indarraren balioa handitu liteke eta, lan femeninoa erabat kontsumo jardueretara dedikatuz, baliabideak gehitu daitezke, emaitza globala langile etxeen diru sarreraren hobekuntza nabaria izanik.
5. Ekonomiaren izaeraren gainean, antzeko eztabaida bat izan zen antropologian formalisten eta substantibisten artean (ikus Karl Polanyi 1957).
6. Mendekoen Arretarako Euskal Sistema Publikoaren aldeko Plataformak, adibidez, zaintzen kontzeptua mendekoen arretara mugatu du. Beste batzuek azpikategoriak erabiltzearen alde egin dute, hala nola familiarteko zaintzak, zaintza profanoak, etxeko zaintzak... Azkenik, badira ere elkar babesa edo elkarrekikotasuna bezalako kategoriak aztertzearen alde daudenak ere (Mari Luz Esteban 2017).
7. Nancy Fraser-ek (2000) aintzatespen politiken eta birbanaketa politiken artean bereizten du, eta feminismoak biak batera kontuan hartu behar dituela baieztatzen du.

Bibliografia

- Benston, Margaret (1969): 'The Political Economy of Women's Liberation', *Monthly Review* 21, 13-27.
- Carrasco, Cristina; Borderías, Cristina eta Torns, Teresa (2011): *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y política*, Madril, Los Libros de la Catarata.

- Delphy, Christine (1982): *Por un feminismo materialista. El enemigo principal y otros textos*, Bartzelona, La Sal.
- DeVault, Marjorie L. (1991): *Feeding the Family: The social Organization of Caring as Gendered Work*, Chicago, University of Chicago Press.
- Edholm, Felicity; Harris, Olivia eta Young, Kate (1977): 'Conceptualizing Women', *Critique of Anthropology* 3, 101-130.
- Emagin (2018): *Ezagutzaren matazak*, Lisipe bilduma, Zarautz, Susa, argitaratzeke.
- Esteban, Mari Luz (2017): 'Los cuidados, un concepto central en la teoría feminista: aportaciones, riesgos y diálogos con la antropología', *Quaderns* 22, 33-48.
- Esteban, Mari Luz eta Otxoa, Isabel (2010): 'Diálogo: El debate feminista en torno al concepto de cuidados', *CIP-Ecosocial - Boletín ECOS* 10.
- Folbre, Nancy (1995): 'Holding hands at midnight': the paradox of caring labor', *Feminist Economics* 1, 73-92.
- Fraser, Nancy (2000): '¿De la redistribución al reconocimiento? Dilemas de la justicia en la era 'postsocialista'', *New Left Review* 0 ('Pensamiento crítico contra la dominación'), 126-155.
- Gilligan, Carol (1982): *In a Different Voice*, Cambridge, Harvard University Press.
- Hartmann, Heidi (1981): 'The Family as the Locus of Gender, Class and Political Struggle: The Example of Housework', *Signs* 6, 366-394.
- Himmelweit, Susan eta Mohun, Simon (1977): 'Domestic Labour and Capital', *Cambridge Journal of Economics* 1, 15-31.
- Humphries, Jane (1977): 'Class Struggle and the Persistence of the Working-class Family', *Cambridge Journal of Economics* 1, 241-258.
- Jennings, Ann L. (1993): 'Public or Private? Institutional Economics and Feminism', in Marianne Ferber eta Julie A. Nelson (argk.): *Beyond Economic Man. Feminist Theory and Economics*, Chicago, University of Chicago Press, 111-130.
- Land, Hillary (1980): 'The Family Wage', *Feminist Review* 6, 55-77.
- Marugán, Begoña (2015): 'Trabajo de cuidados', *Eunomía. Revista en Cultura de la Legalidad* 7, 215-223.
- May, Martha (1982): 'The Historical Problem of the Family Wage: The Ford Motor Company and the Five Dollar Day', *Feminist Studies* 8, 399-424.
- Moore, Henrietta L. (1991): *Antropología y feminismo*, Madril, Cátedra.
- Moreno, Paz (2011): 'Pasatiempos marginales. Nociones de economía marginalista o neoclásica: una aproximación a los modelos económicos subyacentes a la discusión entre formalistas y substantivistas', in Paz Moreno: *El bosque de las Gracias y sus pasatiempos*, Madril, Trotta, 171-192.

- Morton, Peggy (1971): 'A Woman's Work is Never Done', in Edith Altbach (arg.): *From Feminism to Liberation*, Cambridge, Schankman Publishing Co., 211-227.
- Murillo, Soledad (1996): *El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio*, Madril, Siglo XXI.
- Narotzky, Susana (1990): "Not to be a Burden": Ideologies of the Domestic Group and Women's Work in Rural Catalonia', in J. L. Collins eta M. E. Gimenez (argk.): *Work without Wages. Comparative Studies of Domestic Labor and Self-Employment*, Albany, State University of New York Press.
- (2004): *Antropología económica. Nuevas tendencias*, Bartzelona, Melusina.
- Pérez Orozco, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía. Aportes sobre un debate sobre el conflicto capital-vida*, Madril, Traficantes de Sueños.
- Polanyi, Karl (2003 [1944]): *La gran transformación. Los orígenes políticos y económicos de nuestro tiempo*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica.
- (1957): 'El sistema económico como proceso institucionalizado', in Paz Moreno (koord.) (2008): *Entre las gracias y el molino satánico: lecturas de antropología económica*, Madril, UNED, 233-260.
- Prokop, Ulrike (1978): *Realtà e desiderio. L'ambivalenza femminile*, Boloña, Feltrinelli.
- Rapp, Rayna (1978): 'Family and Class in Contemporary America: Notes toward an Understanding of Ideology', *Science and Society* 42, 278-300.
- Rosaldo, Michelle (1980): 'The Use and Abuse of Anthropology: Reflections on Feminism and Cross-Cultural Understanding', *Signs* 5, 389-417.
- Sarasúa, Carmen (1994): *Criados, nodrizas y amos. El servicio doméstico en la formación del mercado de trabajo madrileño, 1758-1868*, Madril, Siglo XXI.
- Scheper-Hughes, Nancy (1997): *La muerte sin llanto. Violencia y vida cotidiana en Brasil*, Bartzelona, Ariel.
- Waerness, Kari eta Ringen, Stein (1987): 'Women in the Welfare State: The Case of Formal and Informal Old-Age Care', in R. Erikson, E. J. Hansen, S. Ringen eta H. Uusitalo (argk.): *The Scandinavian Model*, New York, Shape, 161-173.
- Yanagisako, Silvia Junko eta Collier, Jane Fishburne (1987): 'Toward a Unified Analysis of Gender and Kinship', in J. F. Collier eta S. J. Yanagisako (argk.): *Gender and Kinship. Essays Toward a Unified Analysis*, Stanford, Stanford University Press, 14-50.

Zaintzaren aldeko borroka. Begoña Zearretari elkarrizketa

Lorea Agirre Dorronsoro
Kazetaria

Begoña Zearreta adinekoen zaintzailea da. 2016ko urrian hasita, adineko egoitzetako zaintzaileen lan baldintzak hobetzeko egindako 370 eguneko greban parte hartu zuen, beste 500 emakume langilerekin batera. Bizkaietan inoiz egindako grebarik luzeena izan zen, eta, agian, baita Euskal Herriko luzeena ere. Zaintza gizartearen erdigunean jartzeko borrokan metatutako esperientziatik dihardu.

Greba horrek ezaugarri berezi batzuk izan zituen: batetik, zaintzaileak izan ziren grebalariak; bestetik, emakumeak izan, eta mahaiaren beste aldean, ohiko patronala nolabait, gizonezkoak denak. Zaintza eremuko greba izateak eta grebalari emakumeak izateak greba behar baino gehiago luzatzea eta gogortzea ekarri zuela iritzi dio Zearretak. Oso begi bistan agertu zen generoak zeharkatzen dituela gizartea bera eta gizartea eraldatzeko borroka.

Zaintza eremuko langile gisa, zein da zure eguneroko lana zure zaintzaile lanpostu horretan?

Gure egoitzan goizeko zazpitan sartzen gara lanera. Txos-tena irakurtzen dugu zer gertatu den jakiteko. Eta erizainak esaten digu zein pertsona utzi ohean zauria osatzeko edo berak ikusi nahi duelako. Karroak prestatzen ditugu, behar ditugun gauzak: koloniak, izarak... Zazpiak eta laurden inguruan hasten gara jaisten. Gure egoitzan, adibidez, binaka joaten gara, mendekotasun handiko pertsonak baitaude. Bion artean jaisten ditugu dutxako eserleku batzuetara, eta bat dutxatzen ari den bitartean, besteak ohea egiten du. Gero bion artean janzten ditugu, eta horrela igarotzen dugu goiz guztia. 10:30-11:00ak inguruan 120 aitona-amona altxatuta izan behar ditugu. Lan horretarako hamabi pertsona egoten gara.

Gure lana ez da fisikoa bakarrik, zeren eta jakin behar dituzu pertsona bakoitzaren pautak. Adibidez, haginak, sonoto-neak, gerrikoak... eraman behar dituzten gauza guztiak. Senitarteko batek nahi izan dezake, agian, sorbaldan zapia eraman dezala... Azkenean gauza horiek guztiak buruan daramatzazu.

10:30-11:00ak inguruan, beraz, altxatuta egon behar dute. Altxatuta daudenean bakoitza bere egongelara joaten da, eta han hamaiketako jan dutenak ateratzen ditugu eta 20 minutuz deskantsatzera goaz. Ondoren sartzen garenean, fardelak aldatzen hasten gara. Lehenengo jaiki denarekin hasten gara, edo pixa asko egiten duenarekin. Azken buruan, denak ezagutzen ditugu eta badakigu zein artatu behar dugun arinago. Lan hori egiteko momentu batean hiru gaude, baina 11:30ak inguruan hiru horietako bat zukuak ematera irteten da eta beste biek jarraitzen dugu fardelak aldatzen.

11:00etatik 12:30ak inguru arte aritzen gara aitona-amonak komunetara sartzen, zeren eta 12:30ean bazkaltzera sartu behar dira. Batzuk beren kabuz sartzen dira, baina beste asko, gurpildun aulkia dutenez, guk eraman behar ditugu. Lehenengo turmixa dutenei banatzen diegu bazkaria, ezin baitute beste gauzarik jan euren gaixotasunagatik. Eurei janaria ahora ematen hasten gara. Bi ari gara ahora ematen, eta bestea ari da besteei platera eskaintzen, bigarrena batzen eta postrea eskaintzen. Gero ateratzen ditugu, eta norbait komunekoa egin barik gelditu bada, komunera sartzen dugu eta siestara sartzen dugu. Jantokia gauerako prest uzten dugu, zaborra bota, eta txostenak egiten ditugu. Eta arratsaldeko hirurak berehala heltzen dira.

Gutxi gorabehera hamasei pertsona altxatzen ditugu, eta pertsona bakoitzarekin bi minutu atzeratzen bazara, ordu erdi gehiago da guztira. Kate bat da. Baina azkenean pertsonak dira, eta egun guztiak ez dira berdinak. Nire ustez, zaintza eta denbora ez lirateke lotuta egon behar.

Azken finean, oinarrizko-oinarrizkoa ematen diezu. Ni orain dela bederatzi urte hasi nintzen mundu honetan, eta hasieran pentsatzen nuen ez nuela aguantatuko; izan ere, lan gogorra da eta askotan ez daukagu denborarik behar bezalako zaintza eskaintzeko. Ez gara konturatzen edozein momentutan gu geu, edo gure senitartekoren bat, egoera horretan egon litekeenik. Eta gureentzat gauzarik onena nahi baldin badugu, besteentzat ere bai.

Zure esperientziatik, zer onarpen sozial du zaintzak oro har, eta konkretuki adinduen edo gure aitona-amonen eta gurasoen zaintzak?

Umeen eta zaharren zaintzak desberdintasun asko ditu gizartean. Zaintza ez da estimatzen. Umeenganakoa zer edo zer gehiago, nagusienganakoa ez

Umeen zaintzak eta zaharren zaintzak desberdintasun asko ditu gizartean. Egia da umeak etorkizuna direla eta zaintza behar dutela. Baina zaharrak iragana dira, eta, iragana diren heinean, asko egin dute. Orain guk hori ordaindu behar diegu. Zaintza ez da estimatzen. Umeenganakoa zer edo zer gehiago, nagusienganakoa ez. Izan ere, guk askotan entzun dugu *limpiaculos* garela. Eta ez gara *limpiaculos* soilik. Bada-kigu egoitzako jendea nolakoa den, ez dira gure familiakoak baina ezagutzen ditugu.

Zergatik erabaki zenuten grebara joatea?

Hitzarmenarengatik eta ratioengatik. Jende gehiago nahi dugulako lan egiteko: jende gehiago baldin badago, denbora gehiago dago zaharrei eskaintzeko. Soldata igoera lortu zen, ordu gutxiago lortu zen, bajen %100 ordaintzea lortu zen, baina ratioen kontua gobernuaren kontua da eta zintzilik gelditu da. Gure greba dela-eta, Babestu izeneko elkarte bat sortu zen Bizkaian; senitartekoak daude elkarte horretan, eta horiek oraindik jarraitzen dute ratioarengatik borrokan. Errebindikatzen. Eta guk ahal dugun neurrian laguntzen diegu.

Greba horretan grebalari gehienak emakumeak zineten. Horrek eraginik izan du greba egiteko moduan, greba antolatzeko moduan?

Azkenean, gure bizitza alde batera utzi dugu. Seme-alabak zituztenek askotan eurekin eramaten zituzten grebara. Baina emakumeak azkenean tematsuak gara, eta oso gogorrak. Eta proposatu genuena lortu genuen. Inoiz ez genuen pentsatu etsitzerik.

Oso luzea izan zen.

Bai, 370 egun. Oso luzea. Hasieran hasi ginen greba egun bat egiten, gero bi, gero hiru... astebete, hilabete... Isilik nahi gintuzten: hasieran zerbitzu minimoak %70etik %80ra igo ziren momentu jakin batzuetan, eta gero %80tik %90era. Orduan, gehienak lanean egon behar ginen. Isilik nahi gintuzten,

baina agenda eginda geneukan: lanean ez baginen, kalean geunden sinadurak batzen, pankartak ipintzen, lo egiten... bizitza arrunta alde batera utzita.

Grebaren negoziazio prozesu horretan uste duzu eragina izan duela hainbeste luzatzeak, eta patronalaren ikuspegitik eragina izan duela grebalariak emakumeak izateak? Gizonezkoen greba bat balitz desberdin hartua izango litzateke?

Entzun genuen emakumeen soldata gizonaren soldata handitzeko dela. Eta gaur egun hori pentsatzea... zeren eta gizonak bere soldata dauka eta emakumeak berea. Ni, adibidez, ezkongabea naiz, ez dut gizonik... Zeinen soldata handituko dut? Eurena? Eta emakume bi direnean? Edo ezkondu gabe-ko amak edo bananduta daudenak... Bakoitzak bere soldata dauka, ezta? Bakoitzari egiten duenagatik ordaintzen zaio. Eta kito. Gizonak berea edukiko du. Entzun dugu, baita ere, emakumeak garenez, manipulatuak izan garela. Hori ez da egia. Guk ELAn batzarrak egiten genituen, botoa ematen genuen eta beti irteten zen greban jarraitzea. Izan ere, oraingoan etsi izan bagenu, zer gertatuko zen? Hasi eta bertan behera utzi? Ez, jarraitu behar zen. Badago esaldi bat, ezina ekinez egina, eta horrela da.

Greban zinetela, zer nolako babes soziala sentitu zenuten? Jendeak zer esaten zizuen?

Kalean geundenean askok eta askok animatzen gintuzten aurrera jarraitzeko, ekiteko, ez etsitzeko... Aldiz, senitarteko batzuek ere esaten ziguten greban geundelako jende gehiago hiltzen zela, greba txarto egiten ari ginela... Baina, azken buruan, nik uste dut Diputazioak eskua sartu izan balu, greba arinago bukatuko zela. Izan ere, patronalak noren dirua erabiltzen du? Diputazioak ematen diona. Baina azkenean negozio hutsa da. Niri gustatuko litzaidake egunen batean beraiek edo beraien senideren bat egoitzan egon behar izatea. Edo langile gisa etortzea, zer egiten dugun ikusteko. Ez gara *limpiaculos* soilak... entretenitzen ditugu, aurpegi onarekin

esaten diegu «egun on»... Azkenean, eurentzako bizipoza da, eta poztasuna behar dute.

Greban zehar, hainbat ekitaldi egin ziren sostengua adierazteko. Nola bizi izan zenuten, adibidez, mugimendu feministaren sostengua?

Nik uste dut hasieran pentsatzen zutela eurekin ez zihoala kontua. Baina azkenean konturatu ziren ez zela greba arrunt bat, gehienak emakumeak ginela, gure eskubideak eskatzen genituela... Apurka-apurka, euren laguntza izan dugu.

Esan izan da greba hori greba laboral bat izan dela eta baita nolabait soziala ere, zaintzaren gaia jarri duelako mahaiairen gainean. Uste duzu greba horren ondorioz zaintzaren auzia gehiago gizarteratu dela?

Bai, orain garrantzi handiagoa ematen zaio, baina ez behar duen guztia. Azken finean, zaintza gure bizitzako esparru guztietan dago: umeen zaintza, familiarterako zaintza, zaharren zaintza... Nahiz eta lanbide bat ez izan, etxean zaintza denbora guztian dago presente. Eta, azkenean, zaintzaile baten ongi zaindu dezan, zaintzailea ere ongi zaindu behar da. Etxean nahiz lanean.

Greba feminista ere izan dela esan da. Zuen buruak ikusi dituzue bi urteko prozesu horretan eraldatzen? Zer ikasi duzu, adibidez, feminismoaren edo zuen jarreraren inguruan?

Nik beti pentsatu izan dut gizonak zein emakumeak berdinak garena; gizonak guk baino indar gehiago edukiko dutela, baina guk umeak edukitzeko gaitasuna daukagula. Hori da dagoen ezberdintasun bakarra. Ni berdina naiz lehen eta orain: gizon nahiz emakumeok gauza berdinak egin ahal ditugu.

Greba prozesua eskola feminista bat bezala ere ikusi da kanpotik, neurri batean. Horrela izan zen zuentzako?

Niretzat, adibidez, ez. Gaur egun gauzak asko aldatu dira, beste asko aldatzeko daude, baina eskola bat bezala, ez.

Beharbada izan daiteke hainbeste emakume irten garen greba bakarrenetarikoa, eta horrek beste emakume batzuei erakuts diezaieke beraiek ere greba eginez gero zerbait lor dezaketela. Baina nire baitan ez dut eskola bat bezala bizi izan.

2017ko urrian greba bukatu zenean, badago argazki bat: kalean zaudete kamiseta berde horiek airera boteaz. Argazki hori geratu da gure begi-ninietan, gure historia sozial eta politikoaren irudi garrantzitsu bezala. Nola bizi izan zenuten grebaren bukaera, eta grebaren bukaerak hedabideetan jaso zuen arreta?

Emozio handiko eguna izan zen, eta baita urduritasunez bete ere. Greban egotea oso gogorra da, oso. Ez bazara hor egon, ezin duzu jakin zein gogorra den. Izan ere, behin hasiz gero, ez da etsi behar. Gogoarekin eta bizimodu eta ordutegi arrunt batera bueltatzeko ilusioarekin bizi izan genuen, egia esan.

Zein da greba baten gauzarik gogorrena?

Ez duzu ordutegirik. Egun batean, adibidez, lanera zoaz; hurrengoan zerbitzu minimoak ez dituzu egin behar eta, beraz, arratsaldeko zazpietan Arriagara joan behar zara. Hurrengo egunean kartelak banatu behar dituzu... Agenda desberdina duzu. Lanera joaten zarenean, badakizu goizeko zazpietan sartzen zarela, hiruritan irten... gutxi gorabehera badakizu. Baina, greban zaude nean, *stand by* egoeran zaude.

Gainera, nik ez nuen inoiz pentsatu hain luzea izango zenik. Askotan etsipenak jotzen zaitu. Esaten duzu, oraindik... eta oraindik... Baina beti dago jendearen animoa igotzen saiatzen

Hainbeste emakume irten garen greba bakarrenetarikoa izan daiteke, eta horrek beste emakume batzuei erakuts diezaieke beraiek ere greba eginez gero zerbait lor dezaketela

den norbait, eta hurrengoan bera egongo da ahul eta zeuk esango diozu lortuko dugula, apur bat gehiago eusteko. Batak besteari indarra ematea beste erremediorik ez dago.

Greba hau ELA sindikatuak lagundutako greba bat izan zen, baina emakume langile grebalariak eta sindikatuak zeundeten. Nolako izan zen elkarlana?

ELA gabe sekula ez ginen egongo hainbeste denbora greban. Izan ere, erresistentzia kutxa derrigorrezkoa da: lanik gabe eta soldatarik gabe ezin da bizi. Horri esker eutsi ahal izan diogu hainbeste denbora. Gainera, beraien esperientziagatik, jokamolde batzuk erakusten zizkiguten: bilerak egitea, greba egiten jarraitzea, orain kartelak banatzea, gero atentzioa emateko kanpaldi bat egitea... Azken buruan, beraien antolatzen zituzten gauzak, gure oniritziarekin, noski. Esan izan da ELAkoek manipulatu gintuztela, eta hori ez da egia. Izan ere, greba luzatu da ez delako arinago sinatu, eta ez manipulatu gaituztelako. Sinatu behar zen, eta sinatu arte eutsi. Oraindik sinatu barik egongo bagina, greban jarraituko genuke.

Nola izan zen greba bukatu eta lanera itzultzea? Zure egoitzan, adibidez, ez zuten denek greba egin.

Egoitzetan behin-behineko langile asko dago. Horiek beste modu batera laguntzen ziguten, baina, jakina, behin-behinekoak grebara joaten badira, hurrengoan ez dituzte deitzen. Langile horiek, beraz, ez ziren grebara joan. Beti dago baten bat besteek lortutakoa hartzen duena. Baina gehienok parte hartu genuen. Lanera itzultzea? Azken buruan, zerbitzu minimoak handiak ziren; esan dudanez, ehuneko %80-90 jan orduetan. Horrenbestez, gehienetan han geunden, gutxienez momentu jakin batzuetan. Grebak aurrera egin ahala, gero eta permisiboagoak ziren: gauzak hain ondo egiten ez baziren ere, ez zen ezer gertatzen. Baina, greba amaitu eta lanera itzultzerakoan, akatsik txikiak ere errieta zekarren, erreprelialia gisa. Fitxatuta gaude, azken finean.

Grebarekin lorpen handiak izan dituzue. Baina, hasieran esan duzun bezala, ratioarena ez da ukitu. Hori funtsezko auzia da beharbada, denbora eta zaintza. Ez da kasualitatea izango ratioak ezin ukitu izatea.

Hori da gelditu zaigun puntu oso garrantzitsu bat, lortu ez duguna. Ea Babestu elkarteak eta guk lortzen dugun. Azkenean, ratioak kalkulatzekoan, sartzen dira gizarte laguntzaileak, fisioterapeutak, medikuak, animatzaileak... Eta kontuan hartu behar da horiek ez daudela asteburuetan, aste santuan... Horiek guztiak beharrezkoak dira, nik ez dut hori ukatzen, baina azkenean eguneroko lanak laguntzaileok egiten ditugu, laguntzaileak dira gehien behar direnak. Beraz, hortik hasi beharko litzateke ratioak berrantolatzen. Gobernuak orain dela urte batzuk ipini zituen egungo ratio horiek. Baina gaur egun zaharren egoitzetara joaten diren gehienek mendekotasun handia dute normalean. Eta mendekotasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta denbora gehiago eskatzen du zaintzarako. Eta hori ez da mugitu azken hogeitau urteetan. Nik beti esaten dut, beraiek egon beharko lukete hor, zer gertatzen den benetan ikusteko. 🌿

Ekosozialismo feminista, utopia berri bat?

Iñaki Barcena

UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakaslea eta Ekologistak Martxan-eko kidea

Utopia zeruertzean dago. Bi urrats egiten ditut, eta bera bi urrats urruntzen da. Hamar urrats egiten ditut eta zeruertzera hamar urrats harago doa. Beraz, zertarako da utopia? Horretarako, ibiltzeko.

Eduardo Galeano

Kontzeptuak lantzen: utopia, ideologia, mitoa

Utopia, kontzeptu politiko gehienen antzera, aldakorra eta modu desberdinetan interpretagarria da; horrexegatik, hasieratik gure utopiaren kontzeptualizazioaz hitz batzuk idatzi nahi ditugu.¹

Saiakera honetan, hasteko, utopia eta ideologia konparatu eta desberdinduko ditugu, eta baita mitoarekiko dituen diferentziak eta teilakatzeak ere.

Mendebaldeko pentsamendu politikoaren historian, zerrrenda luzea egin behar dugu utopiaz, eutopiaz eta distopiaz aritu diren pentsagile, idazle eta ideologo nabarmenak kontuan hartzeko. Euren jokamolde eta planteamenduak dibertsoak dira oso, Platonengandik abiatuz (*Errepublikak*), edo Christine de Pisanengandik (*Le Livre de la Cité des dames*), Lewis Mumford (*The Story of Utopias*) edo Karl

Mannheimengana (*Ideologie und Utopie*) etorritz, lau autore nabariak soilik aipatzearren.

‘Utopia’ (oú-topos/ez-lekua) izan zen Tomas Moro Enrike VIII.aren kantziler eta saindu kristau ingelesak asmatutako izena bere izaro akatsgabea, bere errepublika politiko eta sozial ideala izendatzeko. Bere obrarekin (*De optimo reipublicae statu, deque nova insula Utopiae*) nolabaiteko muga markatzen du autore utopiko modernoan (berarengandik aurrera) eta utopia aurremodernoan artean (mesopotamia-rrak, greziar klasikoak, edo Erdi Arokoak).

Gure lanerako bereziki interesgarria da ‘sozialismo utopikoaren’ kontzeptuaz erreparatzea. Asko izan dira historian saio eta errebolta iraultzaileak ordena kapitalista gainditzeko edo kapitalismoa heldu baino lehen gizarte baerdintzaileak antolatzeke. Friedrich Engelsen ustez, asmo eta proposamen sozialista horiek «utopiara kondenaturik» zeuden. Robert Owenek, ‘socialism’ hitza Mendebalde osoan zabaldu zuenak, New Lanarken hasieran eta New Harmonyn geroago egindako esperientziak edo Charles Fourierrek Condé-sur-Vesgren diseinatutako falansterioak ez ziren kapitalismoa garaitzeko baliagarriak, Engelsen aburuz, euren planteamenduak ez baitziren teoria zientifikoetan oinarritzen. Saint-Simoneko kondea, Pierre-Joseph Proudhon, Flora Tristan eta bestelako pentsalari antikapitalista utopikoak berdin, proposamen moraletan bakarrik geratzen baitziren ‘sozialista zientifikoan’ begietara. Beraiena, aldiz, Marx eta Engelsekin batera ‘Komunisten Ligan’ lerrokatutakoena, materialismo historikoan eta klaseen arteko borrokan finkatutakoa zen; zientifikoa zen, alegia, eta iraultzaren teorian zuen bere adierazpen politikoa. Beraiek, kapitalismoaren lege ekonomiko-sozialak aztertu eta ondo ezagutuz gero, plan iraultzaile ‘mundial’ bat antolatzen eta bultzatzen ahalegindu ziren. Geroago, sozialismo zientifiko horren izenean egin dira XX. mendean ezagutu ditugun iraultza sozialistak, Errusian eta Txinan, Kuban, Korean eta Vietnamen, besteak beste. Utopia bat izatetik harago, herrialde horietan estatu sozialistak eraiki ziren eta gizarte

berdintzaileak garatu ziren ideologia komunista jarraituz... baina kapitalismoaren abolizioa lortu gabe. Horrek ideario komunistaren utopian jarraitzen du.

XXI. mendean egonik, ongi dakigu herrialde sozialistetan emandako aurrerapauso 'zientifiko' horiek ez dutela kapitalismoa garaitu; aldiz, Errusian eta Txinan berrezarpen kapitalista ikusi dugu nabarmenki, eta, beste modu desberdin eta beste erritmo batean, kapitalismoaren dinamikak berrezartzen ari dira Vietnamen eta Kuban ere. Sozialista utopiko eta zientifikoarentzat, biontzat, XX. mendeko historia etsipen handiko pasarte bat da. Hori baieztatzerantz, etorri ziren D. Bell, S. Lipset, K. Popper, E. Shils, R. Aron eta antzeko autoreak: ideologiaren bukaeraren teoriarekin, Mendebaldeko gizarteetan asmo

XXI. mendean egonik, ongi dakigu herrialde sozialistetan emandako aurrerapauso 'zientifikoek' ez dutela kapitalismoa garaitu; aldiz, Errusian eta Txinan berrezarpen kapitalista ikusi dugu nabarmenki

iraultzaile antikapitalisten galera predikatu zuten, eta, harkada batzuk geroago, Francis Fukuyamak 'historiaren bukaera' horren froga behin betikoa idatzi nahi izan zuen.

Ideologiaren aditu horientzat, utopia komunista eta ideologia sozialistaren porrotak demokrazia liberal kapitalistaren garapen osoa ekarri du. Reagan eta Thatcherrekin indartutako neoliberalismoak mundu zabalean 'pentsamendu bakarrean' eta *there is not alternative* esloganetan borobildutako 'Crusade for Democracy'-aren moldeak kutsatu dituenen. Ez bortxa eta zapalketarik gabe, noski.

Autore horiek aspalditik teorizatu zuten, nazismo eta komunismoaren ideologia totalitarioen muturreko talkaren ondorioz eta Bigarren Mundu Gerratik aurrera, liberalismo kapitalista izango zela bide ideologiko bakarra. Aldez aurretik hori baieztatu zuen Popper akademiko vienatarrak; pentsamendu utopikoa sakonki arbuaiatuz, biolentziarekin lotu zuen,

adibidez. Nazien erregimenak atzerrira bultzaturik, 1945ean ondutako bere idazlan nagusian (*The Open Society and Its Enemies*), Platon, Hegel eta Marxen pentsamendu utopikoa errefusatzan saiatu zen, eta, geroxeago, 1947ko 'Utopia and Violence' artikuluan, pentsamolde utopikoak razionalki erratuak, arriskutsuak eta kaltegarriak direla defendatu zuen. Bere hitzetan, pentsalari utopikoak ez du kontuan hartzen erratua egon daitekeenik, ez du umiltasun intelektualik, eta hori guztiz beharrezkoa da moraliki eta metodologikoki. Bere ustez, jarra horrek kritika guztien baliogabetzea eta adierazpen askatasunaren abolizioa dakar. Berdin eskumatik zein ezkerretik.

Popperren posizioaren beste muturrean, Barbara Godwin irakasle britainiarra topatzen dugu (*The Politics of Utopia: A Study in Theory and Practice*, 2009). Pentsamolde utopikoa orainaldiko baldintzak eta zertzeladen mugak gainditzeko eragingailu boteretsua dela idatzi zuen. Hau da, 'positibismoari' kontrajartzeko eta aldi berean proposamen berriak eta ekintza politikoaren bide alternatiboak jorratzeko ere utopiak baliagarriak direla defendatzen du. Liburu horren baitan, teoria utopikoen ezaugarri eta dohain berezien azalpena aurkitzen dugu, batez ere 'presentearen' transzendentzia markatzeko ahalmena, pentsamendu bakarra eta *there is not alternative*-ren aurkako antidotoak, hain zuzen. Bestalde, utopismoa, guk defenditzen dugun antzera, herri mugimendu politiko berrien indar eta ezaugarrietako bat bezala ikusten du, eta, bukaeran, teoria eta praxi utopikoen aldeko argudioak plazaratzen ditu pragmatismo politikoaren aurka.

Erdibidean, baina kronologikoki bien aurrekoa, beste etengabeko erbesterratu hungariar bat aurkitzen dugu, Mannheim. Bere obra famatuenean (*Ideologie und Utopie*, 1929), termino bien arteko kontraesanak aztertu nahi izan zituen. Ideologia kontzeptuaren genealogia eta ibilbide historikoa aztertuz gero, bere esanetan, «ideiak bere aroaren eta proposatzen dituzten estatus sozialaren emaitzak dira». Horrela, ideologiaren ikusmira partzial, sektario eta desbideratuari, utopiaren zentzu razional eta orokorra, munduaren ulerkuntza globala

kontrajar dakiok. Horretarako, hauxe da gakoa: intelektual kontziente eta konprometituek jokatu beharko luketen rola, lerro ez klasista (objektibo) eta utopikoetatik abiatuz, gizartearen diagnostiko zuzenak egiteko. Inork gutxik jarraitu zuen bere bide ‘utopikoa’.

Ideologiak ez dira amaitu, nahiz eta euren arteko indarrak eta potentziak desberdinak izan oso. Etimologikoki, ideologia hitzak ‘ideien zientzia’ esan nahi du, baina XIX. mendearen hasieran beste esangura bat hartu zuen, hots, pentsamolde espekulatibo, abstraktu eta irudikorra. Kontzeptuaz eztabaida amaiezina ezagutu ditugu; baina, akordio edo oinarri minimoa bilatu nahian, esan dezakegu ideologia sinesmen sistemaren osagarri nuklearra dela, non dinamismoa, proselitismoa eta filosofia politiko zein teoria politikoei erreferentziak topatzen ditugun. Definizioz, ideologiak armategi elaboratuak dira, balio politiko zehatzekin, besteak sinetsarazteko. Mundu sozialaren islatze eta emanaldi edo errepresentazioak, proiektu politiko-sozial koherente bat izateko joeraz. Ideologiek ideal-tipoak adierazten dituzte, koherentzia, partidismo eta ulergarritasunarekin (Barcena 2010).

Dena den, ideologiaren kontzeptualizazioa modu desberdinetan azaldu da marxismoan eta liberalismoan. Lehenengoan, ideologiak gainegiturak dira, klaseen arabera ekoiztuak; klase menderatzaileek euren hegemonikoki inposatzen dute. Bigarrenean, aldiz, pentsamolde handizkatuak eta errealtate soziopolitikoaren distortsio interesatuak dira.

Sarrerako atal hau bukatzeko, utopia eta mitoaren arteko harremana aztertu nahi dugu. Eta, horretarako, Pruden Gartziak JAKINEN idatzitako artikulu interesgarri bat erabiliko dugu tresna edo ardatz gisa: ‘Mitoaren funtzio politikoaz. Sorel-en exegesi bat: «Bortxari buruzko hausnarketak»’ (Gartzia 1991). George Sorel iraultzaile frantsesak XX. mendeko atarian argiro azaldu baitzuen, greba orokorraren mitoaren gainean, zein den bere funtzioa:

Beraz, ez da batere garrantzitsua jakitea mitoek etorkizuneko historian benetan agertuko diren xehetasun horiek dituzten; ez

dira egutegi astrologikoak; agian, gerta daiteke barnean dutenaren ezer ere ez gertatzea.

Hots, mitoaren funtzio politikoa mobilizatzailea da, hori da bere xede nagusi eta bakarra. Gartziak dioen bidetik, mitoen dohainetako bat da bat-batean intuizioz gureganatu ahal izatea, irudi-multzo eta sinboloen bitartez agertzen baitira. Aldiz, utopiak hitzetan azaleratzen direnez, zati desberdinetan deskonposa daitezke eta razionalki aztertu, errealitatearekin alderatu eta eztabaidatu.

Mitoak kontraesan sozialak konpontzeko errepresentazio poetikoak dira, lirikoak, irudiak eta sentierak. Konbikzioak adierazten dituzte, eta, horregatik, deskonposaezinak eta analizaezinak dira. Mitoak onartzen dira edo ez, sinetsi eta jarraitu egiten dira edo ez, baina mito politikoak ukaezinak eta eztabaidaezinak dira. Aldiz, utopiak hitzetan azaltzen dira, arrazoimenaren bitartez moldatzen dira. Gartziak dioenez: «Begiratu, aztertu, baloratu, zatikatu, elkarrizketatu, negoziatu, konpartitu egiten dira, azken batean lortu egin bait daitezke».

Aspaldi konturatu ginen
krisi ekologikoak ez
duela zerikusia gizakion
eta naturaren arteko
harremanekin bakarrik,
eta gure zibilizazioaren
krisi multipolar batean
murgildurik gaudela

Dena den, eta gauzak gehiago konplikatzeko, esan beharra dugu, Gartziak artikulua-
ren amaieran ongi azpimarratzen duen bezala, historian zehar ezagutu ditugun mito politikoak ez direla isolaturik edo huts-hutsean agertzen, baizik eta elementu razional-
lez nahasturik eta utopiekin elkarren artean estekaturik. Horrek adi egotera behartzen gaitu, batzuk eta besteak on-

gi bereizteko eta teoria eta praxiaren arteko urratsak ongi antolatzeke.

Saia gaitezen argitzen, bada, zertan den edo ez den ekosozialismo feminista utopia berri bat.

Zergatik ekosozialismo feminista? Zer da, ideologia ala utopia bat?

Urteak eman ditugu krisi ekologikoaz berba egiten. Aspaldi konturatu ginen krisiak ez duela zerikusia gizakion eta naturaren arteko harremanekin bakarrik, eta gure zibilizazioaren krisi multipolar batean murgildurik gaudela. Finantza krisi larria ezagutu genuen 2008an, ekonomia kapitalistaren atal 'elektronikoa' matxuratu zenean. Soluziobideari 'aberatsen sozialismoa' deitu zioten: hots, administrazio publikoek eta banku zentralak estali behar izan zuten enpresa eta finantza instituzio pribatuen zorra.

Platonek berak bereizi omen zituen *ekonomia* –etxearen legea–, bizilekua zaindu eta banatzeko legea (*ekologiaren* parrekoa, alegia) eta *krematistika*, merkatu eta komertzioaren logika. Krisialdi biak, ekonomikoa eta ekologikoa, bereizezinak, sortze berekoak dira. Horregatik, oraingo geologoek *Antropozenoaren* arora heldu garela esaten digutenean, nire ustez logikoa da erantzutea *Kapitalozenoan* esatea zuzenago izango litzatekeela. Izan ere, gizakiok duela milioi bat urte bizi gara planeta honetan baina gure aztarna geologikoa ez da islatu duela bizpahiru mendera arte, sistema kapitalistaren jaiotza eta hedatzearekin. Ikatzaren erreketak eta industriaren agerpenarekin hasi zen kontua, lehenago ez. Horrekin ez dugu esan nahi SESBeko edo Txinako erregimen politiko sozialistek ez dutela erantzukizunik 'aztarna industrial' horretan, baina gaur egun Errusian eta Txinan sistema produktibo eta ekonomikoa kapitalismoaren parametroetan neurtzen da.


Kapitalismo globalaren krisian bizi gara, sistema ekonomiko horrek bere baitan duen hazkunde/pilaketaren legearen ondorioz. Ama lurra planeta handia da oso, baina oso gutxi eta salbuespenekoak dira harreman eta negozio kapitalistetatik kanpo mantentzen diren lurralde eta bizikideak.

Ondoko irudian ikus daitekeenez, eta Anthony Giddens irakasle britaniarrari jarraituz, modernitateak ekarritako ondorioen aurka gizarte mugimendu desberdinak altxatu dira

azken hiruzpalau mendeetan. Guk feminismoa sartu dugu, Giddensi ahaztu baitzaio, gure ustez emakumeen parte hartzea beti egon delako langile mugimenduan, ekologismoan, antimilitarismoan edo eskubide demokratikoen aldeko erakunde eta kanpainetan.

1. irudia. Modernizazioaren ondorioak eta gizarte mugimenduen erantzunak (egileak egina)

Modernizazioari erantzunak



Izan ere, krisi ekologiko-ekonomikoari bestelako krisiak gehitu behar dizkiogu. Energetikoa erraz sumatzen da, petrolio eta beste erregai fosilen agorpenagatik (*peak oil*, *peak all²*), baina mundu guztiko feministek agerian jartzen duten 'zaintzaren krisia' ez da bigarren mailakoa.

Ekofeministek argiro salatu dute WASP (white, anglosaxon, protestant) eredu heteropatriarkalaren gizon 'autonomo' eta 'independentearen' irudi faltsua. Izaki bizidun guztiok ezinbestekoa dugu gure ingurukoaren zaintza eta laguntza; eta hori unibertsa baldin bada, denok dugu «bizi izatea merezi duen bizitza baterako» eskubidea, Amaia Pérez Orozcok dioenez. Emakumeek barne.

Elikagaien krisia ere bide beretik dator. Aspalditik dakigu Lur planetak baduela gaur egun bere gainean bizi garen 7.000

milioi pertsona elikatzeko bezainbesteko ahalmena; baina, harreman kapitalistek elikagaiak merkantzia bihurtu dituztenetik, elikagaien 'eskasia' ezinbestekoa da negozioa egiteko.


Aipatutako krisi sortarekin amaitzeko, demokraziaren krisi politiko-ideologikoaren aipamena ere egin beharra dugu. Migrazioen arazotik ikusita edo ustelkeriatik, korporazio multinazionalen 'ate birakarien' praktiketarik edo populismo 'chauvinisten' gorakadatik, Francis Fukuyamak 1989an garaile bakartzat jotako sistema liberal kapitalista krisi etengabe dago.

Jorge Riechmannek dioenez, XXI. mendean zehar aktibismo ekologistaren bi dinamika kausalek –alde batetik, 'klima aldaketak' (ezegonkortasun klimatikoa, ozeanoen azidifikazioa, ekosistemen suntsiketa, gizarte hondamendiak), eta, bestetik, 'petrolioaren gailurra' (*peak oil*) delakoak (energia gutxiago eta garestiago, *peak all*)– agertoki ilun xamarra eskaintzen dute. Horren aurrean, mundu osoan trantsizio justu eta demokratikoaren aldeko esperientziak ari dira antolatzen: Post-Carbon Cities, Transition Towns, desazkundera, kooperatibak, Ende Gelände eta bestelako *Climate Camp*-ak, Yasuni, antiestraktibismoa... Baita Euskal Herrian ere. Gure ustez, aldaketa klimatikoa eta krisi energetikoa txanpon beraren aurkia eta ifrentzua dira. Bereizezinak. Gainera, bi dinamika horiek etorkizun edo panorama distopiko bat seinalatzen dute, non gizateriak aldaketa sakonak ezagutuko dituen eta gure *modus vivendi*-a eta produkzio eta kontsumo moduak ere sakonki eraldatuko diren; hots, gaurko eta hurrengo belaunaldien bizimodua zeharo aldatuko da.

Aldaketa kritiko horiek ez dira modu lasaian etorriko. Klima aldaketa bezala. Razmig Kecheuyane (2008) eta Nick Buxton eta Ben Hayesek (2017) maisuki deskribatzen eta kritikatzeko dute botere korporatibo eta militarrek nola ari diren aldaketa klimatikoaren fenomenoaren euren interesentzat moldatzen. Bost kontinenteetan martxan jarritako «justizia klimatikoaren» mugimenduak interes horien salaketa eta kontrako mobilizazioak ari dira prestatzen etengabe.

‘Trantsizio energetikoa eta demokrazia’ izeneko gure proiektuetan irudi honekin laburtzen ditugu gure helburuak:

2. irudia. Trantsizio energetikoa eta demokrazia
(TRADENER ikerketa taldeak egina)



Duela 25 urte esaten ziguten ‘garapen sostengarriaren’ gaikoa zela arlo ekonomikoa, ekologikoa eta soziala orekan jartzea. Eta errealitateak erakutsi digu ‘ekonomiaren hazkundea’ dela benetan kapitalista ‘berdearen’ xede bakarra. Ez dago ‘krisialdi ekologikotik’ aterabiderik, gure ustez, ez badator justizia sozialaren eta demokraziaren eskutik, bategatik, eta ekonomia feministaren eskutik, bestetik. Etorkizuneko edozein estrategia sozioekologikok hiru elementu hauek izan behar ditu bere baitan: ekologikoki sostengarria izatea, sozioekonomikoki justua eta sexu bazterkeriarik gabekoa eta politikoki demokratikoa, hau da, inplikaturik dauden herritarrei hitza eta erabakitze eskubidea ematen diena (Topaketa Ekosozialistak 2016).

Pobrezia energetikoaren arazoak, adibidez, zio sozioekonomikoak, sexu-generoarenak eta krisi energetikoarenak batera adierazten ditu. Hori ez da hegoaldeko herrialdeetan

gertatzen ari den fenomeno bat soilik. Europako Batasunean zein Euskal Herrian ere, familia batek bere errekurtsio ekonomikoen %10 baino gehiago gastu energetikoentzako (etxe-ko gas eta elektrizitatea, autoaren erregaia...) bideratu behar duenean, pobrezia edo zaugarritasun energetikoan dagoela esaten da. Hori gertatzen den familietan, azterketa txiki bat eginez gero konturatuko gara arazoa dimentsio ugarikoa dela, eta batera agertzen direla emakumeen zaugarritasun gradu altuagoa zein emakumeen rol nagusia arazoa kudeatzeko, energiaren dimentsio komertziala eta instituzioen erantzukizuna 'energia eskubideak' ziurtatzeko... Horregatik ere, parlamentu zein gobernu instituzioetan pobrezia energetikoaren aurkako legeak proposatzen direnean, alderdi horiek guztiak hartu behar dira kontuan.

Gure iritziak, ekosozialismo feminista hiru korrante ideologiko askotarikoen edota hiru herri mugimenduen hibridazioa eta bilduma da. Badakigu ekologismo, feminismo edo ezker sindikal eta politikoaren genealogiak ez direla sinpleak eta lerro bakarrekoak, kontrakoak baizik. Marxismoan, anarkismoan edo sindikalgintzan, eta ekologismo edo feminismoan berdin, korrante batzuk hibridazio eta aliantza ideologiko eko-sozialista-feminista horren aldekoak direla, eta beste batzuk, aldiz, ez. Batzuentzat, euren alorreko kontraesana edo krisia da nagusia (patriarkatua, kapitalismoa edo krisi ekologikoa, berdin dio), eta besteak bigarren mailako kontuak dira eta ezin dira maila berean egon; hau da, lehenengo kontraesana eta besteak ezin dira parekatu.

Horixe da ekosozialismo feministaren erronka, hiru familia ideologiko horien batasun prozesua martxan jartzea eta hiru alorreko arazoak maila berean jartzea, zerrendatze irmorik gabe. Hor ere badago dema honen jite edo ezaugarri utopikoa. Proposatzen duguna ez da batere erraza izango, baina guztiz derrigorrezkoa da.

Giza zapalkuntzaren aurkako ortzadarretik ezin dugu kolore bat bera ere baztertu. Lila, berdea, gorria, beltza, zuria... denek adierazten dute askatasun eta berdintasunaren aldeko

aldarria, eta eraiki nahi dugun jendarte berriaren 'argia' polarizazio horren bildumatik etorriko da, bakoitza bere ekarpenarekin. Utopia berri horrek osagarri ugari behar ditu bere baitan, hor dago kokka eta zailtasuna.

Ekofeminismo sozialista edo sozialismo ekofeminista dei dakiok berdin-berdin. Faktoreen ordenak ez du emaitza al-

Ekosozialismo feministak herri mugimendu alternatiboen ekarpenak biltzen ditu eta 'beste mundu posiblearen' teoria eta praktika ere errebindikatzen ditu

datu behar. Sozialismo erreala- laren porrotaren ostean, 'berdin-askatasun'³ sozialistaren ideiak mantentzen ditu, eta baita indar produktiboen garapen mugaezinen eta ugartitasunaren kritika ere. Sozialismo sobietar edo txinatarrak ez zuten emakumeen askatasun-berdintasuna ekarri, eta feministek argi eta garbi kriti-

katu dute aliantza ideologiko horren iruzurra. Irakasgai hori ez dugu ahaztu behar.

Ekosozialismo feministak, aldiz, herri mugimendu alternatiboen ekarpenak biltzen ditu eta 'beste mundu posiblearen' teoria eta praktika ere errebindikatzen ditu. Herri mugimenduen praktikatik ikasi dugu pertsonak, prozesuak eta helburuak modu orekatu batean kokatu behar direla eraldaketarako saioetan. Baita lidergoak eta antolaketa ereduak ere. Zentzu horretan, kolore lila, berde eta gorri-beltzari antimilitarismoa, antiarrazismoa, elkartasun internazionalista eta sakontze demokratikoaren osagaiak ere gehitzea dugu xede. Ariketa konplexua dirudi, eta halaxe da, baina 2000tik aurrera, Munduko Foro Sozialetan, European antolatutako Topaketa Ekosozialistetan (Ginebra 2014, Madril 2015, Bilbo 2016 eta Lisboa 2018) zein Euskal Herriko Alternatiben Herriaren topagunetan (Baiona 2013 eta 2018, Donostia 2015, Bilbo 2016 eta Iruñea 2018) edo duela gutxi Iraultza Txikien Akanpadan (Zubieta 2018), bateratze ideologiko eta utopiko horren aztarnak aurkitzen ditugu.

Feministen, ekologisten eta ezkertiarren arteko aliantza/utopia berriak

Azken atal honetan, ekologismo, feminismo eta ezkerrearen arteko eztabaida ideologikoan sartuko gara. Horretarako, EHU eta UEUko unibertsitate ikastaroetan ikasleekin egindako ariketetan oinarrituko naiz, Paulo Freirerekin batera pentsatzen baitut hezitzaile eta 'hezitakoaren' paperak joan-etorrikoak direla eta guztiok garelako ikasle eta irakasleak batera, denok dugula zer ikasi eta zer irakatsi, aldi berean. Ikasleengandik jasotako erantzunetatik hasiz, goazen ikustera, zerrenda bakun eta ireki bat plazaratuz, non dauden hiru ideologia eta gizarte mugimenduak bateratzeko aukerak eta eragozpenak, alde indartsuak eta ahuleziak. Apunte batzuk, noski, eta azaletik aurkeztuak. Bakoitzak bere baitan sakontzea eskatzen du, jakina.

Goazen ikustera ekosozialismo feministan dauden hiru erpin edo ekarpen ideologikoen nolako hurbilpen eta urruntzeak dituzten. Harreman dikotomiko bakoitzean, alde positibo eta lagungarri bat eta beste negatibo eta gaitzeskerak zailago bat aurkeztuko ditugu.

Ekologista eta feministen arteko auziak

Aspaldidanik, ekofeminismoa eta ekosozialismoa kalean dauden proposamen ideologiko eta mobilizatzaileak dira. Alde horretatik, bion arteko aliantzak osatzea eta amankomunean aberastea ez du ematen pauso zailena denik, kontrakoak baizik. Lerro ekofeminista eta ekosozialistatik hastea dirudi hurbiltze prozesu logikoena (Barcena 2014). Aldiz, gogorragoa eta zailagoa dirudi lan munduko sindikalgin-tzarekin aliantzak lortzea.

Ekologista eta feminista gehienak –ez denak, ordea– inter-eko-dependentsiaren logikan ados daude. Neoliberalismoan hazitako 'independentsia eta autosufizientziaren' mitoak ez dira aise erantzutekoak, Mendebaldeko jendar-tean legitimaturik daude oso; baina ekofeministotik zein

ekologismotik jarritako kontrako argudioa ere, gizakumeok beste pertsonengandik eta naturatik dugun dependentzia, errefusaezina da. Gure arteko zaintza eta ama lurrarena batera doaz, hori da ekofeminismotik plazaratutako ideia indartsua. Ekologismotik, bestalde, ekoiztutako produktibismoaren aurkako kritikak eta muga ekosistemikoen onarpenaren logikak bat egiten dute kontserbazio eta zaintzaren logikarekin, eta baita erreproduktzio-lanaren birbanaketarekin ere. Horren harira, ekologista askok –ez denok– eta feminista askok ere –ez denek– mugen gainditzearen eta aztarna zein zor ekologiko hazkorren aurka, desazkundearen bidea eta errekurtsio energetiko eta material mugatuaren zaintza defenditzen dugu. Sintonia horretan, ekologismoak emakumeen bizitzaren ikuspegia ere ulertzeko eta ingurumena sormen eta giza gainbizi-tzaren osagarri bezala kontsideratzeko urratsa ez da nekeza.

Mundu nekazarian eta erkidego indigenekin kolaborazioan, emakume eta ekologisten arteko adostasun ideologikoa nabarmena da. Aldiz, eta batez ere eremu urbanoetan eta akademikoetan, ez dago halako adostasun gradu alturik. Modernitateak ekarritako teknologien edo erreproduktzio lanen balorazioaz. Riechmannek (2018: 104-105) igarri egiten du ekofeminismoaren barneko debate horrek ez duela zerikusirik jarrera antikapitalista erradikalekin. Alicia Puleo eta Angélica Velasco ekofeminista kritikoen argudioen aurka, Silvia Federiciren posizioarekin lerratzen da. Lehenengoek pentsatzen baitute Mendebaldeko modernizazioaren aspekturik onenak kontserbatu behar direla, oso jende gutxi prest egongo dela jendarte modernoaren erosotasunei agur egiteko edo teknologiek emakumeen autonomia neurri handi batean areagotu egin dutela. Eztabaidaren gakoak, Riechmannen ustez, haren egingarritasun eta desiragarritasunean datza. Eta Silvia Federiciren pasarte bat dakar:

Esaten da, baita, kapitalismoak gabeziak gainditzeko eta gizakiak lanetik libratzeko baldintza materialak sortzen dituela. Batzuek uste dute kapitalismoak, teknologia eta zientziaren garapenari esker, gero eta lan gutxiago egin behar izatea dakarrela berare-

kin. Nire ustez, ikuspegi hori oso maskulinoa da, eta lana salgaien produkzio gisa soilik ulertzen du. Alta, lanaren barruan sartzen baditugu zaintza eta bizitzaren erreprodukzioa, estatistikoki munduko lan-sektorerik handiena dena oraindik, begi-bistakoa da lan horren zatirik handiena ezin dela teknologiaren bidez egin. Zati batzuk bai teknologiaren bidez egiten dira, adibidez, pertsona askok telebista erabiltzen dute umeak zaintzeko, edo amets egiten dute robot txiki batzuekin, etxea garbitu eta etxeko lan guztiak egiten dituztenak; are gehiago, esaten da robot horiek gure bizikideak izango direla. Niri dagokidanez, ez da hori guk nahi dugun gizartea. Pertsonak gero eta bakartuago egongo diren gizarte baterako prestatu nahi gaituzte. Nire ustez, argi esan dezakegu horrek ez duela bat egiten emantzipazioaren ikuspegia-rekin. Feminismoak aukera ematen digu gaur eguneko ikuspegi marxista batzuk zuzentzeko, onartzen dutenak teknologiak berez ekarriko duela emantzipazioa (Federici 2017: 29).

Federici eta Riechmanekin batera, ez dugu *ekomodernismo* eta *azelerazionismoan* sinesten. Ez dugu kapitalismoaren berriztapen betierekoan sinesten, eta materia eta energiaren eskasian ikusten dugu, hain zuzen, lanaren abolizioaren ezintasuna.

Ekologista eta ezkertiarren arteko polemikak

Atal honetan, modu sintetikoan, ekologistok eta ideologia ezkertiarrean kokatzen diren anarkistek, sozialistek eta komunistek partekatzen ditugun eta bereizten gaituzten iritziei ekingo diegu. Lehenengoei erreparatu, gero eta langile, sindikalista edo ezkertiar gutxiagok ukatzen du krisi sozioekologikoaren ebidentzia. Bestalde, ekologistak eta ezkertiar ugari daude ados kapitalismo berdearen bidetik ez dagoela irtenbide sozioekologikorik. Daniel Tanuroekin batera esan dezakegu mozkinen eta produktibismoan oinarritzen den sistema ekonomiko kapitalistak ez duela klima aldaketarentzat soluziobide bideragarriarik. Klima salbatzeko, produkzio gutxiago eta erabiltzaileengandik gertuagokoa beharko genuke, eta hori posible eta pilaketaren logikaren aurkakoa da. Hobeto bizitzeko, «denboraren ekonomia bat behar dugu, azelerazio kapitalistaren aurkakoa» (Tanuro 2011).

Horrela, ezkertiar eta ekologista asko –ez denak– ados daude aurrerakundearen paradigma aldatu beharra dagoela, krisi ekologikoa globala dela eta datorren eraldaketak soziala eta ekologikoa izan behar duela, gorria eta berdea batera.

Aldiz, ezkertiar eta ekologisten artean, ekosozialistak barne, ez dago argi zein den sistema industrialaren etorkizuna.

Ez gara sartuko orain produktibismo sozialistaren polemikan; arestian idatzi nuen bezala (Barcena 2015a, 2015b) ez

Ezkertiar eta ekologista
asko –ez denak– ados
daude aurrerakundearen
paradigma aldatu
beharra dagoela;
aldiz, ez dago argi
zein den sistema
industrialaren etorkizuna

dut partekatzen A. Dobson, A. Lipietz edo –gertuago– F. Marcellesik egiten duten analisia, sozialismoaren eta ekologiaren arteko harremanen ezintasuna aldarrikatuz. Gure ustez, ekosozialismoak zentzu osoa du. Izan ere, sozialdemokraziaren eta marxismo ortodoxoaren lefroetatik aldendurik, naturarekiko harreman orekatuak ez dira inoiz falta izan ezkertiarren

familian; egia bada ere marxismoak, batez ere ortodoxoak, produktibismoan jarri dituela bere itxaropen iraultzaileak.

Tirabira interesgarriagoa iruditzen zaigu etorkizun industrialari buruz ekosozialismoaren barnean dagoen eztabaida. Hor nolabait Riechmannek berriz ere hautsi egiten du D. Tanuro, R. Smith eta M. Löwyren «hig tech» ekosozialismoarekin, bere hitzetan. Bere buruari galdetzen dio ea Lurrean, goi teknologiaren eta goi konplexutasunaren jendarte batean, nahikoa baliabide energetiko –fossil, lehenik eta behin– egongo ote den. Erantzunarekin, lagun ekosozialista horien trantsizio ekosozialista «ekonomia industrial moderno» baterantz izango dela pentsatzea kritikatzeko du (Riechmann *et al.* 2018: 91-93).

Ikusten denez, ekologistak eta ezkertiarrek, eta ekosozialistak batez ere, gero eta adosago gaude krisi sozioekologikoaren diagnostikoan, eta baita kausa eta jatorrietan ere, agian. Ekosozialisten artean adostasun gradu altu bat dago

trantsizio ekosozialistaren programari buruz, baina ez gauden helduko den gizarte berri horren diseinuan. Riechmannek dioenez, sozialismo berria gure ahalmenen gainetik pentsatu dugu. Hots, teoria utopiko ekosozialista idazteke dago oraindik. Eta horrek hurrengo puntura eramaten gaitu.

Feminismoaren eta ezkerren arteko harremanak (aldatzen ari dira)

Feminismoa mundu osoan zehar gorantz doan ideologia bat da. Zorritzarez, ezin dugu gauza bera esan ezkertiarren ideologiei buruz, noizean behingo suspertze saio batzuk salbu; 1989ko urrian Berlingo harresia jausi zenetik, eskuineko ideologiak dira hegemonikoak mundu zabalean, agian arestian ere. Izan ere, heteropatriarkatuaren atzaparrak luzeak dira eta kapitalismoa baino askoz lehenagotik datoz, baina kolokan ari dira jartzen. Horrek ez du esan nahi laister desagertzear egongo denik, baina emakume, homosexual edo gazteen 'berdin-askatasunaren' aldeko aldarriak inoiz baino ozenkiago entzuten dira. Eta 'berdin-askatasunaren' aldeko borroketan ezkerren presentzia bistakoa da. Ez ezker gutia, noski, heteropatriarkatuaren atzapar horiek ezkerren baitan ere lekua hartu dutelako.

Feminismoak marxismoari egindako kritika ere onespen gradu altu bat ari dira lortzen ezkerren etxean. Federiciren iritziz, marxismoaren tresnak, kontzeptuak eta analisiak erabilgarriak dira emakumeen emantzipaziorako, nahiz eta Marxek eta Engelsek etxekoandreen erreprodukzio-lanari garrantzirik ez eman. Berak dioten moduan:

Gizarte aldaketa bat behar dugu garai honetan, eta hemen azaldu dugun ikuspegi marxista-feminista honekin, gure abiapuntu erreprodukzio-lanaren berreskuratzea izan behar da, erreprodukzio-jardueren berreskuratzea; beren balioa handitu behar dugu, gogoan harturik gizarte berri baten eraikuntza, zeinaren azken xedea izango den, Marxek esan bezala, bizitzaren erreprodukzioa eta gizartearen beraren zorientasuna, ez lanaren esplotazioa (Federici 2017: 29).

Sindikalgintzak, alabaina, gehiengoa diren afiliatu gizonen-tzako konpetentzia kontsideratu ditu normalean emakumeak, eta zaindari eta etxeoandre izatera kondenatu ditu. Eta horiek bigarren mailako lanpostu eta soldatak edukitzea normaltzat jo du. Beste aldean, adibide gordin bat jartzearren, 2018ko Martxoaren 8an egindako greba deialdi 'mundialak' lortutako erantzun itzela ikusita, ez du ematen feministek lan munduko emakumeen zapalkuntza eta diskriminazio politikak bigarren plano batean jartzeko asmoa dutenik. Eta borroka horretan ezkertiarren eta sindikalisten aldetik aliantzak sor daitezke, edo deskreditua eta deslegitimazioa areagotuko dira indar sindikalisten aldean. Lana duten gizonen eskubide finkoak eta interes ekonomikoak ezin dira emakumeen esklusioan oinarritu. Ekologismoaren kasuan, berdin. Lanpostu antiekologikoak eta antisozialak (armagintzan, meatzaritzan edo automobilen enpresetan, kasu) ezin dira sakratuak eta ukiezinak izan. Emakumeen 'berdin-askatasunaren' eskakizunak ez dira bigarren mailakoak, eta horien agenda politikoan idatzita daude, lehenengo orrian.

Ekofeministek ezkerriari hauxe eskatzen diote: egindako errakuntza historikotik ikasiz, derrigorrezko aliantza eta sare berriak egiterakoan, emakumeen eskakizunak 'itxaron zerrendan' berriro ez jartzea. Alicia Puleo irakasle ekofeministak esan eta idatzi duen ildotik, zeharkako aliantzek ez dituzte aldarri feministak lausotu behar.

Bai ekologista eta bai feministentzat, denbora eta epe kontuak arazo larriak dira. Aterabide ekologikoak eta emakumeen aldekoak urrun paratzen dira beti. Auzi sozial arrunt eta egunerokoen aurrean, arazo horiek, oro har, zailtasun handikoak dira erakunde sindikal nagusientzat erantzun azkar eta eraginkorrek emateko, koiuntura desfaboragarrian aldagai berri bat gehituz. *Epe eta denbora* kontuak direla diogu, aterabide ekologikoak eta feministak beti urrun, geroan eta azken orrian zerrendatzen direlako. Sindikalista gehienek ehun industrialak mantendu nahi dituzte, ekologisten eta emakumeen protestak kontuan hartu gabe. Ekosozialismo

feministak praktika horiekin bukatu nahi du. Ekologismo, feminismo eta ezker sindikalaren arteko batasun ideologikoak bizitzaren dimentsio guztiak aintzat hartzea ekarriko du, baita bere mugak ere. Bestelako harreman ereduak, mundu bizigarria eraikitzeko. XXI. mendeko sozialismoa eta komunismoa ezin izango dira ulertu feminismoaren eta ekologismoaren parte hartzerik gabe.

Konklusio gisa

XX. mendeko askatze eta emantzipazio entsegu eta iraultzek ez dute kapitalismoaren aurkako garaipenik ekarri. Bizirik dauden esperientzia sozialistek zail dute harreman ekonomiko kapitalistak ezabatzea eta gainditzea. Praktika eta bizi-pen ezkor horiei, gure ustez, teoria falta gehitu behar diegu. Sortzen ari den ekosozialismo feministak praktika eta teoria askatzaile horien garapena du helburu.

Horri utopia berria deitzen diogu, egiteke dagoelako; baina aztarnak eta bidexkak badaude gugandik gertu. Gutxi gara oraindik teoria eta praktika utopiko horren alde agertzen garenok, baina ezin dugu kolapso sozioekologikoaren esperoan egon edo *Harmagedon*⁴ baten etorrera aldarrikatu. Dystopia irudikatu ordez, hobe historiatic eta egindako huts eta hanka-sartzeetatik ikastea. Ariketa utopiko honen xedea, hain zuzen, ditugun zailtasunak eta aukerak neurtzean datza.

Bide luzea izan daiteke, baina eraldaketa eta emantzipazioaren zeruertzak lurrean argitasuna pizten du. Kultura antikapitalista hegemoniko berria izan arte, praxi politiko alternatibo ugari sortu beharrean gaude, eta pluralean diogu, erradikalatzen eta pragmatismoaren dikotomia aberasgarrian murgildu beharrean gaudelako. Antolaketa modu horizontalak erin eta beti sortuko diren bertikalitateak kontrolatuz. Aspaldi ikasi genuen esaldi ekologista zaharra berriro behar genuela eta «pentsa eta ekin globalean eta tokian» leloa aproposagoa zela alor guztietan. Begiak eta belarriak zabaldu eta munduan gertatzen ari diren aldaketa utopikoen abestiak ikasi.

Federicik kontatzen digunez, emakume latinoamerikarrak Mexikotik Txile eta Argentinaraino, Erdialdeko Amerika eta Andeatatik Brasileko kostalderaino ari dira bidea egiten. Gure artean, Euskal Herri txikian ere, ekosozialismo feministaren oihartzunak entzuten dira. Igo dezagun bolumena! 🌱

Oharrak

1. Eduardo Galeanoren *El derecho al delirio* olerkiaren hitzak erabili ginituen Usurbilgo jardunaldiko hitzaldiaren hasieran, idazle uruguaitarrak ederki margotzen baitu olerki horretan utopia nola ulertzen dugun. Eta hitzaldia Italiatik igorritako beste olerki batekin amaitu genuen (*Qui è ora - Hemen eta orain*). Hitzaldiaren bideoa Jakin.eus webgunean ikus daiteke.
2. *Peak oil* kontzeptuak ohartzen gaitu jadanik Lur amandrearen baitako petrolio eskuragarriaren erdia erauzi eta erre dugula (2010-2015 urte bitartean petrolio enpresa handiek onarturik). *Peak all* kontzeptuak, aldiz, gauza bera gertatzen ari dela ikatz, uranio, metano eta bestelako energia eta material iturriekin ere.
3. Kontzeptu hibrido hori Étienne Balibar eta Cornelius Castoriadis-en ekarpenetatik hartzen du Riechmannek. Euren ustez, berdintasuna eta askatasuna batera doaz, elkarri loturik bakarrik gauzatu daitezke (Riechmann *et al.* 2018: 123).
4. *Harmagedon* hitzak jatorri kristaua du, eta San Joanez idatzitako *Apokalipsia* liburuan agertzen den mundu bukaera katastrofikoa deskribatzen du. Beste erlijio eta kultuek ere erabiltzen dute, eta joan den mendeko 80ko hamarkadan jende askok erabiltzen zuen gerra nuklearraren arriskua salatzeke.

Bibliografia

- Antunes, Carlos; Juquin, Pierre; Kemp, Penny; Stengers, Isabelle; Telkämper, Wilfried eta Wolf, Friedrich Otto (1990): 'Por una alternativa verde en Europa. Manifiesto ecosocialista', *Mientras tanto* 41, 59-172. Ondoren euskaraz argitaratu zen: *Manifestu ekosozialista. Alternatiba berde baten alde Europan*, Madril, Bakeaz-Los Libros de la Catarata, 1992.
- Barcena, Iñaki (2010): 'Ideologia politikoak: amaiera ala berpizkundea?', Auñamendi Eusko Entziklopedia (<http://aunamendi.eusko-ikas>)

- kuntza.eus/eu/ideologia-politikoak-amaiera-ala-berpizkundera/ar-152145-136165).
- (2015a): 'Ekosozialismo feminista zibilizazio-krisiaren aurrean', *Jakin.eus* (www.jakin.eus/gogoeta/artikuluak/ekosozialismo-feministabrzi-bilizazio-krisiaren-aurrean/125).
- (2015b): 'El eco-socialismo-feminista frente a la crisis civilizatoria', in M. Engelken-Jorge, M. Cortina & N. Bergantiños (arg.): *Contextos y perspectivas de la democracia: ensayos en honor a Pedro Ibarra Güell*, Iruñea, Pamiela.
- Bell, Daniel (1964): *El fin de las ideologías*, Madril, Tecnos.
- Buxton, Nick eta Hayes, Ben (2017): *Cambio Climático S.A. Cómo el poder (corporativo y militar) está moldeando un mundo de privilegiados y desposeídos ante la crisis climática*, Madril, FUEM Ecosocial.
- Dobson, Andrew (1997): *El pensamiento verde. Una nueva ideología para el siglo XXI*, Madril, Paidós.
- (2002): 'El proyecto de una sociedad sostenible en el siglo XXI: el ecologismo político', in Joan Antón Mellón (koord.): *Las ideas políticas en el siglo XXI*, Bartzelona, Ariel, 147-161.
- Eccleshall, Robert et al. (1993): *Ideologías políticas*, Madril, Tecnos.
- Engels, Friedrich (1972): *Los orígenes de la familia, la propiedad privada y el Estado*, Madril, Ayuso.
- (1998): *Del socialismo utópico al socialismo científico*, Bartzelona, Debarris.
- Federici, Silvia (2013): *Revolución en punto cero. Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas*, Madril, Traficantes de Sueños.
- (2017): *Soldataren patriarkatua. Marxismoari egindako kritika feministak*, Iruñea, Katakarak.
- Fukuyama, Francis (1992): *The End of History and the Last Man*, Free Press (gazt., *El fin de la Historia y el último hombre*, Madril, Planeta, 1992).
- Gartzia, Pruden (1991): 'Mitoaren funtzio politikoaz. Sorel-en exegesi bat: «Bortxari buruzko hausnarketak» (1908)', *Jakin* 67, 89-99.
- Godwin, Barbara (2009): *The Politics of Utopia: A Study in Theory and Practice*, Peter Lang.
- Kecheuyan, Razmig (2008): *La naturaleza como campo de batalla*, Madril, Clave Intelectual.
- Letamendia, Francisco (2013): *El hilo invisible: identidades políticas e ideologías*, Bilbo, EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Lipietz, Alain (2002): *¿Qué es la ecología política? La gran transformación del siglo XXI*, Santiago, Instituto de Ecología Política.
- Löwy, Michael (2012): *Ecosocialismo. La alternativa radical a la catástrofe ecológica capitalista*, Madril, Siglo XXI.

- Mannheim, Karl (1929): *Ideologie und Utopie*, Bonn, Cohen (gazt., *Ideología y utopía*, Mexiko Hiria, FCE, 1970).
- Marcellesi, Florent (2009): 'Ecología política: génesis, teoría y praxis de la ideología verde', *Bakeaz koadernoak* 85.
- Martínez Palacios, Jone (2007) 'Ekofeminismoa, garatzeke dagoen teoria. Ingurune-feminismoaren gatazken hastapenak', *Uztaro* 62, 99-116.
- Mellor, Mary (1997): 'El socialismo verde y feminista: La teoría y la práctica', *Ecología política* 14, 11-22.
- Moro, Tomás (2010): *Utopía*, Madril, Público.
- Mumford, Lewis (1922): *The Story of the Utopias*, New York, Boni and Liveright (gazt., *Historia de las utopías*, Logroño, Pepitas de Calabaza, 2013).
- Neuüss, Arnhelm; Mannheim, Karl; Horkheimer, Max; Popper, Karl R.; Ruyer, Raymond & Polak, Fred L. (1992): *Sociología de la utopía*, Bartzelona, Hacer. Bernat Muniesak hautatu eta aurkeztua.
- Pascual, Marta & Herrero, Yayo (2010): 'Ecofeminismo. Una propuesta para repensar el presente y construir el futuro', *CIP-Ecosocial – Boletín ECOS* 10.
- Pérez Orozco, Amaia (2006): *Perspectivas feministas en torno a la economía: el caso de los cuidados*, Madril, Consejo Económico y Social.
- Puleo, Alicia (2004): 'Hacia un feminismo con conciencia ecologista', *El Ecologista* 41, 54-55.
- (2011): *Ecofeminismo para otro mundo posible*, Madril, Cátedra.
- Riechmann, Jorge (2012): *El socialismo puede llegar sólo en bicicleta*, Madril, Los Libros de la Catarata.
- Riechmann, Jorge et al. (2018): *Ecosocialismo descalzo*, Bartzelona, Icaria.
- Salleh, Ariel (1992): 'Ecosocialismo-Ecofeminismo', *Nueva Sociedad* 122, 230-233 eta *Ecología Política* 2, 89-92.
- Sierra, Angela (1987): *Las utopías. Del Estado real a los Estados soñados*, Bartzelona, Lerna.
- Tanuro, Daniel (2011): *El imposible capitalismo verde. Del vuelco climático capitalista a la alternativa ecosocialista*, Madril, Viento Sur-La Oveja Roja.
- Topaketa Ekosozialistak (2016): *Manifestua* (<https://guneekosozialista.noblogs.org>).
- Velasco Sesma, Angélica (2010): 'Justicia social y ambiental: mujeres por la soberanía alimentaria', *Investigaciones Feministas* 1, 161-176.
- Warren, Karen J. (2003): *Filosofías ecofeministas*, Bartzelona, Icaria.

Utopiatik... alternatibara

Anaiz Agirre

Xabier Harluxet

Bizi! mugimenduko kideak

Utopiaren aurpegiak

Bizi! mugimenduaren eguneroko bizian ez dugunez 'utopia' erabiltzen, 'utopia' hitzaren definizio orokorren hiztegian xerkatzera behartuak izan garela aitortu behar dugu. Bertan, «alegiatzko herria, non gobernu ideal batek uros den populu bat zaintzen duen» aipatzen da, eta, ondotik, «sozial edo politika mailan ideal bat [...] egoera erreala kontuan ez duena hartzen». Azkenik, 'utopia' hitza ororen buru eta komunzki «ezin gauzatua iduri duen kontzeptu edo proiektu bat» bezala ere erabiltzen da.

Bizi! mugimendua 2009an sortu den mugimendu altermundialista da, Ipar Euskal Herrian ari dena nagusiki, larrialdi klimatiko eta ekologiaren arloan, justizia sozialaren alde eta ildotik. Gaur egun 600 pasa kide ditu. «Alda dezagun sistema eta ez klima!» leloaren bidez beste mundu bat behar, posible eta martxan dela azpimarratzen du. Leloko berak «sozial edo politika mailan ideal» batez, hots, utopia batez ere pentsarazten du.

Bestalde, Bizi!-k bere aurkezpen liburuxkan hasieratik ondoko hau ere argi uzten du:

Oraingo krisi ekologikoak (klimaren aldaketak, energia fosil eta lehengai eskuragarrien eskasteak, biodibertsitatearen gainbehera

kezkarriak, etab.) Lurreko baliabideen mugak non diren agerian ezartzen digu. Ekonomia kapitalista eta gure garapen eredu produktibista baliabide harrapaketa eta norbanakoen, biztanleriaren, komunitateen, Estatuaren eta kolektibitateen arteko lehia oinarrituz eraiki dira. Logika horrek seriozki kaltetu ditu gure planeta eta horren oreka handiak, eta orain gure jendarateen eta bizidunen munduaren zati handi baten etorkizuna bera mehatxatzen ditu. Erronkak argiak dira, jakinak eta zenbatuak. Eta, bereziki, dena orain jokatzeko ari da!

Hots, kontuan hartuz Bizi! mugimenduaren ezaugarriak, Bizi!-ren baitan 'utopiatzat' duguna, sentsu komunean, gaur egungo eredu (planetaren muga fisikoak kontuan hartzen ez dituen) betierekoa dela pentsatzea da! Alabaina, Bizi!-rentzat, jendarte solidario eta iraunkor bati buruz joateko bide sinesgarriagoak mugimenduak lehenesten dituen alternatibetan topatzen dira...

Kontsumerismoaren eta dominazioaren arriskuak

68ko udaberrian frantses estatuan autoritatearen kontrako iraultza bat, kultur, sozial eta politika arlokoa, kapitalismoaren, kontsumerismoaren, amerikar edo oro har gaullista bostere edo dominazioaren kontrako mugimendu bat gauzatu da... Oro har, 1968ko Maiatzak instituzio tradizionalen zalantza ezartzea lortu du.

Bere aldetik, Bizi! mugimenduak aintzat hartzen ditu bi elementu:

- Aldaketa klimatikoak behartzen gaitu erregai fosilak diren tokian uztera, planeta honetan bizi baldintzen segurtatzeko edo ekosistemak gure jendarteentzat bizigarriak izan daitezen. Hots, eredu aldaketa bizitzako atal ezberdinetan: elikadura, garraio, hirigintza/etxegintza, kontsumo/ekoizpen...
- Jendarte batean pertsonen arteko beharrezkoa den elkaritasunak eta eskubideen berdintasunak definitzen duen justizia soziala...

Horretarako, Macron lehendakariak bere agintaldiko lehen urtean aitzinean eman duen formulari –«Bizkotxa partekatu aurretik, egin behar da!»– alternatiba bat eskaintzeko, Bizi!-k badu formula egokiago eta zuzenago bat 68ko udaberriko balioetarik hurbiltzen dena: «Bizkotxaren errezeta behar da aldatu (gaur egungoa pozoitsua da), eta, ber maneran, molde zuzenago batean partekatzea baitezpadakoa da».

Erradikal pragmatismoan...

70eko hamarkadatik geroz neoliberalismoak 'ongizate estatua' luxu karioegia bezala aurkezten du... eta ahal den neurrian dena sektore pribatuari utzi nahi du, interes orokorreko zerbitzuen eskaintzeko sektore horrek ustez eraginkortasun handiago duelakoan. Thatcher Erresuma Batuko lehen ministroak 80ko hamarkadan *There is no Alternative* formula-rekin neoliberalismoaren aurkako saiakerak desaktibatzen zituen. Ondorioz, «ezin gauzatua iduri duen kontzeptu edo proiektu bat» bezala zokoratua zen edozein 'alternatiba' edo 'utopia', hots, «planetaren eta jendearen onerako zen edozein jendarte antolaketa eredu»...

Bizi!-ren ezaugarrietan atzemanen dugu «izpiritu erradikal pragmatiko bat, bortizkeriarik eza aktiboa, tokikoaren eta mundu mailakoaren arteko lotura, umorea eta irudimena, proposamen eta alternatiba zehatzen zerbitzuko».

Gure ustez, 'erradikal pragmatismoaren' definizioak lagunduko gaitu hurbiltzen hobeki 'utopia' nola ulertzen duen Bizi!-k gaur egun.

Hurbilketaren ongi kausitzeko, honako galdera hau pausatzten ahal da: «Nola egiten da elefante bat oso-osoki irensteko?». Bizi!-ren erantzuna ximple bezain zentzu onekoa da: «Ahokada ttipiak eginez!». Gaur egun, altxatu behar dugun desafioa alimaleko elefante edo mamut bat da. Gure jendar-tea eta bizimoldeak errotik aldatu behar ditugu. Kontua da elefantea osorik irensten saiatu diren guziek hortzak hautsi dituztela... Hor da agertzen Bizi!-ren 'erradikal pragmatiko'

Beharrezkoak diren
aldaketek berekin
esperantza bat eraman
behar dute. Ez dira
bakarrik uko egiteak
izan behar, baizik eta
esperantza promesak
edo agintzak

programa edo *software*-a! Elefantearen neurriaz kontziente gara, eta onartzen dugu *ekitea* ahokada ttipien bidez... Hots, 'kolibriaren partea' egitea. Legendak dioenez, oihaneko sute erraldoi baten karietara, animalia guziak ikaratuak eta etsituak zeuden, hondamendia ikusten ari zirela erabat ahalgabetuak. Bakarrik kolibri ttipi bat ari zen bere moskoarekin ur tanta batzuen xerka suaren gainean botatzeko. Zenbait denbora eta gero, armadiloa, deusen parekoa ziren mugi-

menu horietaz aspertua, hasi zitzaion kolibriari erraten: «Kolibri, ez zara eroa? Ez duzu sutea ur tanta zenbaitekin itzaliko». Eta kolibriak erantzun zion: «Badakit, baina ene partea egiten dut!».

Bizil-n badakigu ezin dugula mundua bakarrik aldatu, eta, elefantea irensteko, denek beharko dugula ekin. Ez bakarrik konbentzituak, puristek, txirringaz eta tofu janez bizi direnek, baizik eta diru edo astirik ez dutenek, 4x4 autoa dutenek eta hauteskundeetan gutarik urrunenak diren hautak egiten dituztenek...

Horregatik, beharrezkoak diren aldaketek berekin esperantza bat eraman behar dute. Ez dira bakarrik uko egiteak izan behar, baizik eta esperantza promesak edo agintzak. Beldurrak, ezintasun sentazioak edo etsimenduak... nor bere baitan hetsirik egotea, immobilismoa edo geldikeria eta ukapena laguntzen dituzte. Aitzinatzeko gogoia ukaiteko, hots, aldaketak sortzen duen deserosotasuna onartzeko, geroa konfiantzaz beterik ikusteko beharra dugu. Eta, gero hori jada hemen dugu, hozitzen ari da gaur egungo jendar-tean. Denetan, gure ondoan edo munduaren beste muturrean borondate oneko gizon eta emazteek jendarte zuzen eta jende eta ingurumenarekin errespetutsuago baten oinarriak

plantan ematen dituzte. Ez da dena asmatzekoa. Anitz bada partekatze eta garatzeko. Nahi edo behar ditugun aldaketak jada martxan dira.

... beti helburu estrategiko baten palanka efektua!

Ekintza erradikal baten eramatearen helburua da egoeraren *errotik* aldatzeko xedea ukaitea... arazoan *erroei* eraginez *sistema aldatzeko*, eta ez *azaletik* bakarrik aritzeko *sistema egokitze*ko. Horren lortzeko, bi oztopo behar dira saihestu: erradikala izatea... pragmatiko izan gabe; eta pragmatikoa izatea... erradikala izan gabe.

Erradikala izatea, pragmatiko izan gabe, gaur egungo sistemaren aldaketa erradikal baten gomendatzea da, kontuan hartu gabe gaur egun gutiengoan garela eta ez dugula indar harremanik horrelako aldaketen lortzeko epe laburrean. Postura edo jarrera horrek atxikitzen gaitu inkantazioan... ekintzan baino gehiago. Aldaketen lortzeko, epe laburrean lortzen ahal diren helburu batzuk behar dira finkatu.

Baina, nola gutiengoan garen eta ez dugun indar harremanik gure alde, lortzen ahal diren helburuak, nahi eta nahi ez, mugatuak dira. Eta gure esku diren helburuez bakarrik kontentatzen bagara, arriskatzen dugu zinez sistemaren azaleko aldaketaren bakarrik lortzea. Kasu horretan, epe laburrean lortzen ahal diren helburu horiek irri eragingarriak iduri ukaiten ahal dute, eta ez biziki mobilizatazailak, eta ondorioz dudak sarrarazten ahal dizkigute gure egoera sakonki aldatzeko gaitasunari buruz.

Dilema edo ataka gaizto hori gaingitua izaten ahal da helburu mugatu (eta ondorioz lorgarri) batzuk hautatuz, baina beren baitan diferentzia handia sortzen ahal duten bi ezauzgarriak dituztenak:

- Alde batetik, helburuek beren baitan eraiki nahi dugun jendartearentzako aldaketa globalaren ideia daramate.
- Bestetik, indar-metaketa dinamika bat martxan ezartze-ko gaitasuna, behin helburua lorturik gero eta gehiago

eta indartsuago izanen garelako, eta ondorioz helburu anbiziotsuagoak finkatzen ahalko ditugulako.

Hori da helburu estrategiko baten palanka efektua... Bizi!-ren 'erradikal pragmatismoaren' bihotza dena.

Azkenik, hobeki ulertzeko zer baldintzatan ekiten duen Bizi!-k, jakin behar da mugimenduaren ekintzak elkarri etengabe uztartuak zaizkion honako sei zutabeetan oinarrituak direla:

1. Diagnostikoa, kritika eta erresistentzia.
2. Proposamen zehatz batzuen lantzea.
3. Gaurdanik posible diren tokiko alternatiba kolektiboen aldeko borroka.
4. Bakoitzaren jokamoldeen aldaketa eta praktikaren pedagogia.
5. Barne eta kanpo formakuntza.
6. Nazioarteko gogoeta eta mobilizazioetan parte hartzea.

Alternatiben herria

2013an, klima aldaketa eta energien krisiaren aurrean, Alternatiba 2013 antolatu zuen Bizi!-k, alternatiba zehatzen lehen herrixka. 12.000 lagun baino gehiago Baionan energiak ekoizteko, kontsumitzeko, bizitzeko, mugitzeko... molde berriak elkarrekin gogoetatzeko eta ezagutzeko. Ondotik biderkatuz joan den dinamika bat izan da, eta 150 alternatiben herrixka baino gehiago hedatuko dituenak frantses estatuan, Europan eta baita Senegal eta Haitin ere.

Ekimena 2015eko Alternatiba Itzuliarekin luzatu zen, elkartasunaren, trantsizio sozialaren eta ekologikoaren sinbolo diren toki anitzetako txirringen gainean. Orotara, 700.000 lagun sentsibilizatuak klimaren gaiaz Parisko COP 21 ikusmiran izanik; eta, berezikiago, kontra gailur eta Alternatiben Munduko Herrixka baten antolaketa.

Joan den ekainaren 9an abiatu da Alternatiba Itzuliaren bigarren aldia. Oraingo honetan Paristik abiatu da Baionan

bukatzeko urriaren 6an bigarren Alternatibarentzat, klimaren desafioari begira aterabideak ezagutzeko edo berrezagutzeko eta gure tokiko etorkizuna eraikitzeke molde berriak ikusteko xedearekin.

2018ko Alternatiba, horrenbestez, helduentzat eta txikiengentzat ere informatzeko, ongi pasatzeko, engaiatzeko aukera izan da, bederatzi gune nagusien inguruan: mugikortasuna eta garraioa, neurritasuna, energia berriztagarriak, birtokirratzea, laborantza, ura eta elikagaia, birziklatzea eta konponketa, ekofeminismoa, lurraldeko alternatibak, elkartasuna eta trukaketa.

2018ko Alternatibak urrun heldu nahi du!

2018ko Alternatibaren helburua nazioarteko mobilizazioan parte hartzea da, nahasmendu klimatikoaren kontrako borrokan anbizio gehiago izan dadin eskatzeko, bai eta eguneroko inizatibak sustatzea, nornahi konkretuki borrokatu ahal izan dadin, eta han eta hemen trantsizio energetikoaren, ekologikoaren eta sozialaren alde sortzen ari diren lekuko proiektuak sostengatzea. Garapen jasangarria eta elkartasuna gauzatuko dituen Euskal Herria eraiki nahi dugu, eta beste lurraldeetan ere gisa bereko dinamikak sustatzen lagundu nahi dugu.

Guztia besta giroan iragan da, kontzertu, hitzaldi antzeztu eta beste animazio askorekin, Alternatibaren partaide anitzek proposaturik. Txikiak ere beraien tokia izan dute, herrixkako urritasunaren gunean beraientzat eremu bat finkatu baita. Aurten 1.000 laguntzaile inguru izan dira Baionan 30.000 laguni harrera egiteko!

Euskal Herria Burujabe egitasmoa

Baionan, urriaren 7an iragan den Alternatiba 2018ren kari, Bizi!-k 'Euskal Herria Burujabe' txostena aurkeztuko du, non agertzen den Euskal Herri burujabe, jasangarri eta solidario bati buruz zer antolaketa behar den kontuan hartu, eta nola

horrek aldaketa klimatikoak galdatzen dituen prebentzio eta erresilientzia neurrietarik pasatu behar duen.

Aitzin jasta bezala, hara txostenaren sar hitzaren ezaugarri nagusiak:

Gure bizi baldintzak berreskuratuz

Euskal Herria Burujabe, Bizi!-ren gogoeta kolektiboa, Euskal Herri burujabe, jasangarri eta solidario bati buruz doazen trantsizio bideen marraztera saiatzen da.

‘Burujabe’ hitza arriskupeko populazioekin solidarioa den elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduak edota beren

Euskal Herria Burujabe,
Bizi!-ren gogoeta
kolektiboa, Euskal Herri
burujabe, jasangarri
eta solidario bati buruz
doazen trantsizio bideen
marraztera saiatzen da

baitan hetsirik egotearen hautu suizida eta berekoia egiten duten indar erreakzionarioek ere erabiltzen duten garai honetan, sar hitz honen helburua kontzeptu horri guk ematen diogun erran-nahiaren argitzea da. Bere inguruan dena suntsitzen duen globalizazio kapitalistaren aitzinean, gure iritziz mende honetako planeta

mailako erronka handiei eraginkorki erantzuteko gai den ‘tokikoaren’ kontzeptua berriz definitu nahi dugu.

Lurretik desloturiko sistema bat

Gure lurretik desloturiko sistema batean bizi gara. Globalizazioarekin espero ziren aurrerapen ilusioak airatu egin dira. Hots, saldu diguten eredia utopia txarra zen! Ohartzen gara azken hamarkada hauetan, industrializazio masibo bat gertatu ondotik, belaunaldi berriak ez direla haien gurasoak bezain ongi biziko.

Aberatsen dirutza handitzen den bitartean, gabezia berriro zabaltzen hasi da, baita airearen eta uraren kutsadurak

sorturiko eritasunak ere. Azken urteetan klima nahasiagoa bihurtzen ikusi dugu. Ehunka mila pertsonak ihes egin behar izaten dute, bizitza duin baterako gutxieneko baldintzak ez baitituzte gehiago bermaturik. Haietako askok bizitza galtzen dute Europako atarian.

Hazkuntzaren tiranokeria. Globalizazio honek indikatzaile bakarra du: hazkuntza. Bizia suntsitzen duenari balioa ematen zaio, positibotzat hartzen da, bizia berritzen duena ez delarik kontuan hartua, ez baita zenbatzen ahal (eguzkia, aire garbia, euria...). Baliabide naturalak kopuru mugatutan daudela ez dugu barneratzen. Erresilientzia milaka urtetan garatu duten ekosistemei ez diegu kasurik ematen. Alta, gu baino eraginkorragoak dira energia eta ura erabiltzen zaborrik sortu gabe! Bioaniztasunaren seigarren desagertzen handia eragiten dugu. Ez dugu barneratua gu ere biosferaren espezieetarik bat garelara. Gure bizitzetan, ekoizpen ekonomikoa da nagusi: gure buruak robotak bezala tratatzen ditugu. Ahulak, akastunak, ezberdinak, zaharrak ezkutatu behar ditugu. Ekonomian ekoizten ez dutenak mespretxatzeraino heldu gara.

Gizatasuna galdu duen gizartea. Errentagarritasuna denean izanik, ahanzten dugu harreman batzuk ez direla lehian oinarritzen. Haurrak zaindu eta heztea, adiskideen arteko laguntza edo auzolana, zaharrak edo eri daudenak zaintzea... Beharrezko egintza horiek begirune oso guti jasotzen ohi dituzte; alta, desagertzen direnean, sistemak ezin du gehiago. Jendeen arteko eta gizarte-harreman horiek ez dira errazki salgai ezartzen: desagertzen diren uneetatik, ez dira ordainpeko ordezkoekin ordezkatzeko ahal! Ondasun komunak dauden tokietan, pribatizazioa beti da erabiltzaileen kalteetara. Ahanzten dugu kolektiboki bizi eta erabakitzen ahal dugula. Iritzi publikoa hedabideek moldatzen dute eta jendeak ez daki gehiago zer pentsa, eta zergatik edo zertarako bozkatu.

Eztabaida demokratikoa ahanzten da, elkarbizitzaren esanahia, memoria kolektiboa galtzen da...

Truka daitezkeen gizabanakoak bihurtzen gara, erro eta ikuspegirik gabe. Gure gizatasuna galduz.

Aurrera ihes ezina. Mundua ulertzen laguntzen ziguten erreferentziak eta egitura sozialak desagertzen dira. Gutien- go bat aberasten da: munduko aberatsenen %1en ondareak gaurko egunez beste %99ena gainditu du.

Gainera, behartsuenak dira globalizazioaren izugarritzko eragina pairatuko duten lehenak; aldiz, horren ardura gutiena dute eta egokitzeko baliabide urrienak. Klimaren nahasmenak segitzen du zalutzen eta larriagotzen. Ekintza zalu eta masibo bat ez bada martxan jartzen, lur gainean bizi zibilizatu baten baldintzak kolokan ezartzen ditugu. Alabaina, aberatsen bizimodu jasanezina elikatzeko, herrialde pobreen lehengaiak lapurtu eta xahutzen dituen sistema ekonomiko baten berotegi efektuko gasen isurketen ondorioa da klima aldaketa. Denek bizi duin bat lor dezaten, logikaz aldatzea premiazkoa da. Jende askok *lehenengo mundura* eta bere mugetara itzuli nahiko luke, globalizazioaren porrota sumaturik. Bizitza joriago, errazago eta ez hain mehatxagarri baten nostalgia dute. Zoritxarrez, oraindik gehiago existitu ezingo den mundu baten bila dabilta. Mende honetako giza eta klima erronkei begira, mugak ez dira erantzun egokiak.

Gure helburua: lurralde burujabe, jasangarri eta solidarioa

Hazkunde ekonomiko hori biziaren berriztapena oztopatu eta bihurtzeraino iritsi da. Gure bizi baldintzen jabetza kentzen digu (klima, lurra, ura, airea, etxebizitza, elikadura, energia, historia, elkar antolakuntza). Gure bizi baldintzen *birjabetzea* baitezpadakoa da, lehenik sistema ekonomikoak gehien mehatxatzen dituenentzat: aterpe gabekoak, ama isolatuak, pertsona ezinduak, zaharrak...

Gure bizien baldintzez birjabetu. Gure bizi baldintzek ez dute mugarik. Klimarekin hasiz, gainontzeko guztia horren menpe baita. Defendatu behar ditugu eta indartu, gaur egun

gure lurraldeak gu denak hartzeko eta elikatzeko gai izateko, baita gure ondotik etorriko diren guztiak ere. Gure bizien baldintzen birjabetze hori da burujabetza deitzen duguna.

Bere lur eta atmosferarekin bat egiten duen lurralde batean bizi nahi dugu, biziaren zaintza berriz lehentasunetan ezarriko duena, giza neurrikoa. Xede unibertsal horiek gauzatuko dira lurraldeen aniztasuna eta haien berezitasun sozial, ekologiko eta kulturala kontuan hartuz. Bizi eremu bakoitzari egokitutako moldeen arabera, gure bizi baldintzez jabetuko gara.

Berriz konkistatu beharreko burujabetzak. Euskal Herriko borroka sozial, ekologiko eta kulturaletan engaiaturiko biztanle gisa, naturalki Euskal Herria hautatu dugu burujabetza horien birkonkistatzeko.

1. Elikadura burujabetza

- Euskal Herriko laborantza bertan bizi direnak elikatzeko gai bilakatu eta etorkizuneko gorabehereri aurre egiteko erresiliente egin.
- Lurren artifizializazioarekin amaitu.
- Andaturiko lurrak sendarazi.
- Hiri inguruetan ahal diren gunek elikadura ekoiztera berresleitu.
- Ekoizpena eta kontsumoa birkonektatu.
- Uraren kudeaketa udalerriei itzuli.

2. Energia burujabetza

- Gure beharrak berriz zehaztu, neurritasun eta zuzentasun gehiagorako.
- Euskal Herriko eguzki, haize eta erreketatik nagusiki etorriko den energia ekoitzi, banatu, erabili eta elkarrekin erabaki.

3. Etxebizitza burujabetza

- Etxebizitza duin eta eskuragarri bat izateko eskubidea, bi etxebizitza ukaiteko eskubidea baino lehen.
- Espazio eta energiaren erabilera modu eraginkorragoan pentsatu.

4. Gizakian zentraturiko ekoizpen burujabetza
 - Ekoizpen-sistema birbideratu, trantsizio ekologikoa bermatu eta pertsoneri loratzeko ahala emanen duena.
 - Ugalketa-lana edo zaintza eta lan domestikoa (oraino nagusiki emakumeen esku dagoena) aitortu eta hobeki banatu.
5. Ekonomia burujabetza
 - Lanaren eta ekoizpenaren helburuak zein diren eztabaidatu.
 - Elkarrekin zehaztu gizarte onurarako diren oinarriko beharrak.
 - Birtokiratu, ekoizpena birbideratu.
6. Burujabetza soziala
 - Komunitate zabalak berreraiki.
 - Elkarren arteko segurtasuna berreraiki.
7. Elkartasunezko burujabetza
 - Lanaren eta aberastasunaren partekatze erradikalak gure lurraldeen barnean.
 - Gure lurraldeetatik harago, klima aldaketak eskatzen duen mundu mailako elkartasuna plantan ezarri, bizitzeko desegokiak bilakatu diren herrialdeetatik ihes egiten dutenei harrera eginez.
8. Kultur burujabetza
 - Memoria kolektiboa berreskuratu.
 - Gure hizkuntzen eta historiaren berreskuratzea (irabazleek idatzi ez dutena).
 - Herriaren ohidurak (auzolana, bestak, sorkuntzak...) herri ireki baten bermeak dira ere: nor garen are eta hobeki jakinik, eta elkarren artean lotzen gaituena-ren zentzua sumaturik, besteekin erraz eta beldurrik gabe trukatzeko ahalko dugu.

Lurraldea: ekintzarako eremu aproposena

Klima, bizi eta lantzen den lurra, ura eta airea, lantokiak, atsedan edo sorkuntzarako guneak, janaria, haizearen, eguzkiaren,

uraren eta egurraren energia, historia eta kultura... Horrek guztiak gure lurraldea osatzen du.

Bi zangoak lurrera itzuli. Hezurmamitzen gaituzten gauza horiekiko loturak alde batera utziak izan dira, edo balio ekonomiko huts gisa kontsideratuak. Lurretik deslotua den ekonomia garatu da, hazkundera baizik bilatzen ez duena. Bada orain zangoak lurrean berriz ezartzeko garaia. Elkarrekin eta ahal bezain sendoki prestatu datozen arazo klimatikoei aurre egiteko, arazo horiek larritu gabe karbono fosilen erabilpenarekin. Urritasun, eraginkortasun eta energia berri-ztagarrien iturriak maila lokalean dira pizten: beroketa efektuko gasen isurketen murrizteko ekintzen %50-80 eta egokitzapen egintzen kasik %90 estatu maila baino maila ttipiagoan eramanak dira.

Mundu mailako
baitezpadako
elkartasuna eraiki
behar dugu. Gizadiaren
historian lehen aldiz,
elkartasun horren
desafioa pausatzen da:
aldaketa klimatikoa

Mundu mailako baitezpadako elkartasun bat. Halere, mundu mailako baitezpadako elkartasuna eraiki behar dugu. Gizadiaren historian lehen aldiz, mundu mailan baitezpadako elkartasunaren desafioa pausatzen da: *aldaketa klimatikoa*. Estatu batek klimaren borrokari interesik ez izatea edo berotegi efektuko gasen emisioen ttikitzean ez parte hartzea *herri guztien burujabetzaren aurkako eraso da.*

Euskal Herria Burujabe... bederatzi eremu tematikotan

Urriaren 7an, Baionan, Euskal Herria Burujabe egitasmoaren bederatzi gogoeta ardatzak ezagutzeko parada izan da, Alternatiba 2018 osatuko duten bederatzi eremu tematikoei esker. Hara, jarraian, esparru bakoitzaren ezaugarriak.

1. *Lurralde mailako alternatibak*. Horieta, besteak beste, estatu mailako herritar desmartxen topaketa izan da. Horiak lurralde mailan egiten ari diren klima-planen jarraipenaz arduratzen dira, eta trantsizio energetiko eta ekologikoaren aldeko lurralde mailako estrategiak aztertzen dituzte. Atzeman dira ere hainbat hiri eta elkargo berritzaileen lekukotasun eta esperientziak, bai neurritasunaren eta energia-eraginkortasunaren politikan, bai hirien hedatzearen eta lurren artifizializazioaren kontrako politikan, bai lurraldearen antolamendu jasangarriaren alorrean...

2. *Laborantza, ura, elikadura laborantza herrikoia eta biologikoa barne*. Ura, itsasoak, lurra, haziak edo oihanak bezalako denon ontasunak babesteko, arrantza iraunkorra, elikaduraren burujabetza, laborantza lurren babestearen aldeko urraspideak, bioaniztasuna zaintzea, zirkuitu laburrak...

3. *Garraioak eta mugikortasun jasangarriak*. Garraio kolektiboak, auto partekatzea, hiri inguruetako alternatibak, azken kilometroaren kezka, garraio eztiak, bizikleta parte-hartzailen tailerrak, bideetarik bestelako merkantzia garraioak, hirietako berrantolaketa...

4. *Berrerabiltzea, konponketa eta birziklatzea*. Biltzen, konpontzen eta saltzen duten zentroak, *ressourceries* direlakoak, birziklategiak, zero zabor eta ekonomia zirkularra barne...

5. *Elkartasuna eta partekatzea*. Enplegu klimatikoak, kooperatibak, ekoizpenaren birmoldatze sozial eta ekologikoa, ekonomia sozial eta solidarioaren sareak, belaunaldien arteko bizitegi solidarioak, software askeak, amankomunak, lana eta aberastasunaren partekatzea, finantza arduratsua, finantza solidarioa, baratze partekatuak, migratzaile eta errefuxiatu klimatikoak, zor ekologiko eta klimatikoa, bidezko merkataritza, nazioarteko elkartasuna...

6. *Neurritasuna*. Energia eta lehengai ekonomiak, ekoberritzea, ekoeraikuntza, eraikuntza bioklimatikoa, eraikuntza kooperatiboa, zaharkitze programatuaren kontrako borroka, ekoizpen iraunkorrak, konponketa, trukaketa, partekatze gune eta bitartekoak, jostintza, osasun arloko prebentzioa,

karbono bilana, kontsumo arduratsua, haragi kontsumo murriztea, autoekoizpena, herritar kultura zein parte-hartze kultura kontsumoaren iruditeria deseraikitzeke, publikizateari alternatibak, informazio libre eta parte hartzailea, apartamentu eredugarria, haurren eta hezkuntzaren eremua, ingurumenari buruzko heziketa...

7. *Ekofeminismoa*. Frantses estatuan ez bezala, Estatu Batuetan, Latinoamerikan, espainiar estatuan eta abarretan gartuago diren proposamen ekofeministei buruzko gogoeta eta eztabaida prozesu baten sintesi gune eta unea izan da eremu hau. Bizidunen artifizializaziorantz eta naturaren eta botere politikoaren arloan gizonak jaun eta jabe izatera bultzatzen duen utopia zientziarezalea eta harreman sozialak naturalizatzen eta natura sakralizatzen duen utopia zaharbertitzailea errefusatu, ekofeminismoak hirugarren bide bat indartu nahi du: planetaren eta horren baliabideen babestea helburu nagusitzat bizitza ukanez, horrek beharrezkoak dituen neurriak erdigunean ezarri. Ekonomia feministak aitzinean ezartzen ditu hainbat proposamen, lanaren, eremu publikoaren, denbora sozialaren antolaketaren, hirigintzaren, zerbitzu publikoen kontzeptuaren eta lehentasun sozial berri batzuen finkatzearen alorrean.

8. *Birtokiratzea*. Zirkuitu laburrak barne hartuz, tokiko aurrezkia, tokiko monetak, kontsumo, ekoizpen eta sailen birtokiratzea, fiskalitate berdea, garraio fiskalitatea, hurbi-leko komertzio eta enpleguak...

9. *Energia berriztagarriak*. Energia berriztagarri ezberdinak, elektrizitate berdearen ekoizteko kooperatiba herritarrek, energia berriztagarrien banatzeko kooperatibak, autoekoizpena...

Alternatibei esker, lokala eta globala uztartzeko premia

Lurraldeetatik pasatzea klima aldaketa ahal bezainbat saihesteko, eta klimari aurre egiteko... Badirudi badela kontraesan

bat. Pentsa dezakegu: «edo klima aldaketa saihesteko borrokatu, mundu mailan, edo lurraldeak zaindu, tokian tokiko»...

Gauza da arazo horiek banaturik hartzen baditugu ez gara eraginkorrak:

- Klimaren defentsan bakarrik ari bagara, oso zaila da jendea animatzea eta biltzea. Klima oraindik urrun dagoen zerbait bezala ikusten du jende gehienak, nahiz eta klima aldaketaren eragina gure inguruan ikusten hasi. Urrun denboran eta distantzian, baita espezialisten gauza abstraktu bat bezala ikusia delako ere.
- Aldiz, lurraldeen defentsaren inguruan jendea biltzen da, lurraldeak ez baitira abstraktuak, egunero ukitzen baititugu, bertan bizi baikara. Baina, banaturik hartuta, tokiko borroka dira; toki bakoitzean ez dute jende asko biltzen ahal, ez badira gauza handiago batekin oinarritzen.

Gakoa: lurraldeen defentsa ekimenak mundu mailako erronkei (hots, klimari ere) lotzea.

Hasteko, lurraldearen bitartez hobeki ulertzen dugu zer gertatzen den planetaren mailan: klima aldaketaren eraginak (lehortekak, uholdeak, bero uhinak...), laborantzako lurra desagertzea, meategi edo bertzelako inposaturiko proiektu erral-

Bi gauzak elkarrekin
doaz: alde batetik, gure
lurraldeen defendatzea,
zaintzea, sendotzea;
eta, bertzaldetik,
klimaren babestea

doiak, bertzeak bertze. Gauza horiek maite dugun lurraldean ikusiz, gauza horien aurka lurraldeak defendatzeko prest gaude, gure bizietan haien eragina sumatzen dugulako. Hortik abiatuz, errazago ulertuko dugu bertze lurraldeetan ere gauza bera egin behar dela (antzeko mehatxuak daudela-

ko), eta orduan planetaren mailan ere gauza bera defendatu behar dela.

Bigarren arrazoia: klima aldaketa murrizteko egiten diren gauzak eta lurraldeak klima aldaketari aurre egiteko prestatzeko egiten diren gauzak, praktikan, gauza berak dira. Adibidez:

- Laborantza iraunkor bat, karbonoa airetik kendu eta lurzoruan berriz metatzen duena, eta hori eginik lurzorua sendotuz, eguraldi zakarrei aurre egiteko.
- Tokiko moneta bat, erosten dugunari kamioi kilometro gutiago eginarazten dizkiona, aldi berean gure lurraldearen ekonomia sendotuz.
- Maila ttikiko energia berriztagarri sareak, airera karbonorik botatzen ez dutenak eta lurraldearen tokiko energia hornidura bermatuz.
- Birziklatzeak eta berrerabilpenak tokian tokiko baliabiak sortzen dituzte, era berean garraio eta energia gutiago xahutuz.

Bi gauzak elkarrekin doaz: alde batetik, gure lurraldeen defendatzea, zaintzea, sendotzea; eta, bertzaldetik, klimaren babestea. 🌱

Harrera herria helburu. Begoña Huarteri elkarrizketa

I Lorea Agirre Dorronsoro
Kazetaria

Begoña Huarte iruindarra lanbidez Lehen Hezkuntzako irakaslea da. Baina, lan horrez gain, beti ibili da gizarte mugimenduetan oso sartuta: Lurraldea prozesuan, Foro Sozialaren inguruan oraintsu arte... Une honetan Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformako eta Iruñea harrera-hiria herri ekimeneko kidea da.

2016ko abenduan ikusi genuen hedabideetan, Mikel Zu-
loagarekin batera Greziako mugatik zortzi migratzaile Euskal
Herrira ezkutuan ekartzeko antolatutako ekintzak izan zi-
tuen ondorioengatik. Muga igarotzean harrapatu zituzten eta
ezin izan zuten ekintza burutu, baina ikusgarritasun handia
eman zioten errefuxiatuen auziari: Europak sortutako krisi
humanitario horri Europak berak ematen dion erantzuna
salatu zuten, eta Euskal Herria harrera herrialde bihurtzeko
premia aldarrikatu zuten.

Nola sortu zen Greziako ekimena? Zer ekimen mota izan zen?

Guk ez genuen ekintza hura ikusgarritasuna izateko prestatu. Izan ere, guk ez genuen espero harrapatuko gintuztenik, halako ekintzak askotan egiten zirelako, hain zuzen.

Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataforma 2015ean sortu zen, Siriako egoeraren ondorioz eta handik jendea etortzen hasi zenean. Plataforma oso zabala eratu zen, askotarikoa: kristaueetatik hasita oso jende erradikalera dago, anarkistak... denetarik dago. Ni momentu horretan ez nengoen hor barranean, Iruñean nengoen lanean eta ez nengoen oraindik talde horretan antolatuta. Baina oso barrutik bizi nuen krisia, eta oso kezkatuta nengoen egoerarekin. Taldeko jendeak sentsibilizazioaren eta salaketaren premia partekatzen zuen, eta argi ikusten genuen errefuxiatuei harrera egin behar zitzaiela. Ikusten genuen etorriko zirela eta, harrera egiteko, antolatu behar ginela. Baina denbora pasatzen ari zen eta ez zen horrelakorik gertatzen.

Aurrerago, Turkiak eta Europak hitzarmena sinatu zutenean, argi ikusi zen egoerak okerrera egingo zuela. Eta orduan gogoeta talde batek pentsatu zuen zer edo zer gehiago egin behar zela, eta publiko egin behar zirela une horretan egiten ari ziren zenbait desobedientzia ekintza edo jardura: muga pasatzen, jendea ekartzen, hemengo etxeetan sartzen eta erroldatzen, pisu alokatuetan sartzen, zaintza medikoa antolatzen... Bazeuden horrelako ekimenak. Horrenbestez, gobernuak interpelatzeko unea iritsi zela eta elkartasuna adierazi eta jendeari arazoaren larritasuna gordinki azaldu behar zitzaiola erabaki zen: agintariekin egiten ez zutena guk

egin behar genuela, eta jendeak inplikazio bai pertsonala bai kolektiboa izan behar zuela. Orduan erabaki genuen ekin-tzara pasatzea, egin beharreko zerbait zela ikusi genuen. Eta ekintza hori antolatzen hasi ginen: Mikel Zuloagak planteatu zidan ideia, eta nik baietz esan nion, gaiarekin oso sentsibilizatuta nengoelako. Bazegoen babes talde bat, logistikaz, dirua ateratzeaz... arduratzen zena. Jende askok paratu zuen dirua. Jendeak bazekien zerbait egiteko asmoa zegoela, baina ez zehatz-mehatz zer. Grezian ere bazegoen abokatuek eta abarrek osatutako beste talde bat. Eta desobedientzia ekin-tza prestatu zen.

Nola bizi izan zenuten desobedientzia ekintza hori? Zer sentitu zenuten?

Behin errefuxiatuak hona ekarrita, asmoa zen ekintza publiko egitea. Eta, harrapatu gintuzten arren, oihartzun ona izan zuen ekintzak, benetan balio izan baitzuen jendea arazoaz konturatzeko eta mugitzeko; mundu guztia interpelatzeko balio izan zuen, eta guretzako pertsonalki ere ikaragarria izan zen prozesu guztia. Nik uste dut desobedientzia ekintzek haxe dakartela, alegia, zu zeu ere interpelatzen zaituzte-la. Ez zara berdina ekintzaren aurretik eta ondoren. Behin erabakitzen duzunean horrelako zerbait egitea, oso ongi sentitzen zara. Pentsatzen duzu merezi duela horrelako zer edo zer egitea, horretan sinesten baduzu zerbait egin behar duzula. Oso garrantzitsua izan zen, beste aldetik, hemengo taldeekin sortutako konplizitatea eta konfiantza; izan ere, gure arteko harreman hori ere asko landu behar da herri mugimenduetan.

Desobedientzia ekintzek haxe dakarte, alegia, zu zeu ere interpelatzen zaituzte. Ez zara berdina ekintzaren aurretik eta ondoren. Behin erabakitzen duzunean horrelako zerbait egitea, oso ongi sentitzen zara

Erakustaldi solidarioa izan zen. Eta, noski, oso garrantzitsua izan zen baita ere errefuxiatuekin izan genuen harremana. Izan ere, garrantzitsua zen haien konfiantza ere: oso ohituta daude ahal duten moduan pasatzera, engainatuak izatera, esplotatuak izatera... Jakina, muga gurekin pasa zezaaten, haien konfiantza lortu behar genuen. Oso polita izan zen prozesu hori, konplizitate handia lortu zen. Eta oso gogorra izan zen harrapatu gintuztenean; niretzat sekulako frustrazioa izan zen, haientzako ere ez dakit zenbatgarren frustrazioa zela ikusten bainuen. Norengan fidatu behar zuten jada... Baina oso polita izan zen aldi berean haien erantzuna, gurekin bat egin baitzuten. Askatu zituztenean, zera esaten zioten poliziari: «Ez, ez, geldituko gara gu, atera daitezela haiek». Horrekin bakarrik ekintza hori egitea merezi duela sentitzen duzu. Eta, askotan esaten dugun bezala, elkartasuna elkarrekikoa da, ez da sekula alde bakarrekoa. Jaso ere beti jasotzen duzu. Egia da pertsonago egiten zaituela.

Oso hunkigarria izan zen, nolabait pertsona hobea goa izateko eredu jarri zeniguten begien aurrean.

Modu asko daude hori egiteko edo hori bera sentitzeko. Baina egia da desobedientziak ematen dizula ahalduntze hori, erabakitzen baituzu horixe dela une horretan egin behar dena. Beste une batzuetan beste gauza batzuk izan daitezke, baina une horretan horixe da. Hori sentiarazten dizu, eta oso garrantzitsua da.

Aipatu duzu arazo larria dela Europa honetan gertatzen den hori, noski. Zergatik da larria arazoa? Beste modu batera esanda: zergatik migratzaileekin lan egin, zer jokatzeko dugu hor pertsona bezala, kolektibo bezala, herri bezala?

Nire esperientzia pertsonala hau da: ikusten baduzu bonbak botatzen ari direla zibilei eta gero ixten dizkiegula mugak, edo kontzertinak jartzen dizkiegula Afrikatik bizitza duinagoaren bila etortzen direnei, edo hainbeste jende hiltzen dela... Hori guztia ikaragarria da, eta ikaragarria baita ere

horretara ohitzea. Oso ohituta gaude irudi horietara, ohituta gauden bezala gure bizimodu kontsumitzaile hau eramatera, jakinda –edo ez dakit benetan kontziente izanda, ezen asko ez gara kontziente izango– gure kontsumitzeko desio hori asetzeko, beste herrialdeetako jendea eta beraien baliabide naturalak xahutzen eta suntsitzen ari garela, eta hori dela, gerrarekin batera, desplazamenduak sortzen dituena. Orduan, hori dena oso lotuta dago: ez da bakarrik mugak ixten dizkiegula, edo pertsona horien eskubideak urratzen ari direla, baizik eta ez dugula humanoa den gutxienekoa ere egiten: jendea salbatu, alegia. Horren aurrean, garai batean konpromiso unibertsalak izan zirenak berreskuratu behar dira, atzerapauso ikaragarriak eman baititugu. Jendea laguntzeko edo pertsonen eskubideen defentsan ateratzeko ardura hartu behar dugu... Elkertasuna gaizki dagoen jendearekin... Hori dena berreskuratu behar da. Horren guztiaren aurrean zer egin? Zerbait egin behar da hedatzen ari den xenofobiari aurre egiteko. Argudio eta diskurtso horiei aurre egin behar diegu, horiek direlako giza eskubideen urraketa ahalbidetzen dutenak. Niretzako oso garrantzitsua zen... Azken finean, errefuxiatu eta migratzaileekin gertatzen ari dena bizi dugun ereduaren ondorio lazgarrienak dira. Eta ardura pixka bat hartzen baduzu, mugitzen zaitu. Horixe da nik pertsonalki sentitu nuena.

Egia da ohituta gaudela drama horietara guztietara, bada-kigu hor daudela, ikusten ditugu. Baina ez zaizu iruditzen gure bizimoduak, gure politikak, gure lehen munduko bizimodu honek eragindakoa kalteak direla, eta ardura hori ez dagoela gugandik aparte?

Ez dugu ikusi nahi edo oso zaila da ikustea, auzia oso konplexua baita. Baina, konturatu behar dugu gure bizimodu pertsonal eta kolektiboak eragina duela desplazamenduetan. Ez badugu desplazatuak egoterik nahi, nahitaez gure bizimodua aldatu behar dugu. Eta askoz modu xumeagoan bizi behar dugu. Bakoitzak kontzientzia hori hartu behar du, eta, horrekin

Konturatu behar
dugu gure bizimodu
pertsonal eta kolektiboak
eragina duela
desplazamenduetan. Ez
badugu desplazatuak
egoterik nahi, nahitaez
gure bizimodua aldatu
behar dugu eta askoz
modu xumeagoan bizi

koherente izateko, eguneroko bizimoduan egin beharrekoa egin. Ez da erraza, egun batetik bestera aldatu litekeena, baina zenbait esparrutan lehen momentutik egin litekeen zerbait da. Poliki-poliki, xume-xume. Hori kolektibizatzen denean, pixkanaka gertatzen ari denaren aurreko erresistentzia gero eta handiagoa bihurtuko da. Balio eta praktika positiboek negatiboek lekua kentzen badiete, pixkanaka beste jendarte bat sortuz joango da.

Entzun izan dizut ‘ongi bizitzea’ edo ‘bizitza ona’ Erdialdeko Amerikatik datorren kontzeptuaz hitz egiten... Nola ulertzen duzu hori?

Bizitza xumearekiko gogoalantzea; zure teoriak egunerokotasunean eta mugimenduetan pixkanaka saretuz joatea, espazioak sortzea. Lasaitasuna, elkarren arteko konfiantza, jasangarritasuna..., hau da, balio gehiago ematea gauza immaterialei eta subjektiboek materialeri baino. Zoriontasuna kontsumitu behar horretatik banantzea, balio gehiago ematea elkarren arteko harremaneri, ongizate psikologikoari, kulturari, aniztasunari, jasangarritasunari... Hori guztia izango litzateke ongi bizitzeko edo bizitza osotasunean jartzeko beharko genituzkeen premisak.

Hori izan daiteke neurri batean utopia gauzagarri baten definizioa. Baina beste galdera bat ere planteatu dezakegu: zein da migratzaile horien utopia?

Egia da migratzaile mota asko dagoela. Bakoitzak izan dezake bere utopia. Baina elementu komun batzuk ere badaude. Askorentzat izan daiteke gure sistema kontsumistan sartzea;

azken finean, bizi dugun sistemak lortu du kontsumitzeko behar hori mundu guztira, kultura guztietara hedatzea. Lehen ez bezala, orain ahal da. Horretarako bai daudela mugak zabalik. Askorentzat, beraz, Mendebaldean edo herrialde aberatsetan dagoen utopia bera izango da: kontsumitzeko dirua izatea eta eredu honetan bizitzea, mundu aberatsean. Beste batzuentzat, ez; genitalak mutilatu behar dizkioten emakume batentzat, adibidez, hori bakarrik izan daiteke, genero jazarpen hori gabe bizitzea. Edo izan liteke lasai bizitzea bakarrik, modu xume batean, baina beren seme-alabek etorkizuna ziurtatua duten toki batean. Edo izan liteke oraintxe esaten ari garen utopia bera izatea: lasai, xume, elkarren artean bizitzea, harreman goxo eta errespetuzkoan. Denetarik dago. Ez naiz ausartzen esaten etorkin batentzako utopia zein den.

Zuk zeuk bizitza ulertzeko duzun moduaren eta etortzen direnek Europatik espero dutenaren artean, bizitzari buruzko ikuspuntu ezberdinen arteko talkak gertatzen dira? Ez ote dugu saltzen irudi bat, gezur bat?

Etortzen direnek Europa demokratiko batera etortzea espero dute, non atea irekiko zaizkien eta guk ditugun aukera berak izango dituzten duintasunean bizitzeko. Baina lehen-lehen unetik, jada txalupetan salbatzen dituztenean, askotan esan behar izaten zaie ez espero izateko beren utopia beteko denik, ailegatzten direnerako izango baitituzte oztopoak. Greziako kanpamenduetan zegoen jendeak –gazteek, familieek–, denbora pasatu ahala, depresio handiak izaten dituzte, konturatzten direlako Europara ailegatzeko haien utopia hori ez dela sekula beteko. Eta pasatzea lortzen dutenean, gero zer... Zer nolako sufrikarioa pasatu behar duten gauzak lortzeko edo oinarrizko duintasunarekin bizitzeko! Ikaragarria da. Jakina talka dagoela.

Azken hilabetetako datua da emakume migratzaileen egoera dela bereziki lazarriagoa gizonezkoena baino, besteak beste bortxaketak eta eraso sexual asko pairatzen dituzte-

lako. Egia da hori? Batzuetan badirudi horrelakoak beti deabrutzen dugun kolektibo batean bakarrik pasatzen direla, hemen pasatuko ez balira bezala...

Nire ustez, indarkeria heteropatriarkala kultura, arraza, etnia, erlijio eta klase sozial guztietan gertatzen da. Emakumeen bizialdi osoan, gainera. Jakina, errefuxiatuek, errefuxiatu izateagatik eta emakume izateagatik, botere mendekotasuna bizi dute, botere harreman hori.

Sexu indarkeriaz badira hainbat ikerketa. Amnesty International erakundearen txosten batean, jada European zeuden 60 bat emakume elkarrizketatu zituzten, eta denek esaten zuten beren bide osoan denbora guztian mehatxatuta sentitu zirela, nolabait babesik gabe; eta ez mugetan edo kanpamenduetan bakarrik, baizik eta zeharkatu zituzten herrialde guztietan sufritu zutela indarkeria fisikoa, sexu indarkeria... Umiliatuak eta kolpatuak izan zirela emakume izateagatik. Oroitzen naiz kanpamenduetako emakumeek konpresak eskatzen zizkigutela ez zutelako gauez komunetara joan nahi, toki arriskutsuak zirelako.

Hemen bezala, neurri batean. Esan nahi dut ez dugula gure burua zuritu behar bestea, alteritatea kontsideratzen dugun horren aurrean... Nahiz eta eskubiderik gabeko horrelako egoera basati batean jauzia egon litekeen.

Bai, baina egoera larriagoa da kanpamenduetan. Muturreko erabakiak hartzen dituzte: ez edatea eta ez jatea erabakitzen dute komunera ez joateagatik. Baina, kanpamenduetan ez ezik, segurtasun indarrengandik ere jasan behar dute indarkeria hori. Eta baita ere sexu esplotaziorako salerosketetan ibiltzen diren sareetatik. Helena Malenok esaten du neskatila eta nerabeen gorputzaren erabilera, askotan, egin beharreko sakrifizio bat bezala onartzen dela, haien bizi proiektua gauzatu ahal izateko; eta ez bakarrik haiena, batzuetan kolektibitatearena ere bai. Gehienetan emakume pobreak dira, eta horixe da geratzen zaien bide bakarra. Europara ailegatzeak hori guztiak ekartzen du.

Badira datu lazgarriak. Adibidez, prostituzioaren ehuneko handia sexu esplotaziorako salerosketetan izandako emakume biktimena da. Baina, hori gertatzen dela jakin arren, ez da ezer egiten. Badira, bestalde, behartutako ezkontzeta-tik edo genero jazarpenetik ihes egindako emakume asko. Baina gehienetan emakume pobreak izaten dira, bide hori hartzeagatik zorpetuta geratzen direnak. Denetarik dago. Hegazkinez etorri direnak ere ezagutzen ditut... Baina, oro har, ehuneko handi batek indarkeria sufritu du.

Egun asko aipatzen da berdintasuna. Zuk ere berdintasun humano sakon baten ideia aipatzen duzu. Hori nola gauzatu da gure eguneroko praktiketan, normalean migratzaileak bestea direnean? Nola egin dezakegu beste hori gu?

Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataforman premisa hori daukagu: pertsona guztiak gara berdinak, berdin dio Gernikan edo Alepon jaio... Ideia hori barneratu behar dugu. Ezin gara hemen jaiotzeagatik pribilegiatuagoak izan han jaiotakoak baino. Eta ez da karitate kontua: nik hari laguntzen diot ahal dudalako eta berak ez duelako. Kontua ez da janaria ematea, baizik eta benetan sinestea gu bezalakoak direla, bizitza duina izateko gure eskubide bera dutela. Premisa horretatik abiatuta eraiki behar dugu eraiki nahi dugun gizarte hori. Euskal Herrira ekarrita, gure iruditerian sartu behar dugu hemengo gizartea mestizoa izango dela. Gure utopiaren oinarrietako bat mugak ezabatzea da: hemengoen eta migratzaileen arteko horma edo muga hori apurtzea lortuko duen mugimendu bat behar da. Hori da benetako mestizajea. Nola egiten da hori? Elkartasuna ez da soilik materialki

Premisa hori daukagu: pertsona guztiak gara berdinak. Ideia hori barneratu behar dugu. Euskal Herrira ekarrita, gure iruditerian sartu behar dugu hemengo gizartea mestizoa izango dela

landu behar, baita afektuen katearen bidez ere: elkarren arteko konfiantza, zaintza, elkartasuna...

Bestalde, jakin eta sentitu behar dugu elkartasuna elkarren artekoa dela, guk haiei ematen diegula baina haiek ere asko dutela guri emateko. Eta, jakina, pertsona independenteak izan behar direla, ez direnak guk ematen diegunarekin bizi-ko. Etortzen direnek bizitza duin bat izatea bideratu behar dugu, eta abiapuntu horretatik komunitatea eraiki. Hori izango litzateke gure utopia: esplotaziorik gabeko gizartea, pertsonen arteko harremanak eta zaintza landuko dituen, lehentasuna pertsona erdigunean jartzea eta pertsona guztien premiak asetzea izanik. Guztionak berdin. Hori izango da modu bakarra kontinenteen arteko berdintasunerantz hurbiltzeko: garapenerako laguntzak eman beharrean, benetako elkartasunetik haien bizi-baldintzak hobetzen saiatuz, gure kontsumitzeko maila gutxituz, bizitza xumeagoa eginez.

Militantzian edo mundu horretan sinesten dugunon praktika bat izan liteke hori. Baina nola interpelatu daitezke botere ekonomiko eta politikoa dutenak?

Azken finean, gure utopia puzzle handi bat da eta pieza asko ditu. Pieza bakoitzak utopia osotasunean islatzen du. Baina denak gara beharrezkoak. Denon artean, benetan konplementatzen bagara, pixkanaka lortuko dugu herritar gehienengana utopia hori zabaltzea. Xenofobiari dagokionez, etorkizunean ere errefuxiatuak etorriko direla kontuan hartuta, baldin eta epe luzeko elkartasuna lortu behar badugu, elkarren arteko lankidetzaz jorratu beharko dugu, mota askotako jarduerak eta ekintzak eginez, batzuk erradikalagoak eta beste batzuetan instituzioak ahal den urrutien eramanez. Bakoitzarengandik hasi behar dugu. Gure ohitura txarrei desobeditu behar diegu, eta pixkanaka beste ohitura eta praktika onekin ordezkatu. Hori egiten ikasi behar dugu, poliki-poliki, gehiegi exijitu gabe, baina leporaino inplikaturik. Bakoitzak bere aldetik bere inguruan eta lanean ari den mugimenduetan kontzientzia hori hartzen badu, pauso garrantzitsuak emango dira.

Euskal Herrian badira hainbat ekimen. Zein nabarmen- duko zenituzke?

Oso gertukoa dut Arteako harrera etxearen egitasmoa. Arratiako bailaran dago Artea, eta udalak utzi digu etxea. Ostatu moduko zerbait bihurtu da, eta han egiten zaie harrera igarobidean daudenei, hemen gelditu behar ez den jendea-ri. Pertsona horiei laguntzen zaie beren bizitza ibilbidea osatzen, norabait eramaten... Gelditzea erabakitzen badute, alokatu den ondoko beste etxe batean laguntzen zaie pape-ekin, kooperatiba ezberdinetan lan egiten, mikroenpresak sortzen... Hantxe bertan baserri bat, kooperatiba antzeko bat ere badago, bi lantegitxorekin: inguruko abereekin haragia egitekoa eta okindegi bat. Bi herri ezberdinetan bi denda ere badaude, eta horietan inguruko baserrietatik ekarritako gauzak saltzen dira. Oinarri sozial handia du egitasmoak: Via Campesina, Ongi Etorri... Batzuek lana egiten dute hor, eta beste batzuk boluntarioak dira. Egun, okindegia lau erre-fuxiatuk eramaten dute. Irabazien erdia haientzako da, eta beste erdia proiekturako.

Utopiaz ari garela... Bizitza oso xumea eramaten da: janaria prestatu, jan... eta gutxi gehiago. Lasai bizi, premia gehiago ez izan. Eta, lehen esan bezala, funtsezkoena: afektuen katea zaindu, konfiantza izan. Saiatzen dira ate guztiak beti zabalik uzten. Bestalde, ekonomikoki independente izaten saiatzea ere bada helburuetako bat, elkarren arteko elkartasunean biziz eta lan eginez.

Jende asko ari da pasatzen etxe horretatik, eta esango nuke emaitza onak dituela. Plazak ere mugatuak dira, 40-45 lagunentzako lekua dago. Emakumeak dira erdiak, eta ume ere asko bai. Horretaz aparte, badago sare bat lanean. Badaude, adibidez, beste bi etxe okupatu Zornotzan... Legezkoa eta ez legezkoa uztartzen dira hor. Izan ere, bien arteko muga oso fina izaten da sarritan. Beti jokatu behar dugu legaltasun egitura batekin, bestela badakizu zein diren gure mugak. Baina zenbait desobedientzia ekintza ere egiten dira, etxeak okupatzea, esate baterako. Herritarrek etxe premia dutenean,

ez dago etxea okupatu beste aukerarik. Hori da egin behar dena? Bada egiten dugu, ez badago besterik.

Oso erradikalak diren gauzak eta ekintza klasikoak, bietatik egin behar da. Eta, ahal dela, erakundeekin lankidetzatza bilatuz: adibidez, Iruñea harrera-hiria herri ekimenak oso protokolo ona landu du Iruñeko Udalarekin. Azken buruan, gizarte mugimenduen lana da entseguak egitea, probatzea, beti sinetsiz aurrera egiten ari zarela, eta denok dugula zer egiterik.

Borroka guztiak dira osagarriak. Bakoitzean islatzen da besteetako utopia. Izan ere, dena dago oso lotuta bizi garen sistema honetan: kapitalaren jabe diren eliteek dituzten enpresa eta multinazionalen sareei berdina zaie, dirua azkar lortzeko irrikaz, jendea batetik bestera desplazatzea, hiltzen bada ere. Baliabide naturalak ustiatzea, interes estrategikoak dituzten lekuetan gerrak sortzea, politika guztiz kontraesankorrek egitea, armak bidaltzea... Dena dago oso lotuta. Sistema horrek eragiten ditu desplazamenduak, ekosistemen suntsiketa, esplotazioa... Kontziente izan behar dugu gure sistemak sortutako krisi baten aurrean gaudela: krisi ekologikoa, soziala, humanitarioa... Horri buelta emateko, mugarik gabeko gizarte mestizoa bultzatu behar dugu, ez dago besterik. Bestela, faxismoa dator. 🌱

EGUNEN GURPILEAN

181 Kultura

Mamuak udan
Bizitza zinta dantza
Historia erabaki bat da
Itziar Ugarte

187 Soziolinguistika

Noka eta tokaz galdezka
Deabruaren hizkera erreginaren
jauregian
Kidetasuna eta boterea
Hizkuntza performatiboa
Zertaz hausnartu behar den
gogoratzeko galderak
Jaime Altuna

193 Glokalia

Klase (des)agertua
Ignazio Aiestaran



Mamuak udan

Ez egunak ez eta urtearen aldiak, ez dira berdinak denak. Eta iraila itzulera da. Zain duzun lekua zertzeko garaia da, norberaren urtebetetze egunaren eta gabonzahar egunaren antzera, nolabait. Badirudi esanahiz husten dela aktualitatea uda egunetan, zer esanik ez kulturako orrietan. Edo bada esatekorik; ezer gertatzen ez dela dirudienean gertatzen baita gehiena. Erritmoak bestelakoak dira uztailetik irailera bitarteko sasi-parentesian; liburuak ugaritzen dira jendearen eskuetan, musika jaialdietako kartelak ugaritzen paretetan, eta zinema aretoak, antzokiak eta erakustokiak umezurtz gelditzen dira, non eta euriak ez dituen kaleak hartu. Eta hau dena esateko parentesi horretan ateratako bi argazki dakartzadala.

Lehenengoa. Donostiako Jazzaldia. Zurriolako hondartza. Agertoki gainean Izaro eta taldea. Pareoak, bokatak, Heineken botilak, liatzeko zigarroak, oinutsak harea gainean. Aire zabalean iluntzeko orduetan horrek denak ematen duen zoriontasuna gainez du jendeak aurpegietan. Nor ez da kutsatzen albokoaren pozaz hemen. Azken diskoa aurkezten ari da kantaria, eta batu du jendea ingurura. Bazoaz lau euroko zerbezaren bila, eta mihia hozkatzen duzu hizkuntzaren auziak sortzen dizun korapiloaz ezer ez esateko. Ez da unea. Baina mihia hozkatzearen hozkatzez, odol zaporea duzu dagoeneko ahoan, eta zutaz espero dutena esaten amaitu duzu: *Easo* kantuan Donostiak berak barrutik nola kantatuko lukeen idazten saiatu dela azaldu du kantariak agertoki gaitetik, eta, kantua gaztelaniaz izanda, Donostiak gaztelaniaz kantatuko lukeela iradoki du, zure irudiko. Ahoz-goran esan duzu, eta hobe zenuen halakorik esan ez bazenu, zu, talibana.

Nor eta zerbeza eskuan eta oin hutsetan dantzan kontent zaren hori, aho txikiz *me invade la felicidad* kantatzen bukatu duzuna gaua. Euskaldun batek euskaldunak gaztelaniaz jarri ditu kantuan, eta euskaldunak behar duten baina gaztelania betean ari direnak euskaraz ere jarri ditu, berdintsu. Bada, esan baduzu esan duzu. Zu, talibana.

Nahi duen hizkuntzan kantatu ahalko du ba? Erdu hona: Nola ez ba? Esan gabe doa hori, ez diozu zuk esango nola kantatu, kontua ez da hori, eta beste hamaika azalpen zabar. Baina hari solteak utzi ditu sokak, eta konturatzerako horietan lotu zarete hurrengo egunen ordu udatiarretan. Izarok berak eta Iñaki Garitaonandia *Gari-k Berria* egunkariari emandako elkarrizketak soka eman dio sokari. Zuk irakurri duzuna zera da: musikariaren funtzioa ez da euskararen *normalizazioaren* alde egitea –baietz diozu, baina, hala izan gabe ere, jarduteak soilik egiten duela bataren edo bestearen alde–, musikariak musika egin nahi du, kito, eta hortik bizi nahi, eta biziraun nahi badu, hobe du erderen merkatuan flotagailua aurkitu. Oker egon zaitezke, irakurketa bat da, baina, hala ez bazeunde, ez zara ezer berria esaten ari.

Izaro: Asko dira hori egiten duten artistak [euskaraz besteko hizkuntzetan kantatzea], baina ez dakit nire kasuan zergatik den deigarriagoa. Hiru hizkuntzatan abesten dudalako, ez naiz euskaltzalea? Beti ibili behar dut gauzak bi aldiz frogatzen: emakumea naizelako, gaztea naizelako, euskaraz gain beste hizkuntza batzuetan kantatzen dudalako, musika nire ofizioa izatea nahi dudalako...

Gari: Begira Maria Arnal eta Marcel Bages. Kataluniako abeslariak dira, bi hizkuntzetan egiten dute, eta arrakasta lortu dute; ez dute halako kontraktasunik izan. Ez dakit Euskal Herrian zergatik dugun oraindik eztabaida sutsu hori.

Izaro: Alderantziz behar luke galderak: zer egin du euskal kulturgintzak sortzaileen duintasuna bermatzeko? Ni, aurrekoen lanari esker, euskaraz hazi naiz eta euskaraz ikasi dut, eta ez dut inolako konplexurik euskaraz sortzeko. Baina zordun sentitzen naiz askotan.

Izen bi dira Izarorena eta Garirena, baina izan zitezkeen beste bi, lau, zazpi. Hizkuntza hautuaren eztabaida zuen

artean lehertu dutenak dira, baina izan zitezkeen beste batzuk, buruan dituzun beste horiek. Elebitasunaren diskurtsoa irentsi dugula. Ondorio horretan egin dugu bat azkenean, lan asko barik, ezari-ezarian irentsi dugula. Horregatik ikusten ditut nire adinkideak, ez denak, ez gutxi, erdaretan kantatzearen askatasuna hain sutsu defendatzen. Eta hemen inork ez du inoren askatasuna auzitan jartzerik nahi. Baina?

Baina zerbaiten isla da. Eta badu zerbait kezkatzen zaituena; batzuek asimilazioa erabiltzen dute, kontzientzia hartze epe-la besteek. Mamuak, horrek balio dizuete gaurkoz. «Mamu bat hedatzen dabil euskal kulturgintzan, eta naturaltasuna da mamu horren izena», zioen Iñigo Astizek azken Durangoko Azokan. Eta askatasunaren mamua izan daiteke beste bat, bestea bezain moldakaitz.

Atzo goizekoa da musika estilo oro euskaraz ere izan daitekeela erakutsi zenekoa, eta sentitzen dut, gaur, zenbait euskaldunek *euskaraz egin beharra* inor ez traizionatzeko kortse gisa sentitzen dutela, talibanik ez dadin muturtu. Ez dut orokortu nahi, eta oker egon gura nuke; badira euskaraz egiten dutenak publikoarekin gehiago konektatzeko, hala *ateratzen* zaielako. Eta ez nuke derrotista izan gura ere, erdarretatik euskarara jauzia egiten dutenen fenomeno ere hor dago; Mikel Uraken datorkit, edo Ane Guria Ezkerraldetik, garai batean Kortatu izan zen bezala Bidasoaldetik edo BAP!! Andoain ingurutik. Ez nekien Anari ingelesez hasi zenik ere.

Bizitza zinta dantza

Eta berriz hasiko bagina?

Musikan jarri dut fokua, baina beste kultur adierazpide-tan ere ez dago urrun panorama. Eneko Sagardoi eta Olatz Beobide aktoreek *Berria*-ri emandako elkarrizketan irakurri genuen ikus-entzunezkoetan nola dabilzan. Prekaritateaz esan zituztenak ikusita, nor ausartzen da pentsatzera euskara hutsean ardaztu behar luketenik euren jarduna. Ez ni.

Kontua ere ez baita hori, bistan da. Kontua gehiago da, esaterako, euskarazko telebista publikoak sortu zenetik gaur arte egin duen bidez serio hitz egitea, fikzioaz ari naiz oraingoan. 80ko hamarkadan *dena sortzen ikustea* tokatu zitzaiola kontatu zuen Beobidek, eta, orain, globo batek airea galtzen duen bezala ikusi duela hori beheratzen; sortu ziren egitura gehienak mantendu bai, baina ahuldu egin dira, zentrifugazio mugimendu bat egin dutela. Bere semeek *dena* euskaraz izan dutela eta ez dutela ulertzen euskararekiko enpeinu hori. *Normala da*, atera zaizu. Euskararen militantziaz hitz egitea gauza nahiko desfasatua bihurtu da zuretzat ere. Zuri ere konplexua agertzen hasi zaizu beti bide beretik ateratzeko joeragatik, zer eta beltzez margotzera ateratzeko, gainera.

Agian Ipar Euskal Herrian ez dute hainbeste konplexu euskararen militantzia ahotan hartzeko. Manex Fuchsi entzunda behintzat hala dirudi. Anaia Ximunekin batera, Le Petit Théâtre du Pain kolektiboa uztea erabaki dute, eta Axut! kolektiboa sortzea, euskara hutsean lan egiteko eta eragiteko. Dagoeneko erakutsi dute jendaurrean haren izenpeko lehen lana, *Zazpi senideko* antzezlan. Manex Fuchsek, Euskal Kultur Erakundeari emandako elkarrizketan:

Anaia eta biok momentu berezi bat bizi dugu; 40 urte pasa ditugu eta bizitza zinta dantzan bezala ikusiz geroz, gu zinta beste aldera askatzen den momentu horretan gara orain, preseski, bizia askatze parte batean sartzen den horretan. Gure arteko erronkan, euskaraz sortzeko desafioa hartu dugu, euskara hutsean, nonbait, hori ezinezko dela erraiten zaigunean hain zuzen ere. Duela gutxi prentsan eta batzuetan ahotan ere entzun dugu ez dela posible euskara hutsezko antzerki bat Baionako antzokian ikustea zeren eta euskal antzerkiak ez omen du mailarik. Beste aitzakia batzuk ere entzun ditugu. Baionako antzokian erran digute onartuko gaituztela baldin eta itzulpen bat jartzen badugu taula gainean. Irringarria da oroitzea Baionako antzokian euskara hutsean eman den azken antzezlan, 1968an zela *Matalaz* Piarres Larzabalek idatzia eta Roger Idiart apaizak eta Telesforo Monzonek zuzendua! 50 urte! Horrek biziki urrun eramaten gaitu, orduan guk diogu Axut! Ez dela posible? Ba, guk eginen dugu orduan!

Gauzak nola dauden ikusita, mirestekoa da hautua. Sagardoiren berbekin esateko, «krisiaren gainean krisia jartzea» da-eta. Maiz irudipena da, eta barkatu beltzaren kolorea ostera, norabide gurutzatuetan katramilatu direla orain beste une batzuetan argiago ziruditen urratsak eta asmoak. Begiratu euskal telebista, bestela. Berriz hasteko galdera egin dut, eta ez diot hutsetik; zintza dantza izan daiteke modu bat.

Historia erabaki bat da

Bigarren argazkia. Ea. Poesia egunak. Eguzkia laino artetik banator banoa. Ibai Atutxak ireki du eguneko plana 'Immolazio intimoak. Bestelako lurralde, intimitate eta euskal herri-tarrak egungo literaturan' hitzaldiarekin. Moilan errezitaldia eskaini dute atzetik Martin Bidaurrek eta Juanjo Olasagarrek.

Eta argazkia *Zanbuia!*-k utzi du. Metrokoadroka sormen laborategiko kideek herrian bertan eman dute aurreko astea emanaldia prestatzen. Hamalau lagun dira denera: Ainhoa Alberdi, Maite Aizpurua, Javier Barandiaran, Idoia Beratarbide, Corine Cella, Amaia Corral, Iraia Elias, Ander Kurius Fernandez, Oier Guillan, Idoia Hernandez Toledo, Unai Lopez de Armentia, Oscar Manso, Joseba Roldan eta Marina Suarez Ortiz de Zarate.

Idoia Hernandez *Hatxe* piano jotzaileak ireki du parentesiren arteko parentesia. Hasi entzuten pianoaren soinu gardena, eta gehitu Oier Guillanen ahots bakan hori:

Non hasten da amaiera bat? Non amaitu hasiera bat? Zer gertatuko litzateke amaiera hori zerbaiten hasiera balitz, eta hasiera oro amaiera bat? Historia erabaki bat da. Eta memoria ez da soilik norberarena. Pertsona bat hiltzen denean, bere oroitzapenek ihes egiten dute, beste norbaitengan gorpuzteko. Oroitzapen batzuek ez dute desagertu nahi, isilean geratutako oroitzapenek, justizia eske irauten dutenek, historia eta isiltasunaren artean ezkututzen dira, desagertu nahi ez duten oroitzapenek iragan eta orainaren artean bizi dira, kafe eta esnearen artean, yin eta yang artean, odol eta zainaren artean...

Orain ikusi hainbat lagun, banan, binan, itsaso zabaletik hondartzan lehorreratzen. Pelikuletan bezala, baina haragi-haragitan, zure aurrean, goitik behera bustita, garai bateko herritarrak balira bezala herrira itzultzen. Irudikatu, gero, pertsona horiek kaleak hartzen, hildakoen keraz eta bizi-bizirik dagoenaren indarraz dantza egiten, garrasi egiten, gorputza zabaltzen eta zintzilik jartzen, bizirik eta begira daudenak zirikatzen eta desafiatzen. Hotzikarari irribarre zabala.

Existenziaren oinatzaz ari dira. Eta haiei begira, zer da artea denboran arrastoa uzteko modurik ederrena ez bada. Guillanen ahotik itxiera:

Zer gertatuko litzateke amaierarik ez balego? Zer gertatuko litzateke gezurra balitz amaiera dutela gauzek? Zilegi da edertasuna? Zilegi da umorea? Nolako a litzateke gure bizitza gauzek amaierarik ez balute? Nolako a litzateke gure bizitza munduko futbol ligak amaierarik ez balu? Ciudadanos, kafea, Negu Gorriak, orgasmoak amaierarik ez balu?

Uda ez litzatekeela uda amaierarik ez balu. Bizitza ospatzeaz ere ari ziren, beraz. Ez da berdina, ezin da, baina inork nahiko balu, sarean du osorik ikusgai. 🍷



Noka eta tokaz galdezka

Garaiz iritsi gara Miramar Jauregira. Opor garaia atzean utzirik, hirian mugimendua nabari da. Itsasoa, aldiz, lasai dago. Badian ez da igandeko estropaden arrastorik geratzen. Bertan bizi izandako poz, haserre, tentsio eta urduritasunak Kantauri itsasoko kostaldeko herrietara itzuli ziren koloredun kamiseta eta banderekin batera. Errege-erreginak uda igarotzeko izandakoa ikastaroz betetzen den hau ikasturte berria abiatzeko toki ona dela aipatu dugu, eta hitanoa eta generoa jorratuko dituen ikastaroan murgildu gara.

Galdera bat da Garbiñe Bereziartuak eta Beñat Muguruzak antolatu duten ikastaroaren izenburua: *Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?* Biak hitanoaren inguruan ikeretzen ari dira eta orain arteko euren ikerketen emaitzak aurkeztu dituzte. Bereziartuak Azpeitian egin duen azterketan argi agertzen da hitanoaren erabileran gizon eta emakumeen artean desberdintasun nabarmenak daudela. Mutilen artean hika aritzea ohikoa bada ere, nesken arteko hitanoaren erabilera oso txikia da. Soziolinguistika Klusterrak Azpeitian eta Usurbilen egindako Kale Neurketek berresten dituzte Bereziartuak jasotakoak. Olatz Altunak azaldu duenez, bi herri horietako kaleetan tokaren presentzia handia da; noka, aldiz, oso gutxi entzuten da. Egoera bera deskribatu dute udako ikastaroan hizketan aritu direnek, aspalditik datorren joera dela erakutsiz.

Deabruaren hizkera erreginaren jauregian

Aspaldikoa da *Donostiako Miramar Erret Landa Etxea*, 125 urte bete ditu aurten. Maria Kristina Espainiako erreginak, Austria eta Hungariako artxidukesa, eraikitzeko enkargua egin zuen bertan oporraldiak igarotzeko. Baina *cottage* ingeles tankerako etxea egin aurretik, bestelako eraikinak zeuden itsas, hiri eta landa eremuak bat egiten zuten leku eder horretan. Miramar Jauregia eraiki zenean, bertan zeuden Illunbe eta Soldaduene izeneko baserriak. Erraz irudikatu ditzakegu *Txolduene* baserriko emakumeak noka erabiltzen etxeko senideekin eta auzoko lagunekin. Euren lurretan ekoiztutakoak saltzeko asmoz azokara joaten zirenean, ordea, ez dakigu nola hitz egingo zieten bezeroei: noka? Zuka? Onintza Legorburu EHUko ikerlariak Antzuolan jasotako lekukotza batek merkatuetan gertatu zitekeenaren inguruko pista interesgarria ematen digu:

Baina hika ez, jendiakin enajonan hi ingo [...] erostea etortzen zienekin!

Antzuolako andre horrek oso barneratua zuen merkatuan hitanoa erabiltzea ez zela egokia. Baina hizkuntza-arau horrek ez zuen berdin funtzionatzen gizonetzkoekin. Legorburuk jasotakoaren arabera, gizonen arteko azokako tratuak tokaz egiten baitziren. Itxuraz, hitanoaren inguruan urte luzeetan zehar garatu izan den ustea hizkera zatarraren irudia da eta, Legorbururen ustez, irudi zabar eta ezkor hori ez da oso ondo egokitzen feminitate hegemonikoaren ikuspegitik.

Karlos Aretxabaleta Deustuko Unibertsitateko ikerlariak Arratian jasotako hainbat lekukotzak ideia hori baieztatuko lukete. Dimako andre bati jaso zion herriko abadeak hitanoa deabruaren hizkera zela esaten zuela. Antzeko ezaugarriak deskribatu zituzten Igorre, Bedia edo Zeanuriko emakumeek: bekatua, gordinkeria, mari-mutilen moldea, baldarra... Garbiñe Bereziartuak jasotako hainbat iritzik uste horiek bizirik mantentzen direla adierazten digute:

Txikitatik gurasuek semiei hika hitz eiteko ohiturie daola iruitze zat ta neskai ez, matxismuen baitan daon iruipena daket, betire hitanue bastuo dan ustie (ustela) badaola ta neskiek txukune izen beharko lukenez, hari zuka.

Kidetasuna eta boterea

Hizkera zatartzat jotzen den hitanoa, beraz, hobeto moldatu izan zaie maskulinitateari egozten zaizkion ezaugarrirei edo gizonak transgresiorako dituen aukera handiagoei. Dena den, gaia aztertzerakoan badugu kontuan hartu beharreko beste gako bat: kidetasuna. Bereziartuak jasotako beste lekukotzak hala azaltzen digu:

Heteropatriarkatuan duela sustraia uste dut. Gizonen (gehien-goetan heterosexuak) arteko 'kolegismoa' indartzeko erabili ohi izan dela. Ezingo nuke zehatz-mehatz azaldu, baina hortik datorrela ziur nago.

Hitanoaren formen erabilerak bizirik dirau zenbait inguruntako gazteen artean, eta, aipatutako ikerketez gain, beste ikerketa batzuek (Josu Ozaitak Tolosaldean edo Iñigo Beitiak Eskoriatzan egindakoek, adibidez) baieztatzen digute kasu guztietan emakumezkoaren forma desagertzeko bidean dela: neska gazteen artean hikaren erabilera oso txikia baita, eta erabiltzekotan gizonezkoen toka forma erabiltzen dutela. Testuinguru horietako mutilen artean, aldiz, hika erabiltzen da lagunarteko hizkera ez-formal gisa.

Begoña Echeverriak 2001ean idatzitako 'Privileging masculinity in the social construction of Basque identity' artikuluan (*Nations and Nationalism* 73, 339-363) hauxe ondorioztatu zuen, euskal 'benetako' identitatean, kultura eta maskulinitatearen artean harreman ikoniko bat sortzen dela hika formaren erabileraren bidez: «hika is primarily a marker of male-male solidarity» (hika gizonen arteko solidari-
tatearen oinarrizko marka da). Hitanoa maskulinitatearen bereizgarri den indarrari lotuta agertuko litzateke eta, batez

ere, mutilen arteko txantxa edo eztabaida solasaldiei. Emakumeen kasuan, ordea, hitanoaren erabilerak gizarte espazio anbiguoagoan kokatzen du.

Euskararen biziberritze prozesuan, hitanoaren sustapena oso interesgarria izan daiteke adiskidetasun adierazpen horrek lagunarteko hizkera edo ahozko hizkuntza ez-formala zabaltzeko bidea eman dezakeelako. Baina kidetasun alderdi hori soilik mutilen arteko harremani lotuta agertzen bazaiagu, Robin Lakoff hizkuntzalariak antzeko auzi baten aurrean aspaldi esan zuen bezala, bi aukera ditugu: mutilen arteko lotura behar hori murriztea edo emakumeen arteko lotura edo, oro har, pertsona guztien artekoa sustatzea.

Hain zuzen ere, Eli Pagola bertsolariak, Hernaniko beste lagun batzuekin batera, joan den urtean emakumeentzat noka ikastaroa antolatu zuen ahalduntze ariketa gisa. Kidetasuna ez baita hitanoarekin jokoan dagoen gizarte elementu bakarra. Iñigo Beitiaren ustez, elkartasunezko harremanarekin batera, boterezko harremana ere zehazten da hika erabiltzerakoan. Pertsona bakoitzak, adinez, generoz, senidetasunez edo maila sozialez duen gizarte-kokapenaren arabera, aurrean dagoenarekin hika hitz egiteko arau batzuk bete behar ditu. Andoni Egañaren hitzetan, bestalde, hika erabiltzeak hurbiltasuna edo gaintetik jarri nahia adieraz dezake. Gauzak horrela, noka erabiltzea ahalduntze prozesua izan daiteke emakumeentzat? Hernanin egindako ikastaroa zabaltzeko moduko esperientzia litzateke?

Hizkuntza performatiboa

Judith Butler filosofoaren arabera, performatibitatearen bidez subjektu bihurtzen gara etengabeko errepikapen eta bazterketa prozesu baten bidez. Gizarte egiturek behin eta berriro gogorarazten digute «neska jokatu behar dugula eta ez mutil» edo «mutil jokatu behar dugula eta ez neska». Amelia Barquínnek komunak horren adibide direla azaldu digu: «Komunen

ateetan jarritako ikurrek bi orduro gogorarazten digute *zer garen eta zer ez garen*».

Hitz horiek entzunda, Juan Carlos Etxegoien *Xamar*-ekin udaberri hasieran izandako elkarrizketa batekin gogoratu naiz. Xamarrek zioen hitanoak etengabe gogorarazten digula mutil edo neska garen, ez du inporta hizketa-gaia zein den, esaldi guztietan *zer haizen eta zer ez haizen* gogorarazten digu. Anne-Marie Lagarde antropologoaren ustez, hori horrela da hitanoak euskara hizkuntza performatiboa bihurtzen duelako. 'Parekidetasuna eta sexu-identitateen eraketa euskal artzain-nekazari jendartean' artikuluan (*Uztaro* 92, 2015, 5-24) dioenez, euskal gizartearen sistemaren giltza euskara da...

... historiaurretik HI bigarren pertsonako izenordainari lotutako hizkuntza performatibo bati esker. Performatibotasun horrek sexu-identitateak eratzen laguntzen du, eta horiek gabe ezin da jendarterik eratu.

Baina, binarismo zorrotza (neska/mutil, emakume/gizon...) zalantzan jartzen ari den garaian, hain banaketa binarioa etengabe performatzen duen hizkera 'zaharrak' galdera berri batzuk sortzen dizkigu. German Urteaga bertsolariak, adibidez, hala itauntzen digu:

Nola egin behar diozu, hika egiten badiozu, ez polo batean ez bestean identifikatzen ez denari?

Butlerrek, apirilean Bartzelonan emandako elkarrizketa batean, honela hausnartzen zuen:

Kontua ez da genero kategoriak guztiz desagerraraztea, hori zientzia-fikzioa da, baizik eta binarismo normatibo hegemonikoa arintzea, 'gizon' eta 'emakume' kategoria ideal horietan erabat sartzen ez diren pertsona horien sufrimendua ekiditeko.

Beraz, hain performatiboa den hitanoarekin zer egin? Mol-datu edo egokitu al daiteke hitanoa binarismo hegemoniko normatibo hori arintzeko?

Zertaz hausnartu behar den gogoratzeko galderak

Miramarko ikastaroaren izenburua galdera bat zen, *Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?*, eta erantzun biribil askorik ez da eman, baina egun hitanoaz egin beharreko galdera batzuk plazaratu ziren. Amelia Barquínek, Eli Pagolak eta nik neuk botatako itaun horietako batzuk jaso zituen Onintza Iruretak *Argia* aldizkarian:

Hitanoa egin daiteke ez bitarra ala ez dago ihesbiderik? Nola erabili hitanoa bere burua binario izan nahi ez duenarentzat? Gizonak prest daude beraiei noka egiteko? [...] Neutroa aukeratuko dugu? Toka aukeratuko dugu denentzat? Edo noka? Bakoitzari galdetuko diogu nola nahi duen? [...] [Binarismo zorrotza] arintze horretan balia dezakegu hitanoa? Tokaren erabilera murriztu behar dugu? Noka indartu behar dugu? Noka denontzako aukeratu behar dugu?

Antton Olariagaren aspaldiko zinta batean, bi gizonen arteko honako elkarrizketa ageri da:

- Erantzunak? Zertarako behar dituk hik erantzunak?
- Zertarako? Galderak gogoratzeko!

Galderak mahai gainean jartzeak zer hausnartu behar den gogoratzeko ere balio du. Loretope gaineko belardian eseri naiz, Ondarreta eta Kontxako hondartzek bat egiten duten lekuan. Koaderno ireki dut eta Karlos Aretxabaletak Igoerreko andre bati jasotako galdera idatzirik ikusi dut:

Geaoten in bea june, eztona? 🌸



Klase (des)agertua

Egun langile klaserik ez dagoela esateari ekin diote eskuineko eta ezkerreko hainbat sektorek. Horretarako tresna anitz baliatu dituzte, batez ere kulturaren arlotik. Xabier Gantzarain saiogilearen *Zuloa* liburuaren merituetako bat izan da gako honetan geldialdi sakona egin izana:

Zailtasun handia dago gaur [...] langile klasearen ideia bat egiteko, sortzeko, irudikatzeke, asmatzeko, erakusteko, definitzeko. Telebistak ez du langilerik erakusten jada. Kanean ez dira ikusten inon, fabrikak hiri eta herrietako aldirietara eraman zituzten aspaldi, gero munduaren aldirietara, eta orain, gaur eta hemen, langile klasea lurrundu egin da, lanbrotu, eta zaila da subjektu homogeneo samar batekin identifikatzea, ezaugarri eta lan baldintza eta problematika antzekoak dituen gizarte klase bat imajinatzea, eta horixe da noski kapitalismoaren garaipen handietarik bat, dena atomizatu da, nork bere arazoak ditu, nor bere egoeraren erantzule bakarra bihurtu da, eta hortxe hasi eta amaitzen da mundua (*Zuloa*, Elkar, Donostia, 2018, 56. or.).

Karrikan eta auzotan langile klasea ikusten dudan arren, bat nator Gantzarainekin. Izugarritzko ahalegina prestatu dute arlo kulturean eta komunikabideetan langile klasea ager ez dadin. Orain dena da 'klase ertaina', 'ekintzaileak', 'enpresariak', 'kontsumitzaileak', 'hiritartasuna' edo 'aberrikidea' entzutea. Dena, langile klasea izan ezik. Nehor ez da soldatapekoa, antza. Komunikabideetan langile klasea agertzen bada, grebatan edo lan istripuetan izaten da era azkar eta laburrean. Bertzerik ez. Estrategia neoliberalak subjektu sozioekonomiko hori desagerrarazi du, eta bere kontzientzia atomizatu. 1987an Margaret Thatcher politikari

kontserbadoreak aurreratu zuen: «Gizonezko gizabanakoak eta emakumezkoak daude, eta familiak daude. Ez dago gizartea bezalako gauzarik». Ikuspegi kapitalista horretatik, ez daukagu ez gizarterik, ez klaserik. Hustutako subjektu liberalak baizik ez gara, telebista ikusten edo sare digitaletan sartzen. Gantzarainen hitzetan:

Hemen datza, telebista, aurrean, ordenagailu aurrean, gorpu bizi, inoiz langile klasea izan zena.

Langile klase elektronikoa berria gara mundu digitaletan, eta debalde egiten dugu lan Twitterrentzat, Facebookentzat, Googlerentzat... baina baita Tele 5 edo ETBrentzat ere, katea aukeratu eta hura ikusten jartzen garen bakoitzean. Kontsumo produktiboa deitu zizaiton garai batean; ez gara ohartzen, hain dago naturalizatua.

Egia da iraultza digitalak mundua errotik aldatu zuela eta gaur zaila egiten zaigula Internet aurreko garaia imajinatu ere egitea. Baina izan, bazen mundu bat, langile klase bat, ongizate estatu bat. Pikutara bidali zuten, ordea, eta ez 2008az geroztik (*Zuloa*, 56. or.).

Langileok –soldatapeko zein prekariook– bagarela ahantzarazi nahi digute. Langileak turismoan aritzen diren gehiengotan, lana ere egiten dute turismoko marken eta aisia-industriagintzaren artean. Saltzen diguten eskarmentu berezira egiten dugu lan, eta gero ordaindu. Turistak, gainera, bere esperientzia estandarizatu apartan ez du grebarik gura, ezta lan-baldintzarik edo lan-istripurik ikusi nahi ere. Turisten mundua politikarik eta klaserik gabekoa da, existitzen ez dena. Hori dela eta, gu bizi garen hiri edo herria beste batentzat paradisia izango da, eta beste baten infernua gure helmuga turistikoa izango da, baldintza sozial eta ekonomikoak ahaztuz gero. Mundua museo bilakatzen da, auzoa posta-txartel bihurtu, eta bizitza dendako oroigarri. Eta dinamika komertzial horretan arrisku bat ezkututzen da, Gantzarainen intuizioak desestali duena:

Intuizioa baino ez da, baina esango nuke arriskua askoz latzagoa dela: turistak gara geure bizitzetan. Ez jasotzen gaituen paisaiaren beraren turistak soilik, zeina berria iruditzen baitzaigu telefonoko pantailatik begiak jasotzen ditugun apurretan, baizik

eta turista, denbora baterako, loturarik gabe, ardurarik gabe, jasotzen gaituen jendearen beraren turista. Kontua ez da gaur ez-lekuak ugaritu direla, Marc Augé terminoa asmatu eta definitu zuenean bezala. Kontua da gaur ez dagoela lekurik, batek ez duela lekurik egiten, ez duela bere lekua aurkitzen, lekuz kanpo sentitzen dela bazter orotan (*Zuloa*, 68. or.).

Bai, mundua turistifikatzea munduan lekua galtzea da, eta bukaeran mundua desagertzea. Gure lurraldea marka bilakatzen den heinean, mundua husten digute. Gantzarainek dioenez, Guggenheim marka bat da, Bilbo marka bat da, Euskadi beste marka bat da, eta marka batek erosleak behar ditu; eta erosle horiek, hein handi batean, turistak dira, baina gure paisaiak, gure auzoak, gure etxebizitzak eta bizitzak dira erosi dutena. Aisia deitzen dutena beste industria-mota bat da, gure denbora eta espazioa ustiatzen duena, existitzen ez den esperientzia berri baten bila. Eta hemen bertze gako bat daukagu, hustutako bizitzek turismoaren tankera hartu dutelakoan:

Turistak gara geure bizitzetan, sartu-irtenean gabiltza, beste bate-nak dirudite gertatzen zaizkigunek, distantzia izugarri bizi dugu geure bizitza. Esperientzia berriak bizitzea nahi duela esaten du gaur egungo jendeak, denek diote gauza bera, esperientzia berri bat. Esperientzia berri bat, dena da esperientzia berri bat: zumbara apuntatzea, liburu bat idaztea, liburu bat irakurtzea ere bai batzuentzat, ezkontzea, enologia ikastaro bat egitea, ETA ez dagoelako, bestela ETAn sartzea ere bai, telebistako reality batera joatea, mundura haurra eskatzea, nahi bezainbat luza daiteke zerrenda, eta den-dena da gauza bera, esperientzia berri bat, eta den-dena dago maila berean, esperientzia berriaren mailan. Oporretan kanpora joatea ere horixe da, esperientzia berri bat (*Zuloa*, 68. or.).

Langile klaserik gabeko kontsumo-kontzientzia turista batena da. Den-dena eskura dago, erosten den bitartean, kapitalak dena berdindu baitu. Gure izaera ere bai. Euskaldunak marka bat dira exotismoaren merkatu zibilizatuan, Itxaro Borda idazleak %100 *basque* eleberrian salatu zuen eran (emakumezko idazle horrek hainbertze gai aurreratu du bere lanetan). Gantzarainek ere Bordaren honako pasarteak ekarri digu gogora:

Gasnaren jabetasun psikologikoak bazuen oinarri sozio-kultural indartsua. Urre zuria trumilka ekoizten zen Euskal Herrian. Ikusten ziren, autoko faroen menpean, gaueko horma haboroxienetan, gasna sal-markak %100 BASQUE moldatzen gintuela deia darkatzen zuten afixak. Beste gasnategi handiak espazio publizitarioak erosten zituen, *Basque de Caractère* omen zen gasnaren goraiatzeko, mesfidanta, biolentoa eta naturak goastatu produktua zela alegia, euskaldunak garen bezala. Azken hilabeteetan ohartu nintzen harriturik bazela ardi gasna mota bat *Qui Parle Basque*, molekuletan benetako taraka-taraka mintzaira hegaldaraziz. Nola deklinatzen zen gasna izugarri horren nortasun agiria? Europako sanotasun neurriei egokitzen zena? Frantziako konstituzioaren bigarren artikulua zer erran? Zirudienez, euskaraduntasuna ukatzen zitzaigun garaiotan, merkatuaren sigi-saga zirristatsuen arte-rik gasnak zekarren gure izatearen hondar zigilu zilegia.

Euskaldunak, %100 basque, exotismoaren bertze marka bat salgai. Indarkeria exotikoa, hizkuntza exotikoa, joko exotikoa, gastronomia exotikoa. Exotismo horretan gurea gastronomia goren da, turismoak goraiatzen duenari. *Berria* egunkarian 2015ean plazaratutako ale batean irakur genezakeen: «Europako jatetxe hoberena, Eneko Atxaren Azurmendi». Eta hurrengo azpitulua: «Opinionated About Dining gidako sortzaile Steve Plotnickik iragarri du Larrabetzuko jatetxea dela kontinenteko onena». 2018ko beste egunkari batean, ordea, honako berria daukagu begi aurrean: «Azurmendik (hiru Michelin izar dituen jatetxeak) bere bekadunak pilatzen dituen sotoa». Eta honako azpitulua: «Jatetxearen azpian Azurmendik 20 metro karratuko hiru gela dauzka, non 36 pertsona –langile eta soldatarik gabeko ikasle– jasotzen dituen. Hor atsedean hartzen dute 12 ordutik 17 ordura arteko lanaldiak egin eta gero». %100 basque, %100 kapitalista. Gastronomia exotikoa eta esplotazio exotikoa ere bai, munduko jatetxerik ekologiko-iraunkor-jasangarrienean, publizitateak iragartzen duen moduan. Turistaren begirada mundurik eta klase sozialik gabekoa da, edo hobe esanda: langile klasea behatu nahi ez duen klasismoz beterikoa da turismoa.

Zuloa liburura itzuliz, bertze susmo beldurgarri bat azalera- tzen da: ikuskizunaren jendartean politika turistifikatu al da?

Agian horixe da gaur kapitalaren parlamentarismoaren patua, non alderdi politikoak marka demokratikoak izatera igaro diren. Gantzarainen goganbeharrak horrelaxe formulatu du:

Egin irribarre, irabaztera goaz eta. Arnaldo Otegiren esaldi hori bihurtu da ezker abertzalearen lelo kuttuna. Baina zer da irabaztea? Hauteskundeak irabaztea?

Demokraziaren festa direla hauteskundeak, horixe entzuten dugu hauteskunde eguna heltzen den aldiro, eta halaxe da, hauteskundeetan demokraziak irabazten du beti, berdin dio zein alderdi nagusitzen den botoetan, berdin dio abstentzioa zenbatekoa izan den, berdin dio gainera alderdiek ze programa dakarten ere, demokraziak irabazten du beti, sistemak alegia.

Eta sistema kapitalista da, oroz gain.

Eta sistema kapitalista denez, alderdiak ere aukeran jarri behar zaizkio balizko boto emaileari, berak nahi duena eros dezan, lau urterako behinik behin. Eta hala, alderdi politikoak, eta baita ideologiak ere, saltzeko moduko produktuak bilakatzea da helburua, eta produktu hori ahalik eta jende gehienari saltzea, beste edozein produktu bezala. Politika erabat komertziala da, beraz. Etengabeko publizitate kanpaina bat (*Zuloa*, 137-138. or.).

Xabier Gantzarainen kezkaren aurrean, 2018ko beste lan bat iruzkindu nahi nuke, osagarri gisa. Aurten berrogeita hamar urte bete dira 68ko Maiatzaren gertakizunak suertatu zirenetik. Hori dela eta, Alain Badiou filosofoak *On a raison de se révolter* liburua argitara eman du. Bere azterketan lau 68ko Maiatz dauzkagu: 1) Lehenengoa, ikasle-maiatza, gazteriarena, Sorbonne unibertsitatea okupatu zuena; 68ko Maiatz hori bertzee zenbait lekutan ere kausitu zen, ez bakarririk Frantzian: Mexikon, Alemanian, Italian, Estatu Batuetan, Txinan, Japonian... 2) Bigarrena, langile-maiatza, Renault-Billancourt geldiarazi zuena, milioika langilek eginiko grebarena, lantegietan eta enpresa multinazionaletan zabaldu zena –altzairutegietan, automobil-lantegietan, petrolio-findegietan, kimika-fabrike-tan, trenbide-sisteman–; 3) Hirugarrena, maiatz libertarioa, kulturalago eta estetikoagoa, Guy Debordek ikuskizunaren gizarteari eginiko kritika, Odéon antzokia okupatu zuena, sexu-askatasuna aldarrikatu zuena ere bai; 4) Eta laugarren

maiatz bat dago, horretaz asko mintzatzen ez bada ere, bandera gorriarena, beste maiatzak batu zituen.

Je soutiendrais volontiers que l'unité politique latente de Mai 68, par-delà ses contradictions véhémentes, c'est le drapeau rouge (*On a raison de se révolter*, Fayard, Paris, 2018, 38. or.) [Gogoz esango nuke 68ko Maiatzaren batasun politiko taupakaria, bere kontraesan suharretatik harago, bandera gorria izan zela].

Denok dakigu nola bukatu zen 68ko Maiatza: kapitalismoak irentsi zuen, eta politika demokratikoak likidatu, Charles de Gaulleren kontserbadorismotik François Mitterranden sozialdemokraziara. Urte gutxitan turistentzako *souvenir* edo oroigarri bilakatu zen. Jendarmeen aurrean barre egiten zuen Daniel Cohn-Bendit ekintzaileak orain Emmanuel Macronen kanpainari laguntza eta babesa eman dizkio. Argazki batean ere ikusi dugu Cohn-Bendit zahartua, Frantziako presidenteari sorbalda bermatzen diola. Irudi ezin grafikoagoa. 68ko Maiatzaren desagerpena izan zen lehenengo abisua, beranduago gertatuko zena iragarri zuena, onerako eta txarrerako.

Badiouk pista bat eman digu gertatutakoa uler dezagun. 1968ko erakundeetako jokalariek zein ihardukitzaileek, komunista ortodoxoek zein ezkertiarrek, maoistek zein troskistek, guztiek hizkuntza komuna erabiltzen zuten: «klaseen lexikoa, klaseen arteko borrokarena, borroken zuzendaritza proletarioarena, masen antolaketa eta alderdiarena» (*On a raison de se révolter*, 38. or.). Gero, erantzunak eta ikuspegiak ezberdinak izaten ziren beraien artean, baina hizkuntza bera baliatzen zuten. Horixe izan zen bandera gorria bera, turistentzako auzoetan eta demokratentzako parlamentuetan agertzen ez dena. 🌐

JAKINEN 226. zenbakian (2018ko maiatza-ekaina), Joan Mari Torrealdairen 'Euskal liburugintza 2016' artikuluan, 'Argitaratzaileen jarduna' deritzon saileko 'Argialetxe nagusien ekoizpena' atalxoan (97. orrialdean), akats larri bat dago: Ikaselkar argitaratzailearen ekoizpena 72 titulura murriztu da, 132 titulukoa denean. Taulan eta horri dagokion iruzkinean zuzenketak egin ondoren, honela gelditzen da atal hori:

Argitaratzaileen jarduna

Argialetxe nagusien ekoizpena: 1.218 titulu

<i>Argialetxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrargitalpenak</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkar	104	152	256	12,4
Edelvives-Ibaizabal	191	6	197	9,6
Santillana-Zubia	144	–	144	7,0
Ikaselkar	38	94	132	6,4
Erein	53	63	116	5,6
Edebé-Giltza	50	66	116	5,6
Anaya-Haritz	83	3	86	4,2
SM-Ikasmina	77	1	78	3,8
Ttartalo	48	13	61	3,0
Pamiela	31	1	32	1,6
<i>Guztira</i>	<i>819</i>	<i>399</i>	<i>1.218</i>	<i>59,1</i>

Hamar argialetxe, handienak eta komertzialak, daude zerrenda honetan. Badira hemen agertzen diren batzuk baino gehiago ekoitzi dutenak, hala nola EHU (86), baina ez dira komertzialak eta pribatuak.

Hamar handien indarra 270 titulutan jaitsi da: Garai batean, gogoan dut, batzuek uste zuten hamar lehenek, horiek edo beste batzuek, gaztaren zati bat ez baizik eta osorik jango zutela. Ez da horrela gertatu. Eta, gainera, badirudi egonkorra dela egoera.

Hamar horien emaitzak ekoizpen osoaren %59,1 suposatzen du (iaz baino 3,8 puntu gutxiago ekoizpen osoan).

Jatorri geografikoari so, bosna dira bertoko eta kanpoko. Hori bai, bertokoak baino pitin bat indartsuagoak dira kanpokoak: %30,5 vs %28 titulu gehiago kanpokoek.

GALTZADA-HARRIEN AZPIAN...



...HONDARTZA ZEGOEN.



zugaz/
art

Jakin ^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

